



GIDA

TOKIKO BERDINTASUN PLANAK DISEINATZEKO, KUDEATZEKO ETA BALIOESTEKO GIDA



BERDINSAREA



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN ELISKAL, ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

TOKIKO BERDINTASUN PLANAK DISEINATZEKO, KUDEATZEKO ETA BALIOESTEKO GIDA



IZENBURUA: "Tokiko berdintasun planak diseinatzeko, kudeatzeko eta balioesteko gida"

EDITORE KIDEAK: EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarte eta EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea

DISEINU GRAFIKOA

ETA MAKETAZIOA: ARRIN Komunikazioa eta Diseinua

ALE-ZENBAKIA: 1.000

DATA: 2008ko azaroa

INPRIMAKETA: Gráficas Santamaría

L.G.: VI-518/08



EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartek eta EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundeak 2006an sortutako Berdinsarea Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Sarea sustatzeko konpromisoa garatzen dihardute. Gaur egun Euskal Herriko 41 udalerriek parte hartzen dute sare horretan, eta EAEko biztanleen % 69 hartzen dute guztira.

Hala, gaur egungo legeen testuinguruan, Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearekin, lanerako tresna berri bat jarri dugu udal eta mankomunitateen esku. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legean eta EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana, VIII. Legegintzaldiko jarraibideetan oinarritutako argitalpena da Tokiko berdintasun-planak diseinatzeko, kudeatzeko eta balioesteko gida. Tokian tokiko berdintasun-planak garatzeko laguntza-tresna izatea nahi da, emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen 7. artikuluan zehazten diren tokiko administrazioen funtzioak bete araziz.

Gida hau lan luze baten emaitza da, eta Berdinsareako udaletako berdintasun-arloen eta bestelako sektoretako arloen eta Eudel eta Emakunderen arteko lankidetzari esker sortu da. Burututako lanak asko izan dira, lan biziak, eta horri esker, hainbat udalerritan garatutako praktika egokiak bildu dira dokumentuan. Hala, tokian tokiko errealitatera egokitzen da dokumentua, aplikazioa errazteko.

Tokian-tokian berdintasun-politikak sustatzearen alde lanean dihardugu, eta argitalpen honekin lan horiek erraztea espero dugu, izan ere, politika horien ezarpenean tokian tokiko gobernuei laguntza eskaintzea espero baitugu.

JOKIN BILDARRATZ
EUDEL-Euskadiko Udalen
Elkarteko presidentea

IZASKUN MOYUA
EMAKUNDE-Emakumearen Euskal
Erakundeko zuzendaria

AURKIBIDEA

SARRERA	11
LEHENENGO ZATIA:	
1. TOKIKO BERDINTASUN PLANAK DISEINATZEKO, KUDEATZEKO ETA BALIOESTEKO ORIENTABIDEAK	15
1.1. TOKIKO BERDINTASUN POLITIKEN TESTUINGURUA	17
1.1.1 Berdintasunerako tokiko planen araudiaren eta legeen esparrua . . .	19
1.1.2 Berdintasunerako politikak Udaletako plangintzaren testuinguruan .	27
1.1.3 Tokiko berdintasun politiken ibilia	33
1.2. TOKIKO BERDINTASUN PLANEN DISEINURAKO ORIENTABIDEAK	37
1.2.1 Berdintasun plana egitearen aurretikoak: arrakastarako faktoreak . .	39
1.2.2 Diagnosiak egitea	42
1.2.3 Helburuak zehaztea	46
1.2.4 Egitura zehaztea	48
1.2.5 Zirriborroa egitea	59
1.2.6 Udalbatzan balioetsi eta onartzea	61
1.2.7 Berdintasun plan bat diseinatzeko prozedura laburtua	62
1.3. TOKIKO BERDINTASUN PLANAREN KUDEAKETA ETA BILAKAERA	65
1.3.1 Berdintasun planaren kudeaketaren aurretikoak: kudeaketarako egiturak sortzea	67
1.3.2 Urteko programazioa	70
1.3.3 Jarraipena	73
1.3.4 Balioespena	76
1.3.5 Parte hartzea	83
1.3.6 Prestakuntza	87
1.3.7 Komunikazioa	90

1.4. EXISTITZEN DIREN TOKIKO BERDINTASUN PLANEN EGOKITZAPENA . . .	93
ERANSKINAK	97
1. eranskina Garapen teknologikoaren deskribapena, erabilitako tresnak eta teknikak	97
2. eranskina Berdintasun arloko udal plangintzaren dignostikoa: berdintasunerako tokiko planen ezaugarriak, sendotasunak eta ahultasunak	102
 BIGARREN ZATIA (CD-n bakarrik):	
2. BERDINTASUNAREN ALDEKO TOKIKO PLANEN HELBURUAK ETA EGINTZAK ZEHAZTEKO ORIENTABIDEAK	119
2.1 NEURRI OROKORRAK	121
2.1.1 Berdintasunaren aldeko oinarritzko neurri orokorren planteamenduari buruzko sarrera	123
2.1.2 Edukien zerrenda	126
2.1.3 Edukien garapena xedeen arabera	130
2.2 KULTURA	159
2.2.1 Kulturaren arloko planteamenduari buruzko sarrera	161
2.2.2 Edukien zerrenda	164
2.2.3 Edukien garapena xedeen arabera	167
2.3 HEZKUNTZA	189
2.3.1 Hezkuntzaren arloko planteamenduari buruzko sarrera	191
2.3.2 Edukien zerrenda	194
2.3.3 Edukien garapena xedeen arabera	197
2.4 LANA	213
2.4.1 Lanaren arloko planteamenduari buruzko sarrera	215
2.4.2 Edukien zerrenda	218
2.4.3 Edukien garapena xedeen arabera	222

2.5 GIZARTERATZEA	245
2.5.1 Gizarteratzearen arloko planteamenduari buruzko sarrera	247
2.5.2 Edukien zerrenda	250
2.5.3 Edukien garapena xedeen arabera	255
2.6 OSASUNA ETA DROGAZALETASUNAK	283
2.6.1 Osasunaren eta drogaletasunaren arloko planteamenduari buruzko sarrera	285
2.6.2 Edukien zerrenda	287
2.6.3 Edukien garapena xedeen arabera	289
2.7 HIRIGINTZA, GARRAIO PUBLIKOA ETA INGURUMENA	305
2.7.1 Hirigintzaren, garraio publikoaren eta ingurumenaren arloko planteamenduari buruzko sarrera	307
2.7.2 Edukien zerrenda	311
2.7.3 Edukien garapena xedeen arabera	314
2.8 LANKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEAK	331
2.8.1 Lankidetzaren eta giza eskubideen arloko planteamenduari buruzko sarrera	333
2.8.2 Edukien zerrenda	335
2.8.3 Edukien garapena xedeen arabera	337

Berdintasun-politikek aldaketa eta bilakaera itzelak jasaten ari diren testuinguruan kokatu da proiektu hau. Aldaketak gaitasun arautzailea edota plangintzakoa eta kudeaketakoa duten esparru eta ildoetan nabari dira, besteak beste:

- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako.
- 3/2007 Lege organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunerako.
- Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plan. VIII. Legegintzaldiko jarraibideak.

Dokumentu honen helburu nagusia berdintasunaren alorrean Euskal herriko udal askok garatzen ari diren planifikaziorako eta jardueretarako orientabidea egingo duten ezagutzak, tresnak eta prozesuak biltzea da, aipatu erreferentziazko dokumentuak kontuan hartuta.

Hori guztia tokian tokiko planetako edukien diseinuan, egituran eta kudeaketarako tresnetan zehaztuko da, baita helburu eta ekintza egokienetan ere.

Dokumentu hau lantzeko prozesuak izaera kualitatiboa izan du (1), eta udaletako berdintasun-eragile eta langile tekniko askoren parte-hartzea lagun izan dugu. Bi profilok konbinatzearekin esperientzia berritzailea abian jarri da eta eztabaidarako eta egiaztapenerako maila positiboa eta aberasgarriagoa sustatu ahal izan da.

Bestalde, izaera praktikoa ere izan du eta dimentsio guztiz pedagogikoa, behekoetara bideratuta:

- Ezagutzak areagotzeko oinarrizko tresnak eskuratzea.
- Berdintasun-politiken plangintzari buruz ikastea.
- Esperientziak trukatzeko.
- Berdintasunerako udal-politiken diseinuan eta kudeaketan elkarren arteko hausnarke-ta egiteko urratsak ematea.

(1) Garatutako prozesu metodologikoari buruzko informazio gehiagorako ikus 1. eranskina.

Prozesu horren guztiaren emaitza da produktu hau bi zatitan banatua:

1. zatia: Berdintasun-planak diseinatzeko orientabideak, honekin batera aurkeztutakoa, honakoak ezartzen ditu:

Esparru kontzeptuala, beheko deskribapenekin:

- Berdintasun-politikak planifikatzeko eta dokumentu hau egiteko erabili diren erreferentziazko dokumentuak;
- berdintasunerako planak zein testuingurutan hartu behar diren;
- berdintasunean plangintzak egitearen bilakaera eta erronkak.

Berdintasun-planak diseinatzeko gomendioak:

- diagnosiak egiteko praktika egokiak;
- helburuen definizioa;
- egituraren diseinua;
- zirriborroaren definizioa, balioespena eta onartzea.

Kudeaketa-prozesuen diseinurako gomendioak: tokiko planen plangintza, jarraipena, balioespena, prestakuntza, komunikazioa eta parte-hartze lanetarako urratsak zehaztu dira.

2. zatia: Berdintasunaren aldeko tokiko planen helburuak eta egintzak zehazteko orientabideak, CD euskarrian aurkeztu da eta beheko arloetan egindako lanak biltzen dira bertan:

Neurri orokorrak

Kultura

Hezkuntza

Lana

Gizarteratzea

Osasuna eta drogazaletasunak

Hirigintza, garraio publikoa eta ingurumena

Garapenerako Lankidetza eta Giza Eskubideak

Arlo bakoitza jorratzean honakoak biltzen dira: gaiari buruzko sarrera, helburu eta egingtzak biltzen dituen taula eta helburuaren arabera edukien garapena (helburuok lortzeko jarraitu behar diren prozesuak zehatz-mehatz azaltzen dira).

Plan bat diseinatu aurretik plan hori ezarriko den errealitate instituzional eta sozialera egokitzea ezinbestekoa da, frustrazioak ekidingo dituen plangintza egingarriak lortu nahi badira. Beste testuinguru batean arrakastaz ezarri den praktika egoki bat edo egintza ideal bat aplikatzea baino garrantzitsuagoa da errealitatearen arabera plangintza eta programazioa egitea, erreferentziazko esparruan aplikatzea ezinezkoa izan baitaiteke. Eta ager daitezkeen aukerak aprobetxatu behar dira bi ikuspuntu kontuan hartuta: errealista eta estrategikoa (epe ertain edota luzea egiteko bidea zehaztuko duena).

GARRANTZITSUA



Hala, tokiko berdintasun-planak diseinatzeko lanean laguntzeko orientabideak bildu dira dokumentu honetan, baina ezaugarrietan, antolakuntzan eta berdintasun-politiken garapenean oso desberdinak diren udalerrietara helduko dela kontuan izan behar dugu, eta beraz, udalerri bakoitzaren errealitate eta beharretara egokitu beharko dira orientabideok.

1.

**TOKIKO BERDINTASUN
PLANAK DISEINATZEKO,
KUDEATZEKO ETA
BALIOESTEKO
ORIENTABIDEAK**



lehenengo zatia

1.1

TOKIKO BERDINTASUN POLITIKEN TESTUINGURUA

Ondorengo testuak hartuko dira erreferentziatzat:

- **Europako Gutuna** Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako.
- **7/1985 Legea**, apirilaren 2koa, Tokiko Oinarriak arautzen dituen (2003/12/21ean eguneratua).
- **4/2005 Legea**, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako.
- **4/2007 Lege organikoa**, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunerako.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako **IV. Plana**. VIII. Legegintzaldiko jarraibideak.

Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako

Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseiluak emakumeen eta gizonen berdintasunerako EBko 5. ekintza-programaren esparruan garatutako proiektua. 2005-2006.

http://www.ccre.org/docs/charte_egalite_es.pdf

http://www.ccre.org/docs/charte_egalite_ba.doc

Helburuak eta premisak

“Europako tokian tokiko eta eskualdeko gobernuentzako da. Izan ere, sinatzera, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren inguruko jarrera publikoa hartzera eta gutunean zehaztutako konpromisoak euren lurraldean ezartzera gonbidatzen ditu”.

“Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna pertsona guztien oinarritzko eskubidea da, eta, horrez gain, demokraziarako funtsezko balioa ere bada” premisan oinarritzen da.

Lege-aintzatespen horretaz gain, esparru guztietako tresnak ere egikaritu beharko dira: esku-bide hori bermatuko duten esparru politikokoak, ekonomikoak, gizartekoak eta kulturakoak.

Tokiko berdintasun- politiketako erreferentziak

Testuinguru horretan, **tokian tokiko eta eskualdeetako agintarien zeregina** funtsezkoa da, herritarrentzat hurbilen dauden erakundeak baitira eta “esku hartzeko maila egokienak dira, desberdintasunen iraupenari zein ugalketari aurre egiteko eta benetako berdintasuna eskaintzen duen gizartea sustatzeko”.

EUDEL- Euskadiko Udalen Elkartea proiektuko **erakunde bazkide** da, Gutunaren idazketan parte hartu eta sinatu du beste hainbat erakunderekin batera: Udalak, Udalerri-batasunak, udalerrien federazioak, etab.

Gutunarekin bat egin duten Udalek bertan ezarritako printzipioak eta lehentasunak hartuko dituen berdintasunerako Ekintza Plana bi urteren buruan egin eta ezartzeko konpromisoa

hartu dute. Ekintza Plan horrek ezarpenerako behar adinako baliabideak bildu beharko ditu, parte-hartzailea izan beharko du, ezagutzera eman beharko da eta balioespen-irizpideen arabera izango da.

Egitura

Lehen zatia: filosofia eta idazketaren oinarri diren printzipio orokorrak aditzera ematen ditu.

Bigarren zatia: Gutunaren eta bere konpromisoen ezarpena adierazten dira, eta titulu eta artikuluetan antolatzen da (guztira: 30). Artikuluak titulu nagusi hauen barruan sartzen dira:

- Erantzukizun demokratikoa
- Zeregin politikoa
- Berdintasunerako esparru orokorra
- Enplegu-ematearen zeregina
- Lehiaketa eta kontratu publikoak
- Zerbitzu-ematearen zeregina
- Plangintza eta garapen iraunkorra
- Arautzeko zeregina
- Senidetzea eta nazioarteko lankidetzak

7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko Oinarriak arautzen dituenak

BOE, 1985eko apirilaren 3koa, 80. zk.

http://www.boe.es/g/es/bases_datos/doc.php?coleccion=iberlex&id=1985/05392

Tokiko berdintasun- -politiketikiko erreferentziak

28. artikuluan adierazten denez, bestelako Herri Administrazioek burutzen dituzten jardueraz gain udalek jarduera osagarriak ere egin ditzakete, bereziki gai hauen ingurukoak badi-ra: hezkuntza, kultura, emakumeen sustapena, etxebizitzak, osasuna eta ingurumenaren babesa.

Hala, testuinguru honi jarraiki, Tokiko Administrazioaren inguruko aipamena oso argia da eta udalek generoaren gaian herritarrek dituzten beharrak asetzeko jarduerak eta zerbitzuak garatzeko legez duten ahalmena aditzera ematen du. Gainera, ez dira bestelako Herri Administrazioek garatutakoekiko kalte edo oztopo izango (2).

4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako

EHAA, 2005eko martxoaren 2koa, 42. zk.

http://www.emakunde.es/images/upload/LeyIO_e.pdf

Premisak

EAEko berdintasun-politiketan gertaera garrantzitsua izan da Lege hau indarrean jartzea, gai honen inguruan Euskadiko Herri Administrazioaren politikak garatzeko tresnak eta arauak planteatzen baitira bertan. Legearen **esparruan**, beraz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean administrazio bakoitzari dagozkion funtzioak zehazten dira, eta euren eskumenen barruan, botere publikoei emakumeen eta gizonen arteko berdintasunera-

(2) "Documento Marco para la Gestión de las Políticas Locales de Igualdad". Espainiako Probintzien eta Udalerrien Federazioa, Berdintasun Arloa, Madril, 2006.

ko baldintzak egiazki eta modu eraginkorrean sustatu eta oztupoak ezabatzea derrigortzen die, eta euren politikan eta ekintzetan berdintasuna sustatzera ere derrigortzen die. Eskumen horiek honako testuetan bilduta datoz: Autonomia Estatutuaren 10.39. artikuluan; Lurralde Historikoen Legeko 6. eta 7. eta c) 2 artikuluetan; Estatutuko Arauetako 9.2. artikuluan; eta Europar Batasunaren Ituneko 3.2. artikuluan.

Egitura

Sei titulutan **egituratzen** da, eta horietan lehena hitzaurrea da. Legearen helburuak eta aplikazio-esparruak zehazten dira bertan.

Gainera, Euskadiko botere publikoek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan gauzatu behar dituzten jardueren oinarritzko printzipioak ezartzen ditu: tratu-berdintasuna, aukera-berdintasuna, aniztasunarekiko eta ezberdintasunarekiko errespetua, genero-ikuspuntua ezartzea, ekintza positiboa, sexuaren araberako rolak eta estereotipoak ezabatzea, ordezkaritza orekatua eta koordinazioa eta lankidetzak.

I. tituluan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, Foru Administrazioek eta Udal Administrazioek dituzten eskumenak eta funtzioak zehazten dira, eta erakundeen antolaketa eta Euskadiko Herri Administrazioen arteko koordinazio-egiturek nolakoak izan behar duten adierazten da.

II. tituluan Euskadiko botere eta herri-administrazioen jardueretan genero-ikuspuntua barneratzeko neurriak arautzen dira (plangintza, estatistika eta ikerketen hobekuntza, langileak gaitzea, administrazioko arauetan eta jardueretan berdintasuna sustatzeko neurriak...).

III. tituluan emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna sustatzeko neurriak arautzen dira, Autonomia Estatutuak EAERI eskaintzen dizkion eskumenetan oinarrituta (parte-hartze sozipolitikoa, kultura eta komunikabideak, hezkuntza, lana, beste hainbat oinarritzko gizarte eskubide, laneko, etxeko eta norberaren eginkizunak onetz bateratzea, eta emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko neurriak).

IV. tituluan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea sortzen eta arautzen da. Erakunde hori organo berria eta independentea da, ondoko xedea duena: EAEn tratu berdinen printzipioa betetzen den behatzea, eta sektore pribatuan sexuaren zioz gerta litezkeen balizko egoera edo eginera baztertzailetatik herritarrek babestea.

Azkenik, bosgarren tituluan emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan egongo diren arau-hausteak eta zehapenak zein izango diren ezartzen da.

Tokiko berdintasun-politikekiko erreferentziak

I. kapituluko II. tituluan zehazten da berdintasun-politika publikoen plangintzak nolakoak izan behar duen. Hala, 15.1. artikuluan hauxe dio: *“Legegintzaldi bakoitzean, Eusko Jaurlaritzak plan orokor bat onetsi behar du. Plan horretan, hain zuzen, euskal herri-aginteei emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izango dituzten jarduerak orientatzeko jarraibideak eta gidalerroak modu koordinatu eta orokorrean jasoko dira”*.

Eta 15.3. artikuluan hauxe dio: *“(...) Foru-aldundiek eta udalek berdintasunerako planak eta programak onetsiko dituzte, Eusko Jaurlaritzaren plangintza orokorrean ezartzen diren jarraibide eta gidalerroekin bat; halaber, eta horretarako beharrezkoak diren baliabide*

materialekin eta ekonomi eta giza baliabideak eskainita, beren sail, erakunde autonomo eta menpean edo lotuta dituzten gainerako ente publikoetan aipatutako planek eta lege honek jasotzen dituzten neurriak benetan eta modu koordinatuan betetzen direla bermatuko dute. Udalek banaka zein kide diren edo ondore horietarako osa ditzaketen mankomunitateen bidez egin ditzakete jarduketara horiek.”

Sustapenerako eta koordinaziorako egiturei dagokienez, honela dio Legearen 10. artikulua: “Foru- eta toki-administrazioek, bakoitzak bere burua antolatzeko dituen eskumenen eremuan, beren egiturak egokitu behar dituzte, halako moduz non administrazio bakoitzak emakumeen eta gizonen berdintasun-politikak bultzatu, programatu, ebaluatu eta horiei buruzko aholkuak ematen jardungo duen erakunde, organo edo administrazio-unitate bat izango baitu, gutxienez, dagokion jarduera-eremuan”.

Prozeduraren inguruan, berriz, Legearen 15.4. artikulua haxe dio: “Aurreko bi paragrafoetan aipatutako planak eta programak onetsi aurretik, horiei buruzko txostena eman behar du Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak, zehazteko, hain zuzen, plan eta programon edukiak bat datozen legegintzaldi bakoitzaren hasieran Eusko Jaurlaritzak, I. paragrafoan xedatutakoari jarraiki, onetsi behar dituen jarraibideekin eta gidalerroekin”.

Finantziarioi dagokionez, egokitutako aurrekontuak urteko programazioan zehaztu behar direnez, honela dio 14. artikulua: “Administrazio autonomiko, foral eta lokalek, urtero, lege honetan jasotzen diren eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten ekonomia-baliabideak izendatuko eta zehaztuko dituzte bakoitzaren aurrekontuetan”.

Legeak zehazten dituen Tokiko administrazioaren funtzioak

- Berdintasun arloko programazio edo plangintzen diseinua, baita jarraipenak eta ebaluazioak egiteko mekanismoak ere.
- Tokian tokiko esparruan ekintza positiborako neurriak abian jartzea.
- Gobernuaren plangintza orokorraren eta Foru Aldundien programazioen arloaren barruan tokian tokiko esparruko programazioa.
- Estatistika eguneratuak egokitu eta mantentzea, tokian tokiko esku-hartze ezberdinetan emakumeek eta gizonek duten egoera ezberdina ezagutaraziko baitigute.
- Tokian tokiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko ikerketak egin.
- Emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunen inguruko eta berdintasuna sustatzeko beharrezkoak diren neurrien inguruko sentsibilizazio-jarduerak antolatu tokian-tokian.
- Tokiko araudiaren eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arabera aplikatzen den ala ez jarraipena egin.
- Herritarrei eta bereziki emakumeei zuzendutako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko baliabide eta programei buruzko informazioa eta aholkularitza, baita diskriminazio anitzak jasaten dituzten emakumeentzako oinarritzko gizarte-eskubideak eskuratzea bermatzera bideratutako programa eta zerbitzuei buruzkoa ere.
- Diskriminazio anitzak jasaten dituzten emakumeentzako oinarritzko gizarte-eskubideak eskuratzea bermatzera bideratutako programa eta zerbitzuak eskaintzea, izaeragatik tokian-tokian eskaintzekoak badira.
- Emakumeen eta gizonen laneko, etxeko eta norberaren eginkizunak onez bateratzeko baliabide eta zerbitzu soziokomunitarioak ezarri, izaeragatik tokian-tokian eskaintzekoak badira.

- Euren jarduerak tokian-tokian emakumeen ate gizonen arteko berdintasuna lortzera bideratzen dituzten erakunde publiko nahiz pribatuekin parte hartzeko eta lankidetzan jarduteko harremanak eta bideak ezarri.
- Tokiko esparruan gertatzen diren sexuaren arabera diskriminazio-egoerak antzeman eta horiek desagerrarazteko neurriak hartu.
- Euren eskumenen barruan egiteko eskatzen zaien bestelako funtzioak.

3/2007 Lege organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunerako

BOE, 2007ko martxoaren 23koa, 71. zk.

http://www.boe.es/g/es/bases_datos/doc.php?coleccion=iberlex&id=2007/06115

Oinarrizko testuak

1979an Nazio Batuen Batzar Orokorrak onartutako (eta Espainiako Estatuak 1983an berretsita) CEDAW edo Emakumeen aurkako Indarkeria Mota guztiak Desagerrarazteko Hitzarmena, eta Nairobi (1985) eta Beijing-eko (1995) mundu-batzarretatik ateratako testuak.

Premisak eta Helburuak

Premisa hauek ezarri dira:

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna *"giza eskubideei buruzko nazioarteko testuetan aintzatesten den printzipio juridiko unibertsala da"*.
- Formazko berdintasuna legearen aurrean aintzatestea oinarrizko alderdia da, baina ekintza arautzaileaz osatu behar izango da, *"gaur egun existitzen diren sexuaren arabera diskriminazio-adierazpen (zuzeneko nahiz zeharkako) orori aurre egiteko, eta emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna lortzeko, hori erdiestea ekiditen duten oztopo eta estereotipoak desagerraraziz"*.

Gainera, botere publikoen jardueretarako printzipioak ezartzen dira, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren sustapenean pertsona fisiko eta juridikoen (publiko nahiz pribatu izan) eskubide eta betebeharrak arautzen dira, eta sektore publiko eta pribatuetan sexuagatiko diskriminazio-mota guztiak desagerrarazteko eta zuzentzeko neurriak aurreikusten dira.

Printzipioak

Besteak beste *"Ekintza Positiboaren"*, *"Ordezkaritza orekatuaren"* eta *"Zeharkakotasunaren"* printzipioetan oinarritzen da.

Lehenengoaren arabera, berdintasun osoranzko bidea ahalik eta azkarren egin ahal izateko berariazko neurriak hartu beharko dira, ezberdinak direnei berdintasunez tratatzean desberdintasunak betikotzen dituela suposatuz.

Bigarrenarekin, ardurazko organo eta karguetan bi sexuek ordezkaritza esanguratsua izatea nahi da.

Hirugarrenarekin, berriz, genero-desberdintasuna gainditzeko bideetako bat gizarte-jardueraren esfera guztietan garatuko diren ekintzetan oinarrituta dagoela uste da.

Egitura

Egitura hau du: Atariko Titulua, zortzi titulu, hogeita hamaika xedapen gehigarri, hamaika xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta zortzi azken xedapen.

Atariko Tituluan Legearen xedeak eta aplikazio-esparrua zehazten dira.

Lehenengo Tituluan berdintasunari buruzko kontzeptu eta oinarrizko maila juridikoak zehazten dira (zuzeneko edo zeharkako diskriminazioa, sexu-jazarpena, ekintza positiboak, etab.)

Bigarren Titulua bi kapitulutan antolatuta dago. Lehenengoan botere publikoek berdintasunaren alorrean garatu behar dituzten ekintzen oinarrizko jarraibideak ezartzen dira, zeharkakotasunaren printzipioa definitzen da eta arauak egitean, exekutatzean eta aplikatzean nola barneratuko duten tresnak zehaztu dira. Bigarrenean, hezkuntzaren, kultura eta osasunaren, informazioaren gizartearen, kirolen, landa-garapenaren, hirigintza-politiken, lurralde-antolamendu eta etxebizitzako politiken eta garapenerako lankidetzaren politiken esparruan politika publikak bideratzeko irizpide orokorrak ezartzen dira; kontratazio eta dirulaguntza publikoei buruzko artikuluek gain.

III. Tituluan tresnak lantzen dira: gizarteko komunikabideetan berdintasuna sustatzeko neurriak. Jabetza publikokoak eta jabetza pribatukoak bereizten dira neurri eta kontrolerako mekanismoen artean.

IV. Tituluan aukera-berdintasunean lana eta enplegua eskuratzeko eskubidea lantzen da, eta enplegua eskuratzeko, laneko prestakuntza edo sustapenetan eta lan-baldintzetan berdintasuna bermatzeko neurriak definitzen dira.

V. Tituluaren I. kapituluan enplegu publikoko berdintasuna arautzen da eta II. kapituluan, berriz, Estatuko Administrazio Orokorreko zuzendaritza-organismoetan emakumeen eta gizonen agerpenean berdintasuna arautzen da. III., IV. eta V. kapituluetan Estatuko Administrazio Orokorren esparruko enpleguan berdintasunerako neurriak eta Indar Armatueta eta Segurtasunerako Indar eta Gorputzetan berdintasunaren printzipioak arautzea lantzen dira.

VI. Tituluan ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko eta horniduran tratu-berdintasuna lantzen da, bigarren kasua bereziki.

VII. Tituluan berdintasunaren arloan enpresetan ardurak sozialeko borondatezko ekintzak eta merkataritza-elkarteetako administrazio-batzordeetan emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua sustatzea lantzen ditu.

VIII. Tituluan antolakuntza-xedapenak ezartzen dira, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Ministerioen arteko Batzordearen sorrerarekin, eta ministerio bakoitzean Berdintasunerako Unitateen sorrerarekin.

Gainera, Legearen bitartez Emakumeen Parte Hartzearen konstituzioa zehaztu da, erakundeen parte-hartzeko kide anitzeko organo moduan.

Legean *"Espainiako politika publikoen orokortasunen (Estatukoak, Autonomia Erkidegoetakoak eta Tokian Tokikoak)"* inguruko erreferentziak ematen dira, Konstituzioan oinarrituta (9.2. eta 14. artikulua). Izan ere, Konstituzioaren arabera Estatuak da eskubide konstituzionalak betetzeko pertsona guztien berdintasuna bermatzeko duten oinarrizko baldintzak arautu behar dituenak. Testuinguru horretan Legeak Estatuaren eskumen (oinarrikoak edo legegile osoak) guztien arauaketa modu zehatzagoan garatzen du.

21.1 artikulua dioenez, *“tokian tokiko erakundeek berdintasun-eskubidea barneratuko dute euren eskumenetan eta gainerako Herri Administrazioei lagunduko diete zentzu horretan”*. Hala, 3/2007 Legearekin Toki Administrazioen eskumen propioak zehazten dira, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Tokiko Erregimenaren Oinarrizko Arauak ezartzen zituenak, oro har emandako eskumenak eta Euskadiko udaletarako otsailaren 18ko 4/2005 Legean berariaz ezarritakoak.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana. VIII. Legegintzaldiko jarraibideak.

www.emakunde.es/images/upload/IVPI_c.pdf

Premisa

Premisa honetan oinarritzen da: “Euskadiko berdintasun-planetan garapen-maila handia lortu dugu, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren helburua erdiesteko beharrezkoak diren jardunak biltzeari dagokionez”, eta gainera, “badute gabezia garrantzitsu bat: estrategia bat definitzea ... aukeran izan daitezkeen gainerako bideen gainetik” planteatzen da.

Funtzioak

Otsailaren 18ko 4/2005 Legean oinarrizko lau funtzio ezarri dira EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren diseinua eta egiturarako:

- Plana gauzatzera, botere publikoen jarduna arautu behar duten oinarrizko printzipioak ezartzea (Atariko Titulua).
- Euskadiko botere eta administrazio publikoen jardunetan genero-ikuspuntua barneratzeko neurriak arautzea.
- Esku-hartze arloetan berdintasuna sustatzeko neurrien eginkizun eratzailea (III. Titulua).
- Oinarrizko edukiak definitzea.

Egitura

Ardatz estrategikoak:

Berdintasunaren arloko oinarrizko esku-hartzeen esparruak zehazten dituzte:

- Mainstreaminga
- Ahalduntzea eta gizartearen eta politikaren arloko parte-hartzea
- Bategarritasuna eta erantzukidetasuna
- Emakumeen aurkako indarkeria

Arloak:

Ardatzetako bakoitzean administrazioak landu behar dituen arloak dira:

- Berdintasunerako zerbitzu orokorrak
- Kultura
- Hezkuntza
- Lana
- Gizarteratzea
- Osasuna
- Hirigintza, garraio publikoa eta ingurumena

Ardatz estrategikoak eta arloak egituratzea:

Arlo bakoitzean lau ardatzak lantzen dira: mainstreaminga, ahalduntzea, erantzukidetasuna eta indarkeria. Horretarako, arlo bakoitza **programetan** banatzen da, eta programa bakoitzean **helburu** bat edo batzuk lantzen dira. Horretarako, **estrategia** bat sortu eta **ekintzetarako** proposamenak ematen dira.

Poliki egin beharreko prozesua da, beheko puntuak kontuan hartuko dituen:

- Indarrean dagoen erreferentziazko berdintasun-planaren dokumentua aztertu, Udalen eskumeneko helburuak zeintzuk diren zehazteko.
- Udalerriko gizartearen beharrei buruzko diagnosia egin eskura dagoen informazioan oinarrituta nahiz ad hoc ikerketa eginez.
- Indarrean dagoen berdintasunerako planaren dokumentuak ezarritako ildoei eta beharren diagnosari jarraiki planaren indarraldian Udalak planteatuko dituen lehentasunezko helburuak zehaztu.
- Helburuak lortu ahal izateko gomendatutako estrategien eta ekintzen ezarpenaren bideragarritasuna aztertu, eta ez-bideragarritzat jotzen diren helburuen ordezkotzat alternatiba bideragarriak bilatu.
- Helburuak lortzeko planteatzen diren jardueren multzoa zehaztu.
- Balioespenerako adierazleak, arduradunak eta ekintzak urtean zehar nola banatuko diren ezarri.

Gainera, eta prozesuan proposatutako pausuak alde batera utzi gabe, arlo bakoitzak urteroko programazioa bilduko duen dokumentua egitearen beharra planteatu da, urtean zehar garatu beharko diren jarduerak, lortu nahi diren helburuak, arduradunak nortzuk izango diren eta horretara bideratutako aurrekontua zehaztuko dituen.

1.1.2

BERDINTASUNERAKO POLITIKAK UDALETAKO PLANGINTZAREN TESTUINGURUAN

BERDINTASUNERAKO POLITIKEK UDAL POLITIKEKIN DUTEN LOTURA: LEGEGINTZALDIA, BERDINTASUN-POLITIKEN EREMU

Tokiko edozein politika publikoren arrakastarako oinarrizko osagaietako bat gobernu-programaren azpian dagoen Udalaren proiektuaren eta helburu eta planteamenduen arteko bat egitea da.

Udalan ardura politikoa duten pertsonak legegintzaldirako helburuak zehazten dituzte, dela berdintasun-politiken ingurukoak, dela gainerako politika publikoetakoak, zeharkakoak nahiz sektoreetakoak. Horien guztien artean bat egin eta koordinatzeko ahalegin berezia egin beharko da.

Plan baten iraunaldi hoberena Udal bakoitzaren ezaugarri eta egoeren araberakoa da, eta zenbaitetan ez dator bat legegintzaldiekin. Dena den, ahal den neurrian tokian tokiko berdintasun-planek lau urteko iraunaldia izatea gomendatzen da, legegintzaldiko helburuen barruan sartzeko.

ZEHARKAKOTASUNA ETA BERDINTASUN-POLITIKAK

A) Berdintasun-politika zeharkako politika moduan, edo politika guztietan genero-ikuspuntua nola barneratu

Zeharkakotasuna da berdintasun-politika orok izan behar duen funtsezko ezaugarrietako bat, benetan eraginkorrak izatea nahi bada. Oinarrizko bi estrategietan oinarrituta garatu dira:

Genero-ikuspuntua barneratzeko estrategia edo generoaren “mainstreaminga”. Politika publiko guztietan desberdintasunak ezeztatu eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko oinarrizko helburuak sartzea da, diseinuaren fasetik hasi eta ebaluazioaren faseraino batzuen eta besteen baldintzak eta kokapenak kontuan hartuta.

Erakunde guztiak beren politikak diseinatzeko gaitasuna izatea da, eta abiapuntuko helburuetako bat genero-desberdintasunak ezeztatu edo gutxitzea izan behar da.

GARRANTZITSUA



Estrategia hori funtsezkoa da, erakundeko sail edo arlo guztietan berdintasunaren ezagutza eta parte-hartzea handitzen baitu, eta beraz, helburuak eskuratu eta horiek lortzeko beharrezkoak diren lanak errazten ditu.

Ekintza positiboaren estrategia. Berariazko neurriak hartzen dira, aldi baterako, bizimodu ekonomiko, politiko, sozial eta kulturalaren arlo guztietan dauden desberdintasunak murrizteko edo ezeztatzeko, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko.

Hau garrantzitsua da, oinarritzat dituen diagnostikoak azalduko dituen komunikazio-prozesu egokiarekin bat etorriz, gaur egun indarrean dauden desberdintasunak azaleratzen baititu eta desberdintasun horiei aurre egiteko tresnak eta berdintasuna sustatuko dutenak zehazki eta modu eraginkorrean ematen ditu.

GARRANTZITSUA



Zeharkakotasunak, hasiera batean, erakundean berdintasun-politikak ezartzea ahalbidetuko duen lan-egitura (Berdintasun Zerbitzua) beharrezko du. Horretarako, genero-ikuspuntua sustatu beharko da gainerako Sail edo Alorretako jardueretan.

Funtzionamendurako modu honekin berdintasunaren aldeko proiektuak Udaleko lan-esparru ezberdinen artean koordinatuta lantzea ahalbidetzen bada ere, praktikan hainbat **zailtasun** topatuko ditugu:

- 1) Ez du Administrazioaren egiturarekin bat egiten, sektoriala baita. Beraz, ohiko antolakuntza-kulturarekin ez dator bat. Administrazioa aldaketekiko poliki-poliki egokitzen ari bada ere, gaur egun oraindik ere “injerentzia” edo “karga” moduan antzematen dute zenbait erakundek euren lan-ikuspuntuan genero-ikuspuntua barneratu behar dutela adierazten zaienean edota euren sektoreko esparruan berdintasunaren aldeko berariazko jarduerak burutu behar dituztela adierazten zaienean.
- 2) Parte-hartzea eta ezagutzaren ekarpena erraztuko duten lanerako prozesu egokiak burutu beharra eta zeharkako politikak diseinatu eta ezartzeko beharrezkoa den lan-kidetza eta koordinazioa. Denbora eta baliabide nahikoak, prestakuntza egokia, bide egonkor eta formalak, etab. izatea eskatzen duten prozesuak. Diseinuaren eta gauzatzearen prozesuetan osagai pedagogiko altuak garrantzi handia du.

- 3) Gizartearen eskaera nahikoa ez izatea, problematika jaitsi izanarekin lehentasuna galdu duenaren pertzepzioagatik. Hala, agenda politikoan berdintasunaren pisua gutxitu eta gizartearen gehiago antzematen diren auzietara bideratzen da ahalegina. Beraz, emakumeen ahalduntzea sustatzen eta laguntzen jarraitzeari garrantzia ematen zaio.

B) Berdintasun-politikaren eta zeharkako beste hainbat politiken arteko lotura, edo berdintasun-politiketan aniztasuna nola barneratu

Berdintasun-politiken arrakastarako funtsezkoa da udalerriko gainerako zeharkako politikekin duten koordinazioa egokia izatea. Koordinazio horri esker behekoak lortuko dira:

- ikuspuntu estrategiko komuna;
- sektorekako sailen arteko koherentzia, politikak abian jartzeko;
- antzeko zailtasunak dituzten eta horrelako politikak abian jarri dituzten arloekin elkarlanerako tresnak sortu.

Honekin, beraz, alde batetik Udaleko berdintasun-zerbitzuek ahalegin berezia egin behar dute gainerako zeharkako planen diseinuan eta ezarpenean parte hartzeko, eta bestetik, beren ikuspuntu eta helburuak kontuan hartu behar dituzte berdintasun-planak diseinatzerakoan, eta arloko arduradunen aholkularitza beharrezkoa izango da plan hori diseinatu eta ezarriko duten berdintasunerako eragileentzat.

Minusbaliotasunaren kasuan (3), adibidez, gaur egungo emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako planetan ez da behar bezala gehitu genero-ikuspuntu bikoitz hori, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planak, I. ardatzean (mainstreaminga) "oro har, eta zeharkako moduan, Plan honetan aurreikusitako helburu eta jardun guztiak garatu, gauzatu eta ebaluatzeko garaian, kontuan izan behar dira emakumezko eta gizonetako taldeen espezifikotasunak, eta batik bat, askotariko diskriminazioa pairatzen duten emakumeenak" badio ere.

ADIBIDEA



Minusbaliotasunaren eta generoaren gaineko jarduerak ezin dute izan minusbaliatuei zuzendutako politiken eta emakumeei zuzendutakoen batura

(3) Ekarpen horiek Fekoor-eko Emakumeen Berdintasunerako Batzordeak egindakoak dira.

soila. Horregatik, genero- eta minusbaliotasun-ikuspuntu bikoitza zehazteko, emakume minusbaliatuek gaur egun duten egoera, beharrak eta itxaropenak ezagutzera emango digun ikuspuntua hartu beharko dugu, ezagutza hori genero-politiken eta gainerako politiken diseinuan erabiltzeko.

Mainstreaming kontzeptua zehazteko urteetako eztabaida eta hausnarketa egitea behar izan den moduan, politika guztietan genero- eta minusbaliotasun-ikuspuntu bikoitza nola barneratu behar dugun zehazteko prozesuari ekin beharko zaio.

Beheko ildoak proposatu dira, zeharkako ildo eta ildo sektorial guztietan aplikatu ahal direnak eta aplikatu behar direnak.

1. Generoaren eta minusbaliotasunaren arloko (eta zeharkako arloetako) langileen prestakuntza sustatu.
2. Emakume minusbaliatuen eta gizon minusbaliatuen egoeren arteko aldea eta emakumeen egoera orokorraren arteko aldea zehazteko ikerketak egin, dituzten beharrak bistaratzeko.
3. Estatistiketako minusbaliotasunaren aldagaian sexuaren eta minusbaliotasun-motaren arabera desagregazioa egin, generoa eta minusbaliotasunari buruzko ikerketak egiteko adina datu eskuratzeko.
4. Arau-tresnen nahiz herritarrentzako zerbitzuen diseinuan, antolakuntzan eta balioespenean emakume minusbaliatuen parte-hartze handiagoa lortzeko prozesuak sustatu.
5. Jarduera edo arau bat abian jarri aurretik emakumeek dituzten beharren diagnosia egin; diagnosi horrek zehazki kontuan hartu beharko litzuke zeintzuk diren emakume minusbaliatuen beharrak, emakumeen behar orokorren ezberdinak direnean.
6. Generoaren eta minusbaliotasunaren arabera abian jarri nahi den arauaren edo ekintzaren inguruko aurreikuspena.
7. Aurreko puntuaren korolario gisa, fase horretan emakume minusbaliatuentzat inpaktu negatiboren bat antzemango balitz, moldatu egin beharko litzateke eta diagnosiko fasean antzemandako emakume minusbaliatuen beharrak asetzerantz bideratutako ekintzak diseinatu beharko lirateke.
8. Jarduera edo arau bakoitzaren balioespen-fasean, emakume minusbaliatuen egoera eta kokapenetan eragindako inpaktua aztertuko da.
9. Azkenik, genero- eta minusbaliotasun-ikuspuntu bikoitza ezingo da gogoan hartu harik eta irisgarritasun unibertsala lortzen den bitarte. Kontzeptu hori 2003ko Minusbaliatuen Aukera Berdintasunaren,

Diskriminazio Ezaren eta Irisgarritasun Unibertsalaren Legeak (LION-DAU) ezarri zuen eta honela definitu zen: inguruek, prozesuek, ondasunek, produktuek eta zerbitzuek, objektu edo instrumentuek, tresnek eta gailuek bete behar duten baldintza, pertsona guztiek segurtasunez eta erosotasunez ulertu, erabili eta praktikatu ditzaten, ahalik eta modurik autonomoenean eta naturalean.

Genero- eta minusbaliotasun-ikuspuntu bikoitzaren bidez garatzen diren politika guztiak pertsona guztientzat garatutakoak izatea ahalbidetuko du, emakume minusbaliatuen berezitasunak eta kokapenak barne hartuz eta talde honetakoei bideratutako jarduerak gizarteratzearen alorrekoak soilik ez izatea ekidinez.

Edozein kasutan ere, aipatutako horiek guztiak zeharkakoetan eta sektorialetan aplikatu beharko dira, modu konbinatuan.

TOKIAN TOKIKO BEREINTASUN-POLITIKAK INDARTZEKO BESTELAKO TRESNAK: UDAL-ORDENANTZAK

Udal-ordenantzek berdintasun-politiken garapenean duten zereginari buruz hitz egiterakoan, bi **premisetan** oinarritzen dira:

1. Udaleko politika orokorren esparruan berdintasun-politikei maila altuagoa (sinbolikoa nahiz praktikoa) emateko beharra.
2. Tokiko Administrazioei genero-ikuspuntua barneratzeko behar dituzten tresnak sortu, berdintasun-politiken garapenean aurrera egin ahal izateko.

Udal-ordenantzak, tresna arautzaile izanik, tokian tokiko berdintasun-politiken garapenean laguntza positiboa ematen dute, berdintasun-legeen indarra tokiko esparrura eramaten baitute.

Proposamen interesgarria izan daiteke, beraz, berdintasunaren aldeko ordenantzak garatzea planak garatu aurretik, udaleko berdintasun-politiken esparrua zein izango den zehazteko; eta honelakoa izan beharko du:

PROPOSAMENA

P

- derrigorrez betetzekoa;
- udaleko talde politiko guztiek onartutakoa;
- herritarrengan eragingo duena.

Proposamenaren oinarria, **lehenik eta behin**, izaera orokorreko udal-ordenantza diseinatzea eta aplikatzea da. Udaleko arlo edota sail guztiek bete beharko dute nahitaez, eta herritarrengan eragin behar du.

Motako honetako ordenantzak onartzearekin positibotzat jotzen diren elementuak:

- Udalak berdintasun-politiken esparruan hartu duen konpromisoa objektibo egiten eta nabarmentzen lagunduko luke.
- Berdintasunaren esparruan Udaleko arlo eta sail guztiek bete beharreko ildoak zehaztuko lituzke (ekintza positiboak, mainstreaminga, ordezkarritza-portzentajeak, esku-hartzeko ildoetako lehentasunak, etab.).
- Izaera egonkorreko eta iraupen luzeko tresna arautzailea izango da.
- Udal osoa inplikaturik luke eta herritarrengana hedatuko litzateke.

Garatu beharreko ordenantza-ereduari dagokionez, hauek izango lirateke oinarritzko zenbait elementu:

- Garapenak ahalik eta osoena izan beharko luke (berdintasun-politikak garatzeko udalak dituen printzipioen, helburuen, edukien eta estrategien definizioan, esku-hartzeko lehentasunetan, etab.), baina ez zehatzegia. Mota honetako ordenantzekin izaera arautzailea duen esparru orokorra sortuko dela uste da, baina beti ere Udalaren edota legeen eta gizartearen testuinguruaren arabera moldatzeko aukera nahikoa ematen duela.
- Udaleko bestelako zein xedapen edota ordenantza moldatu edo indargabetuko duen adierazi beharko da, politiken eta antolakuntza-kulturen diseinuan aldaketak egiten laguntzeko.

Bigarrenik, zenbait esparru zehatzetan eragingo duten udal-ordenantzak edo bestelako tresnak sortu, onartu eta aplikatzea proposatzen da, hala nola behean adierazitakoak:

- Mintzaira eta irudi sexistak ez erabiltzea.
- Genero-inpaktuaren alde aurretiko balioespena.
- Administrazioako kontratazioetan eta diru-laguntzetan berdintasun-irizpideak barnetatzea.
- Aurrekontuak eta aurrekontuen azterketa genero-ikuspuntuaren arabera egitea.

Ordenantza horietan, aipatutako esparru guztietarako derrigorrez bete beharreko alderdi guztiak zehaztuko lirateke, eta gainera, horietan lan egiteko prozedurak deskribatu eta arautzea sustatuko da.

1.1.3

TOKIKO BERDINTASUN POLITIKEN IBILIA

Puntu honetan, hamabi berdintasun-planen azterketatik ateratako ondorioak aditzera ematen dira. Plan horiek BERDINSAREA - Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Sarea osatzen duten udalen artean egindako deialdi irekiaren bitartez jaso ziren, eta egoerari buruzko ezagutza zehatza izatea ahalbidetu zuten (2. eranskinean dator).

Tokian tokiko berdintasun-politika orokorretan nahiz udaletako planetan oinarritzen da informazio hori, izan ere, plan horiek baitira politiken garapenerako tresna zehatzak.

TOKIAN TOKIKO BERDINTASUN-POLITIKEN DISEINUA ETA PROGRAMAZIOA

- Berdintasun-politikak garatzeko beharrezkoak diren jardueren zehaztapena altua da.
- Baina zehaztasun gutxiago dago ondorengoetan:

berdintasun-politiken diseinurako eta programaziorako **udal-prozeduren estandarizazioan**;

zeharkako plangintzan;

Udal-planen diseinurako legeen eta arauen esparrua kontuan hartzean.

- **Plangintza mimetikoa** izan da (Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Planean garatutako plangintza orokorrarekiko), eta **ez da udaletako errealitateetara eta beharretara behar bezala egokitu**.

Azken batean, diseinuak eta programazioak osoko izaera estrategikoa lortu ez dutela ondorioztatzen du azterketak; eta osoko izaera estrategikoak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean aurrerapausoak emateko orduan esku-hartzearen, programen eta helburuen definizio eta lehentasun zehatzetan oinarritutako osoko esku-hartzearen esparrua erraztuko luke.

LABURPENA



UDALETAKO BERDINTASUN-PLANETAN GARATUTAKO EGITURA ETA EDUKIAK

- Udalerrietan berdintasunari buruzko egoeren **diagnosia** egiten da.
- Garatutako diagnosi-moten artean aniztasun handia dago (diagnosi kuantitatiboak, kualitatiboak, orokorrak, arloka egituratuak, etab.).
- Diagnosien eta planen artean loturarik ez egiteko joera nabari da, lehenengoak gehiegi dimentsionatuta egoten baitira bigarrenen proposatutako garapenarekiko, edo bateko zein besteko arloak ez datozelako bat.
- Ahalik eta **esku-hartzeko arlo** gehienetan lan egiteko joera ageri da, behar gehien edo esku-hartzea premiazkoa duten arloak lehenetsi gabe.
- Oro har helburuak ez dira zehatzak eta neurtzen zailak izaten dira, eta beraz, horiei lehentasuna ematea eta gero balioestea asko zailtzen da.
- Helburuen eta horiek lortzeko sortu diren baliabideen artean desorekak ager daitezke.
- Helburuak gehiegi dimentsionatzea gerta daiteke, eta hori murriztu edota ezeztatu daiteke estrategia globalagoan oinarrituta garatzen badira.
- **Ekintzak** motz gerta daitezke helburuak lortzeko ezarri den estrategiaren prozesu logikotzat jotzean.

Helburuek eta ekintzek arazo berberak izateko joera dute. Aurrerapauso positiboak emateko, esku-hartzeko arloen, helburuen eta ekintzen arteko ikuspuntu partzialak gainditu beharko lirateke osoko koherentzia emanez. Osoko koherentziazko estrategia horrek, gainera, garatutako diagnosietan antzemandako helburuei lehentasuna ematen lagunduko luke zehaztutako esku-hartzeko arloetan.

LABURPENA



UDALEKO BERDINTASUNERAKO POLITIKEN ETA PLANEN KUDEAKETARAKO MEKANISMOEI DAGOKIENEZ: JARRAIPENA, EBALUAZIOA, KUDEAKETA ETA PARTE-HARTZEA

Jarraipena: Udaleko planen bitartez tokian tokiko berdintasun-politiken garapenari jarraipena egiteko beharrezkoak diren oinarritzko mekanismoak (sail anitzeko batzordeak, aldiakako batzarrak, balioespen-txostenak, etab.) zehaztasunik gabekoak dira edo mekanismorik ez dago, zenbaitetan.

Azpmarratu behar da nor den jarraipena egin behar duen arduraduna, zeintzuk diren horretarako egiturak, jarraipenaren helburua, etab.

Jarraipenaren helburua anitza eta osagarria izan daiteke: hobekuntza, ekintzen egokitza-pena, etengabeko balioespena, ekintzak berriz definitzea, etab.

Hala, jarraipena egiteak izan beharko luke Planari malgutasuna emango liokeen meka-nismoetako bat.

Planen **ebaluazio**-motetan zehaztasunik ez emateko joera dago, baita emaitzen eta bete-tze-mailaren (edo prozesuen) adierazleetan, balioespenerako jarraipen-mekanismoetan, etab. ere. Helburuak zehaztea eta emaitzen eta betetze-mailaren (edo prozesuen) adie-razleak definitzea eta beharrezkoa da.

Indar handia duen osagaietako bat da tokian tokiko berdintasun-politikei buruzko **komu-nikazioarena**, udalaren barnekoa nahiz kanpokoa. Politika horiek ikusgaiago egin behar dira, maila sinboliko eta praktiko handiagoa izan dezaten.

Horrela, komunikaziorako plan edota espezifikokoak egitea planteatu daiteke berdintasun-politiken ezarpenaz arduratzen diren udaleko arlo edota sail ezberdinen artean koordina-tuta, ahaleginak bildu eta lanerako bestelako zeharkako esparruak ikusgai egiteko (immi-grazioa, gazteria, etab.).

Horiekin guztiekin batera, berdintasun-politiken plangintza eta kudeaketa hobetzeko oina-rrizko beste mekanismoetako bat **parte-hartzea** da: elkarre-ehunduraren eta prestakun-tzaren bitartez parte hartuta, Udalean dauden aliantzen kopuruan eta “kalitatean” –ber-dintasunean lan egiteko gaitasuna moduan ulertuta- indar gehiagoz eragingo da.

ONDORIO OROKORRAK

Hausnarketa gisa, eta tokian tokiko berdintasun-politiken plangintzarako abiapuntu moduan, hainbat ondorio orokor eman dira:

- Azken urteotan tokian tokiko berdintasun-politiken garapenean emandako aurrerapau-soak oso positiboak izan dira, eta oso maila altua lortu da EAEko udalerrri askotan.
- Gaur egun dugun araudien testuinguruak aukera bikaina eskaintzen du berdintasun-politikek jauzi kualitatiboa eman dezaten, izaera estrategikoa izango duen sorrera, plangintza eta ezarpena lortzera bidean.

- Azken batean, tokian tokiko berdintasun-politiken eragingarritasuna, argitasuna eta eraginkortasuna hazi nahi dira, udaletako berdintasun-planetan garatuta, eta politika horiek kudeatu eta ezartzeko ahalegin handiagoa egin nahi da.

1.2

TOKIKO BERDINTASUN PLANEN DISEINURAKO ORIENTABIDEAK

Orientabide hauen helburua tokian tokiko berdintasun-planen diseinua erraztea da. Udalerriaren eta Udalaren behar espezifikoetara egokitu beharko dute, eta indarrean dagoen erreferentziazko arauen esparruekin bat etorri beharko dute.

1.2.1

BERDINTASUN PLANA EGITEAREN AURRETIKOAK: ARRAKASTARAKO FAKTOREAK

Orientabideen bideragarritasuna arrakasta-faktoreen arabera da. Faktore horiek planak egiterakoan nahiz diseinatzerakoan eragiten dute. Hauek nabarmenduko genituzke:

- **Inplikazioa eta bultzada politikoa.**

Berdintasunerako udal-politiketan ardura duten politikariek gidatu eta parte hartu behar dute prozesu osoan (diseinuan, kudeaketan eta balioespenean).

- **Berdintasunean prestakuntza eta esperientzia duten langileak** behar dira.

Oinarritzko beharra da Udaletan berdintasun-politiken plangintzak egingo dituzten berdintasunerako zerbitzuak edo antzekoak izatea.

Behar hori Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean biltzen da, eta honela dio Legearen 10. artikulua: *“Foru- eta toki-administrazioek, bakoitzak bere burua antolatzeke dituen eskumenen eremuan, beren egiturak egokitu behar dituzte, halako moduz non administrazio bakoitzak emakumeen eta gizonen berdintasun-politikak bultzatu, programatu, ebaluatu eta horiei buruzko aholkuak ematen jardungo duen erakunde, organo edo administrazio-unitate bat izango baitu, gutxienez, dagokion jarduera-eremuan”*.

Erakunde hauek garatu behar dituzten berariazko funtzioak dokumentu honetako “Araudiaren eta Legeen Esparrua” kapituluaren 1.1. puntuan zehazki adierazi dira (4).

(4) Funtzioei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 10.2. artikulua.

- **Talde sustatzailea** existitzea, ahal dela, eta berdintasun-planak egiteko ardura politiko eta teknikoa duten pertsoez osatutakoa.

Planaren diseinuko lehen egitura da, beharrezko organoa eta komenigarria, baina Udalaren neurriaren eta egituraren arabera posible izan behar du.

Osaera:

- berdintasun-unitateko edo zerbitzuko langileak, edo funtzio horiek betetzen dituztenak;
- zinegotzi arduraduna;
- berdintasun-zerbitzua hartzen duen arloko edo saileko zuzendaritza.
- Eta kontuan hartu beharko da bestelako zeharkako alorretako pertsonen ere parte hartzeko aukera.
- Modu berean, talde sustatzailean berdintasunaren aldeko elkarte-mugimenduetako emakumezko arduradunak hartzeko aukera ere planteatu daiteke.

Osaera honekin bultzada politikoa errazten eta sustatzen da, zinegotziak informazioa jasotzeko berariazko espazioak sortzen baitira, planaren jarraipena egiten dezan (5).

Taldeak **funtzio** hauek izango ditu planaren diseinuan:

- informazioa bilatzea;
 - prozesuaren koordinazioa eta dinamizazioa;
 - erabakiak hartzea;
 - emaitzak gizartera hedatzea.
- Udaleko arlo eta sail bakoitzean **berdintasunean lan egiteko prestakuntza eta gaitasuna duen pertsona** izatea, beti ere lortu nahi diren helburuen arabera.

Sailen arteko talde teknikoa izango litzateke planaren diseinurako bigarren egitura.

Udaleko arlo ezberdinetako langile teknikoez **osatutakoa** izango da, eta ahal dela, berdintasunean prestakuntza edo ezagutzak izan beharko ditu, eta talde-lanean ari-

(5) Taldekideen eta bertaratutako pertsonen arteko batzarren maiztasuna dauden beharren arabera zehaztuko da: erabaki teknikoak hartzeko une batzuetan ez da beharrezkoa izango politikarien ordezkaria bertan izatea, denbora mugatua izaten baitute.

tzeko gaitasuna. Arloan edo sailean kokatuta badago hobe, bere sailaren eta sailen arteko batzordearen arteko elkarrizketa egin dezan.

Funtzioak:

- diagnosiaren fasean parte hartu, gizarteko nahiz udaleko egoerari buruzko datu eta ideien ekarpenak eginez;
- alde sustatzaileari aholkularitza eman erabakiak hartzerakoan, hala eskatzen zaionean;
- zirriborroa aztertu ezarpenaren bideragarritasunaren eta ordezkatatuko arlo edo sailen politikarekiko koordinazioaren ikuspuntutik.

Sailen arteko talde teknikoak prozesuan etengabe eta zeharkakotasunez parte hartze-ko aukera planteatu daiteke, diagnosiaren faseetik hasi eta definizio fasean, egiaztatze-fasean, etab.

- **Elkarte-mugimenduaren eta emakumeen parte-hartzea** prozesu osoan zehar.

Planaren diseinu-prozesuan eta udaleko berdintasun-politiken diseinuan, kudeaketan eta balioespen orokorrean egon behar duen hirugarren egitura gizarte antolatua eta emakumeen parte-hartze espazioak edo organoak dira (Berdintasun Batzordeak, lan-taldeak, foroak, etab.).

Osaera:

- emakumeen elkartek;
- berdintasunerako helburuak lortzera bideratutako bestelako lan-elkartek;
- elkarrekin parte hartzen ez duten pertsonak, adibidez, gaizki antolatutako taldeetakoak edo ordezkapen txikia dutenetakoak.

Funtzioak:

- kontuak ematerakoan egiaztatze-lanak egiteko;
- prozesu osoan zehar datu eta ideien ekarpena egin, eta emakumeen egoeraren eta beharren diagnosia egiterakoan eta egiaztapen-fasean lagundu, plana gizarteko emakumeen beharretara eta berdintasun-politikaetara egokitzen den ala ez zehaztu.

Parte-hartzearekin, emakumeentzat emakumeekin kontatu gabe gauzak antolatzea ekidin nahi da (sailen arteko talde teknikoei ere aplikatuko da printzipio hau).



Planaren diseinu-prozesuan zeharkako ikuspuntutik lan egin behar da. Praktikan, udaleko berdintasun-planak udalaren barruko bestelako zeharkako planak kontuan hartuta diseinatu beharko dira. Udaleko zeharkako politiken garapenarekin, politika horiekin lotura duten planen diseinu-prozesuak modu integralean garatu beharko dira.


Testuinguru honetan, joan-etorri bidea egitea planteatzen da, hau da, bestelako zeharkako lanen (gazteak, immigrazioa, funtzionalitate dibertsoak, etab.) helburuak tokian tokiko berdintasun-politiken helburuekin lotu behar dira.

Koordinaziorako egitura egonkorrek sortzea, politikarien inplikazioa, udaleko zerbitzueta zuzendaritzen arteko koordinazioa dira zeharkako ikuspuntu horretatik planen diseinuan laguntzen duten mekanismoak.

1.2.2

DIAGNOSIAK EGITEA

1. IRUDIA: Diagnosiaren faseko gakoak



Diagnosiak egitearekin planaren diseinurako eta geroko balioespenerako funtsezko informazioa ezagutzea ahalbidetzen da.

Honen funtzioa, berdintasun-politikak kudeatuko diren udalerriko eta udaleko behar partikularrei behar bezala erantzungo dieten erabakiak hartzeko informazioa eskaintzea da.

Oro har, diagnosien neurriak planen arabera izan behar dute eta hala dela parte-hartzea bilatu behar da, barrukoa nahiz kanpoko, zati kualitatiboa eta zati kuantitatiboa konbinatu behar dira, udalen barruko esparruak nahiz udalerriaren esparruak kontuan hartu behar dira, eta hausnarketa estrategikoa egin behar da arloen arteko lotura koherentea bilatzeko.

GARRANTZITSUA



Talde sustatzailearen ardura da (berdintasun-arloko arduradunarena bereziki) diseinu-prozesurako informazioaren bilketa ahalik eta modu soilenean, erabilgarrienean eta eragin-korrenean egitea.

Informazioaren bilketa eta landa-azterketa kanpoko zerbitzu baten bitartez egin daiteke, berdintasun-eragilearen arauen barruan eta honek gainbegiratuta. Udalerrri txikien kasuan eskualdeko edo zonaldekoen artean diagnosia egin ahal da ere, Mankomunitatearen bitartez, Koadrilaren bitartez eta udalerrri bat baino gehiago hartzen duen bestelako erakundearen bitartez. Udalerrrien artean lan-taldeak ere sor daitezke.

Udalerrri txikienetan edo baliabide gutxien dutenetan datuen (kuantitatiboak eta kualitatiboak) bilketa talde sustatzaileak berak egin dezake, bereziki bestelako iturriak ustiatuta (EUSTAT, Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea, EGAILAN, Udala...); lan-taldeak edo elkarriketak ere antolatu daitezke.

Komenigarria da soiltasunez jardutea eta prozesuaren neurriaren arabera indarrak neurtzea, kontuan izan behar baita diagnosiak egitea planaren lehen fasea besterik ez dela, eta gero plana ezarri (hau da, berez, faserik kritikoa) eta balioetsi behar dela.

GARRANTZITSUA



Bi esparrutatik jaso daitezke kontuan hartu beharreko datuak: Udalaren eta gizartearen esparrutik.

Udalaren esparruko datuak

Udalaren berdintasun-politiken une honetako egoerari buruzko informazioa biltzen da. Sailen arteko lan-taldearen parte-hartzea beharrezkoa da fase honetan, talde hori existitzen bada, eta udalaren neurriaren arabera ahal dela, datuak jaso eta interpretatzen lagundu dezan.

Behekoak dira aztertu beharreko gaiak:

Genero-ikuspuntua barneratzeko lan egin behar den funtsezko arloei buruzko egoera: Helburua, Berdintasunerako Zerbitzuen 0 Arloko M1 helburuaren (6) arabera informazioa biltzea da; beharrezkotzat jotzen da lan hori egitea Udaleko eguneroko lanean genero-ikuspuntua barneratu nahi bada:

- Plangintzaren esparruan genero-ikuspuntua barneratzea.
- Sentsibilizazio politikoa.
- Trebakuntza teknikoa.
- Egitura hauetan genero-ikuspuntua barneratzea.
- Sustapena eta koordinazioa.
- Lan-tresnetan genero-ikuspuntua barneratzea.
- Udaleko programa eta zerbitzuetan genero-ikuspuntua barneratzea.
- Administrazioko prozeduretan genero-ikuspuntua barneratzea.
- Datuen bilketan eta ikerketak egitean genero-ikuspuntua barneratzea.

Udaleko zenbait arlok garatutako berdintasun-jardueren irazkortasunaren analisia. Udaleko arlo edo sailek berdintasunaren alde lan egiteko duten jarrera neurtu nahi da, faktore objektiboak (berdintasunean prestakuntza duten emakume eta gizonen kopurua, emakumeen edo berdintasunaren alde aurrez egindako lanak...) eta faktore subjektiboak (berdintasunean lan egitearen pertzepzioa, sailaren lanaren eta emakumeen egoeraren arteko loturaren pertzepzioa...) aztertuko dituen galdeketa eginez.

Emakumeek eta gizonek udalean bertan dituzten lan-baldintzen analisia. Emakumeek udalean duten baldintzak eta kokapena aztertu nahi da, barnean zenbateraino jardun behar den jakiteko. Horretarako, hainbat faktore hartuko dira kontuan: ardurako postuetan dauden emakumeak, langileen banaketa eta emakumeen kokapena, soldatak, hautatzeko eta maila-igoerarako irizpideak, prestakuntza, laneko, etxeko eta norberaren eginkizunak onez bateratzeko politikak...

(6) "EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana. VIII. Legealdirako Jarraibideak" dokumentuan bilduta dator.

Udalerrian berdintasunaren arloko datuak bilduko dira. Emakumeek parte hartzen duten espazio eta organoeekin datuak biltzen eta interpretatzen lankidetzan jardutea funtsezkoa da.

Bi analisi-mota egin behar dira.

1. **Analisi kuantitatiboa:** Honetarako, abiapuntuko datuak biltzea gomendatzen da (erreferentziazko dokumentuetan biltzen diren helburuen inguruko adierazleen datuak), eta hala, helburuen arteko analisi konparatiboa egingo da lehentasunak zehazteko.

Udalerriaren egoera inguruko udalerrien egoerarekin alderatzeko datu estandarrak ere beharko dira.


2. **Analisi kualitatiboa:** Lan-taldeetan eztabaidak antolatzea gomendatzen da, erabakiak hartzeko orduan datuak interpretatzen laguntzen baitu horrek. Emakumeek parte hartzen duten organoek bertan izan behar dute, ahal dela.

Diagnosien faseko emaitzetatik ondorengo ekarpenak eskuratu behar ditugu:

- Berdintasunaren arloan lanean jarduteko udalak dituen puntu sendoen eta ahulen mapa.
- Desberdintasunen mapa, jarduera-arlo guztiak hartuko ditu gizartekoak nahiz udalaren barrukoak (gizarteko analisi kuantitatiboetatik eta kualitatiboetatik eta Udalean bertan egindako berdintasun-baldintzen analisitik ateratako datuak). Berdintasun-politiketarako lehentasunak zehaztuko dira mapa horri esker.
- Berdintasun-gaietan diharduten Udaleko sail edo arloen irazkortasunaren mapa. Lehentasunak lantzeko egingarritasuna zehaztuko du mapa honek.

Informazio hori guztia talde sustatzaileak aztertu beharko du, baina politikariek ere parte hartu beharko dute tokian tokiko berdintasun-planetan sartuko diren helburuak zehazteko.

2. IRUDIA: Helburuak zehazteko fasearen gakoak



Fase honetan diagnosiaren emaitzak laburbiltzen dira planaren iraunaldian zehar erabiliko den **berdintasunean esku-hartzeko mapa** bakarra osatuz. Bertan, helburu diren aldaketa sozialen artean lehentasuna dutenak eta estrategikoak direnak zehazten dira, eta Udalean zein helburu ezarri behar diren aldaketa horiek gauzatzea lortzeko.

Lan horiek emakumeen elkarte-mugimenduen parte-hartzearekin garatu beharko dira, gizarte-aldaketarako helburuen eta lehentasunen definizioan aldeko eragile aktibo eta proposamengileak izanik, eta gizarte-aldaketaren onuradun izango direla kontuan izanik.

Lortu nahi den gizarte-aldaketa planteatu behar da, argi eta garbi, helburuetan. Helbururik egokienak aukeratzeko, aurretik aukeraketarako irizpideak adostea funtsezkoa izango da. Besteak beste:

- **Esku-hartzeko gizarteak duen beharra.** Gizartearen beharra handiagoa den heinean (bereziki emakumeen eskaera bada), esku-hartzea premiazkoagoa eta beharrezkoagoa izango da, eta emaitza agerikoagoa izango da.

Horien adibideetako batzuk: emakumeen langabezia-tasa altuak, neskak hein handiagoan eskolara ez agertzea, gizonen aldetik erantzukidetasunik ez izatea, etab.

ADIBIDEA



- **Esku-hartzeko aukeren existentzia.** Gizartean edo erakundeetan esku-hartzeko aukera bat sortzen den kasuetan aukera horretaz baliatzearen garrantziaz jabetzea komeni da.

Adibidez, eraikitzeaz dagoen auzo batean zein hornidura ezarriko diren herritarrei galdetzeko parte-hartze prozesua garatzen hasi den udalaren kasuan, Tokiko Agenda 21 garatzen ari den udalaren kasuan, etab.

ADIBIDEA



- **Irazkortasuna.** Udaleko arlo edo sailek berdintasun-politiken garapenean zenbat eta irazkortasun handiagoa izan, ezarriko diren planifikatutako neurri egingarrien kopurua handiagoa izango da eta gizartean eragin handiagoa izango dute, are gehiago beharrak asetzeko gai badira.

Adibidez, gazteria eta inmigrazio sailetan berdintasunarekiko sentsibilitatea duten langileak dituen udalean lanerako bide komunak irekitzeko aukera planteatu daiteke, eta beraz, sailean genero-ikuspuntuarekin esku hartuko da.

ADIBIDEA



- **Baliabideak.** Nahikoak badira, baliabideak ez dira plangintzarako garrantzitsutzat jotzen: lehentasuna duten helburuak eta egingarrienak planteatzeko aukera dago. Baina baliabide urriak izanez gero, zehazki neurtu beharko da ezarritako neurriaren arabera baliabide-beharra eta gizartean izango duen eragina proportzionalak diren ala ez, edo beste helbururen batek baliabide-kopuru berarekin gizartean eragin handiagoa izango duen ala ez.

Adibidez, ezin da egokitzen jo herritar guztiei zuzendutako informazio- eta sentsibilizazio-ekintzak garatzea, mezua bereziki gizonezko helduei zuzentzea beharrezkotzat jotzen bada; beraz, bestelako informazio- eta sentsibilizazio-ekintza alternatiboak garatzea planteatu daiteke, helburu publikoari bereziki zuzenduak direnak.

ADIBIDEA



- **Erreferentziazko dokumentuen ildo orokorretara egokitzea,** baita izaera autonomikoa, estatala eta europarra duten araudien esparruetara ere; inguruko berdintasun-politikekin koordinazioa bilatu beharko da.


- **Zeharkako politikak.** Analisiaren mailakako diagnosiaren emaitzen arabera, helburuetako bat talde baten berdintasuna lortzeko nahikoa izan daiteke, baina ez beste talde batena lortzeko.

Fase honetan, gainera, garrantzitsua da helburuak zehazteko herritarren parte-hartzea bilatzea, bai barruan garatu den prozesuarekin alderatzeko, baita helburu berriak iradokitze edo ordura arte erakundeek kontuan hartu ez dituzten bestelako planteamenduak proposatzeko.

1.2.4

EGITURA ZEHAZTEA

3. IRUDIA: Egitura zehazteko fasearen gakoak



Lehentasunezko helburuak zehaztuta ditugarik, planaren armazoa osatuko duen egitura zehazten hasteko unea da.

Fase honen helburua, amaierako dokumentuan emango den informazioa zein den ezartzea eta nola antolatuko den esatea da, alde batetik ahalik eta informazio gehien ematea saiaturaz (diseinuan parte hartu ez duten pertsonen informazioa eman beharko die), eta bestetik, ezarriko den erakundearen antolaketa-kulturarekin bat egitea, dokumentuaren armazoiak ezarpenean ere laguntzeko modua izan dezan.

Planaren ezaugarri nagusiei buruzko **hausnarketa-prozesuak** ahalbidetzea garrantzitsua da, baita egiturazko elementuek eta kapituluek duten zeregina ere. Hala, erabilgarrienak hautatuko dira.

Plan eraginkorra egiteko gutxieneko batzuk bete behar dira, eta jarraian adierazita datoz, baita amaitutako dokumentuari egiten dioten ekarpena eta barne hartzea erabakiz gero zein ezaugarri beteko dituzten ere.

ESPARRU KONTZEPTUALA

Sarrera egiten du, baina plana ulertzeko funtsezkoa da. Funtzio pedagogikoa du, irakurleari esku artean duen dokumentua ulertzen laguntzen baitio; zergatik sortu den, zein den bere garrantzia, nola antolatzen den eta zergatik, eta nork parte hartu duen diseinuan.

Zentzu honetan, esparru kontzeptual on bati esker dokumentuak maila hartzen du eta erakundeari berdintasun-politiken garrantziaren inguruan sentibilizatzeko eta inplikatzeko urrats bat gehiago izango da.

GARRANTZITSUA



Oinarrizko edukiak:

- **Arrazoiak ematea:** Plana zergatik egin den, udaletako politiken esparruan berdintasun-politikak duen garrantzia zenbaterainokoa den, eta planean zehaztutako neurriak ezartzearekin gizarteari ekarriko dizkion onurak zeintzuk diren zehaztu beharko dira.
- **Udalerriko berdintasun-politiken bilakaera:** Berdintasun-planen 1., 2. edo 3. argitaldia den zehaztuko da, zeintzuk izan diren aurreko planen edo berdintasunaren alorrean garatutako jardueren balioespenetik ikasitakoak, eta ikasitakoen eraginez planak izan dituen bilakaerak.
- **Plana testuinguruan jartzea:** Atal honetan garrantzitsua izango da esparruko zein dokumentuetara egokitu behar izan den, nola hartu diren kontuan dokumentu horiek eta tokiko berdintasun-planekin duten lotura (ikus dokumentu honetako 1.1.1. Araudiaren Esparrua atala, 19. or.).
- **Planaren iraunaldia:** Fase honetan azalduko da iraunaldia. (ikus 1.1.2. legegintzaldia, berdintasun-politiken eremu atalean emandako gomendioak, 27. or.).
- **Egituraren deskribapena:** Planaren izaera pedagogikoa kontuan hartuta, oinarritzat hartzen dituen elementuen deskribapena ere egin beharko da, nola eta zergatik hautatu diren eta zein erabilera duten aditzera eman.

- **Lanketa-prozesua eta parte-hartzaileak:** Diseinuan zehar jarraitu diren fase eta metodologiak eta parte hartu duten pertsonak zehazten dira.
- **Kontuan hartuko diren aldagaiak:** Emakumeek eta gizonek dituzten beharrak (konplexutasun eta aniztasun osoan) aseko dituen diseinu eraginkorragoa lortzeko, aldagai hauek hartu beharko dira kontuan: sexua, adina, diru-sarrerak, jatorria eta minusbaliotasunak; beti ere azterketarako maila hauekin lotuta: generoa, bizi-zikloa, estatus sozioekonomikoa, aniztasun kulturala eta funtzionalitate dibertsoa.

DIAGNOSIA

Lanketa-prozesuko faseetako bat izateaz gain dokumentuan agertu beharreko kapitulu edo atal bat ere izan behar du.

Diagnosiak egindakoan lortuko ditugun hiru mapen artean (7), dokumentuan bigarrenak agertu beharko du. Besteak agertzea ez da beharrezkoa.

Atal honetan, berdintasunean lan egitera bultzatzen duen abiapuntuko egoera zein den zehaztea da gakoa, hala, ezarpenean inplikatzeko diren pertsona guztiek jakin dezaten zer den aldatu behar dena eta zergatik.

GARRANTZITSUA



Egiturari dagokionez, diagnosiak kapitulu bat izan dezake, edo ardatz, arlo edo programa bakoitzean ager daiteke, edukien arabera (hautatutako egituraren arabera), planean proposatzen diren helburu eta ekintzen aurretiazko azalpen gisa.

ARDATZAK

Ardatz estrategikoekin zehazten dira hurrengo urteetan landuko diren berdintasun-politiken arloan lehentasuna duten gaiak. Berdintasuna lortzeko zer landu behar den zehaztea da bere funtzioa.

Arlorako antolakuntzaren ondorioz, berdintasunaren alde zer egin zezaketen edo egin behar zuten adierazi behar zen sail bakoitzari. Ardatzak sar-

GARRANTZITSUA



(7) Hiru mapa hauek ziren: “udalak dituen puntu sendoen eta ahulen mapa”, “Desberdintasunen mapa, jarduerar-arlo guztiak hartuko ditu gizartekoak nahiz udalaren barrukoak” eta “Berdintasun-gaietan diharduten Udaleko sail edo arloen iragazkortasunaren mapa”.

tzearrekin, egin behar dena zehazteaz gain, guztien artean landu behar diren helburu estrategikoak zeintzuk diren ere zehazten da.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana. VIII. Legealdirako Jarraibideak, dokumentuan lau ardatz adostu dira: mainstreaminga; ahalduntzea eta gizartearen eta politikaren arloko parte-hartzea; lana eta familia bateratzea eta erantzukidetasuna; emakumeen aurkako indarkeria.

Ardatz horiek zehazterakoan erabilitako irizpideak:

- 4/2005 Legean adierazita datoz.
- Azken urteetan tokian tokiko esparruan, Estatuaren esparruan eta Europako esparruan berdintasun-politikek landu behar dituzten funtsezko erronkei buruzko hausnarketa-foroetan kontuan hartu izan dira.
- Erakunde askoren artekoak dira eta arlo guztietako lehentasunak egituratzeko gaitasuna dute.
- Gizartearen beharren barruan sartzen dira eta eraldatzeko gaitasun handia dute.

*Planaren egiturazko elementu moduan ardatzak sartu izanaren **onura** da berdintasunerako erronka estrategikoak ikusarazi eta egituratzen dituela; horrela, bakoitzarekin zer lortu nahi den eta zergatik deskribatzen da, eta plangintzaren koherentzia areagotzen da. Kudeaketaren ikuspuntutik, urteko plangintzako batzarrak egituratuko ditu, eta gaikako nukleo murritzuko eta zehatzago hauen arabera jarraipena edota balioespena egin.*

LABURPENA



ARLOAK

Esku-hartzeko esparru funtzionalak dira arloak, eta berauetatik abiatuta lan egingo da berdintasuna lortzearen. Euskadiko Herri Administrazioen egitura antolakuntza funtzionalean oinarrituta dago: sailak.

Erakunde bakoitzak bere egitura propioa badu ere, dokumentu honetan biltzen den esku-hartzeko arloak administrazioetan ageri dira, bakoitzaren banaketa zehatzean.

Sailen ardurak ez dira arlo zehatz batean amaitzen, arlo bat baino gehiago hartzen duten eskumenak izan baititzaizakete zenbait sailek.

Dena den, plana arloka banatzearekin berdintasun-politiken ezarpenerako ardura duten pertsonen eurentzat ezagutzea errazago diren jarduerak planteatuko zaizkie, eta hala, analisia egitea eta genero-ikuspuntuan oinarrituta sektore bakoitzeko politikak birplanteatzea erraztuko zaie.

GARRANTZITSUA



Berdintasunerako plangintza arloka egituratzearen beste **onura** bat sailekin lotzea erraza izanik, irazkortasunaren analisia egitearekin nahikoa izango dugu neurriak ezarriko dituzten arduradunek berdintasunaren alde zailtasun gehiago ala gutxiago izango duten jakiteko; eta honek hiru aukera ematen dizkigu:

- Berdintasun-politikekiko jarrera hobereana agertu duten arloekin soilik lan egin, orain arte berdintasun-politikak garatzeko gutxien inplikatzan diren sailekin sinergia positiboak sustatuz.
- Jarrera hobereana agertu duten sailek Berdintasun Zerbitzuak sustatu gabe lanean jarraituko dutenaren esperantza izan, eta estrategiak zailtasun gehien dituzten sailetara bideratu.

Eurekin helburu xumeagoak eta ekintza soilagoak planteatuz, horrela berdintasun-zerbitzuak berak ere prestakuntzarako, ezarpenean etengabeko aholkularitzarako, sentsibilizaziorako eta abarrerako jarduerak sustatu ahal izango ditu.

ADIBIDEA



- Aurreko bi estrategien konbinazioa, jarrera hobereana agertu duten sailen lanean lagundu eta lanak koordinatuz, eta gainerakoekin lan-abiadura murriztagoa planteatuz.

Edozein kasutan ere, arloan hautaketa diagnosiek emandako informazioaren arabera egingo da, egoera-mapen arabera, eta landu beharreko helburuen lehentasunak kontuan hartuta. Oinarritik balioetsi behar den lehen irizpidea gizartearen beharrena da, eta gero aukerarekin koordinatuko da.

PROGRAMAK

Jarduera-esparru zehatzak osoki, diziplina anitzetan, sail anitzetan, modu konpaktuan eta koherentean lantzeko beharrezkoak diren helburu eta jarduerak antolatuko dituzte programek.



***Honen onura**, sektoreka edo sailkako egitura baino malguagoa den beste egitura batera ohitzea da, horrela, udalean ordenazio zehatz bat edo diziplina zehatz batekoak ez diren arazoak sailen artean lantzea ahalbidetuko baita, eta beraz, zeharkako politikak barneratzea ere erraztuko da.*

Programak irizpide askoren arabera zehaztu daitezke: Ardatzen arabera, arloaren arabera edo arlo bakoitzeko esku-hartzearen ildoen arabera, helburu-publikoaren arabera, indartzen ari den gizarte-arazoaren arabera...

HELBURUAK

Helburuekin egin behar diren jarduerak lehenesten dira eta planaren ezarpenean jardungo duten pertsona guztiei ildo komuna ezartzen dute. Horregatik, funtsezkoa da **oinarriko ezaugarri** batzuk betetzea:

- Aldatu nahi den gizarteko errealitatea zehaztu behar da. Helburu moduan erakundeen jarduerarekin iritsi nahi dugun errealitatea planteatzean datza. Helburu orokorrak eta helburu eraginkorrak bereizi beharko dira.

Lehenengoen adibide bat, emakume minusbaliatuek udalerriko baliabide soziokulturaletara iristea eta horiek eskuratzea bermatzea izan liteke.

ADIBIDEA



Bestalde, helburu moduan arauetan prestatu, ezagutu, sortu, zerbitzuak sortu... planteatzen direnean helburu eraginkorrez ariko ginateke, baina horiek ez dira helburu soilak, gizarteko portaerak aldatzen saiatzeko tresnak baizik. Eta beraz, emakumeen eta gizonen bizi-baldintzak eta kokapenak aldatzeko tresnak (berdintasun-politiken egiazko helburua).

- Zehatzak eta neurgarriak izan behar dute, eraginkorrak eta erraz ulertzen direnak. Hau da, adiera bakarrekoak izango dira, nahasketarik gabekoak, eta berdintasunaren gaian aditua ez den edonork zer egin behar duen ulertzea ahalbidetu behar dute. Zentzu honetan, diagnosi kuantitatiboak erabilgarriak dira, emaitzen adierazleen abiapuntuko neurritzat jotzen badira, gaur egungo egoera zein den zehazten baitigute eta zenbat aldatu behar dugun aditzera ematen baitute.

Adibidez, osasun-zerbitzuetara jotzen duten genero-indarkeria jasandako emakume atzerriarren kopurua % 30 hazi, indarkeria jasan duten emakumeen arretarako tokian tokiko protokoloen bitartez.

ADIBIDEA



Helburuak zehazteko unean, gainerako zeharkako politikak kontuan hartu behar ditugu, baita diagnosien emaitzak ere, analisirako erabilitako mailen arabera.

ESTRATEGIAK

Estrategietan helburua lortzeko lan-ikuspuntu egokia deskribatzen da, hau da, arazoari nola egingo zaion aurre zehazten du.

Ohikoena da helburua lortzeko modu bat baino gehiago izatea. Estrategia ezberdinak ezarri daitezke:

- xede-publiko ezberdinak planteatu daitezkeenean;
- erakundeen esparrutik edo esparru pribatutik jarduten denean; edo norberaren esparrutik edo laneko esparrutik;
- helburua azpimaila ezberdinetan banatu daitekeenean eta azpimaila bakoitzak lan-prozesu ezberdina eskatzen duenean.

Adibidez, helburua "osasun-zerbitzuetara jotzen duten genero-indarkeria jasandako emakume atzerritarren kopurua % 30 hazi, indarkeria jasan duten emakumeen arretarako tokian tokiko protokoloen bitartez" denean, bi estrategia ezberdin planteatu daitezke. Lehenengoan emakume atzerritarren taldeekin lan egiten duten hirugarren sektoreko erakundeetatik garatuko lirateke jarduerak, udalak emandako baliabide ekonomikoen laguntzarekin; bigarren, berriz, udaletik zuzenean garatu beharko litzateke herritarrei zuzendutako informazio eta sentsibilizazio orokorrerako estrategia, zehaztutako xede-publikoaren gainean iristeko.

ADIBIDEA



EKINTZAK ETA JARDUERA-PROZESUAK

Estrategia garatu ahal izateko, erabiliko diren tresnak eta zein ordenatan erabiliko diren zehaztu beharko da, hau da, zein ekintza zehatz garatuko diren.


Erabilgarriak izatea nahi badugu, ahalik eta zehatzenak izan behar dute zer egin behar den deskribatzean, nork egin behar duen, eta zertarako, eta ahal dela, zer den lortu nahi dena. Horietaz gain aurrekontuak, lehenetsiak eta denbora ere zehaztuko dira.

Gauzatuko diren jardueren multzoak (ordena kronologikoan edo garrantziaren arabera ordenan) osatzen du **jardueraren prozesua**. Administrazioan garatu ohi diren ekintza-motak:

- Jakintza: Eraldatu nahi den errealitateari buruzko ezagutza-maila handitzeko tresnak, edo errealitate horren zenbait alderdirenak: ikerketak, analisiak, diagnosiak, estatistikak, datuak...
- Informazioa eta sentsibilizazioa: Zehaztutako xede-publikoek gai jakin bati ematen dioten garrantziari buruzko ezagutza-maila handitzeko tresnak.
- Prestakuntza: Zehaztu den administrazioari edo publikoari gaitasunak eskuratzeko edo funtsezko informazioaren tratamendurako prestatzeko tresnak eskaini, helburuak lortu ahal izateko.
- Zerbitzuak eta Baliabideak: Mailarik aldakorrena da. Giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak hartzen ditu, baina baita programak, planak eta erdietsi nahi den inpak-tua lortzeko beharrezkoa den azpiegitura osoa.
- Araudia: Helburua lortzeko beharrezkoa den jarduera zehatz bat derrigortzea ezar-tzeko tresnak.
- Jarraipena: Aldatu nahi den errealitatearen alderdien bilakaera ezagutzeko eta laguntzeko tresnak.

Ikus daitekeenez, aurkezten diren ordenan egituratuta elementu guzti horiekin prozesu "estandarra" osatzen da, administrazioarentzat baliogarria:

4. IRUDIA: Administrazioaren jarduera-prozesu estandarra



Dena den, prozesu estandar hori behin eta berriz aldatzen da ekintzen zati bat garatuta dagoenean, zenbait tresna-mota erabiltzea bideragarria ez denean edo helburua lortzeko eraginkorragoa edo egokiagoa denean ekintzak beste modu batera ordenatzea.

ADIERAZLEAK

Planaren diseinuaren azken fasean definitu beharko litzateke. Erabilitako bi adierazle-mota bereiztu ditzakegu:

Emaitzen adierazleak: Planaren berariazko helburuekin lotzen dira. Aldatu nahi den errealitatearen moldaketa neurtzen dute. Helburuekin aldatu nahi dena zehazten bada, emaitzen adierazleak (planaren amaieran neurtzen direnez) abiapuntuko egoera zenbat aldatu den zehazten dute eta beraz, erdietsi nahi zen amaierako helburua lortu den ala ez.

Adibidez, lehen adierazitako "osasun-zerbitzuetara jotzen duten genero-indarkeria jasandako emakume atzeritarren kopurua % 30 hazi, indarkeria jasan duten emakumeen arretarako tokian tokiko protokoloen bitartez" helburuarentzat emaitzen adierazle bat hau izango litzateke: osasun-zerbitzuetara jotzen duten emakume atzeritarren ehunekoa.

ADIBIDEA



Betetze-mailaren adierazleak, prozesu-adierazle moduan ere deitutakoak, ekintzei lotuta doaz, eta planaren betetze-maila neurtzera bideratuta doaz. Planak gauzatzen ari diren ala ez eta zein neurritan egiten ari diren neurtzen dute, hau da, plangintzan zehaztutakoa bete den ala ez neurtzen dute, eta beraz, lortu nahi zen inpaktua iritsi ez bada, programatutakoa egin ez delako gertatu izana baztertzen da honekin.

Aurreko adibidearekin jarraituta, helburuaren garapenerako honelako ekintza zehaztuko bagenu: "emakume atzeritarrentzat informazio-dokumentu eleanitza sortu, tratu txarren kasuetarako dauden baliabideei buruzko informazioarekin", prozesua bete den ala ez zehazteko adierazleetako bat: argitaratutako ale kopurua.

ADIBIDEA



Udalean indarrean dauden bestelako zeharkako planek zehaztutako adierazleak berraztertzea garrantzitsua izango da, berdintasun-planaren adierazleak egokitzerakoan barne hartu edo kontuan hartu nahi baditugu. Horrelakorik ez balego, berdintasun-adierazleen definizioan bestelako zeharkako politiken aldagaiak hartu beharko dira kontuan.

Adibidez, adinaren eta minusbaliotasunaren arabeko langabezia-tasa.

ADIBIDEA



ARDURADUNAK

Diseinutik garrantzitsua da zehaztea zein den, udalaren barruan, ezarpenaz arduratuko den arloa, kontakturako teknikaria(k) adieraziz eta antolakuntza egituran zein zatitan (saila edo arloa, zerbitzua) dagoen, plana hartu eta jarraipena egitea errazten baitu.

Arduren izendapen hori helburuetan oinarrituta edo ekintzetan oinarrituta egin daiteke, zenbat eta gehiago zehaztu, orduan eta zorrotzagoa eta eraginkorragoa izango baita egindako jarraipena.

Oro har, **Planaren sustatzaileen arduradunak** (Berdintasun Zerbitzua) eta **ezarpenaren arduradunak** (udaleko arlo edo sail guztiak) bereiztea beharrezkoa izango da. Modu berean, adierazi behar da sailak direla dagozkien ekintzak ezarri behar dituztenak, eta gainera, arlo/sail bakoitzeko ardura-dunak eta ezarpenerako arlo/sail bakoitzeko laguntzaileak bereizi daitezke.

ADIBIDEA



KRONOGRAMA

Denborak antolatu eta planaren ezarpen-abiadura egokitzeak funtsezko tresna da, horrela, diseinatutako neurriak iraunaldiaren amaieran ezarri direla bermatuko baita.

Plan baterako kronograma egitea (lau urteko iraunaldia izan beharko du ere) konplikatu da, baina hurbilketa egin daiteke, urte bakoitzean garatuko diren lanak eta zenbat denboran luzatuko diren zehaztuz; modu horretan, urteko programazioa egiten lagunduko duen tresna izango dugu, eta gainera, sortzen joango diren aukeretara eta egoeretara egokitzeak adinako malgutasuna izango du.

Horretarako, helburu bakoitzaren ezarpena egutegian zehaztuko da, eta urteroko plan eragileak egingo dira.

GARRANTZITSUA



AURREKONTUA

Administrazioek urtetik urtera egiten dituzte aurrekontuak, eta beraz, urte bat baino gehiagoko iraunaldia duen planaren aurrekontuaren definizioa zenbatespen bat besterik ez da. Aurrekontuen zenbatespen hori plan osoarena izango da, eta beraz, ezarpenerako beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak aditzera ematen dira.

Erabili beharreko logika kronogramaren atalean zehaztutako bera izan daiteke. Plana, beraz, urteroko plan eragilearekin eta urteroko gutxi gorabeherako aurrekontuarekin aurkeztuko da.

KUDEAKETA-SISTEMAREN DESKRIBAPENA

Planaren diseinua ez da osoa izango ezarpenerako beharrezkoak diren jarraipenerako eta kudeaketarako sistemak zehazten ez badira. Hurrengo kapituluak deskribatu eta ikusiko dugu planak nola diseinatu eta ezarri behar diren: urteko programazioa, jarraipena, balioespena, parte-hartzea, komunikazioa eta prestakuntza.

Edozein kasutan ere, kontuan izan behar dugu udalerriko berdintasun-planerako plana biltzen duen dokumentuan ezarpenerako emango diren urratsak adierazi beharko direla, zehaztasun handiagoarekin edo txikiagoarekin, baita prozesuotan parte hartuko duten pertsonak ere, giza baliabideak, aurrekontua eta honen kudeaketa-moduak, administrazioko onarpen-prozedura, plana malguago egiteko existitzen diren mekanismoak eta kudeaketarako egiturak.

ELEMENTUEN KONBINAZIOA EGITURAREN DISEINUAN


Amaierako egitura zehazteko garaian, kontuan izan behar dugu ardatzak, arloak edota programak helburu-taldeak zehazteko tresnak direla, eta gero jarraipena, balioespena eta kudeaketa egiterakoan bat etorriko direla.

Zentzu honetan, elementu horietako baten edo gehiagoren erabilera eta euren artean lotzen diren modua udaleko antolaketa-kulturaren arabera diseinatu beharko da, baita gero-
ra begira berdintasun-zerbitzuarentzat interesgarrien izango diren helburuen betetze-mailaren analisiko eta jarraipeneko emaitzak ere: zenbat eta egitura-maila handiagoa izan, konplexutasuna ere handiagoa izango da baina baita planarekin lotutako jardueren eta emaitzen analisia, jarraipena eta kudeaketa egiteko aukerak ere.

Azken batean, jarraitu beharreko ereduak garatutako berdintasun-politiken ibilbideari jarraitu beharko dio, baita erakunde bereko beste hainbat politiken ibilbideari ere.

Gainerako elementuak: esparru kontzeptuala, helburuak, estrategiak, ekintzak adierazleak, arduradunak, kronograma eta aurrekontua, plangintzaren teorien bakoitzak pisu espezifikoak eta funtzio zehatza du, bereziki berdintasun-plamak egiterakoan, aurreko puntuetan azaldu den moduan. Beraz, edozein kasutan ere erabiltzea gomendagarri litzateke.

5. IRUDIA: Zirriborrea egiteko fasearen gakoak



Egitura zehaztuta dugula, dokumentuaren **lehen zirriborrea** egiteko unea da. Fase honetan talde sustatzaileak du **ardura**, eta helburuak zehaztea da **funtssezko zeregina**, bakoitzarentzako jardura-estrategia, garatuko diren ekintzen prozesu edo multzoa, adierazleak -emaitzenak eta betetze-mailarenak (edo prozesu-adierazleak)-, pertsona arduradunak, kronograma eta aurrekontua zehaztuko dira. Gero, multzokako mailen osoko ikuspuntua zehaztuko da eta esparru kontzeptuala.

Fase honetan erreferentziazko dokumentuen orientabideak eta praktika egokiak kontuan hartzea komeni da, baina baita zehaztutako helburuen ezarpenaren ardura duten pertsonen iritzia ere.

Zentzu honetan, praktika egokia litzateke sailen arteko talde teknikoko kideekin idazketa-fasean topaketak egitea, batzarren nahiz elkarrizketen bidez, eta lehen zirriborroa egin aurretik gauzatu daitezke –elkarrizketatutakoek ezagutza-maila altua edo berdintasunean inplikazio handia badute- edo talde sustatzailearen lehen proposamen bat aurrean dela.


Bestalde, talde guztiarekin batera bilera eginez ere burutu daiteke, zirriborroa aurkezten zaie eta moldaketak egiteko denbora bat ematen zaie. Lehenengo aukera -elkarrizketena- da egokiena, sailen arteko taldea osatzen duten pertsonak euren jardueren diseinuan inplikatzeari baitakar berarekin, eta beraz, eduki pedagogiko altuko jardura garatuko dute. Dena den, beti ez da posible epe edo baliabide nahikoak izatea, eta beraz taldeko batzarrak izan daiteke alternatiba egoki bat.

Behin gomendioak kontuan hartuta, aztertuta eta balioztatuta, aldaketak sartu eta **bigarren zirriborroa** lortuko da, zehatzagoa, eta amaierakoarekin antza gehiago duena. **Batzarren** bitartez egiaztatzea komenigarria izango da, lortuko den dokumentua adostu, ñabartu eta osatzeko.

- 1. batzarra: **Sailen arteko Batzordearekin**, euren ekarpenen emaitzak itzuli beharko zaizkie eta zeintzuk barne hartu diren, zeintzuk ez eta zergatik azaldu beharko zaie.
- 2. batzarra: gizarteko **parte hartzeko organoekin**, emakumeenekin bereziki, eta diagnosiaren fasean eurek egindako ekarpenak kontuan nola hartu diren esan beharko zaie, eta ekarpenak egin baina bideragarriak izan ez diren kasuetan azalpenak eman, etorkizunera begira elkarren artean soluzioak bilatzeko.
- 3. batzarra: ardura politikoa edo zuzendaritzan diharduten pertsonekin, planaren edukien ezagutza sustatu eta udalbatzan onartua izatea errazteko.
- 4. batzarra: Prozesu honetan **udaleko sindikatuak** eta aurreko faseetan parte hartu duten pertsonak hartzeko aukera planteatu daiteke.

Azkenik, bigarren zirriborroa **publikoki audientzia** egingo da, udalerriko edozein pertsonak, elkartek edo erakundek ekarpenak egiteko aukera izan dezan.

6. IRUDIA: Udaltzatzen balioetsi eta onartzeko fasearen gakoak



Zirriborroa egin eta adostu ondoren, eta erabat onartu aurretik edukiei buruzko informazioa eman beharko du (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 15.4. artikulua) Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak, Eusko Jaurlaritzak legegintzaldi bakoitzaren hasieran onartu behar duen plan orokorrean aurreikusitako esku-hartze etaildoekin bat etorritik.

Berrikuspenaren eraginez **gomendio eta iradokizunen txostena** sortuko da, berdintasun-planak hobetzeko. Iradokizun horiek talde sustatzaileak gainbegiratzeko komeni da, ontzat ematen diren aldaketak sartzeko.

Prozesu honen guztiaren emaitza **behin betiko dokumentua** izango da, Udaltzatzen onartu beharko duen berdintasunerako udal-plana.

Udaltzatzen onartzea hobe da, alde aurretik Informazio Batzordeak edo Gobernu Batzordeak gainbegiratu ostean, horrela planaren maila handiagoa izango baita, eta gizarteratutagoa.

GARRANTZITSUA



Gomendagarria da ere aurrez ekarpenak eta berrikuspenak egiteko aukera izatea alderdi politikoei, horrela udalbatza osoak zuzenean onartuko baita dokumentua.

1.2.7

BERDINTASUN PLAN BAT DISEINATZEKO PROZEDURA LABURTUA

Gorago aipatutako alderdi guztiak kontuan hartuz gero prozesua konplexua egiten da, bereziki ahalik eta aukera gehien hartu nahi izaten direnean.

Hori guztia soilago egiteko modu bat beheko urratsak jarraituta berdintasun-plana osatzea da, dokumentu bat lortzeko gutxieneko puntuak biltzen baitira:

LABURPENA



1. *Udalerrian berdintasunaren egoerari buruzko diagnosia egin, kuantitatiboa (emaitzen adierazleen arabera) nahiz kualitatiboa (kuantitatiboko emaitzak pertonekin, elkarteekin, taldeekin edo erakundeekin egindako elkarrizketetatik lortutakoekin alderatuta).*
2. *Diagnosiaren arabera, lehentasunezko helburuak (8) hautatu, hautaketarako mugak udalaren baliabideen arabera ezarriz eta idazketa udalerriko egoera eta behar espezifikoetara mugatuta.*
3. *Helburuak udalaren egiturarekin eta udalerriko berdintasun-politiken egoerarekin egokitze-mailaren arabera antolatu (arloka, ardatzen edo programen arabera...), hala, erabiliko dituzten pertsona guztiek behar bezala ulertuko baitute.*
4. *Ezarri diren jardueretan eta udaleko politikaren ezagutzan oinarrituta, prozesurako proposamen bat egin helburuak lortzeko funtsezko ekintzak kontuan hartuta.*
5. *Sailen eta ezarpenaren ardura duten pertsonen iritzia alderatu, zeintzuk mantendu, moldatu edo ezabatuko eta gehituko diren adosteko, doku-*

(8) Helburuak “Berdintasunaren aldeko tokiko planen helburuak eta egintzak zehazteko orientabideak” dokumentua (CD) eta Autonomia Erkidegoko planen ildo orokorrak erreferentziatzat hartuta hautatu daitezke.

mentu egingarriagoa, legitimatuagoa eta adostuagoa lortzeko. Partehartzaileen laguntza eskatu kronograma, aurrekontuak eta arduradunak zehazteko.

- 6. Alderdi politikoen iritzia alderatu.*
- 7. Behin betiko zirriborroa sortu aurreko faseetan bildutako informazioan oinarrituta, eta udalbatzak balioztatu eta onartzera bideratu.*

1.3

**TOKIKO BERDINTASUN
PLANAREN KUDEAKETA
ETA BILAKAERA**

Jarraian garatuko den kapituluaren berdintasun-planen kudeaketarako ildo orokorrak eman-
go dira.

Kudeaketa-sistema hori plana planteatzen den aldi berean planteatu beharko da, plana-
ren egituraren eta pertsonen eta informazioaren kudeaketara egituren artean dagoen lotu-
ra sendoa baita.

Garatuko diren kudeaketarako eta balioespenerako oinarritzko planteamenduak amaiera-
ko dokumentuan barne hartzea garrantzitsua da, erabiliko diren tresna eta eginkizun
guzti-guztiak zehaztu behar ez badira ere. Izan ere, ezarpenaren prozesuan aldaketak
gerta baitaitezke erakundearen aldaketetara egokitu ahal izateko.

*Horregatik da garrantzitsua plangintzaren dokumentuak ildo orokorrak bil-
tzea, zehaztasun handiagorekin edo txikiagorekin, prozesuen egonkorta-
sunaren segurtasun-mailaren arabera, eta berdintasun-zerbitzuak plangin-
tzaren kudeaketarako barne-dokumentu zehatzagoa izatea.*

PROPOSAMENA



1.3.1

BERDINTASUN PLANAREN KUDEAKETAREN AURRETIKOAK: KUDEAKETARAKO EGITURAK SORTZEA

Kudeaketarako sistema baten lehen urratsetan egiturak sortuko dira, beti ere udalaren neu-
rriari ahalbidetzen badu. Ohikoena izango da ezarpenaren fasean garatzen diren egitu-
rak diseinuko fasean garatzen direnaren berdinak izatea, funtzio ezberdinak izango badi-
tuzte ere.

Gainera, behin plana onartuta dagoela, maila politikoan koordinaziorako egitura egon-
korra izendatzea gomendatzen da, eta egokia denean zuzendaritza mailan ere, baita
maila teknikoan ere.

Hauek nabarmenduko genituzke:

- **Talde sustatzailea -berdintasunerako unitate edo zerbitzuak-**. Langile egokiez osatu-
takoa (kopuruari eta trebakuntzari dagokionez), udalerriaren neurrira egokitua eta
egiten den lan-kopurura egokitua. (berdintasunaren unitatea, berdintasunerako zerbi-
tzua, berdintasuneko eragilea... hartarako ardura duen zinegotziaren zuzendaritza-
pean, edo arloko zuzendariarenean hala badagokio).

Hauek dira talde sustatzailearen **funtzioak**:

- Planaren ezarpenerako beharrezkoak diren zeregin guztiak koordinatu.
- Planean ezarritako ekintza eta helburu zehatzak garatu.

Zehazki, beheko funtzioak adieraz daitezke: planaren sustapena eta koordinazioa; parte hartuko duten eragile guztiei buruzko elkarriketa; informazioa eta komunikazioa; aholkularitza eta prestakuntza eta jarraipena eta balioespena...

ADIBIDEA



- **Sailen arteko talde politikoa -jarraipenerako eta sustapenerako egitura politikoa-**. Ardura politikoa eta erabaki estrategikoak hartzeko gaitasuna duten pertsonen osatutakoa, planaren ezarpenean inplikaturako erakundearen arlo guztietako ordezkariak (Tokiko Gobernu Batzordearen bidez osatu daitezke).

Funtzioak:

- Administrazioaren esparru guztietan garatzen diren berdintasun-politika erabakiak koordinatu.
- Berdintasunaren aldeko inplikazio politikoa erraztu eta sustatu, informazio egokia emanez.

- **Sailen arteko zuzendaritza-taldea -zuzendarien kudeaketa-egitura-** Existitzen diren udaletan zuzendaritzarako eta erabaki eragingarriak hartzeko gaitasuna duten pertsonen osatuta egongo da.

Funtzioak:

- Zuzendaritza-mailan erabakiak hartzea, hau da, plana sailetan abian jartzeko inplikazioa.
- Ekintzen jarraipena plana ezartzen den sailtako arduradunekin egiaztatzea ahalbidetu.
- Berdintasunaren alde lanean diharduten langile teknikoek garatu beharreko lanen inguruko informazioa eman.

- **Sailen arteko talde teknika -koordinazio teknikorako egitura-**. Berdintasun-neurriak garatzen dituzten udaleko arlo edo sail sektorialetako eta zeharkakoetako pertsonen osatua.

Funtzioak:

- Sail edo arlo bakoitzean berdintasunerako neurriak diseinatu, ezarri eta balioesteko lanak koordinatu.
- Hobekuntzak proposatu, aldaketak, planaren malgutasunerako irizpideak, etab.

- **Emakumeek edota herritarrek parte hartzeko espazioak edo organoak -herritarrek parte-hartzeko egiturak-**. Diseinuko faseko ordezkari-profil berekoek osatutakoak.

Adostutako **funtzioak** izango dira, besteak beste:

- Ezarpenean proposamenak egin, lagundu.
- Jarraipena, kontrola eta balioespena egin.
- Berdintasun-unitateei aholkularitza eman.
- Planaren ezarpenaren jarraipenean parte hartu.
- Iritziak eta analisirako gaitasuna sortu.

Kudeaketarako egiturak zehaztuta daudelarik, beheko irudian ageri diren prozesu nagusienak ezartzeko gai izango gara:

7. IRUDIA: Kudeaketa-prozesuak




Ikus daitekeen moduan, **programazioak**, **jarraipenak** eta **balioespenak** euren artean elikatzen duten prozesu bakarra osatzen dute, ondoko zikloari jarraiki: programazioan zehaztutako ekintzek urteko jarraipenaren helburuak zehazten dituzte; emaitza horien arabera zehazten da balioespena; eta honekin, hurrengo urterako programazioa erabakitzen da.

Esparru horretan, **prestakuntza**, **komunikazioa** eta **parte-hartzea** prozesu jarraituak dira, planaren garapenerako eta lan-dinamiken martxa zuzenerako ezinbestekoak.

Hurrengo ataletan adieraziko da bakoitza: zer den, noiz garatu behar den. nork inplikatutako behar duen era ezarpenarako ildo edo praktika egokiak.

8. IRUDIA: Programazio-prozesuaren gakoak



Dokumentu eraginkorra sortzeko prozesua da, eta urtean zehar garatuko diren helburu eta ekintzak zehazten dira bertan, arlo/sail arduradunak, laguntzaileak, pertsona arduradunak, inplikatu behar duten gizarte-eragileak, ekintzen denbora eta horiei lotutako aurrekontuak.

Udal bakoitzak erabakiko du zein den programazio-prozesuari ekiteko garairik egokiena, oinarritzko beste bi prozesurekin koordinatu behar dela kontuan hartuta:

- Udalaren aurrekontuekin, urtean zehar plana ezartzera bideratutako aurreikuspena barne hartu beharko baitu;
- eta urteko balioespenarekin, bertako emaitzak funtsezkoak izango baitira dokumentuaren diseinurako.

Bi alderdiak kontuan izanik, egokia izan daiteke urteko programazioa urte amaieran garatzea, udaleko aurrekontuen programaziorako erritmo eta denborekin koordinatuta.

	PROGRAMAZIO-PROZESUKO FUNTZIOAK
Talde sustatzailea edo berdintasunerako unitatea	Prozesu hau sustatu eta koordinatu.
Sailen arteko talde teknikoak eta zuzendaritza-taldea	Garatuko diren neurriak zehazteko oinarritzko informazioa eskaini, hau da, nork garatuko dituen, noiz, nola -zein ezaugarriekin- eta zenbateko aurrekontuarekin.
Sailen arteko talde politikoa	Prozesuaren hasieran jakinarazi beharko da. Amaierako emaitzaren baliozkotze-funtzioa betetzen du (adib. hastear dagoen urterako helburuei buruzko informazioa ematen den batzar batean).
Parte-hartzeko egitura, edo, Berdintasun Batzordea	Amaierako emaitza baliozkotu. Hastear den urterako programazioa aurkezteko batzar bat egitea komeni da, eta ahal dela balioespenean kontuan hartutako ekarpenak zeintzuk izan diren zehaztuko da, zein iradokizun barne hartu diren, zeintzuk ez eta zergatik.

Edozein kasutan ere, osoko ikuspuntutik, urteko programazioak nahiz honen jarraipenak prozesuan inplikaturako lan-agenda guztietan sartuta egon behar dute: langile politikoak, zuzendariak, teknikariak eta elkarte-mugimenduak; eta udaleko gainerako programekin bat etorri behar dute.

Programazio-prozesu baten adibidea:

ADIBIDEA



1. *Berdintasun Unitateak prestatzea –urteko balioespenetik ondorioak atera eta programaziorako informazio-bilketarako material edo fitxak prestatu–.*
2. *Talde politikoei edota zuzendaritza-taldeei informazioa eta lankidetzaz eskatzeko gutuna bidali.*
3. *Sailen arteko talde teknikoari deialdia bidali, programaziorako lehen batzarra egiteko.*
4. *Programaziorako lehen batzarra egin berdintasunerako unitatearen eta Sailen arteko Batzorde Teknikoaren artean, informazioa biltzeko fitxak, eginkizunak eta epeak zehaztu eta proposamenak azaltzeko. Udalaren ezaugarrien arabera, sailen arteko zuzendaritza-taldeari batzar honetara joateko eska dakioko, berdintasun-unitatearen balioespenaren arabera.*

5. Bigarren batzarrerako deialdia. Sail bakoitzeko berdintasun-neurrien plangintzarako aldiaren ondoren berdintasun-unitateak edo talde sustatzaileak informazioa bildu, aztertu eta egituratuko du. Hori egindakoan, sailen arteko koordinazio teknikoko taldea bilduko du.
6. Programaziorako bigarren batzarra, programazio-prozesuaren emaitzak aurkeztu eta baliozkotzeko. Sailen arteko Batzorde Teknikoaz gain, sailen arteko zuzendaritza-taldeari batzar honetara joateko eska dakioke, berdintasun-unitatearen balioespenaren arabera.
7. Hastear den urterako programazio-prozesuak sailen arteko talde politikoari eta parte-hartzeko egiturari aurkeztea, baliozkotu eta egiaztatzeko.

Bestalde, informazioaren bilketa beheko fitxaren antzekoa erabiliz egin daiteke:

PROPOSAMENA

P

EKINTZEN PROGRAMAZIORAKO FITXA

I. BLOKEA. KOKAPENA ETA EKINTZAREN DESKRIBAPENA

Arloa:

Ardatza:

Programa:

Helburua:

II. BLOKEA. EKINTZAREKIN LOTUTAKO OINARRIZKO ELEMENTUEN DESKRIBAPENA

Enuntziatua

Deskribapena (Ekintza deskribatu, fasekako garapena, lanerako tresnak, helburuak eta abar moduko alderdiak kontuan hartuta)

Sail eta pertsona arduraduna(k) (Sail edota zerbitzu arduraduna identifikatu, baita ezarpenaren arduradun diren pertsonak ere)

Jardueraren izaera (hasiera edo bukaera duen adierazi, edo urte osoan zehar garatzen den. Urtero garatzen den edo aurten bakarrik garatzen den esan)

Amaitzeaz/Jarraituko du

Urtero/aurten soilik

Ekintzaren hasierako hilabetea eta aurreikusitako iraupena

Ekintza garatzeko aurreikusitako aurrekontua (Horri lotutako kostu guztiak kalkulatu, eta aurrekontua zein arlotatik jasoko den adierazi)

Erakunde laguntzaileak (ekintzaren garapenerako udalaren barneko edo kanpoko erakundeen –beste hainbat erakunde, elkarte...- koordinazioa beharrezkoa denean, adierazi zeintzuk diren)

Barnekoak


Kanpokoak

Espero diren emaitzak (zehaztutako ekintzen betetze-mailaren edo prozesuaren adierazleen arabera zenbatekotasuna)

1.3.3

JARRAIPENA

9. IRUDIA: Jarraipenerako prozesuen gakoak



Prozesu honen **helburua** hirukoitza da:

- 1) Programaziorako dokumentuaren ezarpen-mailaren bilakaera ezagutu, eta kronogramarekin, aurrekontuekin eta espero ziren emaitzekin bat datozen ala ez adierazi.

- 2) Existitzen diren arrakastei eta zailtasunei (eta horiek gainditzeko ezar daitezkeen mekanismoei) buruzko hausnarketa eta aholkularitzarako espazioa sortu.
- 3) Hasierako plana hobetu edo gerta daitezkeen moldaketan inguruko erabakiak hartu, beharrezkoa den malgutasun-irizpidea kontuan hartuta.

Udaletako sailen arteko koordinazio teknikorako taldeak prestakuntza gutxi eta berdintasun-ibilbide laburra duten langileez osatuta egon daitezke. Langileak prestatuta eta motibazioz beteta daudeneko kasuetan ere programa-dokumentuek planteatutako ekintzak garatzeko orduan euren sailaren barruan oztopoak aurkitzea gerta daiteke.

Zentzu honetan, bilakaera aztertu, kezkak eta zailtasunak partekatu eta gut-tien artean hausnarketa egiteko espazioarekin berdintasun-planen garapen handiagoa eta hobeagoa lor daiteke.

PROPOSAMENA

P

Urteko programa-dokumentuaren iraunaldian zehar bi edo hirutan egitea komeni da, sei hilero edo lau hilero.

JARRAIPEN-PROZESUKO FUNTZIOAK

Talde sustatzailea edo berdintasunerako unitatea	Prozesua koordinatu eta dinamizatu.
Sailen arteko talde teknikoa	Aurrez behar den informazioa eskaini eta programatutako jarraipen-batzarretan parte hartu, Planari buruzko hausnarketak eta puntu sendoen eta ahulen analisia, aldatetako egiteko beharraren ikuspuntua eta iradokizunak, hobetzeko alderdiak, etab.

Jarraipen-prozesu baten adibidea:

ADIBIDEA



1. **Prestaketa**, Berdintasun Unitateak -prozesuaren definizioa, eginkizunak eta arduradunak eta informazio-bilketarako material edo fitxak prestatzea-
2. **Prozesuari buruzko azalpena** eta sailen arteko talde teknikoari deialdia bidali (Berdintasun Unitateak) eta informazioa biltzeko fitxak bidali.
3. Diseinatutako neurriek plangintzaren arabera izan duten bilakaerari, zailtasun eta alternatibei, betetze-mailari, higitutako baliabideei, inbertitutako aurrekontuari, espero diren emaitzei eta abarrei buruzko informazioa duten **fitxak bildu**.

4. Informazioaren analisia, Berdintasun Unitateak egindakoa, ondorengoei buruzko ondorioak ateratzeko:

a) zeintzuk dira oztopo nagusienak eta sein alternatiba proposatu dira planean planteatutako helburuak lortzeko;

b) programa-dokumentuaren betetze-mailaren bilakaera.

Jarraian, arazo orokorrak zehaztuko dira, eta horiek gaingintzeko alternatibak. Batzarrerako materiala bilduko da, oztopo eta alternatibak bilduko dituen, baita beste hainbat arrakasta ere.

5. **Lan-batzarra** -landuko diren gaiekin bat datorren iraupenarekin-, berdintasun-unitateak prestatutako materialari buruz, zailtasunak eta horiek gaingintzeko oztopoak aztertzeko eta beharrezkoak diren erabakiak hartzeko. Batzordeek lortutako emaitza arrakastatsuak ere aurkeztuko dira.

6. **Batzarreko aktaren laburpena**, landutako gaiekin eta hartutako erabakiekin. Talde teknikoari bidaliko zaio, eta parte-hartze organoekin eta espazioekin batera aztertuko da. Gero, **jarraipenaren txostena** ezagutaraziko zaie zuzendari eta politikariei aztertzeko, analisia eta balioespena egiteko.

Jarraipenerako informazio-bilketa egiteko erabil daitezkeen fitxaren eredu erantsi dugu jarraian.

EKINTZEN JARRAIPENERAKO FITXA

I. BLOKEA. KOKAPENA ETA EKINTZAREN DESKRIBAPENA

Arloa:

Ardatza:

Programa:

Helburua:

II. BLOKEA. EKINTZAREKIN LOTUTAKO OINARRIZKO ELEMENTUEN DESKRIBAPENA

Enuntziatua

Deskribapena (Ekintza deskribatu, faseko garapena, lanerako tresnak, helburuak eta abar moduko alderdiak kontuan hartuta)

Sail eta pertsona arduraduna(k) (Sail edota zerbitzu arduraduna identifikatu, baita ezarpenaren arduradun diren pertsonak ere)

Jardueraren izaera (hasiera edo bukaera duen adierazi, edo urte osoan zehar garatzen den. Urtero garatzen den edo aurtentakorik garatzen den esan)

Amaitze/Jarraituko du

Urtero/aurten soilik

EKINTZAREN BETETZE MAILA

Osoa

Zatika

Ezer ez

Ekintzaren hasierako hilabetea eta aurreikusitako iraupena

Ekintzaren hasierako hilabetea eta izan duen iraupena edo jarraipena egiterakoan iraungo zuela uste zena

Urteko programazio-dokumentuan ekintza garatzeko aurreikusitako aurrekontua

Ekintza zehatzaren ustezko aurrekontua edo jarraipena egiteko uneko aurreikuspena eta gaur arte gauzatutako aurrekontu-zatia

Espero ziren emaitzak (zehaztu diren betetze-mailaren adierazlearen arabera espero behar dugun zenbatekotasuna)

Jarraipena egitean emaitza zehatzak edo ustezkoak (zehaztu diren betetze-mailaren adierazlearen arabera jarraipena egitean lortu dugun zenbatekotasuna)

Ekintzak ezartzeko zailtasunak (Programatutakoaren eta burututakoaren arteko aldearen arrazoiak)

Ekintza burutzeko proposamenak (antzemandako zailtasunak gainditzeko alternatibak)

1.3.4

BALIOESPENA

Planaren betetze-maila eta burututako jarduerak izan duten inpaktua zehazteko funtsezko prozedura da balioespena. Zentzu honetan, bi balioespen-mota aztertuko ditugu bereziki: betetze-mailaren balioespena eta emaitzen balioespena.

Gogoratu beharrekoa da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 5.d. artikuluan ezartzen denez Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak botere publikoek garatutako berdintasun-politikak

GARRANTZITSUA




balioesteko obligazioa duela. Horregatik, urtero udalei eta inplikaturako gainerako erakundeei gauzatutako berdintasun-planen inguruko informazioa eskatzen die.

Informazio hori ematea beharrezkoa da botere publiko guztiek berdintasunaren alde egingandako lanari buruzko balioespena ahalik eta zehatzena izan dadin. Gainera, bildutako informazioa erabilgarria izan daiteke udalentzat, betetze-maila balioesteko.

BETETZE-MAILAREN BALIOESPENA

10. IRUDIA: Betetze-mailaren balioespen-prozesuaren gakoak



Urtean behin egin beharrekoa da, baita planaren iraunaldiaren amaieran ere, betetze-mailaren adierazleetan oinarrituta. Prozesu-adierazleak ere deitzen zaie (ikus Adierazleak puntua, 56 or.). Urteko dokumentu eragileetan –urteko balioespena denean- edo plan osoan –azken balioespena denean- planifikatutako ekintzak zein neurritan gauzatu diren jakitea da helburua.

Urteko balioespenarekin informazio erabilgarria eskaintzea komeni da, udaleko jarduerak birplantatu nahi badira.

Planaren iraunaldiaren azken urtean, urteroko informazioa biltzeaz gain, aldi osoko informazioa ere bildu beharko da planifikatutakotik zein ehuneko ezarri den **ondorioztatzeko**, eta nolako emaitzak izan diren jakiteko (pertsona onuradunak, sortutako azpiegiturak, etab., betetze-mailaren adierazleen zenbatekotasunaren arabera).

	BETETZE-MAILAREN BALIOESPENERAKO PROZESUAREN FUNTZIOAK
Talde sustatzailea edo berdintasunerako unitatea	Prozesuaren arduraduna, kudeaketarako gainerako egituren laguntzarekin.
Sailen arteko talde teknikoa	Gauzatu diren eta ez diren ekintzei buruzko informazioa eman, eta gauzatu ez izanaren arrazoiak eman.
Sailen arteko talde politikoa	Prozesuaren hasieran jakinarazi beharko zaie. Amaierako emaitzak baliozkotu.
Parte-hartzeko egitura, edo, Berdintasun Batzordea.	Planaren betetze-maila eta gizartean emaitzak zenbateraino ikusten diren balioetsi.

Informazioa biltzeko materialak programazioarekiko eta jarraipenarekiko koherenteak izatea komeni da, horrela ezarpeneko prozesuen bilakaera balioetsi ahal izango baita eta informazioa berreskuratzea errazagoa izango baita.

Modu berean, prozesuek euren artean antzekoak izan behar dute eta gainera denboran zehar mantendu beharko dira, ikasketa bat egon dadin.

Balioespen-prozesu baten adibidea:

ADIBIDEA



1. **Prestaketa**, talde sustatzaileak –prozesuaren definizioa, eginkizunak eta arduradunak eta informazio-bilketarako material edo fitxak prestatzea–.
2. Talde politikoei edota zuzendaritza-taldeei informazioa eta lankidetzak eskatzeko **gutuna bidali**
3. Sailen arteko talde teknikoari **deialdia bidali**, balioespenerako lehen batzarra egiteko.

4. **Balioespenerako lehen batzarra egin** berdintasunerako unitatearen eta talde teknikoaren artean, informazioa biltzeko fitxak, eginkizunak eta epeak egiaztatu eta proposamenak azaltzeko. Udalaren ezaugarrien arabera, sailen arteko zuzendaritza-taldeari batzar honetara joateko eska dakioko.
5. **Informazioaren analisisa eta txostena egitea.** Bete diren ekintzak eta horiek lortu dituzten emaitzak (espero zirenak eta ez zirenak) eta bete ez diren ekintzak eta bete ez izanaren arrazoiak biltzen dituen txostena egingo da. Ekintzen analisisen bilduma eta ondorioak ateratzearenak berdintasun-planerako hautatu den egituraren arabera egin daitezke (bete-tze-maila arloka aztertuz, ardatzen arabera, programen arabera, eta abar, komeni den moduan).
6. **Balioespenaren bigarren batzarra**, balioespen-prozesuko emaitzak aurkeztu eta baliozkotzeko. Talde teknikoaz gain, sailen arteko zuzendaritza-taldeari batzar honetara joateko eska dakioko, berdintasun-unitatearen balioespenaren arabera.
7. **Balioespen prozesuko emaitzak** sailen arteko talde politikoari eta parte-hartzeko egiturari edo Berdintasun Batzordeari aurkeztea, baliozkotu eta egiaztatzeko.

Balioespena egiteko, Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak bidaltzen duen fitxa erabil daiteke eredu moduan, udalarentzat baliagarria izan daitekeen informazio gehiago txertatuta (programazioan eta jarraipenean erabiltako materialaren antzekoak erabiliz).

PROPOSAMENA

P

EKINTZEN BETETZE MAILAREN BALIOESPENERAKO FITXA

I. BLOKEA. KOKAPENA ETA EKINTZAREN DESKRIBAPENA

Arloa:

Ardatza:

Programa:

Helburua:

II. BLOKEA. EKINTZAREKIN LOTUTAKO OINARRIZKO ELEMENTUEN DESKRIBAPENA

Enuntziatua

Deskribapena (Ekintza deskribatu, fasekako garapena, lanerako tresnak, helburuak eta abar moduko alderdiak kontuan hartuta)

Sail eta pertsona arduraduna(k) (Sail edota zerbitzu arduraduna identifikatu, baita ezarpenaren arduradun diren pertsonak ere)

Jardueraren izaera (hasiera edo bukaera duen adierazi, edo urte osoan zehar garatzen den. Urtero garatzen den edo aurten bakarrik garatzen den esan)

Amaitzeaz/Jarraituko du

Urtero/aurten soilik

EKINTZAREN BETETZE MAILA

Osoa

Zatika

Ezer ez

Ekintzaren hasierako hilabetea eta aurreikusitako iraupena

Ekintzaren hasierako hilabetea eta iraupen errealak

Urteko programazio-dokumentuan ekintza garatzeko aurreikusitako aurrekontua


Ekintza burutzeko gauzatu den aurrekontuaren zatia

Espero ziren emaitzak (zehaztu diren betetze-mailaren adierazleen arabera espero behar dugun zenbatekotasuna)

Lortu diren emaitzak (zehaztu diren ekintzen betetze-mailaren adierazleen arabera lortu denaren zenbatekotasuna)

Ekintzak ezartzeko zailtasunak (Programatutakoaren eta burututakoaren arteko aldeak arrazoiak)

11. IRUDIA: Emaizen balioespen-prozesuaren gakoak



Emaizen balioespen-prozesuak planak izan duen berehalako inpaktua neurtzen du, eta gizartearen eragin duen aldaketa zenbaterainokoa izan den zehaztea du helburu.

Emaizen adierazleen abiapuntuko neurrien eta planaren iraunaldiaren amaierako neurrien arteko aldeak zehaztuko digu helburuetan zehaztu den errealitatera hurbiltzea lortu den ala ez.

Emaizen balioespena funtsezkoa da, gizartearen abiapuntuko egoeraren analisi kuantitatibotzat jotzen baita. Horregatik, emaitzak berak balioko digu helburuak zein neurritan betetzea lortu den jakiteko eta hurrengo plana egiterakoan gizarteko zein behar lehenetsi behar dugun jakiteko.

GARRANTZITSUA



Horretarako, udalak planteatutako helburuen emaitzen adierazleei buruzko datuak bildu behar dira (ezarpenaren aurrekoak nahiz ondorengoak). Ahal dela, erreferentziazko dokumentuetan gomendatutako adierazleak erabiltzea komeni da, lortutako datuak beste udaletakoekin alderagarriak izan daitezen.

Informazioaren bilketa eta analisisa egiteko ardura talde sustatzailearena izango da, kanpoko laguntza eskatzeko aukera ere badago ere. Sail bakoitzeko datuak bildu, eta ahal dela (edo beharrezko bada) inkesten bidez egin daiteke bilketa hori. Informazioaren bilketan sailen arteko talde teknikoak parte hartzea komeni da informazioaren bilketan laguntzeaz gain Berdintasun Unitatera bidal ditzan, han aztertzeko.

Udalerri txikiek edo bakarkako azterketa-lana kontratatzeko zailtasunak dituztenek bigarrenengo iturriek emandako datuen erreferentziak erabil ditzakete edota eskualdeko beste udalerriekin, mankomunitateekin, koadrilekin, etab. batera azterketak egin.

Testuinguru honetan aipatu behar da balioespenerako garapen-moduak antzak direla eta udalerri ertain edo handietan komeni dela balioespena kanpoan egitea (edo mistoa); udalerri txikienetan, berriz, egokiago izango da barruan egitea.

PROPOSAMENA

P

Amaitzeko, esan beharra dago balioespenak ikasketa-prozesu moduan uler daitezkeela. Hala, prozesu horietan langile teknikoek gain langile politikoei eta herritarrek ere parte hartu beharko dute, dagokien parte-hartzeko espazioen eta organoen bitartez.

12. IRUDIA: Parte-hartzearen, prestakuntzaren eta komunikazioaren prozesuen gakoak

PARTE HARTZEA, PRESTAKUNTZA ETA KOMUNIKAZIOA

ZER DA?:
FUNTZIOA

Planaren iraunaldi osoan zehar **etengabe** jorratu beharreko prozesuak dira, baina komeni da planak helburu orokorrak zehaztea eta berariazko helburuak urtero planifikatu eta eragingarri egitea.

NORK?

Talde sustatzaileak (politikari eta teknikariak) -arduradun nagusia-, kanpoko aholkularitzaren laguntzarekin (hautazkoa).

NOLA?

- **Parte-hartzea:** berariazko prozesuak diseinatu, **parte-hartzeko organoek eta espazioek** programazioaren, jarraipenaren eta balioespenaren inguruan kudeaketarako egiturei aholkularitza eskaini ahal izan diezaieten. Gainera, bestelako helburuak (prestakuntza, komunikaziorako ekintzak antolatzea, etab.) barne hartzen dituzten parte-hartzeko prozesu gehiago ere ezar daitezke, komunikazioa beti ere eskubide moduan hartuta.
- **Prestakuntza:** maila guztietako langileen (politikariak, teknikariak eta administrariak; sailen arteko talde teknikoaren behar guztiak aseko dira) prestakuntza-behar guztiak aseko dituen plana diseinatu.
- **Komunikazioa:** berdintasun-planaren helburuak betetzen lagunduko duten **barneko eta kanpoko** komunikazio-ekintzak diseinatu, planifikatu eta ezarri.

ZEIN?

Etenaldiak bada ere, planaren indarraldi osoan zehar.

Emakumeen ahalduntzea eta gizartearen eta politikaren arloko parte-hartzea EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren lau ardatzetako bat dela kontuan hartuta, berdintasun-politiken diseinua, programazioa eta balioespena izaera jarraitua duen parte hartzeko prozesuan oinarritu beharko da bi helburu nagusi lortzeko.

Batetik, **udaleko plangintzaren kalitatea hobetu** nahi da. Emakumeek parte hartzeko organo edo espazioak sortu edo aktibatzearekin behekoak ahalbidetuko dira:

- generoaren diagnosi-lanetan sakontzea;
- emakumeen behar praktiko eta estrategikoak zehazteko adostasun-maila altuagoak lortu;
- berdintasun-planaren ezarpenean eta jarraipenean guztion konpromiso-maila finkatu.

Bestalde, **emakumeen ahalduntzeko helburu estrategikoa** lortzera bidean urratsak ematen dira udaleko egituretara hurbilduz eta ordezkariak politikorako baliagarriak direla aintzatetsiz.

Parte hartzeko prozesuak diseinatzera koan hainbat gai kontuan hartzea komeni da.

• Gakoa: prozesua

Eraginkorra izan dadin, parte hartzeak **une** puntualen lotura baino gehiago izan beharko du. Herritarren parte hartzeari buruzko informazioa jasotzeko eta erabakiak hartzerakoan ere laguntzeko balio badu ere, iraupen laburreko mekanismo-mota horiei denboran luzatzen diren bestelako ekimenek gizartea eraldatzeko duten gaitasuna falta zaie.

Prozesuek, berriz, alde guztien konpromisoa eta erantzukidetasunaren baloreak dituzte, baita etengabeko balioespenarena ere. Erakundeen nahiz herritarren jokabidea eraldatzeko gaitasuna ere badute, konfidantza handitzeko, entzutekoa eta elkarrizketaren alde egitekoa.

Azken batean, **hezkuntza- eta ahalduntze-prozesuak dira**.

Tokian tokiko berdintasun-planen diseinuko, jarraipeneko eta balioespeneko faseek duten lan-zikloarekin udalerriko emakumeen parte-hartze soziopolitikorako bideak sortu eta denboran zehar iraunaraztea eragiten dute.

GARRANTZITSUA



Parte-hartzea:

- **Eskubide** moduan ulertzen da, eta beraz, ez da dokumentu honetan adierazten den planen diseinuen prozesura soilik mugatzen.
- **Beste hainbat esparrutan lan egitea** ahalbidetzen du, beste hainbat helburutarako batzarrak antolatzea (martxoaren 8a, azaroaren 25a eta antzeko egunetan jarduerak antolatzea, Batzordean parte hartzen duten erakundeen interesekoa izan daitezkeen gai espezifikoetako lan-saioak antolatzea, etab.).
- **Jarrera oneko ikuspuntutik** garatu behar dira, eta horietan oinarrituta emakumeek parte hartzeko espazio edo organoetatik tokiko berdintasun-politiken garapen-prozesua indartuko da. Baina parte-hartze aktiboa, sustatutakoa, kritikoa, proposamenak eskaintzekoa, etab. errazteko mekanismoak ere ezartzeko aukera eman behar da.

• Parte hartzera gonbidatu

Prozesu honen talde sustatzailea berdintasun-unitatea edo -zerbitzua bada (arduradun politikoak eta administrazioak langileak barne), parte-hartzeko prozesuaren diseinua eta sustapenean duen eginkizuna funtsezkoa da. Modu batean zein bestean prozesuan parte hartzen duten herritarren eta udaleko arlo eta sailen artean zubi moduan ere joka dezake.

Zein herritarrek hartzen du parte? Parte-hartzearen oinarriak **elkartek, norbanakoak eta mistoak** izan daitezke. Berdintasun-arloek zuzendutako prozesuen kasuan emakumeen elkarteak dira lehenesten diren hizketakideak, edo, bestela, Berdintasun Batzordeetako edo udalerrian egon litezkeen bestelako parte-hartzeko espazio edo organoetako kide diren emakumeak. Kontuan izan behar da mota honetako Sektore Batzordeetan politikariek, langile teknikoek eta elkartutako herritarrek parte hartu ohi dutela.

Dena den, prozesu hauetara elkartuak ez diren herritarrek ere parte hartzea beharrezkoa da, ekarpenen aniztasuna handiagoa izan dadin, bereziki emakumeen elkarte-ehundura ahulagoa den tokietan eta elkartegintza-tasa txikiagoa duten emakume-taldeen artean.

PROPOSAMENA



Prozesu osoan edo zenbait fasetan gizonen parte-hartzea (elkartuak izan edo ez) sustatzea ere planteatu daiteke, Planaren helburuekiko duten kon-

*tzientziazio-maila eta konpromisoa areagotzeko, erantzukidetasun handi-
goa sustatzeko eta gizonekin esku hartzeko estrategia eraginkorrak bilatzeko.*

• Parte hartu nahi, jakin eta ahal izan

Herritarren motibazioak zeintzuk diren hausnartzea garrantzitsua da, emakumeen moti-
bazioak bereziki.

Gonbidapena egitea zenbaitetan ez da nahikoa izaten, eta kasu horietan parte-hartzaile-
ak eroso sentituko diren espazioak sortu behar dira, euren ekarpenak ere kontuan hartzen
direla ikusi behar dute.

*Praktika egoki moduan, azpimarratzekoa da berdintasun-unitatetik edo -zer-
bitzutik adostasuna bilatzearen garrantzia, beharrezkoak diren elementu
guztien eztabaida sustatuz eta elkarteen parte-hartzeari garrantzi handia eta
objektiboa emanez.*

PROPOSAMENA

P

Bestalde, oinarritzotzat jotzen diren ekimen guztietan politikarien laguntza izatea komeni
da, eta azkenik, parte har dezaketen gainerako langile teknikoekin lan-dinamika egonko-
rrak edo puntualak garatu, emakumeek parte hartzeko espazioetan.

Gainera, kontuan izan behar da oraindik ere **parte-hartzearen kultura** urria dela, bai era-
kundeetan baita herritarren artean ere. Hortaz, herritarren parte-hartzearen gaietan gai-
tzeko eta prestatzeko jarduerak aurreikustea gomendatzen da, parte hartuz ikasten baita
parte hartzen eta gainera, prozesua bera inplikaturako alde guztientzat ikasketa-biderik
onena da.

Ikuspuntu orokor batetik, emakumeen elkarteetan eta bestelako eragileetan parte-hartzea
beharrezkoa dela planteatu da, eta prozesu osoan zehar garatu beharko da, informazio-
trukerako etengabeko **mekanismo egokienak** bilatuz. Izan ere, horrela udaleko plangin-
tzako parte-hartzearen egitura jarraitua eta zeharkakoa izango baita.

Helburu hori lortzea ez da erakundeek sortu beharreko antolakuntza-espazio eta -egitu-
retatik soilik aterako, herritarren elkarteetan ekintzarako gaitasunak ere eragin handia baitu.
Kasu honetan, emakume-elkarte askoren egituraren hauskortasunagatik kanpoko egiture-
tan parte hartzeko gaitasuna urritzen zaie.

Egoera honen konponbidea ez da erraza, baina kontuan hartu beharko da berauetako
ordezkarien parte-hartzea eskatzen denean, eta epe motz eta ertainera lan hori errazteko

laguntza-neurriak identifikatu beharko dira (batzarretako orduetan haurtzaindegi-zerbitzuak eta beraburuetako ordutegiak egokitzea).

Parte-hartzeko prozesu baten adibidea:

ADIBIDEA



Parte-hartzeko prozesuaren prestaketa

1. *Prozesuko talde sustatzailearen prestakuntza (berdintasun-unitatea edo -zerbitzua izan ohi da, politikari eta teknikari arduradunekin batera).*
2. *Emakumeen elkarte-ehunduraren ezaugarrien analisia eta udalerriko funtsezko beste hainbat eragile identifikatzea.*
3. *Identifikatutako elkarte eta gizabanakoekin harremanetan jarri parte har dezaten sustatuz, ekarpenak bilduz eta prozesuaren faseak definituz.*
4. *Udaleko beste hainbat arlo eta zerbitzuekin aliantza estrategikoak ezarri parte-hartzearen aldeko konpromiso politikoa eta teknikoa aditzera emateko.*
5. *Prestakuntza-ekintzak antolatu herritarren beharren arabera, arduradun diren langile tekniko eta politikoentzat.*

Aurreko Planaren balioespen-fasea eta genero-diagnosia

6. *Berdintasunerako tokiko plana existitzen diren parte hartzeko espazio eta organoetara balioespen-saioetarako deialdia prestatu eta bidali.*
7. *Udaleko jardueren puntu sendo eta ahulei buruzko diagnosia garatzera bideratutako saio bat edo gehiago antolatu. Eragile aktibotzat jo daitezke parte hartzeko espazioak, gaitasun kritikoa, analisi-gaitasuna, balioespenekoa eta proposamenak eta hobekuntzarako eta gomendioetarako definizioak egiteko gaitasuna badute.*

Berdintasun-plan berriaren programazio-fasea

8. *Parte hartzeko espazioek hurrengo tokiko berdintasun-planaren programaziorako egindako ekarpenak analizatu eta barneratu.*
9. *Berdintasunerako tokiko plana parte hartzeko espazio eta organoetara balioespen-saioetarako deialdia prestatu eta bidali. Planaren egitura zehaztu eta zirriborroa osatzeko ekarpenak egiten dira.*
10. *Aurkezpenerako saioa antolatu, egindako programazio berria egiaztatu eta baliozkotzeko.*

Berdintasun-planaren jarraipen eta balioespenaren fasea

11. *Berdintasunerako tokiko plana parte hartzeko espazio eta organoetara balioespen-saioetarako deialdia prestatu eta bidali.*
12. *Tokiko berdintasun-plan berriaren jarraipena egiteko saioak antolatu (plana onartu denean, dagoeneko garatzen hasia izan beharko luke eta gutxi gorabehera ezarpenerako aurreikusitako aldiaren erdia iraganda).*
13. *Planaren amaierako balioespen-prozesua prestatu eta abian jarri, eta horrela, programazio-ziklo berriari ekingo litzaioke existitzen diren parte hartzeko espazio eta organoetan.*

Zehaztasun handirik gabe adierazi dugun prozesuak aldaketak jasan ditzake, bereziki parte hartzeko egituretan garatuko diren saioen kopuruan, parte hartzen duten erakunde eta herritarren arabera ezarri beharko baita erritmoa eta bestelako lan-esparruetako batzarrak egiteko adina denbora ere kontuan hartu beharko baita.

Prozesu zirkularra da, programazioak eta balioespenak elkar elikatzen dute bigarrenean egindako ekarpenak kontuan hartuz ekiten baitzaio lehenengoan barneratzeko. Emakumeek parte hartzeko espazio edo organoekin ekingo den prozesu honi tokiko planaren balioespena egitearekin ekingo litzaioke, eta hurrengo programazioarekin amaituko litzateke, hau da, hurrengo tokiko berdintasun-plana abian jartzearekin.

1.3.6

PRESTAKUNTZA

Testuinguru honetan, udaleko langileen lana garatzea erraztuko duten baliabideak egituratzea litzateke prestakuntza egitea, eta euren eguneroko lanera moldatu daitezkeen tresnak eta ikasketak eskainiko litzaizkieke.

Talde sustatzailea da udalean motako honetako prozesuak diseinatu eta dinamizatzeko ardura duena, eta egiturazko parte hartzea behar du prozesu honek, prestakuntza-beharra zehazteko, ezarpenerako eta prozesuaren balioespenerako. Udaleko langileen etengabeko prestakuntzarako arloaren arduradunak eta berdintasunaren gaian ardura duten udaleko arlo guztiek parte hartuko dute, bereziki sailen arteko koordinazioarako talde teknikoaren eskutik.

Berdintasun-politiken diseinuan, ezarpenean edota balioespenean ardura duten udaleko langile guztiei (banaka edo taldeka) **bideratutako** prestakuntza-prozesua da:

- Berdintasun-planaren sail arteko talde teknikoa
- Politikariak
- Teknikariak
- Administrazioako langileak

Emakumeei edota herritarrei zuzendutako prestakuntzaren aukera ere kontuan har daiteke.

Bestalde, oinarrizkoa da existitzen diren prestakuntza-beharren mota guztien antzematea, definizioa eta bereizketa egitea, eta bideratutako publikoaren arabera aldatuko dria:

- Udaleko langile guztien prestakuntza-behar orokorrak (politikariak, teknikariak eta administrazioakoak):
 - Berdintasun-politikei, ekintza positiboek eta genero-mainstreamingari buruzko oinarrizko kontzeptuak.
 - Legeen eta arauen esparrua.
 - Irudi eta lengoaia ez-sexistak erabiltzea.
 - Beste hainbat.
- Langile teknikoen prestakuntza-behar orokorrak:
 - Datuak sexuaren arabera banatuta jaso, tratatu eta hedatu.
 - Genero-inpaktuaren balioespena.
 - Kontratazioak eta diru-laguntzen aginduak genero-ikuspuntua erabiliz diseinatu, ezarri eta balioetsi.
 - Gizartearen errealitatearen diagnostika eta analisia egin genero-ikuspegian oinarrituta.
 - Beste hainbat.
- Sail arteko talde teknikoarentzat berdintasun-planen inguruko berariazko prestakuntza-beharrak:
 - Sailen arteko koordinazioa eta berdintasunerako udal planen ezarpen-prozesuen dinamizazioa.
 - Beste hainbat.
- Udaleko berdintasun-planetan bilduta datozen ekintzak abian jartzeko berariazko prestakuntza-beharrak (berauean bildutako ekintzak abian jartzeko ardura duten langile teknikoak):
 - Emakumeen aurkako indarkeria.
 - Generoa eta enplegua.
 - Generoa eta inmigrazioa.
 - Generoa eta hirigintza.
 - Beste hainbat.

Udaleko langileak gaitzeko prozedura etengabekoa izatea komeni da, aldizka garatuz eta tokiko berdintasun-politiken plangintzarako prozesu orokorre lotuta. Udaleko berdintasun-politiken plangintzak elkarren artean lotutako prozesuak abian jartzea eskatzen du, osoko plangintza osatzeko (prestakuntza, komunikazioa, parte-hartzea...).

Prestakuntza-prozesuaren garapenerako beheko **ekintzak** abian jarri beharko dira:

- **Prestakuntza-beharren definizioa eta analisisa**

Prestakuntza-beharren identifikazioa elkarren arteko lan-prozesuan oinarritu beharko du eta prestakuntza hartuko dutenen inplikazio aktiboa bilatu behar da (politikariak, teknikariak eta udaleko administrazioako langileak).

Hasiera batean Berdintasun Unitatea izango litzateke analisi hau egiteko prozesuaren dinamizatzailea eta udaleko langileen etengabeko prestakuntzarako arloarekin batera garatuko litzateke, sailen arteko koordinaziorako talde teknikoaren laguntzarekin. Gainera, analisiaren prozesuak prestakuntza-behar mota ezberdinak asetzerantz bideratuta egon beharko du.

Adibidez orokorrak, sailetakoak, sektorialak, etab. tokian tokiko berdintasun-planak abian jartzetik eratorritakoak... Prestakuntza-ekintza orokorrenetatik espezifikoenetaraino. Udaleko langileen gaitzean urratsak emateko baliagarri litzateke.

ADIBIDEA



- **Prestakuntza-planaren diseinua eta ezarpena**

Berdintasun Unitateak dinamizatuko du eta udaleko langileen etengabeko prestakuntzarako ardura duen arloarekin batera garatuko litzateke. Idealena, ordea, Sailen arteko Koordinaziorako Talde Teknikoaren laguntza jasotzea izango litzateke.

Gaitzearekin eta prestakuntzarekin lotutako eskakizun garrantzitsuenetako bat erabat praktikoa izatea da, ikasketa trukakorra eta erabilgarria izan dadin eguneroko lanak berdintasunean burutzeko.

Ikuspuntu horretatik prestakuntzaren garapena errazteko, udalaren esparruan garatutako praktika egokien inguruan lan egiteko aukera planteatzen da, tailerretan, berariazko esku-hartzeen esparruetara bideratuta eta zeharkako eta sektorekako ikuspuntutik.

Adibidez, genero-ikuspuntutik hirigintza-planteamenduak egiteko ildoak, gizartearen errealitatea genero-ikuspuntutik aztertze metodologiak, etab.

ADIBIDEA



- **Prestakuntza-planaren jarraipena eta balioespena**

Prestakuntza-jarduera guztien balioespena egin behar da:

- eguneroko lanean hartutako ikasketen trukeari dagokionez (prestakuntza eraginkortzat jotzeko oinarrizko ezaugarria da hau);
- prestakuntzaren kalitateari eta parte hartzen duten pertsonen asebetetze-mailari dagozkien alderdi guztietan.

Modu berean, diseinatutako eta garatutako prestakuntza-ekintzen aldizkako berrikuspenak sustatzea beharrezkoa da prestakuntza-beharren definizioa eta analisisa eta eurekin lotutako prestakuntza-planak eta ekintzen diseinuaren berrelikadura-dinamika errazteko.

1.3.7

KOMUNIKAZIOA

Komunikazioa funtsezkoa da planaren ezarpen egokia egin nahi badugu baita dinamizazioerako eta pertsonen inplikaziorako ere.

Komenigarria da barruko esparruan nahiz kanpoko esparruan planifikatu eta erabilia izatea, berdintasun-politiketako publikoen behar eta funtzioetara helburuak, kanalak eta mezuak egokitzeak (irisgarritasun-irizpideak, beste hizkuntzetarako itzulpenak eta abar barne hartuta).

Gainera, beharrezkoa da **komunikaziorako kanal formalak eta egonkorrak** ezartzea, barnera nahiz kanpora begira, informazioa bi noranzkotan higitzea ahalbidetzeko.

Kanalez gain, komunikatu nahi diren **mezu eta edukiak definitzea** ere oinarritzkoa da; hauen artean badira oinarrizko batzuk: Plana, lege-ekimenei buruzko informazioa, praktika egokiak, etab.

BARNE KOMUNIKAZIOA

Funtzio hauek ditu:

- Berdintasun-politiken diseinua, kudeaketa, balioespena eta bilakaera ezagutaraztea.
- Sail bakoitzean planaren ezarpenerako etengabeko jarraipena egitea.

— Udaleko langileei euren eskumeneko ekintzak abian jartzen lagunduko dien edukiei buruzko informazioa ezagutarazten die.

Barne-komunikazioan beharrezkoa da Berdintasun Unitateak planen ezarpenean parte hartzeko egitura guztiak kontuan hartzea.

Xede-publikoaren arabera, barne-komunikazioaren eduki-mota ezberdinak bereiztu ditzakegu:

- **Ezarpen Egiturenak -Batzorde Politikoa, Zuzendaritza Taldea eta Batzorde Teknikoa:-** Talde horiek guztiek balioespen-prozesuaren hasierako eta amaierako informazioa jaso behar dute -formatua eta edukiak euren interesetara eta funtzioetara egokituta-, helburuen jarraipena eta programazioarena eta emaitzena. Parte-hartzeko prozesuen ondorioak jasotzea ere komeni da. Komunikazio-mota honek formala izan behar du, deialdien eta akten bidez egindakoa.
- **Arloenak -zuzendaritza-taldearen eta Sailen arteko Batzorde Teknikoaren bitartez:-** Berdintasunaren arloan Udalak eskaintzen duen prestakuntza-eskaintzari buruzko informazioa eman behar da, baita helburuak bete ahal izateko sailek beharrezko duten informazio guztia ere (dokumentazioa, jardunaldi eta kongresu garrantzitsuak, finantziazio-mekanismoak). Komeni da horretarako komunikazio-kanal egonkorrak ezartzea, posta elektronikoaren bidez, barne-postaren bidez edo dokumentuak eta informazioa partekatzeko webgunearen bidez.

Edozein kasutan ere, komeni da bi noranzkotako komunikazio-motak sustatzea, bereziki Batzorde Teknikoko pertsonak izan dituzten zailtasun eta arrakastei buruzko informazioa jakinarazteko.

PROPOSAMENA

P

- **Udalarenak:** Genero-ikuspuntuaren ezarpeneko udaleko langile guztien inplikazioa beharrezkoa denez, komeni da, ahal dela, berdintasun-planari buruzko komunikazioak egitea (gutxienez urtean behin), helburuei, erdietsitakoei eta etorkizunean lortu nahi direnei buruzkoak jakinaraziz. Horretarako, udaleko aldizkarian bertan argitaratu daiteke edo berdintasun-planen emaitzak eta bilakaerak aurkezteko informazio-jardunaldien bidez.

KANPO KOMUNIKAZIOA

Herritarren informazioa, sentsibilizazioa, inplikazioa eta parte-hartzea dira kanpo-komunikazioarekin lotutako helburu orokorrak.

Funtzio hauek ditu:

- Berdintasunaren alorrean ezartzen ari diren neurriak eta lortutako emaitzak herritarrei jakinaraztea, informazioarako eskubidea bermatuz eta berdintasun-politiken jarraipena eta gizartearen inplikazioa sustatuz.
- Berdintasunaren helburuak lortzea sustatuko duten komunikazio-ekintzak egitea.

Komunikazioa sail guztien artean koordinatuta edo sail bakoitza bere aldetik egin dezake, bereziki komunikazioaren helburua ezarritako xedeak lortzea bada; eta hiru motako xede-publikora zuzenduko dira:

- **Gizarteari, oro har:** Diagnosien, diseinatutako planen eta emaitzen eta inpaktuaren datuei buruzko komunikazioak egingo dira. Bestalde, berdintasunaren aurrean gizartearen portaera aldatzera bideratutako komunikazio-ekintzak ere garatu ahal izango dira. Funtsezkoa da, adibidez, erantzukidetasuna sustatzeko komunikazioak erabiltzea, eta emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko erabili ohi da.
- **Emakumeen elkarteei edo berdintasunaren aldeko elkarteei:** Euren inplikazioa sustatzera bideratutako komunikazio-ekintzak egin daitezke, berdintasun-politiketan lagundu dezaten. Bestelako elkarte orokorragoei edota sektorialeiei ere bideratu ahal zaizkie komunikaziook.
- **Beste hainbat erakunderi:** Diseinatutako planei, betetze-mailaren balioespenetako emaitzei, praktika egokiei eta abarrei buruzko informazioaren trukea egitea komeni da.

Zehazki esateko, funtsezkoa da Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundearekin komunikazio-fluxu ohikoa izatea, EAEko berdintasun-politiken gidaritza egiten duelako, Foru Aldundiekin, EUDELekin (Euskadiko udalen Elkarteak) eta bere barne dagoen BERDINSAREA - Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Sarearekin.

GARRANTZITSUA



1.4

**EXISTITZEN DIREN TOKIKO
BERDINTASUN PLANEN
EGOKITZAPENA**

Dokumentu honetan bereziki berdintasun-planen diseinua, kudeaketa eta balioespena lantzen dira. Eta hala, dokumentuaren zatirik handiengan plan berriak sortzeko gako nagusiak zeintzuk diren garatzen da.

Baina dagoeneko eginda eta indarrean dituzten udalen errealitatea ere aintzat hartu behar da.

Beraz, plan horiek araudiaren eta erreferentziazko dokumentuen arabera, Gobernuak zehaztutako esku-hartzeko eta jarduteko ildoen arabera, eta ikuspuntu estrategiko eta oso-koaren arabera egokitze prozesua garatu ahal izateko oinarritzko orientabideak eman-
go dira jarraian.

Praktikan, planaren jarraipenerako eta balioespenerako prozesu propioak garatzeaz gain, helburu eta ekintzen artean zeintzuk diren erreferentziazko dokumentuetan ezarritako ildoekin bat datozenak zehaztu behar da. Horrela, erreferentzia zabalagoko balioespena egingo dela bermatzen da.

Gobernuak ezarritako esku-hartzeko eta jarduteko ildoetan zehaztutako helburuekin lotuta doazen adierazleak kontuan hartu beharko dira, beraz, eta helburu horiekin lotura duten planeko helburuetara moldatu beharko dira.

Amaitzeko, helburu horiei buruzko informazioa eta abiapuntuko egoerari buruzko datuak jaso beharko dira, gero euren inpaktua balioetsi ahal izateko.

Ikuspuntu estrategikoago batetik, planaren berrikuspena egin beharko da planean sartu ez diren erreferentziazko estrategiak, ildoak eta esku-hartzeko ildoak antzemateko; eta analisia egin ondoren, planean egokitu behar diren ala ez hausnartu beharko da.

Analisi estrategiko honekin, gainera, udaleko hausnarketarako eta negoziatziorako prozesuaren oinarriak ezarriko dira, eta beraz, planean malgutasunerako egokienak diren prozedurak sartu beharko dira.

1. eranskina

GARAPEN TEKNOLOGIKOAREN DESKRIBAPENA, ERABILITAKO TRESNAK ETA TEKNIKAK

Prozesua garatzeko bidean erabilitako tresnen eta egindako urratsen deskribapen zehatza egin aurretik, Jarraipen Batzordearen zeregina nabarmendu behar da. Jarraipen Batzordea honakoek osatzen dute: EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarteko ordezkariak, EMA-KUNDE-Emakumearen Euskal Erakundeko ordezkariak, eta Bilbo eta Gasteizko Udaletako berdintasun-eragileak. Dena den, Donostiako Udaleko berdintasun-eragileek ere oso parte-hartze aktiboa izan dute, erreferente izan baitira prozesuaren faseen etengabeko balidazioa egiteko eta prozesua alderatzeko.

Ondoren prozesuan erabilitako tresnak eta teknikak deskribatuko dira. Ordena kronologiko orokorrean azalduko dira, eta horietako bakoitzarekin lotzen diren helburuak kontuan izanik. Hortaz, hauek dira erabili diren tresnak eta teknikak:

ANALISI DOKUMENTALA

Analisi dokumentala egitean, berdintasunerako 12 udal-plan (Arrigorriaga, Balmaseda, Basauri, Berriz, Bilbo, Eibar, Elorrio, Vitoria-Gasteiz, Getxo, Laudio, Zalla, eta Zarautz) eta Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako Europako Gutuna hartu ziren oinarri. Horrela, ordura arte egindako planen sendotasunen eta ahultasunen lehen diagnostikoa egin zen.

BERDINSAREA berdintasunaren aldeko eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako euskal udalerrien sareko berdintasun-eragileek bidalitako planak aztertu ziren. Deialdi irekia egin zen, eta askotariko laginak bildu ziren, udalerrri txiki, ertain eta handietako planak, eta lehen eta bigarren ediziokoak. Berdintasunerako udal-planen analisisa egitean, honako alderdiak hartu ziren erreferentziazat:

- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planean bildutako helburuak. VIII. Legegintzaldiko Jarraibideak.

Hiru motatako egoerak definitu ziren: EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planean biltzen diren arren, udal-planetako ekintzetako bakar batek ere jorratzen ez dituen helburuak; udal-planen ekintzen bidez erantzundako helburuak; eta Planean bildu-

tako helburuekin lotzen ez diren ekintzak. Edukien aldetik, helburua zen VIII. Legegintzaldiko Jarraibideen eta Udalak garatzen ari ziren plangintzaren arteko koordinazio maila aztertzea.

- Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako.

Analisi honen xedea da berdintasunerako udal-planen helburuak eta Europako Gutunean biltzen diren helburuak parekatzea eta, horrela, euskal udalerrien berezko lan-esparruak definitzeko eta esparru horietan eragina izateko aukera emango duen analisirako esparru komuna sortzea.

Bestalde, berdintasunerako udal-planak diseinatzeko eta ezartzeko dokumentua lantzean, BERDINSAREA berdintasunaren aldeko eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako euskal udalerrien sareko berdintasun-eragileekin bilera bat egin zen. Bertan, analisi dokumentala faseko berdintasunerako planen diagnostikoa aurkeztu zen, eta ekarpenak eskatu ziren. Xede horretarako deitutako Jarraipen Batzordearen bilera batean egindako lanarekin osatu zen guztia.

LANARI HASIERA EMATEKO MATERIALAK LANTZEA

Analisi orokorrean oinarrituta landu ziren lanerako hasierako materialak –berdintasun-politiketako adituekin eta arloko politiketako adituekin garatu beharreko lan-taldeetan erabili beharreko hasierako materialak hain zuzen ere–.

Arloetako bakoitzerako landu zen lanerako hasierako dokumentua, eta dokumentu horrek arlo bakoitzeko helburuetarako estrategien, ekintzen eta emaitza-adierazleen hasierako proposamena aurkeztu zuen. Hauek ziren arlo horiek: Berdintasunerako neurri orokorretarako 0 arloa; Hezkuntza, Osasuna eta Drogamendetasunak; Lana; Gizarteratzea; Hirigintza, Garraio Publikoa eta Ingurumena; eta Lankidetza eta Giza Eskubideak.

TALDE-BILERAK

Material orokorrak diseinatu ostean, landa-lana lantzeari ekin zitzaion. Honako faseak izan zituen:

- Prozesua aurkezteko bilera orokorra

Prozesuan parte hartzen duten pertsona guztiei zuzendutako bilera orokor horretan, prozesuaren helburuak azaldu nahi ziren, parte-hartzaileetako bakoitzaren egitekoa eta zereginak definitu nahi ziren, eta sor zitezkeen zalantzak argitu nahi ziren.

- Zeharkako politiketako adituekin egin beharreko bilerak

Bilera horien helburua zen zeharkako gaietako adituak prozesuan inplikatzeari zeharkako gai horien artean daude inmigrazioa, funtzionalitate dibertsoa eta bizi-zikloa. Horrela, bileraren ondoren, pertsona horien parte-hartzea izan zuen lan-dinamika garatu zen, aditu horiek bidezko ekarpenak egin zitzaizkion.

- Adituekin egin beharreko bilerak, berdintasunerako neurri orokorretarako 0 arloko dokumentuak lantzerako eta berdintasunerako udal-planak diseinatzerako eta ezartzeko bideratu zirenak.

Berdintasunerako neurri orokorretarako 0 arloaren dokumenturako bi bilera egin ziren, bata berdintasun-eragileekin eta bestea udal-idazkariarekin. Horrez gain, posta elektronikoaren bidez hartu zuen parte eta elkarlanean jardun zuen Arabako Idazkarien, Kontu-hartzaileen eta Diruzainen Elkargo Ofizialak.

- Talde-bilerak, arlo sektorialetako dokumentuak lantzerako bideratu zirenak.

Landutako hasierako dokumentuak abiapuntu izanik, prozesua arloko lan-taldeen bidez garatu zen. Honako arloak eta bilkura kopuruak hartu ziren aintzat:

ARLOAK	BILKURA KOP.
Kultura	2
Hezkuntza, Osasuna eta Drogamendetasunak	1
Lana	2
Gizarteratzea	2
Hirigintza, Garraio Publikoa eta Ingurumena	2
Lankidetzak eta Giza Eskubideak	1
Berdintasunerako neurri orokorrak	2
Berdintasunerako udal-planen diseinua eta ezarpena	2

Helburu bakoitzeko esku-hartzea gidatu behar zuten oinarritzko estrategien inguruan egin zen lan taldeetan, eta egokien eta koherenteen jo ziren ekintzak definitu ziren.

ARLOEN ARABERA LEHEN ETA BIGARREN ZIRRIBORROAK LANTZEA

Taldeak osatu ondoren, bigarren zirriborroak landu ziren. Ondoren, parte-hartzaile guztiek ekarpenak egin ahal izateko epea finkatu zen, eta, hortaz, dokumentu honetan biltzen diren behin betiko dokumentuak landu ziren.

Azkenik, Eranskin honetan aditzera eman behar da, honako dokumentu hau lantzean, sexuaz gain, honako beste aldagai hauek ere hartu direla kontuan –dagozkien analisi-kategoriekin lotuta–:

- Adina (bizi-zikloa)
- Sarrera ekonomikoak (pobrezia eta gizarte-bazterketa)
- Jatorria (inmigrazioa eta kultura aniztasuna)
- Minusbalotasunaren mota eta maila (funtzionalitate dibertsioa)

Hala lanean jardun ahal izateko, prozesuaren hasieran hainbat arlotako udal-ordezkariez osatutako lan-taldea antolatu zen, proiektuaren metodologiaren definizioan azaldu den moduan. Adinduen, gazteen, etorkinen eta funtzionalitate dibertsoa duten pertsonen arloko udal-ordezkariek ziren. Pertsona horiei guztiei prozesu parte-hartzailea eskaini zaie, haien ekarpenak egin ahal izan ditzaten.

Haien arloetan garatzen ari diren politikei buruzko informazioa helarazi zuten, eta interes komuneko gaiak landuko zituzten dinamiken aurretik ekarpen zehatzak egin zituzten.

Prozesuaren giltzarrietako bat izan da espazio eta prozesu guztietan parte hartu duten pertsonen kopuru handia eta kalitatea.

PROZESUAN PARTE HARTU ZUTEN PERTSONAK

UDALA	LANGILEAK	ESPEZIALIZAZIO ARLOA
Abadiño	Maite Blanco	Berdintasuna
Amurrio	Ander Iturbe	Dibertsitatea
	Ruth Aguilar	Berdintasuna
Arrigorriaga	Elena Díaz de Corcuera	Berdintasuna
Balmaseda	Raquel Gómez	Berdintasuna
Basauri	Anabel Sanz	Berdintasuna
	Marian Intxaustegi	Lana
	Susana Carramiñana	Berdintasuna eta gizarteratzea

Bilbao	Amaia Domingo	Berdintasuna
	Fran Viñez	Obrak eta zerbitzuak
	Argizka Etxebarria	Osasuna
	Itziar Azpeitia	Giza Eskubideak eta Inmigrazioa
	Jon Zabala	Berdintasunerako neurri orokorrak
	Jone Unzueta	Hezkuntza
	Jesús Manzano	Lana
	Karmele Guinea	Gizarteratzea
	Maite Murguialday	Hirigintza, Garraioa eta Ingurumena
	Miguel Pérez	Lankidetzeta eta Giza Eskubideak
	Mikel Toral	Hirigintza, Garraioa eta Ingurumena
	Rosa Yurrebaso	Kultura
Berriz	Naiara Garate	Berdintasuna
Donostia	Arantxa Amat	Lana
	Belen Martínez	Berdintasun, Parte-hartzea eta Lankidetzeta
Durango	Kety Arrabal	Berdintasuna
Elorrio	Ainhoa Moreno	Tokiko 21 Agenda
	Jone Jaia Gurrea	Berdintasuna
	Josune Aranguren	Kultura
Erandio	Karmele Ruiz	Minusbaliotasuna
Ermua	Ainhoa Larrañaga	Gizarte-ekintza
	Begoña Fernández Alcalde	Berdintasuna
	Blanca Barragán	Kontratazioa
	Patxi López	Kultura, Hezkuntza, Osasuna eta Drogamendetasunak
Vitoria-Gasteiz	Aitor Gabilondo	Lankidetzeta
	Arantza Cañameres	Berdintasuna eta lana
	Idoia Martínez Pedralva	Udal-idazkaria
	Inmaculada Sánchez	Kultura
	Joxangel Agirre	Gizarteratzea
	Oskar Fernández	Gazteria
	Reina Ruiz	Berdintasuna
	Silvia Pardes	Gizarteratzea
Getxo	Idoia Eizmendi	Berdintasuna
	Unai Amezaga	Gazteria
Gernika	Ixone Badiola	Kultura, Hezkuntza, Osasuna eta Drogamendetasunak
	Nerea Llantada	Berdintasuna

Gordexola	Larraitx Olabarrieta	Berdintasuna
Hernani	Irantzu Jauregi	Berdintasuna, Lankidetzeta eta Giza Eskubideak
Iurreta	Olatz Elorza	Hirigintza, Garraioa eta Ingurumena
Lekeitio	Agurtzane Ruiz	Berdintasuna
Ondarroa	Rosa Baltar	Berdintasuna
Zalla	Alaine Garai	Hirigintza eta Ingurumena
	Sara Merino	Berdintasuna
Berdintasunerako Emakumeen Batzordea Fekoor	Karmele Ruiz	Berdintasuna
Emakunde- Emakumearen Euskal Erakundea	Raquel Raposo	Berdintasuna
Eudel- Euskadiko Udalen Elkarteak	Mireia Espiau	Berdintasuna

2. eranskina

BERDINTASUN ARLOKO UDAL PLANGINTZAREN DIAGNOSTIKOA: BERDINTASUNERAKO TOKIKO PLANEN EZAUGARRIAK, SENDOTASUNAK ETA AHULTASUNAK

Atal honetan, tokiko administrazioek igorritako berdintasunerako 12 udal-plan berraztertearen ondorioak biltzen dira. BERDINSAREA berdintasunaren aldeko eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako euskal udalerrien sarean egindako deialdiaren ondorioz igorri zituzten tokiko administrazioek berdintasunerako udal-plan horiek. Plan horiek guztiak behar besteko lagina dira, kopuruari dagokionez zein kalitateari dagokionez. Izatez, berdintasunerako planen lehen edizioak zein bigarren edizioak daude eta hiru lurralde historikoetako udalerri txikietakoak, ertainetakoak eta handietakoak dira.

Testua bi atal nagusiren inguruan egituratzen da. Lehena berdintasunerako planen egiturari buruzkoa da, eta analisirako erreferentzia izango diren 9 puntu jaso dira haren barruan: sarrera, diagnostikoa, arloak, ildoak edo programak, helburuak, ekintzak, arlo eta unitate arduradunak eta laguntzaileak, denboralizazioa eta adierazleak. Bigarren atalak, berriz, plangintza-dokumentuen edukiak aztertzen ditu, betiere kudeaketa-aurreikus-penei dagokienez; zehazki, ondoren zerrendatzen diren atalak izango dira: kokalekua,

programazioa, jarraipena, balioespena, komunikazioa, parte hartzeko prozesuak, kudeaketa-egituren deskribapena, parte hartzeko egituren deskribapena eta aurrekontu-zuzkidura.

Aipatutako analisi-puntu bakoitzaren barruan "egungo egoera" deritzan lehen epigrafea ikusiko dugu. Epigrafe horretan, ekarpen gisa jarritako planen ezaugarri orokorreari buruzko aipamena jasotzen da –enuntziatuan adierazten den atalari dagokionez betiere–. Era berean, "Sendotasunak eta ahultasunak" epigrafean, aintzat hartutako ahalmenik eta zailtasunik garrantzitsuenak deskribatuko dira.

BERDINTASUNERAKO UDAL PLANEN EGITURA: PLANA EGITURATZEKO MODUA


Berdintasunerako udal-planen sarrera

Egungo egoera

Aztertutako plan guztietan egiten den lehen idatz-zatian –sarrera kontzeptupean–, planaren aurkezpena egiten da, eta planaren arrazoiak azaltzen dira. Gainera, esparru instituzionalaren eta gaur egungo legegintza-esparruaren zirriborroa egiten da, baita dokumentuak biltzen dituen ezaugarrien eta kontzeptuzko esparruen definizioa ere. Definitutako ezaugarri horiek plan guztietarako komunak izango dira, nahiz eta hainbat salbuespen dauden adierazitako puntuen edukian eta garapenean.

Bestalde, horien indarraldia, gehien bat, lau urtekoa da. Haatik, indarraldiaren gaia eztabaidagai izango da.

1. GRAFIKOA: Planaren indarraldia



Sendotasunak eta ahultasunak

Sarrera da berdintasunerako udal-plana jorratzeko garaian topatuko dugun lehen erreferentziazko elementua. Puntu horrek planaren arrazoiei, edukiei eta helburuei buruzko ikuspegi orokorra eta testuingurukoa ematen digunez gero, atal honek behar besteko zorroztasuna eta zehaztasuna eduki beharko du edukietan (maila orokorrean zein helburuen eta estrategien mailan). Gaur egun planek adierazitako helburua lortzera jotzen duten elementuak biltzen dituzten arren (arrazoiak, helburuak...), aintzat hartzen diren elementuak bestelakoak edo osatu gabeak dira batzuetan. Nolanahi ere, ez dugu ahaztu behar planak landu ondoren arauzko beste erreferentzia batzuk aldarrikatu direnez gero (berdintasunari buruzko 4/2006 Legea, Europako Gutuna...), plan horien edizio berriek erreferentziazko beste elementu horiek ere jaso beharko dituztela, beharrezkoak baitira planak dauden legezko erreferentzia-esparruen barruan sartzeko, arrazoitzeko eta testuinguruan kokatzeko. Hurrenez hurreneko planak garatzearen, hobetzearen eta berraztertzearen bitartez sortutako beste elementuak (parte-hartzeko egiturak, eta diseinuko egiturak, jarraipena...), beraz, txertatu ahal izango dira, eta atal horretako edukiak sendotu ahal izango dituzte. Horrela, planaosatzen duten elementuak eta testuinguruak hobeto eta sakonago ulertzea bilatu nahi da, plana hobeto ezagutu eta zehaztu dadin lortu nahi da, eta, halaber, testu horren dimentsio pedagogikoak eta sentsibilizaziokoak sustatuko dira.


Indarraldiari dagokionez, nabarmendu behar da lau urtetik beherako indarraldiak bikoiztu egiten duela Plana lantzeko lana eta, bestalde, denbora mugatuta geratuko dela helburuak betetzeko eta erdietsitako lorpenak, aldaketak eta emaitzak bistaratzeko. Bestalde, lau urtetik gorako indarraldia duten planen kasuan, gerta daiteke planteatutako helburuak zaharkituta geratzea eta udalerrriaren errealitatera egokituko diren beste estrategia batzuk planteatzeko beharra sortzea.

Berdintasunerako udal-planen diagnostikoa

Egungo egoera

Diagnostikoa da berdintasunerako plana diseinatzeko abiapuntua –diagnostikoa udalerr mailako berdintasunaren arloko egoeraren analisi gisa ulertuta (dimentsio soziala eta administratiboa)–. Ildo horretan, aztertutako planen %60 inguruk aurretiazko diagnostiko elementu hori dute, eta analisi kualitatiboak nagusitzen zaizkie analisi kuantitatiboei. Bestalde, dimentsio soziala biltzen dute nagusiki (kanpokoak) eta batzuetan ahaztu egiten dute administratiboa (barnekoak).

2. GRAFIKOA: Bersintasunerako udal-planetarako aurretiazko eta berariazko diagnostikoa



Sendotasunak eta ahultasunak

Diagnostikoetako askoren izaera kualitatiboa oso elementu interesgarria da mota horietako tresnek eskaintzen duten ahalmenaren eta aldakortasunaren ondorioz. Horrekin batera, oso garrantzitsua izango da dimentsio kuantitatiboa gehiago erabiltzea, motibazioaren objektibazio osoagoa lortuko baita. Horrela, ezarritako diagnostikoen eta bete beharreko planen arteko koherentzia hobetu ahal izango da.

Berdintasunerako udal-planen arloak

Egungo egoera

Esku hartzeko arloen mugapenari dagokionez, plan guztiek jasotzen dute EAEko Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Planetik ateratako dimentsioa, planaren edukiak udal-egiturara egokitzeko asmoz. EAEko Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Planak aurkezten dituen arloei dagokienez, plan berriagoek desberdintasun esanguratsu bat dute: aztertutako ia udal-plan guztiek dute emakumeen aurkako indarkeriaren arlo berezia.

Sendotasunak eta ahultasunak

III. Plana erreferente gisa erabiltzeak udal-planen sistematizazioa eta homogeneotasuna nabarmentzeko aukera emango du –horretarako, alderatzeko esparru nolabait estandarra sortuko da, alderatzea erraztuko duena–, baita planetan hobekuntzak sortzeko eta dau-den zeharkakotasun-premiak optimizatzeko aukera ere. Planetan erabilitako erreferentziazko elementuak disoziazioak eragiten ditu batzuetan diagnostikoko arloen eta esku-hartzeko arloen artean. Izan ere, EAE mailan irudikatutako plan bat tokiko entitateen dimentsioetara eta baliabideetara eramateak sortzen duen desegokitzapena dela eta, doi-


tasun handiagoarekin hautatu eta definitu beharko dira udal-planaren barruan aintzat hartutako arloak eta egiturak.

Berdintasunerako udal-planen ildoak edo programak

Egungo egoera

Aztertutako planetan hauteman denez, planen %30ek baino gehiagok programa orokorrak edo esku hartzeko ildo orokorrak ditu. Horietako batzuetan, esku hartzeko ildo horiek bi jardun-esparruri dagozkie: udalerriko esparruari edo esparru sozialari, eta esparru administratiboari edo Udalaren beraren esparruari (azken hori gutxiagotan). Beste batzuek "EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planean. VIII. Legegintzako Jarraibideak" planean jasotzen denaren oso antzeko egitura dute, eta ardatz estrategiko eta udal-errealitatearen araberrako programa berak dituzte.

3. GRAFIKOA: Esku hartzeko ildoak eta programak



Sendotasunak eta ahultasunak


Esku hartzeko ildoak diseinatzeko garaian barneko eta kanpoko dimentsioak aintzat hartzeak prozesuaren esku-hartze integrala errazten du. Era berean, planen arteko homogeneotasuna lortzen du, "EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planean. VIII. Legegintzako Jarraibideak" planeko erreferentziazko eredua partekatzen baitute. Dena den, batzuetan aintzat hartutako esku hartzeko ildoetan edo programetan ez da definitziorik ematen. Berrirori ere Plana udal-mailara eramatearen ondoriozko zenbait desegokizapenen aurrean gaude. Halaber, berdintasunerako planen barruan egiturazko elementuek –esku hartzeko ildoek edo programek besteak beste– bete beharreko funtzioak behar bezala definitu gabe daudela hauteman da.

Berdintasunerako udal-planetan proposatutako helburuak

Egungo egoera

Udal-planetan aintzat hartzen diren helburuak zein ekintzetako asko Plana EA Era eramatearen eraginpean daude. Askotan ikus dezakegu helburu orokorren eta berariazkoen artean ia ez dagoela desberdintasunik, eta batzuetan esku hartzeko tresnak berak helburu gisa proposatzen direla. Era berean, helburuetako askoren egingarritasuna zalantzazkoa da (dimentsioagatik ez ezik, iritsieragatik edo aintzat hartzen diren helburuen kopuruagatik ere). Ez dira lehentasunak ezartzen aintzat hartutako helburuen artean, eta horrek ageriko eragina du plana behar bezala garatzeko konplexutasunean.

4. GRAFIKOA: Berdintasunerako udal-planen helburu motak



Sendotasunak eta ahultasunak

Helburu kopuru handia egotea berdintasunerako esparruan lan egiteko eta jarduteko borondate handiaren seinale da. Batzuetan asmo handiegiak izan diren arren, asmo horiek abiapuntu ezin hobeia dira etorkizuneko planak zorrozteko eta garatzeko. Dena den, kasu askotan udal-errealitateari buruzko diagnostiko zehatzik ez dagoenez gero, ez da adostasunik izaten jasotako helburuen eta udalerriko errealitatearen eta udalaren baren baliabideen artean. Halaber, enuntziatuen arloan definiziorik eta zehaztapenik ez izateak eta aintzat hartutako helburuetako asko kuantifikagaitzak izateak areagotu egin du berdintasunerako udal-planak behar bezala eta eraginkortasunez garatzeko eta balioes- teko zailtasuna.

Berdintasunerako udal-planetan proposatutako ekintzak

Egungo egoera

Orokorrean ekintza kopuru handia dago. Kopuru handi horrek esku hartzeko asmo dinamiko handia islatzen du, baina batzuetan mugatuta dago asmo horietako batzuek dituzten zailtasun operatiboen eraginez (deskribatzeko zailtasunak, gauzatzeko zailtasunak, zaharkituta geratzea, eta abar).

Sendotasunak eta ahultasunak


Elementu zentral gisa EAE mailako planak erreferentziazat hartzeak aukera paregabea ematen du, batetik, diseinatutako tokiko planak nolabait homogeneousizatzeko eta, bestetik, ekintzak kateatzeko logika ezartzeko. Edonola ere, alderdi horiek hartu beharko dira aintzat EAE mailako planetan azaldutako elementuak tokiko errealitateetara egokitzeko garaian. Horrela tokiko planei dagozkien alderdiak garatzeko ezintasunaren ondoriozko frustrazioa saihestuko da.

Arlo eta unitate arduradunen eta laguntzaileen definizioa

Egungo egoera

Aztertutako planen ia %60k adierazten du zein diren proposatutako helburuak betetzeko ekintzak gauzatzeaz arduratuko diren organo, entitate, arlo eta unitate arduradunak eta laguntzaileak.

5. GRAFIKOA: Arlo, entitate eta organo laguntzaileak eta arduradunak adierazten dituzten planen ehunekoa



Sendotasunak eta ahultasunak


Itxuraz, komeni da definizio eta doitasun handiagoa aplikatzea arlo arduradun, laguntzaile eta finantzatzailearen egitekoak eta izaera banatzean eta bereiztean. Izatez, esleitzen diren egitekoetan ardura eta zehaztasun handiagoa eta hobe lortuko da horrela.

Denboralizazioa

Egungo egoera

Berraztertutako planen % 50 inguruk planaren plangintza kronologikorako tresna edukitzeko premia aipatzen dute; alabaina, % 42k soilik barne hartzen dute kronograma planaren beraren barruan. Edonola ere, aditzera eman behar da urteko dokumentu programatikoetan sartzen dela plangintza egiteko eta egituratzeko elementu hori.

6. GRAFIKOA: Udal-planetako ekintzen denboralizazioa



Sendotasunak eta ahultasunak

Kronogramak sartzeari garrantzi handiko elementua da, eta hala egiaztatu daiteke egindako dokumentuak berraztertzean. Malgutasun praktikoa edo aukerako malgutasuna dela eta, batzuetan kronogramak erreferentziazkoak baino gehiago orientagarriak izan daitezkeen arren, aukera ematen dute planetan aintzat hartutako elementuak eta faseak kudeatzean eta garatzean lagungarriak diren denbora-jarraibideak ezartzeko.

Egungo egoera

Udal-plana ezartzearen ondoriozko aldaketak ebaluatzeko aukera emango duten adierazle egokiak eta neurgarriak aintzat hartzen dituzten udal-planen ehunekoa txikia da, %41,6, tresna horiek garrantzi handikoak baitira. Era berean, nabarmendu behar da adierazleak garrantzitsuak direla plan guztietarako eta, hori dela eta, askotan, atal dokumentalen batean jasotzen dira azkenean.

Sendotasunak eta ahultasunak

Bestalde funtsezkoa da udal-planek eta udal-ekintzek haien jardun-esparruan duten eragina homogeneotasunez balioesteko aukera emango duten adierazleen diseinua osatzea eta hobetzea –emaitzen adierazleak zein betetze-mailaren edo prozesuaren adierazleak-. Tresna horiek erabiltzeak, bestalde, aukera emango du berdintasunerako tokiko planen bitartez lortu nahi diren eraldaketako prozesuak eta intentsitateak bistartzeko eta kuantifikatzeko.


BERDINTASUNERAKO UDAL PLANEN KUDEAKETA: BERDINTASUNERAKO UDAL PLANETAN DESKRIBATUTAKO KUDEAKETAKO PROZESUAK ETA EGITURAK

Kokalekua

Egungo egoera

Berraztertutako planei erreparatuta, udal gehienek Gizarte Ekintzaren eta Gizarte Ongizatearen arloetan kokatzen dituzte berdintasun-zerbitzuak, eta kasuen %17an Lehendakaritza edo Alkatetza da zerbitzu horren arduradun.

7. GRAFIKOA: Berdintasun zerbitzuaren kokalekua



Sendotasunak eta ahultasunak


Berdintasun-zerbitzuak gizarte-politikaren alorreko sailetara nagusiki esleitzeak mugatu egiten du, nolabait, zerbitzu horiek ezarritako politikekin lortu nahi den egiturazko eta zeharkako izaera. Horrenbestez, mugatu egiten dira politika horien erreferentziazko printzipioak, baita berdintasuneko zerbitzu edo arlo horri ematen zaion esanahia ere. Alkatetzara esleitzeak izan dezakeen garrantzi politikoaz harantzago, kokaleku hori dela kausa, zerbitzuak abiapuntu hobea izan dezake zeharkako politikak garatzeko, eta, hein berean, areagotu egingo da zerbitzuaren ikuspegia, baita zerbitzuak ezartzen dituen politiken ikuspegia ere. Nolanahi ere, Udal bakoitzaren dimentsioa, baliabideak eta antolamendu-kultura ere hartu beharko dira kontuan zerbitzu hori zein sailari atxikiko zaion edo non kokatuko den erabakitzeke garaian.

Berdintasunerako planen programazioa

Egungo egoera

Aztertutako udal-planen %40k baino gehiagok planak programatzeko elementuak dituzte.

8. GRAFIKOA: Berdintasunerako udal-planetako programazioa



Sendotasunak eta ahultasunak


Berraztertutako planetako batzuen aldi baterakotasunari buruzko premisa abiapuntu izanik, oro har, udal-planek ez dituzte osorik definitzen berdintasunerako planen programazioa egiteko jarraitu beharreko prozesuak. Alabaina, alderdi hori funtsezkoa da plana eraginkortasunez garatzean beharrezkoak izan daitezkeen elementuak sistematizatzeke.

Berdintasunerako planen jarraipena

Egungo egoera

Jasotako planen %75ek ez ditu aipatzen berdintasunerako udal-planen jarraipena egiteko zer mekanismo aurreikusten diren.

9. GRAFIKOA: Berdintasunerako udal-planen jarraipena



Sendotasunak eta ahultasunak


Beharrezko jarraipen-mekanismoak ezartzeko beharra egiaztatu da, helburu bikoitzarekin. Lehen, planean ezarritako helburuak betetzera zuzentzen dena, eta bigarrena Planak hartzen dituen arlo edo sail guztien egitatezko inplikazioari dagokiona.

Berdintasunerako planen balioespena

Egungo egoera

Aztertutako planen %60k baino zertxobait gehiagok ez du aintzat hartzen balioespen-prozesuak garatzea.

10. GRAFIKOA: Berdintasunerako udal-planen balioespena



Sendotasunak eta ahultasunak


Adierazlerik izan ezean edo, hala badagokio, planteatutako helburuetarako adierazle egokirik izan ezean, ezin izango da hein handi batean ezarritako politiken eragina balioetsi. Haatik, alderdi horrek ezin du alde batera utzi balioespen horiek egin egiten direla. Hortaz, agerian geratzen da etorkizuneko berdintasunerako planen diseinuan eta garapenean aurrera egiteko eta hobetzeko asmoa egon badagoela.

Berdintasunerako planen komunikazioa

Egungo egoera

Aztertutako berdintasunerako planen % 8k zehaztu egiten ditu udal-planaren komunikazio-mekanismoak.

11. GRAFIKOA: Berdintasunerako udal-planen komunikazioa



Sendotasunak eta ahultasunak


Konplexutasun eta garrantzi handiko alderdi horrek, beraz, borondatea eta interesa ez ezik, lagungarriak izango diren baliabideak eta laguntzak ere eskatzen ditu. Gisa horretako komunikazio-mekanismoak oro har ez agertzeak guztiz zaildu du tartean dauden eragile, entitate, arlo eta sailen jakintza, sozializazioa eta inplikazioa planean bertan –tokiko administrazioaren mailan zein gizarte-mailan–.

Horren guztiaren ondorioz, ez da berdintasuneko politiken emaitzen dibulgaziorik egiten, besteak beste. Ildo horretan, aditzera emandako defizit horrek eragotzi egiten du emakumeen premia berezien gizarte-ikuspegia, eta zaildu egiten du plana ezartzearen ondorioz izan diren aldaketak hautematea. Horrenbestez, gisa horretako politikek oihartzun eta aintzatespen mugatua dute gizartean.

Egungo egoera

Plan gehienak parte-hartzaile gisa definitzen badira ere, oso gutxitan zehazten dira parte-hartzea errazteko ezarri diren mekanismoak eta prozesuak.

12. GRAFIKOA: Berdintasunerako udal-planetako parte-hartzea



Sendotasunak eta ahultasunak

Parte hartzeko elementu horrek garrantzi handia du berdintasunerako plan batek aintzat hartzen dituen faseetan. Haren garrantziaz jakitun izanik ere, eta planak mekanismo horiek jaso ez baditu ere, ez du esan nahi mekanismo horiek existitzen ez direnik edo erabili ez direnik. Agian, komeni da elementu horiek parte hartzeko prozesuak berdintasunerako planen barruan sistematizatzeraz eta sustatzeraz bideratuta barne hartzea.


Mekanismo horren garapen osatu gabearen ondorioek deslegitimatu egiten dute, nolabait, planaren parte-hartzeko enuntziatua. Hori dela eta, eragile, entitate eta abarren inplikazio, ekarpen eta konpromisoaren arloko defizita gerta daiteke, baita horren ondoriozko gabeziak ere se verán aludidas por el plan, con las consecuentes carencias derivadas de este hecho.

Kudeaketako egiturak


Egungo egoera

Aztertutako plan gehienek ez dituzte zehazten plan horiek abian jartzeko dituzten kudeaketa-egiturak.

13. GRAFIKOA: Sail arteko batzorde politikoak



14. GRAFIKOA: Sail arteko batzorde teknikoak



Sendotasunak eta ahultasunak


Aztertutako plan gehienek ez dituzte definitzen Planaren garapenean funtsezkoak diren funtzioak, lan-egiturak, giza baliabideak eta abar. Definizio-gabezia horrek ondorio kaltegarriak izan ditzake planaren garapenean eta kudeaketan. Ezinbestekoa da baliabideak eta ahalmenak kudeaketa-egitura horien diseinuarekin lotzea (udalerri txiki edo ertain baten egiturak ezin du udalerri handi baten egituraren parekoa izan). Eraginkortasuna eta egitura koherentearen sorrera lortzea da xedea.

Parte hartzeko egiturak

Egungo egoera

Aztertutako planen %50ek ez dituzte islatzen herritarrek parte hartzeko egiturak.

15. GRAFIKOA: Herritarrek parte hartzeko egiturak



Sendotasunak eta ahultasunak


Alderdi hori planen barruan islatzea nahitaezkoa den edo ez den auziaren gainetik, garrantzitsua da herritarrek parte hartzeko dituzten mekanismoak eta moduak aintzat hartzea. Izan ere, planteatutako egituren edo osatu beharrekoen funtzionamendua eta ordezkaritza hobetzeko aukera emango duen gogoeta izango da.

Aurrekontu-zuzkidura

Egungo egoera

Planen %22k proposatutako ekintzak garatzeko aintzat hartutako aurrekontua zehazten dute, baita plana betetzeko beharrezko baliabideen sorrera ere.

16. GRAFIKOA: Berdintasunerako udal-planen aurrekontu zuzkidura



Sendotasunak eta ahultasunak

Aurrekontu-zuzkidura funtsezkoa da planak ezartzeko. Askotan, planerako baliabide ekonomikoen zuzkidura udalbatzak onartutako urteko aurrekontuaren barruan definitzen da, plana gauzatzeko eta garatzeko hainbat urte behar diren arren. Hori dela eta, desados-

tasunak sor daitezke hurrengo urterako plangintzan jasotakoaren eta onartutako udal-aurrekontuen ondoriozko aurrekontu-esleipenak zenbatetsitakoaren artean. Edonola ere, planaren indarraldi osorako aurrekontu osoa esleitzen den arren, faktore askoren ondoriozko egokitzapenak egin behar izan daitezke (aukera-irizpideak, egoeraren arabera lehentasunak, proiektuaren dimentsioaren kontrola,...).

2.

BERDINTASUNAREN ALDEKO TOKIKO PLANEN HELBURUAK ETA EGINTZAK ZEHAZTEKO ORIENTABIDEAK



bigarren zatia

2.1

NEURRI OROKORRAK

2.1.1

BERDINTASUNAREN ALDEKO OINARRIZKO NEURRI OROKORREN PLANTEAMENDUARI BURUZKO SARRERA

Atal honen xedea, Udaletako berdintasun-politikarako sailetan lan egiten duten arduradun eta langileei lan-esparru eta hartu beharreko neurriei buruzko deskribapena erraztea da. Neurri horiek orokortzat jotzen dira eta berdintasun-politikak Udalen esparruan garatu ahal izateko beharrezkoak diren baldintzak ezarriko dituztenak dira.

Atal honek jarduteko berariazko helburuak biltzen ditu, horrela, Udaletik berdintasun-politiketako oinarritzko ardatz guztiak landu ditzaten errazteko, horretan gaitzeko, sustatzeko eta lanak koordinatzeko. Alegia, berdintasun-politikak genero-ikuspegi guztietara zabaltzeko, ahalduz, elkar aditzeko borondatean eta emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiten.

Atal honen egitura Euskal Autonomia Erkidegoko berdintasun-politika orokorretan lehenetsi diren lau ardatzetan oinarritzen da (9): Mainstreaminga edo generoen arteko zeharkakotasuna; emakumeen ahalduz eta parte-hartze soziopolitikoa; bateragarritasuna eta erantzukidetasuna eta emakumeen aurkako indarkeria. Ardatz horietako bakoitzean bi helburu zehazten dira:

- Lehenengo helburua toki-administrazioa sail bakoitzean lanpostuetan genero-ikuspegi egoki ezartzeko, emakumeen ahalduz eta parte-hartze soziopolitikoa sustatzeko, erantzukidetasuna eta lana eta familia bateragarri egiteko neurriak eta emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko baldintzak sortzea da. Horretarako, zenbait zerbitzu orokor eskaintzea beharrezkoa da informazioa, prestakuntza, laguntza eta aholkularitza eman ahal izateko, eta kanal egonkorak eta komunikazioan, parte-hartzean, lankidetzan eta koordinazioan oinarritutako lan-prozedurak ezartzea ahalbidetzeko, baita horretarako beharrezkoak diren tresnak eskaintzeko ere.
- Bigarren helburu-mota gizartean eragiteari zuzendutakoa da, horrekin berdintasun-politikaren ezarpenean, balioestean eta hausnarketan gizarteak duen jakintza eta herritarren parte-hartzea areagotzeko. Aitzitik, hori guztia ez da oztopo izango sail bakoitzak bere prozeduretan komunikazioa eta emakumeen parte-hartzea eta elkar-keta garatzeko, ezta berdintasun-politiketan diharduten gizarte eragileen lanerako ere. Izan ere, sailen eta gizartearen arteko harremanean zerbitzuak eta laguntzarako tresnak sortzen laguntzen baitu.

(9) Eusko jaurlaritzak onartutako EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren VIII. Legealdirako Jarraibideetan ezarritako ardatzak dira.

Mainstreamingaren ardatzean lehen helburua Udalari bere politika eta lan-prozedura guztietan generoaren ikuspegia ezartzen laguntzea da, horretarako Udaleko antolakuntzan funtsezkoak diren sei esparrutan beharrezkoak diren baldintzak ezarriz: berdintasun-plan-gintzan, politika-trebakuntzan, trebakuntza teknikoan, sustapenerako, koordinaziorako eta jarraipenerako egituren sorreran, azterketarako tresnen sorreran eta prozeduren diseinuan.

Bestalde, herritarrekiko komunikaziorako, jarraipenerako eta parte-hartzeko kanal egonkorak ere ezarri beharko dira, antolatutako herritarren nahiz antolatu gabe dauden parte-hartze handiagoa eragin ahal izateko.

Gainera, dokumentu honetako 27 or. Zeharkakotasuna eta berdintasun-politikak izeneko atala EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planean xedatutakoetan oinarritzen da (Ardatz estrategikoak. Mainstreaminga): oro har, eta zeharkako moduan, Plan honetan aurreikusitako helburu eta jardun guztiak garatu, gauzatu eta ebaluatzeke garaian, kontuan izan beharko dira emakumezko eta gizonezko taldeen espezifikotasunak, eta batik bat, askotariko diskriminazioa pairatzen duten emakumeenak, emakume minusbaliatuen taldea esaterako.

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA GIZARTEAREN ETA POLITIKAREN ARLOKO PARTE HARTZEA

Emakumeen ahalduntzea eta gizartearen eta politikaren arloko parte-hartzea ardatzak Udalean duen jarduera nagusia parte-hartzeko prozesuak indartzea eta moldatzea dira, emakumeek politika publikoen diseinuan, ezarpenean eta balioespenean parte hartzeko aukera izan dezaten, sailen eta emakume-elkarteen arteko harremanak estutuz (baita berdintasun-politikearako gizarte eragileekiko harremanak ere). Bestalde, kanpoko aldera begira beharrezkoa da elkarte-ehunduretan berdintasuna hazi eta sustatzea, bai antolakuntzari nahiz funtzionamenduari dagokionean, baita programazioan eta jardueretan genero-ikuspegia sartzea ere; eta berdintasun-politikekin bat egiten duten elkarte gehiago izatea ere garrantzizkoa da, zuzenean nahiz zeharka izanik ere.

Bateragarritasunaren eta erantzukidetasunaren arloan, administrazioa gaitzeko ezinbestekoa da bateragarritasun eta erantzukidetasunerantz doan gizarte-antolamendua lortzea ahalbidetuko duten tresna berriak sortzea. Horrek, alde batetik, barru-barrutik lan egitea eskatzen du, udalerriaren egoera ezagutu eta sailen arteko lanak koordinatu ahal izateko, eta eskaintza pribatuarekin ere lan egin beharko da bateragarritasunean gizarteak dituen beharrei aurre egiteko, eta bestetik, bateragarritasuna eta erantzukidetasuna zein egoeran dagoen eta bultzatzeko hartu beharreko neurriei buruzko barne-eztabaida ere sustatu beharko da.

Gizartearen arloan, berriz, gizonetako etxeko lanak eta zaintza-lanak egin beharraz jabetu eta horretarako konpromisoa hartzea bultzatu behar da komunikazioaren bidez, parte-hartzearen bidez eta prestakuntzaren bidez.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko ardatzean behar-beharrezkoa da udalaren sailen artean nahiz erakundearen artean koordinazio sendoa eratzea ahalbidetuko duten egiturak sortzea, Etxeko Tratu Txarrak eta Sexu Erasoak Jasaten dituzten Emakumeei Laguntza Hobearekin Erakunde Arteko Akordioaren arau-esparrua eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako eta emakumeen arretarako bestelako baliabideak sustatu eta garatu ahal izateko.

Bestalde, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiten jarraitu behar da prebentzio-programen bitartez eta informaziorako eta sentsibilizaziorako kanpaina egokien bitartez.

Beheko laburpen-taulan (2.1.2) biltzen dira xede eta ardatz bakoitzerako proposatu diren jarduerak, geroago azalduko direnak (2.1.3. atalean).

MAINSTREAMINGA

XEDEAK	TRESN.	EGINTZAK
M1 XEDEA: ERAKUNDEA GENERO IKUSPEGIA INSTITUZIONALIZATZEKO GAITZEA. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 12 eta 29. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21 eta 22. artikulua.		Lanerako prozesuak plangintzaren esparruan
	Jakin.	Zehaztutako SEI xedeak oinarritzat hartuta Udalak duen egoerari buruzko diagnosia egin.
	Araud.	Udaleko berdintasun-plana gauzatu eta kudeatzeko erreferentzia izango den eta berdintasun-politikan Udalaren jardunbideak zehaztuko dituen ordenantza sortu.
	Jarraip.	Planaren betetze-mailari buruzko balioespena egin eta Berdintasunerako IV. Planari buruzko balioespenaren informazioa eskaini. Udaleko planen ezarpenarako eta balioespenerako prozeduretan genero-ikuspegia sartu.
		Genero-ikuspegian politikoki gaitzeko lan-prozesua
	Jakin.	Berdintasunean lan egiteak dituen onurak eta kostu politikoak Berdintasunetik guztien artean aztertu, Udaleko langileei jakinaraziz. Berdintasun-politikaren ardura duten zinegotzigoiei udalean berdintasuna zeharkakoa egiteko moduei buruzko prestakuntza eskaintzea.
	Araud.	Bereziki Alkatetzak zuzenduko dituen berdintasun-politikak gidatzeko egitura politika sortu eta ezartzen lagunduko duen araudia gauzatu.
	Zerb/Bali	Alkatetzak aukera-berdintasunaren aldeko konpromiso argia hartzen duela jakinarazi herritarrei eta Udalari.
		Genero-ikuspegian teknikoki gaitzeko lan-prozesua
	Prestak.	Udaleko langile teknikoek beharretara egokitutako genero-prestakuntza diseinatu eta ezarri. Genero-ikuspegia ezartzeko lehentasuna duten Udaleko arlo, sail edo zerbitzuetan generoaren gaian espezializatuta dauden langileak izatea.
	Info/Sent	Udaleko langile teknikoek artean berdintasun-politiken garapenari buruzko eztabaida sustatu. Genero-ikuspegia eta genero-edukiak kongresuen, jardunaldien, hitzaldien eta sarien antolakuntzan sartu.
		Koordinaziorako eta sustapenerako egituren esparruko lan-prozesua
	Zerb/Bali	Udaleko berdintasun-unitateak eta berdintasun-zerbitzuak sortu edo indartu. Berdintasunaren arloko funtzioak burutzen dituzten langileen LPZak egokitu, egiten diren lanaren benetako isla izan dadin. Udaleko berdintasun-politikak adostasunez hartu, sustatu eta jarraipenean oinarritutako politika-egitura sortu. Udaleko sailetako zuzendarien arteko koordinazio-egitura sortu. Koordinazio teknikoko egitura sortu. Herritarrek parte hartzeko egitura sortu. Udaleko sailen arteko batzorde edo egituretan berdintasun-politiken inguruko jakintza egokiak dituen pertsona gehitu.

XEDEAK	TRESN.	EGINTZAK
M2 XEDEA: GIZARTEAK BERDINTASUN POLITIKEN INGURUAN DUEN JAKINTZA ETA PARTE HARTZE MAILA HANDITZEA. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 23. eta 24. artikulua.		Sailen arteko lan-egituretan eta berdintasunaren aldeko bestelako lan-taldetan parte hartu.
		Azterketako tresnen esparrurako lan-prozesua
	Araud.	Genero-ikuspegia informazio estatistikoaren sorreran nahiz estatistiken analisisan (desagregazioa eta datuak sexuaren arabera aztertzea) barneratzeko ordenantza sortu. Genero-inpaktuari buruzko aurretiko balioespena ezartzea ahalbidetuko duen ordenantza sortu. Hizkera eta irudien erabilera sexista izango den ala ez zehaztuko duen ordenantza sortu.
	Ezag.	Berdintasun-xedeen gaineko inpaktuen adierazleen hasierako egoerari buruzko informazioa bilatu.
		Prozeduren esparruko lan-prozesua
	Araud.	Genero-ikuspegitik diru-laguntzak eskaintzeko ordenantza sortu. Genero-ikuspegitik kontratazioak gauzatzeko ordenantza sortu. Genero-ikuspegitik aurrekontuak gauzatzeko ordenantza sortu.
	Zerb/Bali	Udalen artean talde teknikoa sortu eta garatu, berdintasun-politiken inguruko jakinarazpenen ildo orokorrak zehazteko. Udaleko berdintasun-politikei buruzko informazioa emateko eta hedatzeko komunikazio-plana sortu.
	Info/Sent	Berdintasun-politiken inguruan herritarrei zuzendutako sentsibilizazio-kanpainen garapena.
	Jarraip.	Berdintasun-politiken inguruko komunikazio-planaren inpaktua eta gauzatze-maila balioestea.

AHALDUNTZEA

XEDEAK	TRESN.	EGINTZAK
E1 XEDEA: EMAKUMEEI POLITIKA PUBLIKOEN OSAERAN, JARRAIPENEAN ETA BALIOESPENEAN PARTE HARTZEA AHALBIDETUKO DIETEN ADMINISTRAZIOKO PROZESUAK AREAGOTU ETA INDARTZEA. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 23. eta 24. artikulua.	Inf/Sen	Genero-ikuspegia Udaleko parte-hartze organoetan barneratu.
	Zerb/Bali	Emakumeek Administrazioan parte hartzeko bideak ezarri. Gaur egun existitzen diren parte-hartze espazioetan emakumeen kopurua eta parte-hartzea areagotzeko ekintzak gauzatu.
	Araud.	Udaleko parte-hartze prozeduretako barne-antolakuntzan emakumeen eta gizonen arteko oreka sustatzeko araudia sortu.
E2 XEDEA: EMAKUMEEN ELKARTE EHUNDURA ETA BERDINTASUNA SUSTATZEAREN ALDEKOA AREAGOTU ETA BULTZATU. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 1. eta 3. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 24. artikulua.	Emakumeen elkartegintza sustatzeko prozesua eta berdintasunaren aldeko ekintzak	
	Jakin.	Udalerriko elkarte-ehunduran berdintasunak duen egoeraren azterketa.
	Zerb/Bali	Emakumeen parte-hartze soziopolitikoaren gizezkoa baino baxuagoa deneko udalerrietan emakumeen elkarreentzat baliabide ekonomikoaren ekarpena egin. Emakumeen elkarten artean eta bestelako elkarteekin sareak sortzea sustatu.
	Info/sent	Berdintasunaren alde lanean jardungo duten elkarteak osatzeko edo dagoeneko osatuta dauden elkarteetan mota honetako ekintzak garatzeko informazio-baliabideak eskaini. Berdintasunaren alorrean lan egiten duten elkarten aintzatespenerako ekintzak garatu.
	Genero-ikuspegia udalerriko elkarte mugimenduan barneratzeko prozesua	
	Prestak.	Genero-ikuspegia udalerriko elkarteetan barneratzeko eta berdintasunaren alde egindako lan historikoa berreskuratzeko prestakuntza eta aholkularitza teknikoak eskaini.
	Zerb/Bali	Euren egituretan eta lan-esparruaren garapenean genero-ikuspegia barneratzeko prozesuan dauden elkarreentzat baliabide ekonomikoak eskaini.

BATERAGARRITASUNA

XEDEAK	TRESN.	EGINTZAK
C1 XEDEA: EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO ERANTZUKIDETASUN EZARTZEKO ETA LANEKO, ETXEKO ETA NORBERAREN EGINKIZUNAK ONEZ BATERATZEKO NEURRIAK HARTZEKO GIZARTEAREN ANTOLAMENDUAN ALDAKETA ERAGINGO DUTEN TRESNAK SORTU. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 16. eta 17. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 47. eta 49. artikulua.	Inf/Sen Laneko eta etxeko eginkizunak onez bateratzearen inguruko informazio-ekintzak garatu.	
	Jakin. Laneko eta etxeko eginkizunak onez bateratzearen inguruko azpiegituren eta baliabideen egoera ezagutzera bideratutako ekintzak burutu eta hobetzeko proposamenak egin. Erantzukidetasunaren inguruan beste administrazioek garatutako neurriei buruzko jakintzak sortu. Udalerriko denboren (gizarte denbora, talde-denbora, lan-ordutegiak...) giltzaduran eta erabileran gertatzen diren ezberdintasunei buruzko hausnarketarako espazioak sortu, laneko eta etxeko eginkizunak onez bateratzea eta erantzukidetasuna funtsezko elementutzat hartuta.	
C2 XEDEA: ERANTZUKIDETASUNERANZKO BIDEAN ERRONKAK GAINDITU ETA URRATSAK EMATEKO LANEAN GIZARTEAREN JAKINTZAK, INPLIKAZIOA ETA PARTE HARTZEA AREAGOTU. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 11., 16. eta 17. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 47. artikulua.	Prestak. Pertsonen, denboren, laneko eta etxeko eginkizunak onez bateratzearen eta erantzukidetasunaren antolakuntza eta kudeaketari buruzko prestakuntza egin.	
	Jakin. Udaleko erantzukidetasunaren egoerari buruzko diagnostikoa.	
	Info/sent Sentsibilizazio-kanpainak garatu erantzukidetasunaren esparruan. Kargu politiko eta gizartearen eragin handikoan diren pertsonen artean berdintasunaren aldeko ekintza eredugarriak garatu.	
	Zerb/Bali Beheko jardueretan jardungo duen udalerriri anitzeko talde teknikoa sortu eta garatu: Denboraren erabileran dauden aldean eta desberdintasunen datuak hedatu; erantzukidetasunari buruzko kongresuak, jardunaldiak, etab. antolatu.	

INDARKERIA

XEDEAK	TRESN.	EGINTZAK
V1 XEDEA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI AURRE EGITEKO, TOKIKO ADMINISTRAZIOAREN KOORDINAZIOA INDARTU ETA HOBETU. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 22. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 50. eta 62. artikulua.	Zerb/Bali Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko tokiko protokoloak diseinatu eta ezarri, esparru honetan jarduteko gaitasuna duten tokiko arreta-mapako eragile inplikatu guztiek parte har dezaten.	
	Prestak. Protokoloak hartzen dituen langileei zuzendutako genero-indarkeriari buruzko prestakuntza-ekintzak egin.	
	Jarraip. Udalean emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko borrokaren koordinazioan dauden urritasunak eta oztopoak antzeman. Emakumeen aurkako Indarkeriari Aurre egiteko Erakundearen arteko Batzordearen ezarritako ekintzak ezartzean eta etengabeko hobekuntzan parte hartu.	

XEDEAK	TRESN.	EGINTZAK
V2 XEDEA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA GUZTIZ EZABATZEKO SENSIBILIZAZIO KANPAINAK SORTU. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 22. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 50. eta 52. artikulua.	Info/sent	Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean prebentziorako eta sensibilizaziorako jarduerak garatu, eta indarkeria hori genero-desberdintasunarekin lotu. Genero-indarkeriaren aurkako manifestazioak garatu.
	Zerb/Bali	Gizonezkoen zuzendutako laguntzarako eta sensibilizaziorako baliabideak sortu. Etzeko tratu txarrek eta sexu-erasoek eragindako heriotzen aurrean jarduteko protokoloa aplikatu.

2.1.3

EDUKIEN GARAPENA XEDEEN ARABERA

M1 XEDEA: ERAKUNDEA GENERO IKUSPEGIA INSTITUZIONALIZATZEKO GAITZEA

Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 12 eta 29. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21 eta 22. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Xedearen helburua, genero-ikuspegia Udaletako eguneroko funtzionamenduan barnertzea eta instituzionalizatzea da, eta hartarako, funtsezko sei arloetan lan egitea beharrezkotzat jotzen da: berdintasun-politiken plangintzan, trebakuntza politikoa, trebakuntza teknikoan, sustapenerako eta koordinaziorako egituretan, tresnetan eta administrazio prozeduretan. Sei lan-esparru horietan burututako lankidetzak neurrizkoa, erakunde bakoitzak duen abiapuntu-egoeraren arabera, planteatzea ezinbestekoa da erakunde batek emakumeen eta gizonen baldintza, egoera, behar eta aurreikuspen ezberdinak kontuan hartuta herritartasuna aldatzea lortzera bidean egindako lana planifikatu, ezarri eta balioesten dituela ontzat emateko.

Esku-hartzea beharrezkotzat ikusten den lan-esparru bakoitzerako estrategia berezitu bat planteatu da, bakoitzari C. atalean zehaztutako lan prozesu bat dagokiolarik.

1. **Plangintzaren esparruan genero-ikuspegia barneratzeko estrategia**

Udaleko plangintzan genero-ikuspegia barneratzeko, udaleko berdintasun-politiken plangintzarako tresna egokiak ezarri beharko dira Udalean. Eta horretarako, Udalean nahiz kanpoan egindako diagnostikoa beharrezkoa da, urtero balioetsi eta eraginkor bihurtu beharko da eta duen eragina zehaztu beharko da. Testuinguru honetan, Berdintasunerako Udal Plana da tokiko administrazioan berdintasunaren plangintzarako tresnarik eraginkorrena. Sektoretan banatu gabeko erakunde bateratutzat jotzeko beharretik eta sailen eta diziplinen arteko harremana euren filosofiara erabat lotuta dagoen printzipio moduan ulertuta sortu da tresna hori. Bestalde, Udaleko sailen arteko zeharkako politiken plangintza-prozesuetan parte hartuz, eta eskura dauden plan eta programetan genero-ikuspegia sartuz. Ezarpen egokia eta arrakastatsua izateko beharrezkoak diren giza baliabideak, baliabide ekonomiko eta materialak izan beharko dituzte plangintza horiek, baita lan-prozesu eta egitura egokiak izan ere, eta lanerako tresnak gauzatu beharra ere.

2. **Genero-ikuspegian politikoki gaitzeko estrategia**

Ardura politikoa duten pertsonen udalean dauden sexu-desberdintasunak eta gai honen inguruan dauden beharrak ezagutzeko gaitasuna handitu eta erraztea da genero-ikuspegian politikoki gaitzea, zinegotzigoan berdintasunerako politikak eta neurriak ezartzera-koan erabaki politikoa hartzeari begira eta baliabide ekonomikoak hartzeko neurriak eta gai horretara bideratzea lehenesteari begira, eta genero-ikuspegia Udalean barneratzeko beharrezkoa den tresna moduan.

3. **Genero-ikuspegian teknikoki gaitzeko estrategia**

Gai honen inguruan prestakuntza programatua, jarraitua, etengabea eta beharretara egokitua gauzatzea da genero-ikuspegian teknikoki gaitzea. Horretarako, eta emaitzak mantendu ahal izateko, batzarrak, jardunaldiak eta urteroko feedback eztabaidak antolatu beharko dira, eta langile teknikoen beharretara zehazki bideratutako aholkularitza indibi-

duala eta pertsonalizatua egin beharra ere planteatzen da. Bestalde, Udaletan berdintasunaren alde edo genero-ikuspegiaren barruan lanean diharduten pertsonekin elkarlanean aritzea beharrezkoa da, baita Udaleko langile guztiek genero-ikuspegian murgilduta lan egin dezaten modua bilatzea ere. Langile horientzat baliagarria izan daiteke forma jarraituan nahiz berdintasuna helburu ez duten bestelako gaitzeko foroetan genero-berdintasuna barnera dezaten planteatzea. Aurreko estrategian bezala, langile teknikoak gaitzea funtsezko eta beharrezko tresna da genero-ikuspegia Udalean barneratzeari begira.

4.

Genero-ikuspegia kudeaketarako eta koordinaziorako egituretan barneratzeko estrategia

Udaleko kudeaketarako eta koordinaziorako egituretan genero-ikuspegia barneratzeko, berariazko egitura egonkorrak sortu beharko dira (batzordeak edo antzekoak) ordezkaritza politikoaren, zuzendarien eta ordezkaritza teknikoaren koordinaziorako, hau da, planaren zeharrikako koordinazioa egin ahal izateko; parte hartzeko egitura egonkorra sortzeko (herritarrentzat); eta Udaleko sailen arteko koordinazio eta kudeaketarako egituretan berdintasunaren inguruan jakintzak dituen pertsona sartzeko. Beste Erakunde eta Administrazioekin elkarlanean aritzea eta eurekin koordinatzea ere garrantzizkoa da, bakoitzaren eskumenen barruan dauden mailetan ekimenak aurrera ateratzen elkar laguntzeko, eta hori guztia koordinatzeko eta harmonizatzeko. Modu berean, beharrezkoa izango da ere lan-batzordeetako pertsonen artean jakintzak, parte-hartzea eta komunikaziorako kanal formalak eta egonkorrak ezartzea. Amaitzeko, aipatu beharra dago egitura hauetako batzuk elkarte-ehunduraren parte-hartzearekin kontatu beharko dutela, egiturazko forman behintzat.

5.

Genero-ikuspegia Udaleko analisirako tresnetan barneratzeko estrategia

Jakintza errazteko tresna gisa sexuka banatzean datza estrategiak, eta beste hainbat aldagaien artean, analisi guztietako informazioaren bilaketan eta tratamenduan, udalean egiten diren diagnostikoetan eta ikerketetan, eta bestalde, udaleko berdintasun-politikak diseinatu eta balioesteko beharrezkoak diren tresnak sortu eta ezartzea, adibidez udaleko plangintza berdintasun-printzipiora egokitzen duten (genero-inpaktuaren balioespenean oinarrituta) aginduak garatzeko udal ordenantzak edo berdintasun-politiken jarraipenerako eta balioespenerako prozesu eta tresnen ezarpena.

Udaleko prozedura nagusietan (dirulaguntzak, kontratazioak eta aurrekontuak) genero-ikuspegia ezartzea ahalbidetuko duten ordenantzak sortzean oinarritzen da estrategia.

C.

LAN PROZESUAK

1.

PLANGINTZAREN ESPARRUAN

Jakintza

- **Zehaztutako SEI xedek oinarritzat hartuta Udalak duen egoerari buruzko diagnostia egin.** Udalak abian jarri dituen emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunerako politiken egoera ezagutzeko azterketa egin ahal izatea da ekintza honen helburua, eta horretarako, teknika kuantitatiboak, kualitatiboak eta bigarren mailako iturrien analisiak erabiliko dira. Hauek dira kontuan hartu beharreko aldagai teknikoak: Berdintasunerako plangintzaren diseinuan, kudeaketan eta balioespenean udalak dituen beharretara egokitzeko neurria, berdintasun-politiken barne-koherentziaren eta legeekiko edo erreferentziazko bestelako dokumentuekiko egokitzapen-neurria, Udaleko teknikarien eta ardura politikoa duten langileen artean berdintasunaren ezarpenari buruzko parte-hartzearen, jakintzaren eta iragazkortasunaren neurria, kudeaketarako egituren adierazgarritasunaren eta egokitzapenaren neurria, berdintasun-politiken azterketarako eta garapenerako tresnen garapenaren neurria, genero-ikuspegiak administrazioko prozeduretan duen ezarpen-maila, berdintasun-politiketarako talde sustatzailearen eta giza baliabideen, baliabide materialen eta ekonomikoen sendotasunak eta ahultasunak. Azterketa hori egiterakoan, helburu honetarako definitu diren emaitza-adierazleak hartu daitezke abiapuntutzat. Azterketarako sei esparru horiek udalerrri guztietan gauzatzea litzateke planteamendurik gomendagarriena, baina beti ere udalerrri bakoitzaren neurria egokitutako sakontasunaz.

Araudia

- **Udaleko berdintasun-plana gauzatu eta kudeatzeko erreferentzia izango den eta berdintasun-politikan Udalaren jardunbideak zehaztuko dituen ordenantza sortu.** Udalean berdintasun-planak gauzatzea derrigortuko duen eta lanerako printzipioak eta estrategiak ezarriko dituen (lehentasunak zehaztuz) udal-ordenantza sortzea.

Honako gomendioak ematen dira ordenantzaren ezarpenerako: hausnarketa estrategikoa egitea, beharrezkoa den informazioa bildu eta etorkizunerako plangintzan zehaztu, eta legegintzaldiko programazio-dokumentua gauzatu; dokumentu hori Udaleko plangintza estrategiko orokorrean sartu; legegintzaldirako programazio-dokumentua urtero zehaztu eta eraginkor bihurtu; programazio-dokumentua udalerrian zabaltu.

Jarraipena

- **Planaren betetze-mailari buruzko balioespena egin eta Berdintasunerako IV. Planari buruzko balioespenaren informazioa eskaini.** Horretarako, honako gomendioak ematen dira: EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren balioespen-dokumentuaren balioespena egiteko informazioa eskaini; Udalaren ekintzei buruzko azterketa estrategikoari begira baliozko ondorioak atera; emaitzen dokumentua aztertu, hurrengo programazio-prozeduraren emaitzak hobetzeko; emaitzak sozializatu eta hedatu.
- **Udaleko planen ezarpenerako eta balioespenerako prozeduretan genero-ikuspegia sartu,** bereziki generoak eragin handia duen prozeduretan. Ekintza honen helburua, Udalak gauzatzen dituen zeharkako planak edo udal-planak genero-ikuspegia barneratuta dutela gauzatzea da. Horretarako, berdintasunaren aldeko zerbitzuek, eskura duten denborak uzten dien heinean, zirriborroetarako aholkularitza-lanak edo ekarpenak egin ditzakete edota zirriborroak egin aurretiko ekarpenak egin ditzakete berdintasun-politiketarako plana egiteko ardua duten pertsonen planaren inguruko gaiekin laguntzeko. Oro har, garrantzi berezia duten planak eta programak politikoki onartu aurretik genero-inpaktua zenbaterainokoa izango den balioestea ere planteatzen da, eta beharrezkoa deneko kasuetan ezarriko diren zuzentzeko neurriak zehaztea.

2.

GENERO-IKUSPEGIAN POLITIKOKI GAITZEAREN ESPARRUAN

Jakintza

- **Berdintasunean lan egiteak dituen onurak eta kostu politikoak Berdintasunetik guztion artean aztertu, Udaleko langileei jakinaraziz.** Neurri honen helburua, Udalek berdintasunaren alde lan egitearekin gizarte mailan lortuko diren onuren berri jakin eta zabaltzea da. Gainera, gerora begira interesgarrienak eta garrantzizkoenak diren praktika egokiak antzeman eta hedatzeko aukera ere planteatu daiteke. Behin gauzatu, egindako ikerketa jardunaldien edota argitalpenen bitartez zabaltu daiteke.

- **Berdintasun-politikaren ardura duten zinegotzigoiei udalean berdintasuna zeharkakoa egiteko moduei buruzko prestakuntza eskaintzea.** Bi edo alde gehiagoren artean topaketak egiten dira, berdintasunerako zinegotzigoaren eta Udaleko gainerako arduradun politikoekin, berdintasun-politiken diagnostikorako, diseinurako, plangintzarako, ezarpenerako eta balioespenerako prozeduren aurretik, garatuko diren prozedurei eta emaitzei buruzko informazioa eta politikan eta gizartean izan duten eraginei buruzko informazioa emateko. Ikuspegi orokor batetik, udaleko oposizioko alderdi politikoekin lan-egitura motaren baten bitartez elkarlanean aritzea interesgarria litzateke.

Araudia

- **Bereziki Alkatetzak zuzenduko dituen berdintasun-politikak gidatzeko egitura politikoa sortu eta ezartzen lagunduko duen araudia gauzatu.** Udaleko berdintasun-politiken eta gainerako politiken artean koordinazio-egitura bat ezartzea da helburua. Egitura hori erabakiak hartzeko eskumena duten pertsonak osatuko lukete.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Alkatetzak aukera-berdintasunaren aldeko konpromiso argia hartzen duela jakinarazi herritarrei eta Udalari.**
 - Udalbatzak berdintasunerako plana onartu, ezarpenerako nahiko izango den aurrekontuarekin.
 - Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako delako gutuna sinatu, eta ezarpenerako beharrezkoak diren baliabideak bideratu.
 - Urtero Udalbatza antolatu, berdintasunaren gaian zinegotziko bakoitzak burututako jardueri buruzko informazioa eman dezan.
 - Berdintasun-politikarekin lotutako barneko eta kanpoko komunikazio nagusiak sinatu/ontzat hartu.

3.

GENERO-IKUSPEGIAN TEKNIKOKI GAITZEAREN ESPARRUAN

Prestakuntza

- **Udaleko langile teknikoek beharretara egokitutako genero-prestakuntza diseinatu eta ezarri.** Dauden beharrak ezarri eta beteko dira, langile teknikoek euren egunero-

ko lanean genero-ikuspegia barnera dezaten eta berdintasunari begira jarduera espezifikoa garatu ahal izan ditzaten. Horretarako, udal bakoitzaren neurria egokituta-ko diagnostikoa egin beharko da, berdintasunaren inguruko prestakuntza dauden beharrak zehazteko, lanpostu bakoitzaren erreferentziazko terminoak kontuan hartuta. Hala, lanpostu bakoitzera egokitutako prestakuntza-plana diseinatu eta ezarriko da (programatutakoa, jarraitutasuna duena, mailakatua eta lanpostu bakoitzera egokitua), Udaleko maila eta esparru bakoitzaren beharrak kontuan hartuko dituen. Hori guztia kontuan hartuko da Udalak berak nahiz kanpoko beste erakunderen batek antolatutako prestakuntza-plan orokorretarako. Berdintasunerako berariazko prestakuntza-planaren diagnosia eta diseinua egiteaz gain, gomendagarri eta beharrezkotzat jotzen da Udal bakoitzean ezartzen eta garatzen den etengabeko prestakuntzaren eskaintza genero-berdintasuna eta zeharkakotasuna landuko duten moduluak sartzeara. Amaitzeko, aholkularitza pertsonalizatua eskaintzeko aukera ere planteatu daiteke, Udaleko langile teknikoaren prestakuntza sortzen diren behar espezifikoak asetzeko.

- **Genero-ikuspegia ezartzeko lehentasuna duten Udaleko arlo, sail edo zerbitzuetan generoaren gaian espezializatuta dauden langileak izatea.** Horrela, berdintasun-politikak ezartzeko lehentasunezko Udaleko arlo edo sailetan genero-prestakuntza duten langileak edo berdintasun-politiketan esperientzia nahikoa duten langileak izatea bermatuko da. Horretarako, enplegu publikoko eskaintzetan hautapen-prozesuetan zein eduki sartu behar den (gizonen eta emakumeen berdintasun-printzipioari buruzkoak) edo EPEetan aukera-berdintasunari buruzko zein eduki sartu behar den xedapenen bitartez zehaztuko duen ordenantza sortuko da.

Informazioa / Sentsibilizazioa

- **Udaleko langile teknikoaren artean berdintasun-politiken garapenari buruzko eztabaida sustatu.** Berdintasunaren alorreko langileen parte-hartzea sustatu, urtean zehar hausnarketarako jardunaldi bat edo bi antolatuz. Jardunaldiotan Udalaren beharrei eta jarduerari buruzko hausnarketa egingo da, Udala bere osotasunean edo arloka hartuta, eta eskura dauden balioespen eta diagnosiak hedatuko dira beraretan. Jardunaldi horietako emaitzak berdintasun-planaren diseinuan erabil daitezke, edo urteko plangintza eragilean.
- **Genero-ikuspegia eta genero-edukiak Udalak antolatutako kongresuen, jardunaldien, hitzaldien eta sarien antolakuntza sartzu.** Sektoreetako jardunaldi eta kongresuetan berdintasunaren gaiaren inguruan garatutako neurriari buruzko eztabaida egin: adibidez, tokiko agendan parte hartzeari buruz, enpleguari buruz, etab.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Udaleko berdintasun-unitateak eta berdintasun-zerbitzuak sortu edo indartu.** Udal guztietan berdintasun-politikak diseinatu eta koordinatuko dituzten langile gaituak (berriazko prestakuntza edota berdintasun-politiketan esperientzia dutenak) izatea bermatu. Horretarako, berdintasunerako zerbitzuak udalerraren neurriaren eta burututako lan-kopuruaren arabera langile-kopurua izango du, hau da, egokitzat jotzen diren giza baliabideak, baliabide ekonomikoak eta materialak izango ditu. Oro har, beharrezkoa litzateke Administrazio Publikoetara iristeko irizpideak bateratzeari buruz erakundeen arteko hausnarketa-prozesua garatzea.
- **Berdintasunaren arloko funtzioak burutzen dituzten langileen LPZak egokitu, egiten diren lanaren benetako isla izan dadin.** Berdintasun-zerbitzuetan edo bestelako esparru sektorialetan edo zeharkakoetan berdintasun-politiken diseinuan lanean diharduten pertsonen LPZak egokituak dituzte, euren lanaren aintzatespena iristeko eta euren eguneroko funtzioetako bat izateko. Horretarako, generoaren gaian prestatuak izatea edota esperientzia izatea eskatzeko aukera planteatu daiteke, LPZko lanpostuak moldatu edota baloratu behar deneko kasuetan.
- **Udaleko berdintasun-politikak adostasunez hartu, sustatu eta jarraipenean oinarritutako politika-egitura sortu.** Berdintasun-politikak adosteko, sustatzeko eta jarraipena egiteko egitura sortuko da, eta udaleko talde politikoek izango dute ordezkaritza egitura horretan, legediak udalbatzari eskainitako organoak baztertu gabe.
- **Udaleko sailetako zuzendarien arteko koordinazio-egitura sortu.** Zuzendaritza horiek existitu eta funtzio garrantzitsuak burutzen dituzten Udaletan berdintasun-politiken eta gainerako politiken arteko koordinazio-egitura bat sortu, zuzendaritzaren bat duten edo euren agintaritza gauzatzeko gaitasuna duten pertsonen osatutakoa.
- **Koordinazio teknikorako egitura sortu.** Sailen arteko koordinazio teknikorako egitura sortu: Berdintasunaren aldeko neurriak lantzen diharduten langileek (Udaleko arlo edo sail ezberdinetakoak) hartutako neurrien diseinuan, ezarpenen eta balioespenean elkarren arteko koordinazioz joka dezaten.
- **Herritarrek parte hartzeko egitura sortu.** Emakumezkoek udaleko politiketan parte hartzeko bide formalak sortzen laguntzeko, parte-hartze eta elkarriketarako gunea sortu.

- **Udaleko sailen arteko batzorde edo egituretan berdintasun-politiken inguruko jakintza egokiak dituen pertsona gehitu.** Udalean lan egiten duten eta berdintasunaren inguruan jakintzak dituzten pertsonak arloetako eta arloen arteko politiken diseinuan parte hartzea, genero-ikuspegiari buruzko ekarpenak eginez.
- **Sailen arteko lan-egituretan eta berdintasunaren aldeko bestelako lan-taldetan parte hartu.** Zerbitzu eta baliabideetako ekintza bat bailitzan, erakundeen arteko lan-egituretan Udalek parte-hartzen jarraitzea edo, halakorik existitzen ez bada parte-hartze hori sustatzea. Egitura horietako bat azpimarratzekotan, Berdinsarea azpimarratuko genuke bereziki.

5.

LANERAKO PROZESUA ANALISI TRESNEN ESPARRUAN

Araudia

- **Genero-ikuspegia informazio estatistikoaren sorreran nahiz estatistiken analisisian (desagregazioa eta datuak sexuaren arabera aztertzea) barneratzeko ordenantza sortu.** Udaleko informazioaren datuak, analisiak eta ustiaketa sexuaren arabera nola eta noiz banatu behar den zehaztuko duen (xedapenen bidez) ordenantza sortu. Horretarako, gomendagarria litzateke udal guztien artean erreferentziazko ordenantza-eredu bat sortzea, baita adierazle-sistema bat egitea ere. Bestalde, sexuaren aldagaia sartzearaz gain bestelako aldagaiak sartzea (aldagai-aukeraketen bitartez) ere adostu beharko da: adina, jatorria, diru-sarrerak, funtzionalitate dibertsoa, etab. Aldagai-aukeraketa horiek emakumeen beharren aniztasuna eta ugaritasuna ezagutzeko balioko lukete, eta desberdintasun-egoerekin lotuta dauden bestelako aldagaiak ezagutzeko ere.
- **Genero-inpaktuari buruzko aurretiko balioespena ezartzea ahalbidetuko duen ordenantza sortu.** Administrazioiko arauak edo ekintzek eragindako genero-inpaktuaren balioespena nola egin (eta noiz, nork... egin) eta genero-inpaktuaren balioespena aldeztu aurretik administrazioiko zein arau edo ekintzek gauzatu behar duten zehaztuko duen (xedapenen bidez) ordenantza sortu. Horretarako, gomendagarria litzateke udal guztien artean erreferentziazko ordenantza-eredu bat sortzea, eta Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeak diseinatutako balioespen-tresna neurri ezberdinetako udalerrien errealitatera eta beharretara egokitzea.
- **Hizkera eta irudien erabilera sexista izango den ala ez zehaztuko duen ordenantza sortu.** Udalak egindako komunikazio eta ikonografia guztietan hizkuntzaren eta iru-

dien erabilera sexista ez izatea derrigortuko da. Horretarako, gomendagarria litzateke udal guztien artean erreferentziazko ordenantza-eredu bat sortzea, hizkuntzaren eta irudien erabilera sexista izan ez dadin oinarrizko protokoloa garatzen duena.

Jakintza

- **Berdintasun-xedeen gainera inpaktuen adierazleen hasierako egoerari buruzko informazioa bilatu.** Udalerrietarako erakundeen arteko lanen arauetan gomendatutako helburu guztietan udalerrri bakoitza zein puntutatik abiatzen den aztertzen da, eta hala, jasotako datuen arabera, Udal bakoitzak zein helbururi eman behar dion lehen-tasuna jakingo dugu, baita abiapuntua zein izango den ere. Honekin guztiarekin, jarraitu beharreko estrategiei eta edukiei buruzko informazio baliagarria izango dugu. Garatu beharreko helburu eta estrategiak definituta ditugula, emaitza-adierazleek aditzera ematen digute argi eta garbi gizartearen lortu nahi dugun aldaketa zein den eta neurketa eguneratuz gero izandako bilakaera ere ezagutuko dugu planen iraunaldiaren amaieran. Proposatutako ekintzak Udaleko berdintasun-planaren diseinuko prozesu orokorrek bat egingo luke.

6.

PROZEDUREN ESPARRUAN

Araudia

- **Genero-ikuspegitik diru-laguntzak eskaintzeko ordenantza sortu.** Genero-ikuspegiaren arabera diru-laguntzak nola eman behar diren eta genero-ikuspegiaren arabera-ko diru-laguntzak zeintzuk izango diren zehaztuko duen (xedapenen bidez) ordenantza aztertu eta egokitu, eta dagokion kasuetan ordenantza sortu. Horretarako, udal guztien artean erreferentziazko ordenantza-eredu bat sortu daiteke.
- **Genero-ikuspegitik kontratazioak gauzatzeko ordenantza sortu.** Genero-ikuspegiaren arabera kontratazioak nola egokitu behar diren zehaztuko duen (xedapenen bidez) ordenantza sortu, beti ere unean-unean kontratazioaren esparruan indarrean dagoen araudia kontuan hartuta. Horretarako, udal guztien artean erreferentziazko ordenantza-eredu bat sortu daiteke.
- **Genero-ikuspegitik aurrekontuak gauzatzeko ordenantza sortu.** Genero-ikuspegiaren arabera aurrekontuak nola egi behar diren eta genero-ikuspegiaren arabera-ko aurrekontuak zeintzuk izango diren zehaztuko duen (xedapenen bidez) ordenantza

sortu. Horretarako, udal guztien artean erreferentziazko ordenantza-eredu bat sortu daiteke. Oro har, genero-ikuspegiaren arabera aurrekontuak egin aurretik beharrezkoa izango da Udaleko aurrekontuak genero-ikuspegiaren arabera aztertzea.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Genero-ikuspegia Udaleko plangintzan barneratzearen bilakaera, honako hauek osatutako batez besteko haztatuzko indizeekin neurtuta: Legegintzaldiko planaren existentzia, urteroko balioespen-prozesuen existentzia, planaren iraunaldiaren amaieran emaitza-balioespenaren existentzia, prozesu bat definitzeko planen portzentajea, edo genero-ikuspegia barneratzeko prozedura.
- Politikak berdintasunarekiko duen irazkortasunaren bilakaera, honako hauek osatutako batez besteko haztatuzko indizeekin neurtuta: onartutako berdintasun-planen existentzia, alkatetzaren ageriko konpromisoaren existentzia, zinegotzigo ezberdinen arteko batzarren existentzia eta parte hartzen duten zinegotzien portzentajea.
- Berdintasunaren irazkortasun teknikoaren bilakaera, honako hauek osatutako batez besteko haztatuzko indizeekin neurtuta: Berdintasunaren gaian prestakuntza jaso dutenen % Udalean, prestakuntza jaso dutenen batez besteko prestakuntza-orduak, batzarretan, hausnarketarako jardunaldietan edota berdintasun-politikak balioesteko prozeduretan parte hartzen duten pertsonen %, urtean parte hartutako batez besteko orduak eta egunak.
- Kudeaketarako eta koordinaziorako egituretan parte hartzearen bilakaera, honako hauek osatutako batez besteko haztatuzko indizeekin neurtuta: Koordinazio politikorako egituretan diharduten zinegotzien %, sailetako zuzendarien %, ordezkari teknikoak dituzten sailen %, eta berdintasunerako unitateak edo berdintasun-politiketako jakintzak dituzten pertsonen parte hartzen duten sail anitzeko egituren %.
- Tresnen diseinuaren eta ezarpenaren bilakaera, honako hauek osatutako batez besteko haztatuzko indizeekin neurtuta: Fase guztietan (diseinu faseetik hasi eta hedapeneraino) sexuaren arabera banatutako ikerketen %, aurrez genero-inpaktuaren balioespena eginda datozen arauak, ekitaldiak eta planak, eskura dauden Udaleko planen emaitza-adierazleen %.
- Prozeduretan genero-ikuspegia barneratzearen bilakaera, honako hauek osatutako batez besteko haztatuzko indizeekin neurtuta: Genero-ikuspegia kontuan hartuta egin-

dako kontratazioen %, genero-ikuspegia kontuan hartuta emandako diru-laguntzen %, genero-ikuspegia kontuan hartuta gauzatutako aurrekontuen %.

M2 XEDEA: GIZARTEAK BERDINTASUN POLITIKEN INGURUAN DUEN JAKINTZA ETA PARTE HARTZE MAILA HANDITZEA. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 23. eta 24. artikulua.

A. **ESKU HARTZEAREN HELBURUA**

Esku-hartzearen helburua, bereziki udaletan garatzen ari diren berdintasun-politikak zeintzuk diren gizarteari jakinaraztea da: sustatzen dituzten diagnostikoak, garatutako edo pentsatutako ekintza-motak, eta euren balioespenak. Bestalde, garatutako berdintasun-politiken inpaktuari, balorazioei era gizarteak duen iritziei buruzko informazioa jasotzeko prozesuak ere areagotuko dira. Horrekin guztiarekin gizartearen parte-hartzea sustatu nahi da, herritarrak eta elkarte-ehundurak berdintasunaren aldeko politiketan eragile aktiboak izan daitezen.

B. **ESTRATEGIA**

Pentsatutako edota garatutako udaleko berdintasun-politiketan elkarlanean aritzeko eta komunikaziorako estrategiak lantzen dituzten erakunde eta gizarte eragileekin koordinazioan jardutea da estrategia honen xedea, eta estrategia hauek aplikatzeko bi bide erabiliko dira. Lehenengo bidean Udaleko komunikazio orokorretan berdintasuna txertatzen da, forman nahiz edukietan: Udaleko berdintasun-politiken hedapenerako osoko komunikazio-plana diseinatu eta abian jarriko da. Bigarren bidean berdintasun-politikak jendaurrean zabaltzeko berariazko ekintzak garatuko dira, hedapenerako eta sentsibilizaziorako ekin-tzen bitartez, eta abian jarritako ekintza-mota guztien emaitzak balioetsiko dira.

C. **LAN PROZESUA**

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Udalen artean talde teknikoa sortu eta garatu, berdintasun-politiken inguruko jakinarazpenen ildo orokorrak zehazteko.** Erakundeen artean ahalegin berezia egingo da aukera-berdintasunaren eta genero-berdintasunaren alorrean ildo orokorrak

zehaztu eta gerora horiek abian jartzeko. Oinarrizko ildoak komunean jartzen diren heinean gizarteak jasotako mezuak eraginkorragoak izango direla uste da, homogeneoagoak, argiagoak eta zuzenagoak izango baitira. Prozesu honetan ezinbestekoak dira Udaletako komunikazio-arduradunak eta sailak (Komunikaziorako eta Protokolako Kabineteak, Alkatetzaren Komunikazio Zerbitzuak, etab.). Oro har, Udalen eta bestelako erakunde eta gizarte eragileen artean lankidetzarako eta koordinaziorako lan-egiturak eta prozedurak sortzea nahi da. Hala, dagoeneko lanean diharduen Berdinsarea egitura nabarmendu nahi dugu.

- **Udaleko berdintasun-politikei buruzko informazioa emateko eta hedatzeko komunikazio-plana sortu.** Komunikaziorako plan honen garapenaren xede orokorra herritarrei garatutako berdintasunaren alorrean garatutako edota proposatutako politiken diagnostikoak, planak, jarduerak, betetze maila eta emaitzei buruzko informazioa eman, sentsibilizatu eta komunikatzea da. Udalarekin zuzenean edo zeharka lotutako komunikazio-praktika komunean oinarritutako estrategia planteatuko da. Plan hori sortzeko, gutxienez ondorengo eragileak izango dituen udal-prozedura garatzea ezinbestekoa izango da: udaleko berdintasunaren arloko eta zerbitzuetako arduradun diren politikari eta teknikariak, Komunikazio arlokoak, Alkatetzakoak, eta tokiko komunikabideetakoak. Komunikazio-plana barrura eta kanpora begirako dimentsioan oinarrituta antola daiteke. Lehenengoan sartuko lirateke zuzenean Udalaren menpekoak diren komunikazio-tresnak, eta bigarrenean, berriz, Udalarekin diru-laguntzen edo hitzarmenen bitartez loturaren bat duten tokiko komunikabideak (aldizkariak, egunkariak, tokiko telebistak, etab.). Plan honen barruan garatuko diren ekintzak hainbat esparrutan abian jartzeko modukoak dira. Behean ageri dira esparru horietako batzuk:
 - Agerpen publikoetan erabilitako hizkeraren eta horren edukien inguruan politikariak gaitzea.
 - Berdintasun-politikak eta udaleko berdintasun-planak jendaurrean zabaltzeko mekanismoak zehaztea (web orriak, jardunaldiak, etab.).
 - Tokiko aldizkari, egunkari eta abarrentzat antolatzen diren diru-laguntzen deialdietan berdintasunaren aldeko irizpideak sartzea.
 - Udalean garatutako berdintasunaren alorreko jardueretan landutako edukiak kazetariei nola helarazi.
 - Tokiko kazetariekin lan-ildoak sortu, euren agendetan berdintasunarekin lotutako gaiak sar ditzaten.

- **Berdintasun-politiken inguruan herritarrei zuzendutako sentsibilizazio-kanpainen garapena.** Udaleko berdintasun-politiken garapenaren inguruan berariaz herritarrei informatzeko eta sentsibilizatzeko kanpainak garatuko dira. Kanpaina horien garapena komunikazio-planaren barruan sartzea zilegi balitz ere, izaera berezi eta unean unekoa duenez, modu independentean garatuko den ekintzatzat jotzen da. Oinarrizko edukien definizioa udal bat baino gehiagoren artean adostu daiteke, eta gero Udal bakoitzak praktikan jarriko luke bere interesen arabera.

Jarraipena

- **Berdintasun-politiken inguruko komunikazio-planaren inpaktua eta gauzatze-maila balioestea.** Programatutako ekintzen betetze-maila eta herritarren artean izan duten inpaktua balioesteko beharrezkoak diren adierazleak zehaztuko dira, proposatutako planteamenduak berdintasun-politikekiko gizartearen interesa eta parte-hartzean positiboki eragin duen ala ez ezagutzeko. Ekintza aurrera eramateko, udaleko alor guztien eta komunikazio-plana diseinatu eta abian jarriko duten langileen arteko koordinazioa eta elkarlana oso garrantzitsua da. Beraz, zeharka lan egiteko moduetako bati segida emango litzaioke.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Herritarrek berdintasun-politiken arduradunei egindako kontsulten kopurua eta bilakaera.
- Ezarritako berdintasunaren aldeko neurriei buruzko jakintza-maila.
- Gauzatutako ekintzekiko gogobetetze-maila.
- Berdintasun-politiken harira diseinatu eta ezarritako komunikazio-planen kopurua eta bilakaera.

E1 XEDEA: EMAKUMEEI POLITIKA PUBLIKOEN OSAERAN, JARRAIPENEAN ETA BALIOESPENEAN PARTE HARTZEA AHALBIDETUKO DIETEN ADMINISTRAZIOKO PROZESUAK AREAGOTU ETA INDARTZEA. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 1. eta 3. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 23. eta 24. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Esku-hartzearen helburua, emakumezkoek eta emakumezkoen elkarteek udaleko politika publikoen osaeran, jarraipenean eta balioespenean duten parte-hartzea areagotzea da, Udaleko parte-hartze prozedurekin bat eginez.

B.

ESTRATEGIA

Estrategia honen xedea administrazioko prozesuetan parte hartzeko egituretan eta prozeduretan genero-ikuspegia areagotzea da. Horretarako, berdintasunaren inguruko gaiak sartuko dira eta batzorde eta organoetan emakumeen eta emakume-elkarteen parte-hartzea sustatuko da.

C.

LAN PROZESUA

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Genero-ikuspegia Udaleko parte-hartze organoetan barneratu.** Parte-hartze organoetan berdintasun-politikaren gaiak landu eta horiekin bat egin dezaten da ekintza honen xedea. Organo horiek zeintzuk diren zehaztu beharko da lehenik, eta gero, organo horiek lantzen ari diren berdintasunaren inguruko auzia parte-hartze organoei jakinarazi, intereseakoak diren gaiak euren arteko topaketetan landu ditzaten.
- **Emakumeek Administrazioan parte hartzeko bideak ezarri** (Berdintasun Batzordea, Udaleko politiketan bestelako gizarte taldeen parte-hartzea, emakume politikari eta langileek barnetik parte hartzea sustatu).
- **Gaur egun existitzen diren parte-hartze espazioetan emakumeen kopurua eta parte-hartzea areagotzeko ekintzak gauzatu.** Elkartutako eta elkartu gabeko emakume-

kopuru handiagoak parte hartzea bilatzen da honekin. Horretarako, emakumeen agerpena eta parte-hartzea aztertuko da eta agerpen hori areagotzeko ekintzak gauzatuko dira: emakumezkoen agerpena txikia denean emakume-elkarteen parte-hartzea sustatzea, egintzetarako gonbidapenak edo informazioa bidali, euren interesekoak izan daitezkeen gaiak sartu, etab. Emakumeen agerpena eta parte-hartzea sustatzeko beste modu bat parte-hartze organoetan eta horietako erabaki-organoetan emakumeen eta gizonen arteko osaera orekatua ezartzeko neurriak hartzea da.

Araudia

- **Udaleko parte-hartze prozeduretako barne-antolakuntzan emakumeen eta gizonen arteko oreka sustatzeko araudia sortu.** Politika publikoen sorreran, jarraipenean eta balioespenean berdintasuna bermatu nahi da, araudi bat sortuta. Urtero balioetsi beharko da araudi horren betetze-maila.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Erakundean irekita dauden parte-hartze prozesuen kopurua.
- Parte-hartze prozesuetarako deialdietara joan diren emakumeen %.
- Emakumeek egindako ekarpenen eta arrazoibideen kopurua.
- Kontuan hartu diren eta hartu ez diren ekarpenen kopurua.

E2 XEDEA: EMAKUMEEN ELKARTE EHUNDURA ETA BERDINTASUNA SUSTATZEAREN ALDEKOA AREAGOTU ETA BULTZATU.

Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 3. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 24. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Esku-hartzearen helburua, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde lanean diharduten gizarteko elkarteak areagotzeko jarduerak garatzea da, baita jarduera horietan gizartea parte-hartzea areagotzea ere. Udalerrietan berdintasunaren alde lanean

diharduen elkarte-ehundura indartu, laguntza eman eta koordinatu nahi da. Aipatu beharra dago elkarte-ehunduraren eta Udalen arteko harreman hurbilari esker helburua lortzea errazagoa egiten dela. Bestalde, udalerriko elkarte-ehundura eta gizarte ehundurari buruzko jakintza handia dute Udalek, eta esku-hartzearen garapenerako garrantzizkoa eta positiboa da hori. Berdintasun-politikekin loturarik ez duten elkarte-ehunduren antolakuntzan, funtzionamenduan eta esku-hartzean genero-ikuspegia barneratzea lortu beharko litzateke.

Helburu honen barruan berdintasunaren alde lanean diharduten elkarteak sartzen dira. Gizonez osatutako elkarte eta taldeek helburu hau lortzeko eginkizun garrantzitsua dute, eta hala, berdintasuna ikuspegi integratzailetik lantzeko estrategia planteatzen da. Berdintasun-politikekin loturarik ez duten elkarte-ehunduren antolakuntzan, funtzionamenduan eta esku-hartzean genero-ikuspegia barneratzea lortu beharko litzateke.

B.

ESTRATEGIA

Helburua lortzen jarduteko bi estrategia proposatzen dira. Lehenengoan udalerriko elkar-teen mugimenduak aztertuko dira, berdintasunaren aldeko ekintzak garatzea sustatzeko, eta emakumeen parte-hartzea gizonena baino txikiagoa duten udalerrietan joera hori zuzentzeko. Bigarrenean informazioa eta baliabideak eskainiko zaizkie udalerriko elkar-teei euren egituretan nahiz eguneroko funtzionamenduan genero-ikuspegia barnera deza-ten, eta horrela euren esku-hartzeekin berdintasuna susta dezaten.

C.

LAN PROZESUAK

1.

EMAKUMEEN ELKARTEGINTZA SUSTATZEKO PROZESUA ETA BERDINTASUNAREN ALDEKO EKINTZAK

Jakintza

- **Udalerriko elkarte-ehunduran berdintasunak duen egoeraren azterketa.** Ekintza honen helburua udalerriko elkarte-ehunduran berdintasunak duen egoera ezagutzea da, funtsezko alderdiak kontuan hartuta. Adibidez:
 - Udalerriko elkarteetan emakumeen parte-hartze soziopolitikoaren maila.

- Udalerriko elkartearen funtzionamendua, gizonen eta emakumeen sartzeko duten aukera, etab.
- Sexuaren, adinaren, jatorriaren eta udalerriko elkarteetako bestelako aldagaien arabera bereizitako osaketa.
- Emakumeen elkarte-mugimendura udalak bideratutako baliabideak eta aurrekontua.
- Elkarteek euren jardueren garapenean eta ezarpenen genero-ikuspegia barneratzen duten.

Ekintza hau garatzea ezinbestekotzat jotzen da gero elkarte eta ekintzetan berdintasunaren alde jokatu ahal izateko, azterketaren emaitzak ezagututa. Izaera kuantitatiboko teknika eta tresnak (galdeketa) eta izaera kualitatibokoak (elkarrizketak, udalerriko elkarteekin lanerako eta eztabaidarako taldeak sortu...) uztartuz garatu daitezke ekintza horiek.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Emakumeen parte-hartze soziopolitikoak gizonen baino baxuagoa deneko udalerrietan emakumeen elkarteentzat baliabide ekonomikoaren ekarpena egin.** Berariaz emakumeen elkarteentzat sortutako diru-laguntzen deialdiak abian jartzea izan daiteke ekintzetako bat. Emakumeen parte-hartze soziopolitikoaren maila zehazteko lehenengo ekintzako azterketen emaitzak hartuko dira. Aurrez, ordea, emakumeen elkartearen egoerari eta beharrei buruzko jakintza izan beharko genuke, eskaini beharreko laguntzak nolakoak izan beharko luketen jakiteko (laguntza ekonomikoa, teknikoa, baliabideak, aholkularitza, prestakuntza...).
- **Emakumeen elkartearen artean eta bestelako elkarteekin sareak sortzea sustatu.** Ekintza honen helburua emakumeen elkarte-ehundurarekin lankidetzan jardutea da, udalerriko elkarte-ehundura osatzen duten elkartearen artean informazioarako, komunikazioarako eta lanerako illoak garatzea sustatzeko. Ekintza hori bi fasetan bana daiteke. Lehenengoan emakumeen elkartearen arteko parte-hartzea antolatuko da (sektorekako batzordeak, foroak eta topaguneak); eta bigarrenetan beste sektoreetako elkarteek espazio hauetan parte-hartzea bultzatuko da, berdintasunaren aldeko gizarte ekimenak garatzerakoan denen arteko lan-dinamikak sortzeko.

Informazioa / Sentsibilizazioa

- **Berdintasunaren alde lanean jardungo duten elkarteak osatzeko edo dagoeneko osatuta dauden elkarteetan mota honetako ekintzak garatzeko informazio-baliabi-**

deak eskaini. Oro har existitzen diren informazio- eta aholkularitza-zerbitzuetako berriazko informazioa (emakumeen elkarteak sortzeari buruzkoak eta berdintasunaren arloan lanean diharduten elkartei buruzkoak) elkarte-ehunduran baneratzeko dira. Informazio- eta aholkularitza-zerbitzu horiek existitzen ez direneko kasuetan, aipatu alorrari buruzkoa izango den eta existitzen den elkarte-ehundurari zuzendutako informazio-kanpaina orokorra garatzea planteatu daiteke.

- **Berdintasunaren alorrean lan egiten duten elkarten aintzatespenerako ekintzak garatu.** Berdintasunaren alorrean urtean zehar egindako lana azpimarratzeko duen saria ematea izan daiteke halako ekintza bat. Udalerrri handietan banakoari zuzendutako jarduera izan daiteke, eta udalerrri txikietan taldekako sariak eman daitezke, adibidez mankomunitatei, etab. Ekintzaren helburua, berdintasunaren alde elkarte-ehunduratik egindako lanaren inguruan sentsibilizatzea da, lan honi berriazko balio positiboa emanez.

2.

GENERO-IKUSPEGIA UDALERRIKO ELKARTE MUGIMENDUAN BARNERATZEKO PROZESUA

Prestakuntza

- **Genero-ikuspegia udalerriko elkarteetan baneratzeko eta berdintasunaren alde egindako lan historikoa berreskuratzekeko prestakuntza eta aholkularitza teknikoa eskaini.** Ekintzaren helburua, elkartei genero-ikuspegia baneratzeko tresnak eskaintzea da. Ekintza hori udalerrri batean edo gehiagotan burutuko litzateke informazioa euren kontura eskaintzeko behar adinako baliabideak ez dituzten Udal txiki eta ertainetan. Behean adierazten dira landu beharreko esparruak:
 - Sexua eta datuen tratamendua aldagaiak.
 - Mintzaira eta irudi sexistak ez erabiltzea.
 - Genero-ikuspegia baneratzeko duten proiektuen diseinua eta garapena.
 - Proiektuen genero-inpaktuen balioespena.
 - Elkarten barne-egitura eta funtzionamenduan genero-ikuspegia sartu.

Ekintza berdintasunaren alde egindako lan historikoaren berreskuratzea bideratuz gero, berreskuratutako lan guztiaren ikerketarako, ediziorako eta hedapenerako lanak egin

beharko lirateke. Gainera, lan historiko hori nabarmentzeko ekintzak ere garatu daitezke: kaleen izenak aldatu, herrian ikusizko elementuak ezarri, etab.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Euren egituretan eta lan-esparruaren garapenean genero-ikuspegia barneratzeko prozesuan dauden elkarteentzat baliabide ekonomikoak eskaini.** Ekintza honen helburua, genero-ikuspegia barneratzeko prozesuari ekiten dioten erakundeei berariazko aintzatespena ematea da (prestakuntzan parte hartuz, euren proiektuak egokituz, etab.). Horretarako, erakunde hauei prozesua garatzen lagunduko dien berariazko diru-laguntzak eskaintzeko deialdia agindu daiteke. Gainera, Udalaren aholkularitza-motaren bat eskaintzeko aukera ere kontuan hartu daiteke.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Euren egituretan, proiektuen garapenean, plangintzetan, etab. genero-ikuspegia barneratzeko prozesuan dauden elkarten kopurua eta bilakaera.
- Udalerriko elkarteetan parte hartzen duten emakumeen ehunekoaren bilakaera.

C1 XEDEA: EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO ERANTZUKIDETASUN EZARTZEKO ETA LANEKO, ETXEKO ETA NORBERAREN EGINKIZUNAK ONEZ BATERATZEKO NEURRIAK HARTZEKO GIZARTEAREN ANTOLAMENDUAN ALDAKETA ERAGINGO DUTEN TRESNAK SORTU. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 16. eta 17. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 47 eta 49. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Laneko eta etxeko eginkizunak onez bateratzean nahiz erantzukidetasunean ahalegin berezia egin nahi da Udalean, hala udalerriko gizarte antolamenduan aldaketak eragiteko urratsak ematea ahalbidetuko duten neurri guztiak hartzeko gaitasuna izango baitu Udalak.

Sailen arteko barne-jardunean oinarritzen da estrategia: herritarren artean laneko eta etxeko eginkizunak onez bateratzeak nahiz erantzukidetasunak duen garrantzia ezaguturazi nahi da, horretarako beharrezkoak diren prestakuntza eta baliabideak eskainiz.

Informazioa / Sentsibilizazioa

- **Laneko eta etxeko eginkizunak onez bateratzearen inguruko informazio-ekintzak garatu.** Udalerri barruan laneko eta etxeko eginkizunak onez bateratzearen inguruan dauden zerbitzuak, baliabideak, neurriak, laguntza ekonomikoak, eta abarrei buruzko informazioa emango da, Udalean esparru honi buruzko sentsibilizazioa eta jakintza areagotzeko asmoz.

Jakintza

- **Laneko eta etxeko eginkizunak onez bateratzearen inguruko azpiegituren eta baliabideen egoera ezagutzera bideratutako ekintzak burutu eta hobetzeko proposamenak egin.** Udalerrian laneko eta etxeko eginkizunak onez bateratzeko dauden zerbitzu publiko nahiz pribatuak aztertu, eta herritarren beharrak estaltzeko adinako maila zein den analizatu, zerbitzuen kopuruari eta kalitateari dagokionez (ordutegiekiko eta azpiegiturekiko egokitzapena), antzemandako beharretara egokituko den estaldura-plana egiteko.
- **Erantzukidetasunaren inguruan beste administrazioek garatutako neurriei buruzko jakintzak sortu.** Ekintza honen helburua, udalaren jarduera bideratzeko praktika egokien gida bat egitea da. Horretarako, udalerri ezberdinen artean ikerketa egiteko aukera planteatu daiteke.
- **Udalerriko denboren (gizarte denbora, talde-denbora, lan-ordutegiak...) giltzaduran eta erabileran gertatzen diren ezberdintasunei buruzko hausnarketarako espazioak sortu, laneko eta etxeko eginkizunak onez bateratzea eta erantzukidetasuna funtsezko elementutzat hartuta,** eta administrazioan nahiz gai honekin lotutako foroetan erantzukidetasunak topatzen dituen oztopoak ezabatzeko hartu behar diren neurriei buruzko txostena hedatu. Erantzukidetasunaren eta Udalean existi daitezkeen sailen

jarduera-gaitasunak duen garrantzia Administrazioari ezagutarazi nahi zaio, baita Administrazioak portaera-aldaketa bat sustatzeak duen garrantzia ere. Horretarako, alde batetik hausnarketarako jardunaldiak edota aldizkako lan-taldeak antolatu daitezke, erantzukidetasunaren auzian eman berri diren urratsak Udaleko langileei ezagutarazteko eta urrats horiek Udalean sartzearen bideragarritasunari buruzko hausnarketa egin dezaten, eta beste alde batetik, langileon ekintzetan erantzukidetasuna sustatzeko Udalak egiten duenaren jarraipena egin eta gida-zerbitzuak burutu ditzake berdintasun-zerbitzuak.

Prestakuntza

- **Pertsonen, denboren, laneko eta etxeko eginkizunak onez bateratzearen eta erantzukidetasunaren antolakuntza eta kudeaketari buruzko prestakuntza egin.** Ekintza honen helburua, Udaleko langileak laneko eta etxeko eginkizunak onez bateratzearen eta erantzukidetasunaren aldeko neurriak diseinatu eta ezartzeko gaitzea da. Horretarako, ezarri daitezkeen neurriei, ager daitezkeen oztopoei, oztopo horiek gainditzeko moduei eta abarrei buruzko jakintza praktikoak garatuko dituzten prestakuntza-ikastaroak antola daitezke.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Gizarte antolakuntza aldatzera bideratutako tresnen kopurua.
- Garatutako programen/ikastaroen kopurua.
- Prestatutako pertsona kopurua.

C2 XEDEA: ERANTZUKIDETASUNERANZKO BIDEAN ERRONKAK GAINDITU ETA URRATSAK EMATEKO LANEAN GIZARTEAREN JAKINTZAK, INPLIKAZIOA ETA PARTE HARTZEA AREAGOTU. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 11., 16. eta 17. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 47. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Pertsonak euren sexuaren arabera abiapuntu desberdinetan kokatzen dituen sexua/generoa sistemaren barruan ikasitako baloreak aldatzeko asmoz informaziorako eta sentsibili-

zaziorako prozesuak egikaritzea da helburu nagusia. Horregatik guztiagatik, ekintzak gizarteari begira burutzeaz gain gizartea aldaketa-prozesuan inplikatzeko ere beharrezkoa da. Erantzukidetasunaren alorrean gizartearen jakintza, inplikazioaren eta parte-hartzearen maila areagotu dela esango dugu gizonezkoen artean erantzukidetasuna hazten denean –etxeko eta zaintzako lanei denbora gehiago eskaintzean- eta gizonezkoek nahiz emakumezkoek laneko, etxeko eta norberaren eginkizunak garatzeko denbora modu homogeneoan banatzeko egiazko joera ezartzean.

B.

ESTRATEGIA

Proposatutako estrategia, informazioko eta kontzientziarioko informazio-ekintzen bidez portaera erantzukideak ontzat eman eta abian jartzea sustatzeko prozesuen bidez eginga dako diagnostikoan oinarrituko da.

C.

LAN PROZESUA

Jakintza

- **Udaleko erantzukidetasunaren egoerari buruzko diagnostikoa.** Udalerrian erantzukidetasunaren, zaintzaren etikaren, eta abarren egoerari buruz ezagutzen duguna zabaldu nahi da. Ekintza hori garatzeko baliabideak (ekonomikoak, materialak eta giza baliabideak) giltzatu beharko dira, ahalegin berezia egin beharko da zenbaite-tan, eta gaur egun denbora nola erabiltzen den aztertzeke galdeketa eginez osatuko da. Bestalde, diagnostikoaren bidez erantzukidetasunari lotutako helburuei buruz herritarrek duten informazioa ezagutzeko ere erabiliko da. Jakintzak areagotzeaz gain, azterketa honen bidez erantzukidetasunaren inguruan gizarte eztabaida sortzea ere helburutzat hartzen da inplizituki. Lortu nahi den balore-aldaketa horretan ezta-baida horrek eragin positiboa izatea nahi da.

Informazioa / Sentsibilizazioa

- **Sentsibilizazio-kanpainak garatu erantzukidetasunaren esparruan.** Ekintza honen helburua, herritarrei erantzukidetasunaren inguruan eta portaera erantzukideen bidez jarrera-aldaketetan aurrera egitearen beharrak duen garrantzia sentsibilizatzea da. Kanpainaren oinarritzko edukiak udalerritik askoren artean gara daitezke, eta gero uda-lerri bakoitzean abian jarri.

- **Kargu politiko eta gizartean eragin handikoan diren pertsonen artean erantzukidetasunaren aldeko ekintza eredugarriak garatu.** Oraingoan ere herritarrei sentsibilizatzeari helburua, gizartean edo politikan eragin handikoak diren pertsonekin lan eginez: jarrera erantzukideak erakutsiko dituzte pertsona horiek. Ekintza honek ez du zertan periodikoa izan behar, eta esparru orokorragoetaz balia gaitzek (adibidez, sentsibilizaziorako kanpaina orokorretaz).

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Beheko jardueretan jardungo duen udalerri anitzeko talde teknikoa sortu eta garatu:**
 - Denboraren erabilera dauden aldean eta desberdintasunen datuak hedatu.
 - Erantzukidetasunari buruzko kongresuak, jardunaldiak, etab. antolatu.
 - Prestakuntza- eta sentsibilizazio-ikastaroak burutu.

Ekintza honen helburua, herritarren aurrean erantzukidetasunaren esparruan egin beharreko lanean Udaleko langileak inplikatzeari da, baina baita aipatu esparruan helburu estrategikoak erdiesteko politiken proiektzioan eta garapenean eragingo duten udalen arteko elkarlanerako espazioak sortzen laguntzea ere. Talde honen osaketa, lanaren aldizkari-kotasuna eta agenda talde hori sortzeko interesa agertzen duten udalek ezarritakoa izango da. Taldearen osaketaren ekimena udalerri bat baino gehiagokoa izango da, eta esparru honetan lan egiteko baliabide eta interes gehien duten Udalen inplikazioa izan dezake hasiera-hasieratik.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Sexuaren arabera banatuta, beheko ekintzetara eskainitako denbora:
 - etxeko lanak;
 - lan-esparrua.
- Gizartean antzeman diren aldaketen bilakaera (erantzukidetasunaren esparruan, pertzepzioan, jakintzan...).
- Helburua lortzeko asmoz bideratutako programen/baliabideen kopurua eta bilakera.

V1 XEDEA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI AURRE EGITEKO, TOKIKO ADMINISTRAZIOAREN KOORDINAZIOA INDARTU ETA HOBETU.

Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten berdintasunerako, 22. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 50 eta 62. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Esku-hartzearen helburua, emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan Udaletik gauzatzaren diren plangintzak eta jarduerak koordinatuagoak izatea da: Udalaren esparruan inplikaturako pertsonen artean, udalerrian inplikaturako dauden artean eta udalerrian eta administrazioko gainerako mailen artean.

B.

ESTRATEGIA

Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko tokiko protokoloak sortu edo hobetuko dira eta protokolo horiek ezartzeko egiturak eta koordinazio-prozesuak diseinatu dira.

C.

LAN PROZESUA

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko tokiko protokoloak diseinatu eta ezarri, esparru honetan jarduteko gaitasuna duten tokiko arreta-mapako eragile inplikatu guztiek parte har dezaten.** Ekintza eta arduradun zehatzak ezarriko dituzten protokoloak diseinatu, ezarri eta balioestea da helburua, eta protokolo horien emaitzak aldiro balioetsiko dira jardueraren prozesuak eta protokoloak hobetzeko. Testuinguru horretan, protokoloak diseinatu eta ezartzerakoan oinarritzeko bi esparru planteatzea beharrezkotzat jotzen da: bata Udalaren barrukoa eta bestea udalerrian existitzen diren eta zuzenean inplikaturako dauden erakunde eta eragileei dagokienez.

Prestakuntza

- **Protokoloak hartzen dituen langileei zuzendutako genero-indarkeriari buruzko prestakuntza-ekintzak egin.** Langileei genero-indarkeriari aurre egiteko protokoloak ezartzeko gaitasunak ematea da helburua. Horretarako, protokoloaren ezarpenean inpli-

katutako langile guztiek parte hartuko duten prestakuntza-prozesuak diseinatu behar dira. Eta berauetan, parte-hartzaileek ezarri beharko dituzten neurriak praktikoki landuko dira. Beraz, Udaleko langileetaz gain, protokoloarekin zuzenean lotuta dauden (adib.: Abokatuen Elkargoak) gainerako eragileei ere zuzendu beharko zaie gaitzea.

Jarraipena

- **Udalean emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko borrokaren koordinazioan dauden urritasunak eta oztopoak antzeman.** Koordinazioa eta jardueraren eraginkortasuna hobetzea da helburua. Horretarako, Udalaren barruan hausnarketarako guneak sortu daitezke tratatu txarrak jasan dituzten emakumeei eskainitako laguntza hobetzeko eta genero-indarkeriari aurre egiteko eta prebentziorako praktika egokiak sail ezberdinetako langileen artean partekatzeko; edo adar berekoak diren esparru edo Udal ezberdinetako langileak gonbidatu. Bestalde, azpimarratu behar da koordinaziorako beharrak ez direla soilik Udalaren barrukoak, Udalaren eta inplikaturako bestelako erakunde edota gizarte eragileen arteko koordinazioa ere landu beharko baita. Esparru honetako koordinazioan behatzen diren urritasunak antzeman eta hobetu beharko dira.
- **Emakumeen aurkako Indarkeriari Aurre egiteko Erakundeen arteko Batzordean ezarritako ekintzak ezartzean eta etengabeko hobekuntzan parte hartu.** Ekintza honen helburua, erakundeen arteko koordinazioa sustatzea eta esku-hartzea hobetzea da. Horretarako, Batzordeak antolatutako batzar eta ekintzetan parte hartu beharko da eta Indarkeriari Aurre Egiteko Tokiko Protokoloa ezartzeko arduraren duten langileek landutako edukiak ezagutarazi beharko dira.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Egin diren batzarren kopurua.
- Adostu diren akordioen kopurua.
- Sartu diren hobekuntzen kopurua.
- Sortu diren programen/baliabideen kopurua.

V2 XEDEA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA GUZTIZ EZABATZEKO SENTSIBILIZAZIO KANPAINAK SORTU.

Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 22. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 50 eta 52. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Esku-hartzearen helburua, udalerrietan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko informaziorako eta sentsibilizaziorako jarduerak antolatzea da, prebentzioa oinarritzat hartuta. Oro har, udalerrien arteko eta udalerrien gainetiko koordinazioa da landu behar dena. Gizonezkoak sentsibilizatzeko berariazko lana indartu beharko da helburua betetzeko, gizarte baloreak eta arazo honen aurreko portaerak aldatzeko asmoz.

B.

ESTRATEGIA

Arazo honen aurrean gizarteak duen sentsibilizazioaren, inplikazioaren eta harmen-maila areagotu nahi da, informaziorako eta sentsibilizaziorako tresnak erabiliz. Tresna horien garapena udalerrri bakoitzak egin dezake, baina komeni da udalerrien artean eta erakundeen artean lantzea.

C.

LAN PROZESUA

Informazioa eta Sentsibilizazioa

- **Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean prebentziorako eta sentsibilizaziorako jarduerak garatu, eta indarkeria hori genero-desberdintasunarekin lotu.** Azaroaren 25aren inguruko sentsibilizazio-kanpainak edo emakumeen aurkako indarkeriari eta sexu-erasoei buruzko berariazko kanpainak herritarrei zuzentzeko jarduerak antolatu eta urtean zehar garatu. Baliabideak optimizatzeko, egokitzen jotzen da oinarritzko edukiak, esloganak, irudiak, euskarriak, etab. udalerrien artean edo udalerrien gainetik definitutakoak izatea. Gero, Udal bakoitzak kanpaina bere udalerrian garatzeko aukera izango du. Horrela mezuen eta edukien hedapena eta eraginkortasuna areagotuko dela uste da.

- **Genero-indarkeriaren aurkako manifestazioak garatu.** Udalek ekitaldi koordinatuak antolatuko dituzte (emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko eta gaitzesteko manifestazioak...), politikariek eta gizartean eragina duten pertsonak (kultura-mundukoak, etab.) parte hartuz. Ekintza horien aldizkakotasunari eta egokitasunari buruzko irizpidea balioetsi beharrekoa izango da, baina ekintza horiekin herritarrak emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko sentsibilizazioan urrats positiboak ematen direla uste da.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Gizonezkoei zuzendutako laguntzarako eta sentsibilizaziorako baliabideak sortu.** Kasu honetan, ekintza gizonezkoei soilik zuzendutakoa izango da eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzko problematika lantzeko baliabideak (hausnarketarako taldeak, entzunaldiak eta beste hainbat) sortzea proposatuko da. Kultur etxeetan, kultur aretoetan, etab. antolatutako tailerrak izan daitezke ekintza hori garatzeko modu bat. Udalerrien artean ereduzko saiakuntza bat diseinatu daiteke, udalerri zehatz batean garatzekoa, eta emaitzen balioespenaren arabera saiakuntza hori interesa duten beste udalerri batzuetara hedatu daiteke.
- **Etxeko tratu txarrek eta sexu-erasoek eragindako heriotzen aurrean jarduteko Protokoloa aplikatu.** Ekintza hori garatzeko, lehenengo Udalek protokolo horri buruz duten jakintza-maila zehaztu beharko da (udalerrien artean egin beharreko lana da), ezagutzen ez duten Udaletara hedatzeko asmoz. Eta gero, Udal bakoitzaren ardurara izango da protokolo hori aplikatu eta garatzea.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Egin diren kanpainen kopurua eta bilakaera.
- Garatutako prestakuntza-ekintzen kopurua (parte-hartzaileen kopurua eta bilakaera sexuaren arabera banatuta, etab.).
- Kanpainen emakumeen aurkako indarkeriari buruzko pertzepzioan eta jarreran izan duten eragina.

2.2

KULTURA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak hauxe dio 25. artikuluan, jarduera kulturaleri dagokienez: *“Euskal herri-administrazioek, bakoitzak bere eskumen-eremuan, beharrezkoak diren neurriak hartu behar dituzte, bai sexuaren ziozko bereizkeria saihesteko, bai sustatzeko emakumeek zein gizonen parte hartzeko aukera eta partaidetza orekatua izan dezatela Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan izaten diren kultura-jarduera guztietan”*.

Kultura sailerako egiten den planteamendua, kultura arloan orokorrean kontutan hartu daitezkeen sail desberdinak (kirola, sorkuntza artistiko eta kulturala eta komunikabideak) aintzat hartzean datza.

Hala ere, arlo guztietan komuna den ezaugarri bat badago. Guztiek praktikan jartzen dute, sexu/genero sisteman oinarritutako eskala bat, non arlo hauei dagokionez bestelako eskuratze eta parte-hartze maila antzematen da maiz, emakume edo gizon izan. Bestalde, Kultura (lehen esan moduan, zentzu zabalean hartuta) gizon eta emakumeen arteko berdintasuna indartzen duen balore positiboak transmititzeko bide egoki moduan ikustez gain, baloreen aldaketarako ere egokitzat ikusten da. Testuinguru honetan, kultura-baloreak aldatzeko modu egokitzat jotzen da. Alde batetik, berdintasunezko praktika kultural eta kirolekoak bultzatzean eta bestetik udalerrri desberdinetan garatzen diren kirol eta kultura-programa desberdinetan landutako gai espezifikoak lantzean.

Sail hau herritarrei zuzendutakoa da, gizon eta emakumeen behar, interes eta itxaropenak ezagutu nahi dira, hauei erantzun egokia eman ahal izateko. Bestalde, baloreen aldaketei dagokienez, kontutan hartzekoa da landutako ekintzak herritarrei orokorrean zuzendutak izan daitezkeela beti ere adina, sexua, errealitate munizipala etab. kontutan hartuta.

Udalek pisu handia dute herritarren kirol eta kultur jardueretan esku-hartze eta gozamen, eta aldi berean, herriko komunikabideetan eragin dezakete emakume eta gizonen arteko berdintasuna indartzeko. Bai udalak (kirol eta kultura-programa eta zerbitzuen eraketan) eta baita zerbitzu soziokulturalak eta kirolekoak eskaintzen dituzten erakundeak funtsezkoak dira kirol eta kultura-sailean udalak egiten dituen plangintza, esku-hartze eta balioespenetan.

Oinarrizko planteamendua, generoa kontutan hartzea da planifikatu, ezarri eta ebaluatzen diren kirol eta kultura ekintzetan. Erabiltzen diren tresnen estandarizazioa bilatzen da ikuspuntu hau txertatu hau ahal izateko (generoaren ikuspuntutik diagnostikoa egin, hizkuntzaren erabilera ez-sexista erabili, udaleko langileak gaitzea...). Udaletako kirol eta kultura arloez gain, herrian kirol eta kultura-programak bidertazeaz arduratzen diren taldeek parte har dezatela azpimarratzen da.

Gainera, dokumentu honetako 27 or. Zeharkakotasuna eta berdintasun-politikak izeneko atala EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planean xedatutakoetan oinarritzen da (Ardatz estrategikoak. Mainstreaminga): oro har, eta zeharkako moduan, Plan honetan aurreikusitako helburu eta jardun guztiak garatu, gauzatu eta ebaluatzeko garaian, kontuan izan beharko dira emakumezko eta gizonezko taldeen espezifikotasunak, eta batik bat, askotariko diskriminazioa pairatzen duten emakumeenak, emakume minusbaliatuen taldea esaterako.

AHALDUNTZEA

Lehen aipatu bezalaxe, kultura saila oso egokia da balore aldaketen inguruan lana egiteko, baloreen eta gizartearen aldaketaren arloan jarduteko, eta emakumeen ahalduntzea sustatzerko estrategia boteretsua da.

Arlo honetatik emakumeen ahalduntzea sustatzeko egiten den lana udalaren esparruko plangintzan proposatutako kasuan egituratzen da, 4/2005 Legearen lau azpisektoretatik hirutan oinarrituta: kirol-jarduerak, jarduera kulturalak eta gizarteko komunikabideak (kasu honetan zehazki tokiko komunikabideak barne hartzen dira).

Kirol arloan, lehenengo nukleo kontzeptuala maila publiko eta pribatuan aritzen diren kiroltako sail eta taldeetan zatiketa bertikala eta horizontala gutxitzean datza. Bigarren eta hirugarrena, berriz, kirol-praktikak anitzagoak izatea emakume eta gizonezkoen artean (eskola kirola eta federatuaren artean desberdintasuna mantenduz) eta kirola egiten duten emakume kopurua gehitzean datza (ezinbestekoa da bakoitzaren interesen arabera kirolaren aukeraketa egin ahal izatea).

Maila kultural eta artistikoan, nukleo kontzeptuala emakumeen sorkuntza eta eraketa kultural eta artistikoa gehitzea da alde batetik, eta bestetik gizartearen ikuspegi ez-sexista bat bultzatzea.

Tokiko komunikabideei dagokionez, proposatzen den nukleo kontzeptualak, helburu moduan, emakumearen parte-hartze eta agerpena areagotzea dauka.

BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUKIDETASUNA

Produkzio, argitalpen eta praktika kulturalaren prozesuak, generoaren eraketa sozialera-ko ematen den prozesuan parte aktibo bat dira, eta hauek era negatibo batean eragin dezakete emakume eta gizonezkoen berdintasunaren bilaketan modu estereotipatu batean erabiltzen badira emakume eta gizonezkoen rola. Termino positiboetan, produkzio eta erreprodukzioan duen paper garrantzitsuarengatik maila kulturala tresna esanguratsua izan daiteke baloreen eraldaketan.

Lan-bateratzearen eta erantzunkidetasunaren ardatzean, nukleo kontzeptualak duen helburua, udaletan ematen diren eremu kulturaletan erantzukidetasun eta etikak toki berezia izatea da. Horrela, gizarte kontzientziatzeaz gain, gizona zuzenean ere kontzientziatu-ko da alde batetik eta bestetik udaletatik finantzatzen diren ekintza soziokulturaletan erantzunkidetasuna erraztuko duten baliabideak gehitzea lortuko da.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Indarkeriaren oinarrian, egindako planteamendua honetan datza: kirol eta kultura-programen plangintza eta ezarpenetan emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako lanaren integrazioa alde batetik, eta bestetik indarkeria honi aurre egiteko programa espezifikoek eraketa.

Orokorrean, lanak ikuspegi prebentiboa dauka, emakume eta gizonezkoan arteko berdintasuna bilatzen duen kultura berri bati zuzendua eta bai sexismoa eta baita maila soziokulturean indarkeria gutxitzea bilatzea ere.

Beheko laburpen-taulan (2.2.2) biltzen dira xede eta ardatz bakoitzerako proposatu diren jarduerak, geroago azalduko direnak (2.2.3. atalean).

MAINSTREAMINGA

XEDEAK	TRESN.	EGINTZAK
M1.1 XEDEA: GENERO IKUSPEGIAN OINARRITUTAKO JARDUERA KULTURALAK, KIROLETA KOAK ETA AISIALDIKOAK PLANIFIKATU ETA GAUZATU. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 12, 20 eta 29. artikulua. Emakumeen eta Gizoneen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, eta 25. artikulua.		Udaleko kulturaren arloetan genero-ikuspegia txertatzeko lan-prozesuak
	Jakin.	Datuak sexuaren arabera banatuta jaso eta hedatu. Generoaren ikuspuntutik diagnostikoa egitea. Kulturaren eta kirolaren arloetako politikak urtero genero-ikuspegian oinarrituta aztertu. Generoaren ikuspegitik kirol eta kultura ekintzen diseinu, plangintza, inplementazio eta balioespenerako material eta giden elaborazio eta hedapena. Arloko politika eta programa nagusietan genero-inpaktuaren alde zuzeneko balioespenak egin.
	Zerb/Bali	Kultura eta kirolaren alorreko langileen artean berdintasunerako tokiko planaren sustapenaren ardura eta ardura hori gauzatzeko denbora eta baliabideak ezarri. Mintzaira eta irudi sexistak ez erabiltzea.
	Jarraip.	Kulturaren eta kirolaren arloetan berdintasunaren aldeko neurriak duten betetze eta emaitzen balioespena.
	Prestak.	Langileak berdintasun-politikan gaitu.
	Info/Sent	Berdintasunerako tokiko planean oinarrituta Kultura eta Kirol arloan eman diren politikak eta horien emaitzak herritarren artean zabaltzea. Berdintasuna indartzen duten lehiaketa artistiko eta kulturalak egin.
		Udalerrian kulturaren eta kirolaren arloetan diharduten erakundeetan genero-ikuspegia txertatzeko lan-prozesuak
	Prestak.	Kultura eta kirolaren esparruan udalerrian lan egiten duten eta udalak azpikontratatu dituen enpresa eta erakundeetan genero-ikuspegia barneratzeko prestakuntza eta laguntza teknikoak.
	Zerb/Bali	Euren egituretan genero-ikuspegia barneratzeko prozesuan dauden erakundeei laguntza teknikoak eta ekonomikoak, hala behar dutenean, eman eta lan-esparruak garatu.
	Araud.	Diru-laguntzen deialdietan berdintasun-printzipioa eta genero ikuspegiaren printzipioa barneratzearekin lotutako irizpideak sartu.

AHALDUNTZEA

XEDEAK	TRESN.	EGINTZAK
E1.1 XEDEA: KIROL ARLO ETA ERAKUNDE PUBLIKO NAHIZ PRIBATUETAN SEGREGAZIO HORIZONTALA ETA BERTIKALA MURRIZTU. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 20. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 25. artikulua.	Jakin.	Kirol arlo eta erakunde publiko nahiz pribatuetan diagnostikoa egitea eta segregazio bertikala eta horizontalari buruzkoa datuak biltzeko ekintza planak martxan jartzea.
	Prestak.	Kirol eremuan zuzendaritza eta lidergoko lanpostuak burutzeko emakumeak gaitu.
	Araud.	Kirol erakunde publikoetan berdintasunezko irizpideak sartu. Euren egituretan edo diru-laguntzak banatzeko deialdietan berdintasun-politikak aratzen dituzten erakundeak balioesteko/lehenesteko irizpideak txertatu.
E1.2 XEDEA: EMAKUMEEN ETA GIZONEN KIROL PRAKTIKAK DIBERTSIFIKATU, KIROL MASKULINIZATUETAN EMAKUMEEN SARBIDEA ETA KIROL FEMINIZATUETAN GIZONEN SARBIDEA AHALBIDETUTA. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 20. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 25. artikulua.	Jakin.	Kirol erakunde publiko eta horizontala gutxitu eta ekiditeko hartu diren estrategia eta ekintzen jarraipena.
	Eskola kirolaren esparruko lan-prozesua	
	Jakin.	Ikastetxeetan egiten diren kirol ekintzetan ematen den segregazioan eragiten duten genero-faktoreei buruzko ikerketa.
E1.3 XEDEA: KIROLA PRAKTIKATZEN DUTEN EMAKUMEEN PORTZENTAJEA ETA KIROL PRAKTIKA EUREN INTERESEN ARABERA HAUTATZEKO AUKERA AREAGOTU. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 20. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 25. artikulua.	Info/Sent	Genero-estereotipoetatik aske dagoen kirol aktibitatea bultzatzeko sentsibilizazio kanpainak egin.
	Prestak.	Aholkularitza eta elkar-lana ikastetxeekin, genero-ikuspegia eta baterako hezkuntza
	Zerb/Bali	beraien kirol programetan sartzeko.
	Maila federatuko kirolaren edo klubek eta federazioek sustatutako kirolaren esparruko lan-prozesua	
	Jakin.	Ikastetxeetan egiten diren kirol ekintzetan ematen den segregazioan eragiten duten genero-faktoreei buruzko ikerketa. Aurrekontuen gauzatzea eta kirol federatuek erabiltzen dituzten espazio publikoen balioespena.
	Prestak.	Klubetako tekniko eta zuzendariak trebatu.
	Zerb/Bali	Baliabide, diru-laguntza beste motatako laguntzak eman.
	Jakin.	Kirol praktikaren inguruan emakumeak dituen behar, interes eta itxaropenen ikerketa.
	Info/Sent	Emakumearen kirol praktikaren promoziorako informazioa eta sentsibilizazioa. Emakumeei zuzendutako informazio-estrategia orokorrak eta kirol-instalazioetarako bisitaldiak garatu.
	Zerb/Bali	Beharren azterketen arabera emakumeek eskatutakoei erantzun egokia emateko kirol-eskaintza moldatu. Kirola praktikatzeko den eremuaren egokitzapena.
	Prestak.	Emakumeek agerpen gutxi duten kirol-praktikei buruzko ikastaro monografikoak garatu.
	Araud.	Diru-laguntzetarako deialdietan aukera-berdintasunarekin lotutako irizpideak txertatu.

XEDEAK	TRESN.	EGINTZAK
E2.1 XEDEA: EMAKUMEEN KULTURAREN ETA ARTEAREN ARLOKO SORKUNTZA AREAGOTU, BAITA GIZARTEAREN IKUSPEGI EZ SEXISTA SUSTATZEN DUENA ERE. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 20. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 25. artikulua.		Emakumeen jarduera kulturalak sustatzeko lan-prozesua
	Jakin.	Udalerriko emakumeek gauzatutako lan kulturalen sorrerari eta hedapenari buruzko diagnostikoak egin. Emakumeek ondare kulturean egindako ekarpenen ikerketa eta sistematizazioa.
	Zerb/Bali	Kulturaren eta artearen hedapenerako jardueretan emakumeek burututako lanak barne hartu. Emakume artistentzako baliabideak eta laguntzak. Emakumeen sorkuntza kultural eta artistikoak sustatzen laguntzeko formulen garapena.
	Araud.	Diru-laguntzetarako deialdietan aukera-berdintasunarekin lotutako irizpideak txertatu.
		Ikuspegi ez sexista sustatzen duen sorkuntza kulturala hedatu eta bultzatzeko lan-prozesua
E2.2 XEDEA: KOMUNIKABIDEETAKO SAIOTAN EMAKUMEEN AGERPENA AREAGOTZEA, POLITIKAREN, GIZARTEAREN ETA KULTURAREN ARLOKO JARDUERETAN AUKERA BERDINTASUNEAN AGERTZEARREN ETA HAIEN AHALDUNTZEAN LAGUNTZEARREN. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 20. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 26. eta 27. artikulua.		Info/Sent Ohiko kultura-adierazpenetan emakumeen agerpena eta parte-hartzea sustatu.
	Zerb/Bali	Udal-liburutegietako funtsak gehitu. Berdintasunaren alorrean lan egiten duten elkarte kulturalen aintzatespena.
	Jakin.	Tokiko komunikabideetan udaleko esparru kulturetan garatutako programa eta jardueren berri emateko tratamendua genero-ikuspegian oinarrituta aztertu. Kulturaren eta kirolaren esparruan adituak diren emakumeen zerrenda egin.
	Info/Sent	Emakumeek garatutako jarduera kulturalak eta kiroletakoak eta berdintasuna sustatzen duten jarduerak hedatu.

BATERAGARRITASUNA

XEDEAK	TRESN.	EGINTZAK
C1.1 XEDEA: ERANTZUKIDETA-SUNA ETA ZAINTZAREN ETIKA SUSTATZEN DITUZTEN GIZARTEAREN ETA KULTURAREN ARLOKO GUNEAK AREAGOTU. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 20. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 47. artikulua.	Info/Sent	Udaleko kulturaren arloetatik egiten diren hedapen-jardueretan erantzukidetasunari buruzko irudiak eta mezuak txertatu.
	Zerb/Bali	kulturaren arloetatik garatzen diren edo diruz laguntzen diren programa eta jarduera soziokulturetan lan-bateratzea errazteko baliabideak txertatu.

INDARKERIA

XEDEAK	TRESN.	EGINTZAK
V1.1 XEDEA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI LOTUTAKO BALOREEN TRANS-MISIOA SUSTATUKO DUTEN KIROLAREN, GIZARTEAREN ETA KULTURAREN ARLOKO ESPAZIOAK AREAGOTU. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 20. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 50. artikulua.	Jakin.	Udaleko arlo soziokulturetan txertatutako emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko borrokaren azterketa eta diagnostikoa.
	Zerb/Bali	Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko berariazko programa soziokulturalak garatu. Euren proiektuen artean genero-indarkeriari aurre egiteko jarduerak barne hartzen dituzten zerbitzu soziokulturetako erakundeen kontratazioa sustatu.

2.2.3

EDUKIEN GARAPENA XEDEEN ARABERA

M1.1 XEDEA: GENERO IKUSPEGIAN OINARRITUTAKO JARDUERA KULTURALAK, KIROLETAKOAK ETA AISIALDIKOAK PLANIFIKATU ETA GAUZATU. -Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 12, 20 eta 29. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, eta 25. artikulua.

Esku-hartzearen helburua administrazio lokaletan eta azpikontrataturako enpresa eta taldeetan kultur sail kopurua gehitzea da, non honen ondorioz ekintza kulturalen plangintza eta gauzatzean hobekuntzak nabaritzen diren generoaren ikuspegitik begiratuta. Hau da, aniztasuna kontutan hartzen da (batez ere adina, jaioterri eta funtzionalitate dibertsoak) emakume eta gizonezkoen eskaera, beharra eta interesei erantzun bat emanez bakoitzaren hasierako kondizio eta posizioak ahaztu gabe.

Helburua, udalen kudeaketa kulturalaz arduratzen diren pertsoneri zuzenduta dago alde batetik (kultura sailak, kirol sailak...) eta bestetik kultura, kirola eta aisialdiarekin lan egiten duten enpresa eta hirugarren sektorean azpikontrataturako taldeei.

Lan egiteko estrategiarik egokiena kirolaren eta kulturaren esparrutan aritzen diren profesionalak sensibilizatzean datza. Gainera, udalerrian esparru honetan lan egiten duten kultura-arloek eta azpikontrataturako enpresek nahiz erakundeek garatutako kultur programa eta jardueren, kirol-jardueren eta aisialdikoaren diagnostikoan, diseinuan, esku-hartzean eta balioespenean gizonak eta emakumeak dituzten egoera, baldintza eta kokapen ezberdinak kontuan hartuko dituzten tresnak eta lan-prozesuak estandarizatuko dira.

UDALEKO KULTURAREN ARLOETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEKO LAN PROZESUAK

Jakintza

- **Sexuaren arabera banatutako datuen bilketa eta hedapena:** Sexuaren aldagaia kultura arloan udalean dauden informatikako tresnetan eta kultura eta kirol arlotik egiten diren ikerketa eta estatistika guztietan gehitzean datza. Hartutako neurria esanguratsua izan dadin, garrantzitsua da gizon eta emakumearen egoeraren behaketa diferentziala ahalbidetzen duen lagina zabala eta adierazgarria dela ziurtatzea. Honela hedapeneko fasean datuak era banatuan aurkeztuko dira.

- **Generoaren ikuspuntutik diagnostikoa egitea:** Ondorengo gauzetan analisi bat egin daiteke datza:
 - 1. Kultura eta kirolaren parte-hartze, hedapen, kontsumo eta eraketan dagoen gizon eta emakumezkoen arteko aniztasuna kontutan hartuta asebetetze-maila eta dauden eskaerak aztertzea.
 - 2. Sail honetan ematen diren programa, lege... esanguratsuenetan emakume eta gizonezkoen egoeraren aurre diagnostiko bat egitea.

Behin diagnostikoa eginda dagoela, lortutako informazio eta datuak udalean kultura eta kirol arloan lan egiten duten langileei erraztuko zaizkie. Beharrezkoa ikusten bada datu berak herrian kultura, kirola eta aisialdiarekin lotutako talde eta agente sozialei emango zaizkie baita ere.

- **Urteroko analisisa generoaren ikuspuntutik kultura eta kirol arloko politikoei.** Sailean egin diren lanen inguruan hausnarketa egitean datza alde batetik eta bestetik behartzea ze mailan bideratzen diren lanak berdintasunerantz eta zein izan daitezkeen helburuak berdintasuna lortzeko. Hausnarketa hau udalean bertan lan egiten duten eta kirol eta kultura politikan adituak diren pertsonak osatutako lan talde batzuek egin dezakete. Pertsona hauetaz gain berdintasuneko agente eta arlo honetan gizon eta emakumeen beharrei buruz dakiten talde eta herritarrekin batera kultura arloan egin diren ekintza eta akzioak aztertu daitezke. Helburua, egintza kulturalean berdintasuna bideratzen duten emakume eta gizonezkoen beharrei erantzuna eman eta gero ekintza baimentzean datza.
- **Generoaren ikuspegitik kirol eta kultura ekintzen diseinu, plangintza, inplementazio eta balioespenerako material eta giden elaborazio eta hedapena.** Ekintzaren helburua, generoaren ikuspegitik kirol eta kultura ekintzen plangintza, inplementazioa... bideratzen duen materiala erraztea da alde batetik kirol eta kultura arloan aritzen diren udaleko langileei eta beste alde batetik azpikontrataturako enpresei. Materiala egiten bada, ekintzan udal desberdinek parte hartu dezakete eta materiala udal bakoitzean hedatu.
- **Arloko politika eta programa nagusietan genero-inpaktuaren alde aurreko balioespenerak egin.** Generoaren araberrako inpaktuaren balioespenera oso tresna eraginkorra da administrazioeko proiektu, arau edo egintza baten aplikazioak gizonen eta emakumeen artean zein eragin izango duen alde aurretik jakiteko orduan. Eta hala, inpaktua negatiboa izango dela aurreikusi bada, zuzentzeko neurriak proposatu ahal izango da. Ekintzaren helburua, beraz, kulturaren eta kirolen arloan garrantzi handiko programak edo arauak zeintzuk diren zehaztea da, balioespenera aplikatzeko.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Kultura eta kirolaren alorreko langileen artean berdintasunerako tokiko planaren sustapenaren ardura eta ardura hori gauzatzeko denbora eta baliabideak ezarri.** Kultura eta kirol arloan interlokuzio bat izendatuko da berdintasunerako planaren sustapenerako. Pertsona honi denbora eta baliabideak eskeiniko zaizkio bere funtzioak bete ahal izateko.
- **Mintzaira eta irudi sexistak ez erabiltzea.** Ekintzaren helburua hizkuntza eta irudien erabilera ez-sexista bat egitea da, estereotiporik gabeko emakumearen partehartzea eta presentzia ziurtatuz dokumentu eta komunikazio guztietan. Honen ezarpenak hizkuntzaren erabilera ez-sexista bat sustatzea exijitzen du kultura eta kirol arloetan, eta gainera honen ezinbesteko erabilera dokumentu ofizial guztietan. Komenigarria da gainera, dokumentu arrunt(eskutitzak, formularioak...), kartel eta beste dokumentu grafikoek errebisio bat egitea bere erabilera ziurtatzen duen mekanismo bat ezartzeaz gainera.

Jarraipena

- **Kultura eta kirolaren arloetan berdintasunerako neurriek izan dituzten betetze eta emaitzen balioespena.** Beharrezkoa da, urtero generoaren ikuspegitik politiken analisia egin duten lan taldeek planteatutako ekintzen balioespen bat egitea (betetze balioespena) alde batetik, eta bestetik udalerriko emakume eta gizonen egoera aldatu den aztertzea bi sexuen arteko desberdintasunak gutxitu diren behatzeaz gainera (emaitzen balioespena).

Prestakuntza

- **Berdintasunerako politikan langileak gaitzea.** Aurretik definitutako ekintzak aurrera eraman ahal izateko langileei beharrezko prestakuntza eskaintzean datza: politikak analizatu, datuak banatu, hizkuntza ez-sexista bat erabili eta betetze eta emaitzen balioespen bat egin. Arlo honetan, langileen gaitzea udalak azpikontrataturako talde-etara ere bideratuko da era zuzen edo zeharkako bidean. Modu zuzenean egiten bada, udalak baliabide hau eskaintzeko aukera izango du, beste erara egiten bada aldiz, udalak azpikontrataturako enpresak sentsibilizatuko ditu eta hauei prestakuntzako gutxieneko baldintzak batzuk.

- **Berdintasunerako tokiko planean oinarrituta Kultura eta Kirol arloan eman diren politikak eta horien emaitzak herritarren artean zabaltzea.** Ekintzaren helburua maiztasun batekin herritarrak informatzeaz gain hauek sentsibilizatzea da berdintasunerako kultur arloan garatu diren politikei buruz. Ekintza hau kanpaina informatiboen bidez burutu daiteke. Udal bakoitzak, ekintza hauen maiztasuna ezarriko du dituen politika eta planen arabera.
- **Berdintasuna indartzen duten lehiaketa artistiko eta kulturalak egin.** Ekintzaren helburua, proiektu kulturaletan berdintasuna sustatzen duten lehiaketak egitea da honela herritarrak sentsibilizatuaz eremu artistiko eta kultural batetik.

2.

UDALERRIAN KULTURAREN ETA KIROLAREN ARLOETAN DIHARDUTEN ERAKUNDEETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEKO LAN PROZESUAK

Prestakuntza

- **Kultura eta kirolaren esparruan udalerrian lan egiten duten eta udalak azpikontratuta dituen enpresa eta erakundeetan genero-ikuspegia barneratzeko prestakuntza eta laguntza teknikoa.** Ekintzaren helburua erakundeak baliabideez sustatzea da genero-ikuspegia barneratzeko. Ekintza udalerrian bertan edo udalerri askoren artean emango da prestakuntza eskaintzeko aukerarik ez duten udal ertain edo txikien kasuan. Landuko diren oinarritzko esparruak ondorengoak izango dira:
 - Sexua eta datuen tratamendua aldagaiak.
 - Mintzaira eta irudi sexistak ez erabiltzea.
 - Genero-ikuspegia txertatuta duten proiektuen diseinua, plangintza, ezarpena eta balioespena.
 - Erakundeen barne-egitura eta funtzionamendua.

Kapazitazioaren kasuan planteatu den ekintzan bezelaxe, udalak, laguntza teknikoa eta prestakuntza erreztea inplikatzan ez dituen eta informazioan eta sentsibilizazioan oinarrituta dagoen beste estrategia bat aukeratu dezake.

- **Euren egituretan genero-ikuspegia barneratzeko prozesuan dauden erakundeei laguntza teknikoa eta ekonomikoa, hala behar dutenean, eman eta lan-esparruak garatu.** Ekintzaren helburua genero-ikuspegia barneratzeko prozesuan (prestakuntzan parte hartuaz, proiektuaz egokituaz...) dauden erakundeak detektatzea da. Ekintza modu desberdinetan garatu daiteke. ALde batetik udaletako enpresa, hauek azpikontratutakoak eta erakundeak elkartzeko eremuak eratu daitezke eta bestalde barneratze prozesuan dauden erakundeei zuzendutako diru-laguntza espezifiko baten deialdia egin daiteke. Orokorrean, udalerrian lan egiten duten kirol eta kultura arloan aritzen diren eta genero-ikuspegia barneratzeko prozesuan dauden erakundeei baliabide desberdinak eskaintzean datza beraien egitura, lan eiteko modu eta beraiek eratutako programa eta ekintzetan.

Araudia

- **Diru-laguntzen deialdietan berdintasun-printzipioa eta genero ikuspegiaren printzipioa barneratzearekin lotutako irizpideak sartu.** Ekintzaren helburua da, deialdi publikoetara aurkezten diren eta programa eta aktibitate kulturala, artistikoak... egiten dituzten erakunde eta enpresek beraien proiektuetan (diseinua, antolakuntza, inplementazioa eta balioespena) berdintasunerako printzipioa eta genero-ikuspegia barneratzea. Ekintza honetarako udal desberdinen artean erabakitako gutxienezko irizpide batez definituko lirarteke eta gero hauek udal desberdinetako diru-laguntzetako ordenantzetan gehitu.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Kultura arloan udalak egiten dituen ekintzen % errebisatuak eta modifikatuak, berdintasunerako ekintzak barneratzeko.
- Sexuaren aldagaia kontuan hartuta egin eta hedatu diren ikerketa eta estatistiken %ren bilakaera.
- Genero ikuspegiarekin egin diren diagnostikoaren %ren bilakaera.
- Mintzaira ez-sexista batekin egin diren dokumentuen %ren bilakaera.

- Berdintasunerako tokiko planaren sustapenari eskainitako %ren bilakaera.
- Inpaktua aurretik egindako balioespen kopurua/Detektuak eta beharrezkoak diren balioespen kopurua.
- Zuzendutako akzioekin moldatutako proiektu eta arau kopurua/Inpaktu negatiboa izan duten balioespen kopurua.
- Berdintasunerako diseinatutako inpaktu-ekintza eta emaitzen bilakaera.
- Genero ikuspegia eta berdintasunerako printzipioaren ezarpenarekin zerikusia duten irizpideen gehitzeen bilakaera udaleko diru-laguntzetan.
- Saileko prestakuntzaren bilakaera: prestatutako pertsonen % eta pertsona bakoitzaren prestakuntza-ordu kopurua.
- Genero ikuspegia barneratzeko, proiektuen garapenean, antolakuntzan, prestakuntza ekintzetan parte hartzeko... prozesuan parte hartu duten erakunde eta azpikontratatuak enpresa kopurua eta hauen bilakaera.

E1.1 XEDEA: KIROL ARLO ETA ERAKUNDE PUBLIKO NAHIZ PRIBATUETAN SEGREGAZIO HORIZONTALA ETA BERTIKALA MURRIZTU.

-Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 20. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 25. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Kirol-sistema publiko nahiz pribatuak botere eta erabakiak hartzeko organo eta egituretan emakumeen agerpenak jasaten duen desberdintasuna gutxitzea da helburua, dela izendapen askeko karguetan, dela gerentzian nahiz profil teknikoko esparruetan.

Segregazio bertikala bezala ulertzen da emakume gutxiago iristea gerentzia eta zuzendaritzako karguetara. Segregazio bertikala bezala ulertzen da lanbide teknikoan lan egiten duten emakume eta gizonezkoen kantitatea desberdina izatea egungo generoaren eraketa sozialaren ondorioz tradizionalki lanpostua sexu batekin ala bestearekin lotuta dago-lako.

Proposatzen den estrategia kirol arloak edo erakunde publiko eta pribatueta segregazio bertikal eta horizontalaren diagnostiko bat egitea eta ekintzak martxan jartzea (prestatzea, araudia, jarraipena...) segregazioa bertikala eta horizontala gutxitzeko.

Jakintza

- **Kirol arlo eta erakunde publiko nahiz pribatueta diagnostikoa egitea eta segregazio bertikala eta horizontalari buruzkoa datuak biltzeko ekintza planak martxan jartzea.** Ekintzaren helburua da, diagnostiko baten bidez, herrian lan egin edo egoitza bertan duten kirol federakuntza eta klubetan, eta udaletxeko kirol arlo eta erakundeetan egon daitezkeen segregazio bertikal eta horizontalak bilatzea. Diagnostikoa egiteak esan nahi du hobekuntza eta gomendio eremuaren definizioa eta edapena alde batetik, eta bestaldekik segregazio bertikal eta horizontala egoerak gutxitzeko ekintza planak martxan jartzea. Honek suposatzen du, udaleko arloetan kirol erakunde eta klubekin batera estrategiak planifikatzea kirol eremuan dauden mugak eta emakume eta gizonezkoen arteko desberdintasunak ekiditeko.

Prestakuntza

- **Kirol eremuan zuzendaritza eta lidergoko lanpostuak burutzeko emakumeak gaitu.** Lanpostu mota honetan lan egin nahi duten edo egiten ari diren emakumeak gaitzean datza. Ekintza zuzenean udaletxeetatik bideratua izan daiteke (kirol erakunde publiko nahiz pribatueta) edo kirol erakunde eta klubak giza baliabide eta ekonomikoaz baliatuak izan daitezke emakumeei prestakuntza hau eskaini ahal izateko (erakunde pribatueta prestakuntzarako).

Araudia

- **Kirol erakunde publikoetan berdintasunezko irizpideak sartu.** Kirol erakunde publikoetako funtzionamendu eta eraketa definitzen duten araudiak gainbegiratu eta aldatzea, behar izan ezker, honela bertan segregazio bertikala eta horizontala gutxitu eta desagertzeko (parekotasunerako ekintzak, agerpen gutxi duteneko postuak betetzeko egintza positiboak, etab.).

- Euren egituretan edo diru-laguntzak banatzeko deialdietan berdintasun-politikak aratzen dituzten erakundeak balioesteko/lehenesteko irizpideak txertatu. Ekintzaren helburua da beraien estrukturetan berdintasunezko politika garatzen duten erakundeak errekonozitzea. Honela, gutxieneko balorazioak definitu daitezke diru-laguntza deialdietan.

Jarraipena

- **Segregazio bertikal eta horizontala gutxitu eta ekiditeko hartu diren estrategia eta ekintzen jarraipena.** Ekintza, helburu bezala, erakunde pribatu nahiz publikoetan jarraipena egitea da. Aldizka egin beharreko jarraipena da, baina bereziki luze irautea lortu beharko du, uneoro definitutako estrategien eta ekintzen berri izateko eta horien ezarpen-neurriari buruzko informazioa izateko.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Kirol arlo eta erakundeetan emakume eta gizonezkoen %.
- Euskal federakuntza eta klubak zuzendaritzan emakume eta ginonezkoen %.
- Lanpostu tekniko, entrenatzaile, arbitra eta gestioan emakume eta gizonezkoen %.
- Berdintasunerako irizpide eta neurriak gehitu dituzten kirol erakundeen publikoen %.
- Berdintasunerako politikak garatzen balorazio irizpideak dituzten dirulaguntzen %.

E1.2 XEDEA: EMAKUMEEN ETA GIZONEN KIROL PRAKTIKAK DIBERTSIFIKATU, KIROL MASKULINIZATUETAN EMAKUMEEN SARBIDEA ETA KIROL FEMINIZATUETAN GIZONEN SARBIDEA AHALBIDETUTA. -Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 20. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 25. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Kirol praktika dibertsifikatu, honela, egon daitezkeen barne eta kanpo mugak ekidin eta bai emakume eta baita gizonek ere edozein kirol praktikatzeko aukera izateko. Honela,

emakume edo gizonezkoekin (10) lotzen diren kirolei buruzko iritziak alde batera utzi eta bakoitzaren interesetan eta beharretan oinarritutako kirola praktikatzeko aukera izango dute. Honek suposatzen du, emakumeen kirol praktikei buruz ikerketa eta balorazioak egin eta datuak hedatzea, honela emakume eta gizonen egiten dituzten kirol praktiken inguruan gizartean egozten zaizkien iritziak berdintzeko.

Zentzu honetan, garrantzitsua da, eskola-kirola garaian lan egitea honek duen bere funtzio soziolizatailearengatik. Bertan, gerora heldutasun garaian aurrera eramango diren praktika kirol/fisikoa. Bestalde, kirol federatuan ere eragingo da, sektore hori izango baita eskolako kirolari jarraipena emango diona, eta beraz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko, zenbait oztopo ezabatu beharko dira.

B.

ESTRATEGIAK

Helburua, desberdinak diren bi ekintzetan oinarrituta dauden bi estrategien bidez landuko da: eskola kirola eta klub eta federazioen bidez promozionatutako kirol federatua.

Lehenengo estrategiaren kasuan eskolako kirol ekintzetan ematen diren segregazioan eragina duten faktoreei buruzko informazioa ezagutzera ematen da alde batetik, informazio eta sentsibilizazio lana martxan jartzen da bestaldetik eta azkenik, aholkularitza eta elkarlanerako dinamika bat eratzen da ikastetxeekin, horrela, hauek genero ikuspegia kontutan hartu dezaten beraien kirol programetan. Kirol federatuan aldiz, estrategia jakintzaren gehitzean oinarrituta dago. Klubetako zuzendari eta teknikoak trabatuz alde batetik eta bestaldetik emakume eta gizonezkoen arteko kirol praktikaren aniztasuna bultzatzeko diru laguntza eta baliabideak eskainiaz.

C.

LAN PROZESUA

1.

ESKOLA KIROLAREN ESPARRUKO LAN PROZESUA

Jakintza

- **Ikastetxeetan egiten diren kirol ekintzetan ematen den segregazioan eragiten duten genero-faktoreei buruzko ikerketa.** Ekintzaren helburua da segregazioan eragiten

(10) Maskulinizatuta edo feminizatuta dauden kirolak direla esaten dugu bi sexuetako baten parte-hartzea %60 baino altuagoa denean.

dute genero-faktoreen jakintza gehitzea. Garrantzitsua da aipatzea, ekintza udaletxe-tik kanpo burutu daitekeela. Kasu honetan, jasotako datuak udal desberdinetara zabalduko dira, eta publiko bezala, irakasleak, hezitzaileak, ikasleak eta gurasoak hartuko dira, honela kirol/fisiko ekintzetan dagoen segregazioa gutxitzeko helburua beteez.

Informazioa / Sentsibilizazioa

- **Genero-estereotipoetatik aske dagoen kirol aktibitatea bultzatzeko sentsibilizazio kanpainak egin.** Kanpainak hezkuntza-elkarteei zuzenduta daude (maisua, ikasleak, gurasoak eta hezitzaileak). Udaletxeetatik kanpo diseinatu daiteke eta ondoren udaletxe desberdinetara zabaldu.

Prestakuntza / Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Aholkularitza eta elkar-lana ikastetxeekin, genero-ikuspegia eta baterako hezkuntza beraien kirol programetan sartzeko.** Helburua da, udaletxeak ikastetxeekin elkar-lan bat egitea horrela genero-ikuspegia eta baterako hezkuntza beraien kirol programetan barneratu dezaten bai diseinuan, bai inplementazioan eta baita balioespenean ere. Ekintza maiztasun batekin elkartuta aurrera eraman ahal izango litzateke, lehenik eta behin programaren diseinu eta definizioa batekin eta bigarrenik, hauen balioespenearekin behin martxan jarri eta gero. Honetaz, gain, mintegiak, jardunaldiak... eskaini daitezke ekintzaren gehigarri bezala, irakasle, udaleko langile, eta gurasoei zuzenduak.

2.

MAILA FEDERATUKO KIROLAREN EDO KLUBEK ETA FEDERAZIOEK SUSTATUTAKO KIROLAREN ESPARRUKO LAN PROZESUA

Jakintza

- **Federatutako kirol jardueretan ematen den segregazioan eragiten duten genero-faktoreei buruzko ikerketa.** Ekintzaren helburua da segregazioan eragiten duten genero-faktoreei buruzko jakintza gehitzea. Udaletxeetatik kanpo garatu daiteke.
- **Aurrekontuen gauzatzea eta kirol federatuek erabiltzen dituzten espazio publikoen balioespena.** Kirol desberdinei zuzendutako baliabideen banaketaren balioespena egitean datza (ekonomiko eta espazio publikoak), eta zeintzuk eta ze proportzioan

(sexuka eta generoaren analisirako garrantzitsuak diren hainbat aldagai: adina, jaioterria, ardura familiarrak, diru-sarreren maila...) mesede egiten duten baliabide hauek.

Prestakuntza

- **Klubetako tekniko eta zuzendariak trebatu.** Kirol praktikan dauden oztipoak ezabatzeke klubetako tekniko eta zuzendariak gaitzean eta kirol praktikan berdintasuna bilatzeko kirol estrokturen egokitzapenean datza. Ekintza udaletxe desberdinen artean burutu daiteke, udaletxeen aldetik klub eta federazio desberdinetako zuzendarien parte-hartzea bultzatuaz.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Baliabide, diru-laguntza beste motatako laguntzak eman.** Udaletxeetatik, dagokien eskuduntzan, baliabide, diru-laguntza eta beste motatako laguntzak eman:
 - Kirol ekintzak babestea sexuren bateko partaidetza modalitate konkretu batean gutxienekoa denean eta hau jakinaraztea garrantzitsua dela ikusten denean.
 - Gehiengoak emakumeak diren kirol praktikak babestea eta emakumeen taldeei diru-laguntzak eman.
 - Emakume eta gizonezkoek burututako kirol praktikak dibertsifikatu.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Eskola-kirolan mutil eta nesken zenbakien bilakaera eta distribuzio portzentuala kategoria eta modalitateen arabera.
- Kirol kategoria desberdinetan federatutako emakume eta gizonezkoen %.
- Maskulinizatuta dauden kirol praktikan federatuak dauden emakume %.
- Feminizatuta dauden kirol praktikan federatuak dauden gizonezko kopuruaren %.

E1.3 XEDEA: KIROLA PRAKTIKATZEN DUTEN EMAKUMEEN PORTZENTAJEA ETA KIROL PRAKTIKA EUREN INTERESEN ARABERA HAUTATZEKO AUKERA AREAGOTU. -Europako

Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 20. artikulua.
Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 25. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Kirola praktikatzeko duen emakume kopurua gehitzea, batez ere emakumearen kirol praktika gutxitzen duten trabak ezabatuz eta kirol praktika beraien interesetan oinarritu. Helburua, kirola bakarka egiten duen emakumeari nahiz kirol federatutan aritzen den emakumeari zuzendua dago. Hala ere, estrategia kirol parte-hartzaileetara zuzendua dago hau bai berdintasun perimetroak indartzeko landu beharreko kirol praktika mota. Hartutako neurriek izan duten inpaktua neurtzeko, estrategia, udal eremuaren barnean dauden kirol praktikarako instalazio eta baliabideei zuzenduko da nagusiki.

B.

ESTRATEGIA

Estrategia emakumearen kirol praktika indartzean datza, era zuzen edo zeharkako batean udaletxeak eta beste agente inplikatuak (kirol federazioak, klubak..) inplikaturik, arlo honetan emakumeak dituen behar, itxaropen eta interesetan oinarritutako programazio eta kirol planifikazioak aurrera eramateko.

C.

LAN PROZESUA

Jakintza

- **Kirol praktikaren inguruan emakumeak dituen behar, interes eta itxaropenen ikerketa.** Helburu, emakumeak kirol praktikaren inguruan dituen interes, beharrei...buruzko jakintza gehitzean datza. Udalak egiten duen eskaintzak jakinarazitako beharrak asetzeko nahikoak diren jakin nahi da, honela emakumearen beharretara oinarritzen diren aktibatzen diren baliabideak eta espazioaren erabilerak martxan jartzeko udaletxearen aldetik.

Informazioa / Sentsibilizazioa

- **Emakumearen kirol praktikaren promoziorako informazioa eta sentsibilizazioa.** Ekintzen helburua, emakumeei, kirol programazioan arduradunei, taldeen babesle-

ei etab. kirol mailan emakume eta gizonen arteko berdintasunaren sentsibilizazioan oinarritzen da. Helburu publiko desberdinak daude eta honexegatik ekintza informazio eta sentsibilizazio ekintza desberdinekin definituko litzateke. Ekintza bakoitzeko oinarritzko mezuak komunak izango dira eta ondoren jende bakoitzari egokituko zaio. Bai oinarritzko mezuak eta baita zehatzagoak direnak ere udaletxe desberdinen artean definitu daitezke eta gero maila lokalean garatu.

- **Emakumeei zuzendutako informazio-estrategia orokorrak eta kirol-instalazioetarako bisitaldiak garatu.** Emakumearen adina, bizitza-azturak, jaioterria, funtzionalitate dibertsoa etab... kontutan hartuta, emakumeei herriak dituen instalazio eta kirol baliabidean erakutsiko zaizkio kirol praktikaren sustapena bezala.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Beharren azterketen arabera emakumeek eskatutakoei erantzun egokia emateko kirol-eskaintza moldatu.** Ekintza honen helburua, beharren azterketen arabera emakumeek eskatutakoei erantzun egokia emateko kirol-eskaintza (lehiaketak nahiz aisialdikoak eta parte-hartzaileak) moldatzea da. Jarduera horien plangintza, programazioa, ezarpena eta balioespena udalean horretarako eskumena duten arloek egin beharko lukete. Baina positibotzat jotzen da, halaber, emakumeek nahiz udaleko kirol klubek eta erakundeek parte hartzea.
- **Kirola praktikatzan den eremuaren egokitzapena.** Berdintasunezko kirol praktika indartzeko, kirola praktikatzan diren eremuak moldatuko dira. Egokitzapen neurriak, emakumeen interesen inguruan egindako ikerketan oinarritutakoak izango dira. Ekintza udaletxean bertan edo udaletxeen artean burutuko da, horrela espazio eta erabileren praktika egokien gida landuko da.

Prestakuntza

- **Emakumeek agerpen gutxi duten kirol-praktikei buruzko ikastaro monografikoak garatu.** Emakumeek kirol-praktika maskulinizatuetan gehiago parte har dezaten, emakumeek agerpen gutxi duten kirol-praktikei buruzko ikastaroak sustatuko dira. Udaletan bertan antolatu daitezke ikastaro horiek, lehenengo ereduazko esperientzia moduan eta, emaitzen arabera, ikastaro/programa horiek egonkortuko lirateke. Kasu honetan, emakume helduei nahiz haur eta gazteei zuzendutako ikastaroak izatea komeniko litzateke.

Araudia

- **Diru-laguntza deialdietan berdintasunarekin lotzen diren irizpideak sartu.** Kiroletara zuzenduta dauden diru-laguntza deialdietan, oinarritzko irizpide bezala garatzen

diren proiektu eta programetan emakumearen partehartzea indartzen duten ekintzen definizioa agertuko da. Irizpideen definizioa, udal desberdinen artean egin daiteke eta gero udaletxe bakoitzak dituen deialdietan sartu.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Udaleko kirol-instalazioen erabilera-denbora gizonen eta emakumeen artean nola banatzen den (%) eta horren bilakaera, adinaren eta kirol-modalitatearen arabera banatuta.
- Espazio irekietan kirola praktikatzeko duten emakumeen eta gizonen % eta bilakaera, adinaren eta kirol-modalitatearen arabera banatuta.

E2.1 XEDEA: EMAKUMEEN KULTURAREN ETA ARTEAREN ARLOKO SORKUNTZA ARE- AGOTU, BAITA GIZARTEAREN IKUSPEGI EZ SEXISTA SUSTATZEN DUENA ERE. -Europako

Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten berdintasunerako, 20. artikulua.
Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 25. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Kulturaren esparru ezberdinetako kulturaren eta artearen arloko sorkuntzan emakumeen agerpena areagotu, emakumeen baloreak, ohiturak, jakintzak, adierazpenak eta sentimenduak gizonenaren neurri berean aintzatetsi eta baloratzea bermatzeko ezinbesteko elementu moduan, eta kulturaren kontzeptu parekatua birdefinitzea lortzeko. Esku-hartze honen bitartez, gainera, gizartearen planteamendu ez-sexistaren ekarpena bistaratu eta kultur ekoizpena emakumeen eta gizonen artean sortzea sustatuko da.

B.

ESTRATEGIA

Bi estrategiaren bidez ekiten zaio helburuari. Lehenengoak emakumeen kultur jardueretan eragiten du, esparru honetan udalerrian existitzen den errealitatea ezagutu eta emakume artistei euren jarduerak gara ditzaten baliabide eta laguntzak eskainiz. Bigarrenak gizartearen ikuspegi ez-sexista bultzatzen duen kultur jardueraren hedapen eta sustapenean eragiten du, eta ohiko kultura-adierazpenetan emakumeen agerpena eta parte-hartzea

sustatzea helburu duten ekintzak artikulatuko dira, bereziki, berdintasunaren alde lanean diharduten kultur elkarten jardueri buruzko informazioan, sentsibilizazioan eta aintzatespenean.

C.

LAN PROZESUAK

1. EMAKUMEEN JARDUERA KULTURALAK SUSTATZEKO LAN PROZESUA

Jakintza

- **Udalerriko emakumeek gauzatutako lan kulturalen sorrerari eta hedapenari buruzko diagnostikoak egin.** Ekintza honen helburua udalerriko emakumeek gauzatutako lan kulturalen sorrerari eta hedapenari buruzko informazioa ezagutzea da, herritarren artean zein lan zabaldu daitekeen jakiteko.
- **Emakumeek ondare kulturean egindako ekarpenen ikerketa eta sistematizazioa.** Emakumeek udalerriko ondare kulturean egindako ekarpenen jakintza-maila arazotzea da helburua.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Kulturaren eta artearen hedapenerako jardueretan emakumeek burututako lanak barne hartu.** Udalerrian egiten diren erakusketa eta kulturaren eta artearen hedapenerako jarduera guztietan emakumeek udalerriko ondare kulturean egindako ekarpenak barne hartzea da helburua.
- **Emakume artistentzako baliabideak eta laguntzak.** Ekintza honen helburua, emakumeen sorkuntza kultural eta artistikoa sustatzea da, udalerrietan horretarako berariazkoak diren baliabideak eta laguntzak eskainiz. Emakume artistei zuzendutako diruekarpena egin daiteke, gero euren lanak erakusteko erakusketak eta antzeko jarduerak antolatuz. Emakume artista eta artisauen lanak sustatu nahi dira, arlo nabarmenetan eraginez (adibidez, landa-esparruko emakume artisauak, emakume artista gazteak, funtzionalitate dibertsoa duten emakumeak, etab.).
- **Emakumeen sorkuntza kultural eta artistikoak sustatzen laguntzeko formulen garapena.** Helburu honetan eragile eta erakunde ezberdinek (adibidez udaleko musika-eskolak, kontserbatorioak, etab.) parte hartzea lortu nahi da, lankidetzarako hitzarmenen bitartez, emakumeen sorkuntza kultural eta artistikoak sustatzen laguntzeko.

- **Diru-laguntzetarako deialdietan aukera-berdintasunarekin lotutako irizpideak txertatu.** Sorkuntza kulturala sustatzeko esparru askotan existitzen diren diru-laguntzen aginduak moldatuko dira, genero-ikuspegia barne hartzen duten eta berdintasuna sustatzen duten proiektuei baliabide ekonomikoak eskaintzeko. Irizpide horiek udalerrien artean zehaztu daitezke, eta gero Udal bakoitzeko diru-laguntzen aginduetara egokituko dira.

2.

IKUSPEGI EZ SEXISTA SUSTATZEN DUEN SORKUNTZA KULTURALA HEDATU ETA BULTZATZEKO LAN PROZESUA

Informazioa / Sentsibilizazioa

- **Ohiko kultura-adierazpenetan emakumeen agerpena eta parte-hartzea sustatu.** Ohiko kultura-adierazpenetan emakumeen agerpena eta parte-hartzea Udaletik sustatuko da: bertsolaritza, abesbatzak, sukaldaritza-lehiaketak, herri-olimpiadak, etab. Emakumeen agerpena eta parte-hartzea jarduera horietan sustatzeaz gain, lehiaketa eta jarduera horietako sariak banatzen dituzten epaimahaietan parte hartzea ere bultzatuko da. Bi kasuetan ere, lehenengo ekitaldi horietan parte hartzeko interesa duten emakumeak edota emakume-elkarteak zeintzuk diren jakin beharko da, gero parte-hartzea bultzatzeko berariazko ahalegina egiteko.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Udal-liburutegietako funtsak gehitu.** Generoaren eta kulturaren gaiak jorratzen dituzten materialak (liburuak, saiakerak, ikerketak, etab.) jaso eta udal-liburutegietako funtsak gehitu nahi dira.
- **Berdintasunaren alorrean lan egiten duten elkarte kulturalen aintzatespena.** Elkarte horien lana diru-laguntzen aginduetan lehenetsi daitezke.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Udalerriko emakumeek burututako ekoizpen edo ekinza kulturalen kopurua eta bilakaera, esparruaren arabera.

- Gizartearen ikuspegi ez-sexista sustatzeko udalerrian sortu eta gauzatu diren lanen kopurua eta bilakaera, esparruaren arabera.

E2.2 XEDEA: KOMUNIKABIDEETAKO SAIOETAN EMAKUMEEN AGERPENA AREAGOTZEA, POLITIKAREN, GIZARTEAREN ETA KULTURAREN ARLOKO JARDUERETAN AUKE-RA BERDINTASUNEAN AGERTZEARREN ETA HAIEN AHALDUNTZEAN LAGUNTZEARREN. -Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 20. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 26. eta 27. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Esku-hartzearen helburua emakumeen agerpena areagotzea da, bereziki tokiko komunikabide publikoetan (eta ahal dela, pribatuetan), politikaren, gizartearen eta kulturaren arloko jardueretan egindako lana aukera-berdintasunean bistara dadin eta genero-estereotipoak sustatzen dituzten espazioak ezabatzeko. Egunkari, irrati eta telebistak, tokiko komunikabideak dira eduki-mota horiek guztiak (publizitateak, albistegiak eta entretenimendurako saioak) hedatuko dituztenak.

B.

ESTRATEGIA

Tokiko komunikabideetan eragingo du estrategiak, komunikabide horietan garatzen diren edukiak aztertzeke eta emakumeen eta berdintasunaren aldeko jardueren agerpena sustatzeko.

C.

LAN PROZESUA

Jakintza

- **Tokiko komunikabideetan udaleko esparru kulturaletan garatutako programa eta jardueren berri emateko tratamendua genero-ikuspegian oinarrituta aztertu.** Helburua, tokiko komunikabideetan udaleko esparru kulturaletan garatutako programa eta jardueren berri emateko tratamendua genero-ikuspegian oinarrituta aztertzea da. Horrela, emakumeek garatutako lanak eta berdintasunaren aldeko mezuak ezkututzen dituzten tratamendu sexistak baztertuko dira.

- **Kulturaren eta kirolaren esparruan adituak diren emakumeen zerrenda egin.** Udaleko kulturaren eta kirolen arloek esparru horretan erreferentzia diren emakumeen zerrenda egingo dute, kazetariei nahiz Udalak sustatutako jarduerak kudeatzen dituzten erakundeei eskaintzeko.

Informazioa / Sentsibilizazioa

- **Emakumeek garatutako jarduera kulturalak eta kiroletakoak eta berdintasuna sustatzen duten jarduerak hedatu.** Kasu honetan ere, tokiko komunikabideak dira subjektu eskudunak, eta emakumeek garatutako jarduera kulturalak eta kiroletakoak eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen dutenak hedatu beharko dituzte. Horretarako, edukiak aztertu eta hautatzeko prozesuetan mota honetako jarduerak identifikatzeko adierazleak ezarri beharko dira, gero hedapenetan sartzeko. Udaleko kulturaren arloak emandako diru-laguntzak dituzten tokiko komunikabideen kasuan diru-laguntza horietarako deialdien aginduetan emakumeek garatutako jarduera kulturalak eta berdintasuna sustatzen duten jarduera kulturalak txertatzea derrigortzen duten irizpideak sartu daitezke.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Kulturaren eta kirolaren arloetan emakumeen agerpena eta parte-hartzea sustatzeko tokiko komunikabideek eskaini dituzten komunikabideetako eta kazetaritzako espazioen proportzioa eta bilakaera.

C1.1 XEDEA: ERANTZUKIDETASUNA ETA ZAINTZAREN ETIKA SUSTATZEN DITUZTEN GIZARTEAREN ETA KULTURAREN ARLOKO GUNEAK AREAGOTU.

-Europako Gutuna

Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 20. artikulua.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 47. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Aisia eta aisialdirako espazio soziokulturalek baloreen aldaketan eta kulturaren eta gizartearen eraldaketan eragin handia dute. Hala, baloreen aldaketak eta erantzukidetasunerako eta zaintzaren etikarako gaitasun positiboak eskuratzea lantzeko espazio paregabe-tzat jotzen dira. Administrazio publikoek, esparru soziokulturaleko zerbitzuak eskaintzen

dituzten enpresek edo kirolaren, komunikabideen, gizartearen, aisia eta aisialdiaren... esparruetan zerbitzuak eskaintzen dituzten erakundeek garatutako jarduerak eta programak dira espazio soziokulturalak.

B.

ESTRATEGIA

Udaleko kulturaren arloan eragingo du estrategiak, lehenengo gizonei erantzukidetasunaren eta zaintzaren etikaren gaitan sentsibilizatzeko (erantzukidetasunari buruzko irudi eta mezuen bitartez), eta gero, udaleko arloetatik garatu edo diruz laguntzen diren programa eta jarduera soziokulturaletan lan-bateratzearen kontuan laguntzeko baliabideak txertatu.

C.

LAN PROZESUA

Informazioa eta Sentsibilizazioa

- **Udaleko kulturaren arloetatik egiten diren hedapen-jardueretan erantzukidetasunari buruzko irudiak eta mezuak txertatu.** Egokitzen jotzen den guztietan zaintza-lanetako erantzukidetasunean gizonezkoak sentsibilizatzeko irudi eta mezuak txertatuko dira jardueretan. Oro har, erantzukidetasunaren eta zaintzaren etikaren garrantzia azpimarratuko da.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Kulturaren arloetatik garatzen diren edo diruz laguntzen diren programa eta jarduera soziokulturaletan lan-bateratzea errazteko baliabideak txertatu.** Udaleko kulturaren arloetatik garatzen diren edo diruz laguntzen diren programa eta jarduera soziokulturaletan lan-bateratzea (ordutegiak egokitzea, haurtzaindegiak, haurren tailerrak, etab.) errazteko zerbitzuak eskainiko dira.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Lan-bateratzea laguntzeko baliabideak txertatuta dituzten kultura eta kirolen arloetako programa eta jardueren kopurua eta bilakaera.

VI.1 XEDEA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI LOTUTAKO BALOREEN TRANSMISIOA SUSTATUKO DUTEN KIROLAREN, GIZARTEAREN ETA KULTURAREN ARLOKO ESPAZIOAK AREAGOTU.

-Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 20. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 50. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Plangintza, esku-hartze eta balioespen soziokulturaletako helburu estrategikoetan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko baloreen transmisioa txertatuko dira. Baloreen aldaketa, balore berriak hartzea, eta azken batean kulturaren eta gizartearen aldaketa sustatzeko espazio apartenak dira espazio soziokulturalak. Herritarrei oro har zuzenduta bada ere, gizonen baloreen aldaketan ahalegin berezia egingo da, dela haurretan, gazteetan nahiz helduetan.

Administrazio publikoek, esparru soziokulturaleko zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresek edo kirolaren, komunikabideen, gizartearen, aisia eta aisialdiaren... esparruetan zerbitzuak eskaintzen dituzten erakundeek garatutako jarduerak eta programak dira espazio soziokulturalak.

B.

ESTRATEGIA

Lan-prozesu bakarrean oinarrituta garatutako estrategia honen lehenengo zatia udaleko arlo soziokulturaleko programazioan emakumeen aurkako indarkeriaren gaia txertatuta dagoen ala ez jakitea da, eta gero, arlo honetan oinarritutako baloreen transmisiorako berariazko programak garatuko dira, eta euren proiektuetan arlo honen inguruko jarduerak espezifikoak edota zeharkakoak txertatzen dituzten erakundeen lana lehenetsiko da.

C.

LAN PROZESUA

Jakintza

- **Udaleko arlo soziokulturean txertatutako emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko borrokaren azterketa eta diagnostikoa.** Ekintza honen helburua, Udaleko arlo soziokulturean txertatutako emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko

borrokarekin lotutako jardueren bitartez baloreak nola sustatzen diren aztertzea da. Esparru honetan praktika egokiak definituko dira, udalerrien artean, udalerrietako programa soziokulturalen plangintzan, esku-hartzean eta balioespenean laguntzeko.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko berariazko programa soziokulturalak garatu.** Genero-indarkeriari sentsibilizazioaren eta balore-aldaketan ikuspegitik aurre egiteko programak eta jarduerak garatuko dira. Jarduera horiek gizarte osoari oro har zuzendutakoak izango dira, eta sexuaren (gizonei zuzenduta bereziki), adinaren eta jatorri kulturalaren arabera berariazko programak ere garatu ahal izango dira.
- **Euren proiektuen artean genero-indarkeriari aurre egiteko jarduerak barne hartzen dituzten zerbitzu soziokulturaletako erakundeen kontratazioa sustatu.** Ekintza honen helburua, euren proiektuen artean (genero-ikuspegian oinarritutakoak) genero-indarkeriari aurre egiteko eta arlo honetan baloreak aldatzeko jarduerak barne hartzen dituzten zerbitzu soziokulturaletako erakundeen kontratazioa sustatzea da. Proiektuetan mota honetako jarduerak barne hartzen dituzten proiektuak lehenesteko irizpideak ezarri daitezke diru-laguntzen deialdietako aginduetan.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko sustapenak barne hartzen dituzten Udaleko kulturaren eta kirolaren arloko programa eta jardueren kopurua eta bilakera.

2.3

HEZKUNTZA

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legeak halaxe biltzen du III. kapitulu-ko (hezkuntza) 1. ataleko (unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza) 28. artikuluan: *“Hezkuntza-politika publikoek bultzatu beharreko hezkuntza-ereduek, betiere, helburu hauek izan behar dituzte: sexuaren araberrako estereotipoak eta rolak baztertuko dituen garapen integrala eskaintzea, bereizkeria-mota oro baztertzea, eta generoak behartu gabeko orientazio akademiko eta profesionala bermatzea. Horretarako, emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna bultzatuko da alor guztietan: curriculumean, antolaketan eta abarrean”*.

28. artikulua horretaz gain, arlo honetarako interesgarriak dira 29. artikulua (curriculum), 30.a (irakaskuntzako materialak), 31.a (pertsonek eta egiturak) eta 32.a (prestatutza).

Hezkuntza-sisteman hezkidetzat hartzea da arlo honetako esku-hartzearen nukleo nagusia. Esku-hartzeko estrategian sartzen da hezkidetzat, eta gizartearen nahiz erakundearen funtzionatzaren duten joera sexisten zuzenketatik abiatu behar du gero ikastetxeetan islatzeko. Testuinguru honetan, hezkuntzan lanean diharduten erakundearen zuzenketa egitea beharrezkotzat jotzen da, gizarte eragile moduan duen funtzioa oso garrantzizkoa baita. Pertsonak euren izaera osasungarria izanik abiatzea nahi da, besteak beste sexuaren araberrako estereotipoak eta jokabideak alde batera utzita. Funtsean, bi sexuko pertsonen artean berdintasunezko harremanak eta komunikazioa sustatu nahi da, eta horren oinarri izango dira elkarrekiko errespetua, elkarbizitzan bata bestea onartzea, joera sexistak eta genero-estereotipoak gaunditzea, etab.

Arloaren planteamendu orokorrean planteatutako ekintzen garapenean hezkuntzaren esparruan inplikaturik dauden eragile guztien parte hartzea ere oinarritzotzat jotzen da: irakasleak, monitorea, gurasoak, ikasleak, etab. Eragile horien guztien parte hartzea ezinbestekoa da helburua lortzera bidean orokorrean ekiteko. Modu berean, oinarritzoko ikuspegi batetik ere garrantzizkoa da aisia eta aisialdian hezitzea.

Hezkuntzaren esparruan eta bereziki aisiaren eta aisialdiaren hezkuntzaren esparruan erreferentziatzeko erakundeak dira Udalak, hainbat egitura eta espaziotan duten eraginarengatik: hezkuntza-sistemaren lehen etapak, prestatutza-programa osagarriak, arautu gabeko hezkuntza, aisia eta aisialdiko hezkuntza, guraso eta erakunde soziokulturalekiko harremanak, etab. Testuinguru horretan, arlo honetarako ezarritako helburuak aipatu udal-ekintzan oinarritzen dira, eta orain arte adierazitako bi elementuak zeharka kontuan

hartzen dira: hezkidetza eta hezkuntzan inplikaturak dauden eragile ezberdinen parte-hartzea.

MAINSTREAMINGA

Mainstreamingaren ardatzean, lehen helburua hezkidetza haur-hezkuntzako urteko programetan barneratzea da, esparru honetan jarduerak garatzen dituzten udalerrietan, arautu gabeko hezkuntza, aisia eta aisialdiko hezkuntza (ludotekak, gazte-taldeak), guraso-elkarteekin batera egindako programak, lehen eta bigarren hezkuntzako eta HHEko jarduerak osagarriak, udal euskaltegiak, etab. Zentzu horretan langile teknikoak eta monitorea nahiz gurasoak prestatzera eta ikasleekin hezkidetzarako programak eta hezkidetza praktikak garatzera bideratutako ekintzak planteatzen dira, baita honi guztiari buruzko hezkuntza-materiala sortu eta hedatzea ere.

Bigarren helburuaren ekintzak, Berdintasunaren Legearen 30. artikulua betetzen ez duten hezkuntza-materialen erabilera bertan behera uzteari dagozkionak, Udalaren esku dagoen hezkuntza-material guztia aztertzean oinarritzen dira. Hala, sexuaren arabera pertsonak gutxiesten edo gozesten dituztenak, sexu-objektutzat tratatzen dituztenak edota emakumeen aurkako indarkeriaren alde agertzen direnak, hutsaltzen dituztenak edo horretara bultzatzen dutenak baztertuz. Gainera, hezkuntza-material mota guztiak eskuratzerakoan jarraitu beharreko irizpideak zehaztea ere planteatu da.

Gainera, dokumentu honetako 27 or. Zeharkakotasuna eta berdintasun-politikak izeneko atala EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planean xedatutakoetan oinarritzen da (Ardatz estrategikoak. Mainstreaminga): oro har, eta zeharkako moduan, Plan honetan aurreikusitako helburu eta jardun guztiak garatu, gauzatu eta ebaluatzen garaian, kontuan izan beharko dira emakumezko eta gizonezko taldeen espezifikotasunak, eta batik bat, askotariko diskriminazioa pairatzen duten emakumeenak, emakume minusbaliatuen taldea esaterako.

AHALDUNTZEA

Ardatz honi dagokion helburua, udal ikastetxeetako batzordeetan, haurren, nerabeen eta gazteen partaidetzarako batzordeetan eta abarretan sexuen arteko desberdintasun kuantitatiboak murriztea da. Organo horien guztien osara aztertzean oinarritzen da udal-ekintza, eta organo horien osaran parekotasuna sustatzeko irizpideak ezarriko dira.

Ardatz honi lotutako helburuak hiru dira. Lehenik, etxeko eta hiriko lanetan erantzukidetasuna areagotu, eta haurrak nahiz gazteak etxeko lanetarako gaitu. Gazteen kasuan hiriko eginkizunetan eta arduetan ere gaitu beharko dira. Helburu hau lortzeko planteatu diren ekintzak ikastetxe eta heziketarako espazio mota guztietan (udalerriko haur eskolak, heziketa-programa osagarriak, ludotekak, etab.) nahiz eragile mota guztiekin (gurasoak, irakasle eta monitorea, ikasleak, etab.) landuko dira.. Etxeko eta zaintzako lanetan erantzukidetasuna nesketan eta mutilen areagotzera bideratutako heziketa-programak gartzean oinarrituko dira proposatutako ekintzak.

Bigarren helburua, 0-3 urte bitarteko haurrentzako tokiak areagotzea, eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan jangela- eta garraio-zerbitzuen eskaera beteko dela bermatzea, Udalak plazen eskaera bermatzeko egin beharreko ekintzak dira. Testuinguru honetan, azpimarratu behar da bere osotasunean helburua lortzeko erakundeen artean ekin beharko zaiola.

Hirugarren helburua lortzeko, hezkuntza-zentroetan eta haur-eskoletan ordutegiak eta egutegiak malguagoak izatea, horien antolaketa-autonomia kontuan izanik, eta familien premiak betetzea bermatze aldera, esparru honetan dauden beharrak zehaztuko dira lehenik eta gero udalaren eskumenekoak diren hezkuntza-zentroetako eta haur-eskoletako ordutegi eta egutegiak horretara egokituko dira.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Ardatz honetan ageri den lehen helburua gerta daitezkeen haurren edo euren amen aurkako etxeko tratu txarrak eta eraso edo sexu-abusuak ikastetxeetan antzematea da eta hartzartutako protokolo eraginkorrari jarraiki kasu guztiei erantzuna ematea. Protokolo hori udalerrien artean adostutakoa izan daiteke, eta egoera horien aurrean bortxakeria antzemateko moduak, biktimen arreta eta bitartekaritza nola egin behar diren zehaztuko da bertan. Gainera, udalaren eskumeneko ikastetxe eta heziketa-espazioetan lan egiten duten pertsonak hartarako gaituko dira.

Bigarren helburua lortzeko, indarkeriaren prebentziorako programa esperimental egitea ikastetxeetan, berdintasunean oinarritutako bizikidetzaren eta lankidetzaren lortzeko harremanen kultura aldatuta, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko programa diseinatu eta ezarriko da eta irakasle eta gurasoei zuzendutako gai honen inguruko heziketa-programa

osagarriak garatuko dira. Azpimarratu beharrekoa da beste helburuetarako planteatu diren prozeduretan bezala honetan ere udalerrien arteko elkarlana beharrezkoa dela, ahaleginak eta baliabideak optimizatzeko.

Beheko laburpen-taulan (2.3.2) biltzen dira xede eta ardatz bakoitzerako proposatu diren jarduerak, geroago azalduko direnak (2.3.3. atalean).

2.3.2

EDUKIEN ZERRENDIA

MAINSTREAMINGA

XEDEAK	TRESN.	EGINTZAK
M1.1 XEDEA: HAUR HEZKUNTZAKO, LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZAKO ETA HELDUEN HEZKUNTZAKO URTEKO PROGRAMA GUZTITIAN HEZKIDETZA SARTU. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 12, 13 eta 29. artikulua. Emakumeen eta Gizonek Berdintasunerako 4/2005 Legearen 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 28, 29, 31, eta 32. artikulua.	Jakin.	Ikastetxeetan, hezitzaileen artean eta guraso-elkarteetan hezkidetzaren inguruko errealitateak eta beharrak zehaztuko dituzten ikerketak egin.
	Info/Sent	Hainbat ikastetxe eta hezkuntzarako espazioen artean hezkidetzaren inguruko esperientzien trukea egiteko espazioak sortu.
	Prestak.	Udaleko Hezkuntza arloko/saileko teknikariak hezkidetzeta eta genero-ikuspegia ezartzeko tresnen eskuraketan prestatu. Haur-eskoletako, ludoteketako, "gazte-elkarteetako", udal euskaltegiak, aisialdi-heziketak eta abarretako zuzendaritzako kideak eta hezitzaileak hezkidetzan prestatu eta aholkularitza eman.
	Zerb/Bali	Haur-eskoletan, heziketa-programa osagarrietan, aisialdirako hezkuntzan era bestelako heziketarako espazioetan genero-ikuspegiaren oinarritutako prestakuntza/heziketa programak diseinatu, hezkidetzeta eta kultura-aniztasuna barne dituztela. Udaleko Hezkuntza arloari edo sailari lotutako hezkidetzeta gaiaren inguruko aholkularia sortzea proposatu. Programak diseinatu eta kudeatzen dituzten erakundeekin hezkidetzarako jardueren garapena sustatu. Mintzaira eta irudi sexistak ez erabiltzea.
M1.2 XEDEA: BERDINTASUNAREN LEGEAREN 30. ARTIKULUA BETETZEN EZ DUTEN HEZKUNTZA MATERIALEN ERABILERA BERTAN BEHERA UZTEA. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 13. artikulua. Emakumeen eta Gizonek Berdintasunerako 4/2005 Legearen 30. artikulua.	Info/Sent	Hezkidetzari buruzko irizpideak betetzen ez dituzten materialak Defentsa Erakundeari jakinarazteko aukera dutela zentzorei adierazi.
	Zerb/Bali	Liburuak, ikasmaterialak, etab. eskuratzekoan hezkuntza-irizpideak ezarri. Udaleko haur-eskoletan eta beste hainbat hezkuntzarako espazioetan dauden ikasmaterialak (jostailuak, ipuinak, etab.) genero-ikuspegiaren arabera aztertu. Hezkidetzako material eta praktikei buruzko gida eta katalogoak diseinatu.

AHALDUNTZEA

XEDEAK	TRESN.	EGINTZAK
E1.1 XEDEA: UDAL IKASTETXEE-TAKO BATZORDEETAN ETA HAURREN, NERABEEN ETA GAZTEEN PARTAIDETZARAKO ETA KONTSULTARAKO ORGANOETAN SEXUEN ARTEKO DESBERDINTASUN KUANTITATIBOAK MURRIZTU Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 3. eta 13. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 23 eta 24. artikulua.	Jakin. Udal ikastetxeetako batzordeen eta haurren, nerabeen eta gazteen partaidetzarako eta kontsultarako organoen osiera aztertu, sexuen arabera banaketari eta parte-hartzeari erreparratuta.	
	Araud. Udal ikastetxeetako batzordeetan eta haurren, nerabeen eta gazteen partaidetzarako eta kontsultarako organoetan sexuaren arabera ordezkari itza parekatua izateko irizpideak ezarri.	

BATERAGARRITASUNA

XEDEAK	TRESN.	EGINTZAK
C1.1 XEDEA: ETXETOKO LANETAN ETA UMEEN ZAINKETAN ERANTZUKIDETASUNA AREAGOTU. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 13. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 29. artikulua.	Info/Sent Gurasoei, irakasle eta hezitzaileei zuzendutako informazio/sentsibilizazio programak garatu. Udalerrian "erantzukidetasunaren astea" garatu.	
	Zerb/Bali Udalaren eskumeneko haur-eskoletan eta bestelako heziketarako espazioetan, etxeko lanetan eta haurren zainketan erantzukidetasuna areagotuko duten hezkuntza-programak eta hezkuntzarako programa osagarriak garatu. Haur-eskolei, ludotekei, "gazte taldeei", udal euskaltegiei eta abarrei erantzukidetasuna lantzen duten materiala eskuratzeko lagundu.	
C2.1 XEDEA: 0-3 URTE BITARTEKO HAURRENTZAKO TOKIAK AREAGOTU, ETA LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN JANGELA-ETA GARRAIO-ZERBITZUEN ESKAERA BETEKO DELA BERMATU. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 16. eta 17. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 49. artikulua.	Jakin/Zerb eta Bali 0-3 urte bitartekoaren plaza eskaintza eta eskaria nahiz jangelarako eta garraiorako beka-eskaeraren estaldura-maila aztertu, eta ahal dela, eskaintza eskarira egokitu.	
	Zerb/Bali 0-3 urte bitartekoaren ikastetxe publikoak HAURRESKOLAK Partzuergoarekin bat egitera sustatu.	
	Jarraip. Helburuaren betetze-mailaren jarraipena egin.	

XEDEAK	TRESN.	EGINTZAK
C2.2 XEDEA: IKASTETXE ETA HAUR ESKOLETAN ORDUTEGIEN ETA EGUTEGIEN MALGUTASUNA AREAGOTU, BAKOITZAK DUEN ANTOLAKETARAKO AUTONOMIAREN ARABERA, FAMILIEN BEHARRA ASETZEA BERMATZEKO. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 16. eta 17. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 49. artikulua.	Jakin. Ordutegiak eta egutegiak malgutzeko garatu diren saiakuntzak ezagutzeko ikerketa egin. Gurasoen beharretara egokitzen diren ordutegi eta egutegiak ezagutzeko ikerketa garatu.	
	Zerb/Bali Udalaren eskumeneko haur-eskoletan eta bestelako hezkuntzarako espazioetan ordutegiak eta egutegiak egokitu eta malguagoak egin, hezkuntzarako irizpideak kontuan hartuta. Eskola-orduetatik kanpo jolastokiak erabiltzera bultzatu. Oporraldietan haurrentzat hezkuntza eta jolasak uztartzen dituzten programak eta jarduerak garatu, laneko, etxeko eta norberaren eginkizunak onez bateratzea errazteko. "Familian" egingo diren jarduerak antolatu, jardueraren garapen partekatua sustatuko duten udaleko espazio edo programen bidez.	

INDARKERIA

XEDEAK	TRESN.	EGINTZAK
V1.1 XEDEA: IKASTETXEETAN AZALERATZEN DIREN ETXEKO INDARKERIA KASU GUZTIAK ANTZEMAN ETA HITZARTUTAKO PROTOKOLO ERAGINKORREI JARRAIKI KASU GUZTIEI ERANTZUNA EMATEA. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 22. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 29. eta 31. artikulua.	Zerb/Bali Emakumeen eta haurren aurkako indarkeria hezkuntza esparruan antzematen direnean erantzun egokia emateko eta bitartekaritza egiteko protokoloa egin eta zabaldu.	
	Prestak. Udaleko haur-eskolek irakasleak indarkeria-kasuak antzemateko eta horien aurrean erantzun egokia emateko prestatu.	
	Araud. Indarkeriaren biktimen seme-alabek haur-eskoletan sartzeko lehentasuna izan dezaten irizpideak ezarri.	
	Jarraip. Jarduteko protokoloen ezarpen- eta betetze-maila balioetsi.	
V1.2 XEDEA: IKASTETXEETAN KONFIANTZA-GIROAN ETA BERDINTASUNEKO LANKIDETZAN OINARRITUTAKO KULTUR ALDAKETAREN BITARTEZ GENERO INDARKERIAREN PREBENTZIORAKO SAIKUNTZARAKO PROGRAMA BAT EGIN Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 13. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 29. artikulua.	Zerb/Bali Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako programa diseinatu eta ezarri, helburuan zehaztutako jarraibideen arabera. Indarkeriaren prebentziorako hezkuntza-programa osagarriak garatu eta ikasleei zuzendu. Gurasoei zuzendutako indarkeriaren prebentziorako prestakuntza-programak garatu.	

M1.1 XEDEA: HAUR HEZKUNTZAKO, LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZAKO ETA HELDUEN HEZKUNTZAKO URTEKO PROGRAMA GUZTIETAN HEZKIDETZA SARTU. Europako

Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 12, 13 eta 29. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 28, 29, 31 eta 32. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Esku hartzearen helburua, ikastetxe guztietako hezkuntza-programetan hezkidetza behar bezala sartzen lortzea da, dela urteko programetan, dela programa osagarrien bitartez. Udalerrien kasuan, helburua da udalaren eskumeneko haur-hezkuntzako ikastetxeetan eta hezkuntzarako espazioetan heziketa-programak garatzea, eta haur-hezkuntzaren bigarren ziklotik hasi eta batxilergoraino heziketa-programa osagarrien garapenean lagunduko du Udalak. Ikastetxeetan hezkidetza behar bezala barneratua dagoela esango dugu behekoak betetzen badira:

- Ikastetxean hezkidetza ezartzeko ardura izango duen pertsonaren ordu-kreditua ezarri.
- Irakasleak eta zuzendaritzako kideak hezkidetzan prestatuak izatea.
- Ikastetxeen urteko programazioan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean hezteko jarduerak planifikatzea.
- Sistemako kontrolerako eta jarraipenerako prozesuetan hezkidetza zenbateraino ezarrita dagoen aztertzeako jarraibideak ezartzea.
- Sexuaren arabera banatutako datu estatistikoak eskura izatea.
- Mintzairaren erabilera sexista ez izatea.
- Ikastetxeetan jarduerak ezartzeko prozesuaren plangintzan, diseinuan eta ezarpenean genero-inpaktua kontuan hartzea.

Helburua lortzeko estrategia Udalak eragin gehien duen araututako eta arautu gabeko hezkuntza-esparru eta espazioetan (haur-eskolak, programa osagarriak, ludotekak, udal euskaltegiak, etab.) hezkidetza barneratzean oinarritzen da. Zuzendaritzako kideak, irakasleak, hezitzaileak eta udaletako Hezkuntza arloko langile teknikoak dira oinarritzotzat jotzen diren eragileak.

Jakintza

- **Ikastetxeetan, hezitzaileen artean eta guraso-elkarteetan hezkidetzaren inguruko errealitateak eta beharrak zehaztuko dituzten ikerketak egin.** Lehenik eta behin hezkidetzaren inguruan dauden beharrak definituko dira, eta gero hezkidetza barneratzen ari den neurria ezagutaraziko diguten adierazleak zehaztuko dira. Mota honetako ikerketarik egin ez duten udalerrietan lehenengo ikerketa oinarritzotzat jotzen da hezkidetza ezartzen jarraitu nahi bada.

Informazioa / Sentsibilizazioa

- **Hainbat ikastetxe eta hezkuntzarako espazioen artean hezkidetzaren inguruko esperientzien trukea egiteko espazioak sortu.** Ekintza hori udalerrri ezberdinen artean egin daiteke, edo udalerriez gaineko erakundeen koordinazioz. Eta horren guztia-
ren helburua, Udalen artean hezkidetzaren esparruan informaziorako eta lankidetzarako dinamikak eta sareak sortzea da.

Prestakuntza

- **Udaleko Hezkuntza arloko/saileko teknikariak hezkidetza eta genero-ikuspegia ezartzeko tresnen eskuraketan prestatu.** Ekintzaren helburua, programen diseinuan, plangintzan, ezarpenean eta balioespenean eta materialen argitalpenean, praktikan, etab. genero-ikuspegia sartzeko prestatzea da.
- **Haur-eskoletako, ludoteketako, "gazte-elkarteetako", udal euskaltegietako, aisialdi-heziketako eta abarretako zuzendaritzako kideak eta hezitzaileak hezkidetzan prestatu eta aholkularitza eman.** Hezkidetza ikastetxeetako programetan sartzearekin batera kultura-aniztasunaren ikuspuntua ere sartu behar da ikasleen errealitate ezber-

dinak kontuan hartu ahal izateko. Ekintza hau zabaldu daiteke Guraso Eskoletan, GEetan, etab. gurasoak hezkidetzan prestatuz.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Haur-eskoletan, heziketa-programa osagarrietan, aisialdirako hezkuntzan era bestelako heziketarako espazioetan genero-ikuspegian oinarritutako prestakuntza/heziketa programak diseinatu, hezkidetzeta eta kultura-aniztasuna barne dituztela.** Ekintza hau udalerrian bertan garatzekoa da eta erabat praktikoa da. Helburua, haur-eskoletan eta hezkuntza-etapa zabalagoetako (haur-hezkuntzako bigarren ziklotik batxilergora bitartean) heziketarako programa osagarrietan urteko programak diseinatzea da. Egokitzen jotzen diren bestelako heziketarako espazioetara ere hedatzeko aukera dago.
- **Udaleko Hezkuntza arloari edo sailari lotutako hezkidetzeta gaiaren inguruko aholkularia sortzea proposatu.** Ekintza honen helburua Udaleko Hezkuntza arlotik hezkidetzara bideratutako lanerako egitura teknikoa sortzea da. Egitura horren bitartez haur-hezkuntzetako irakasleei eta bestelako heziketarako espazio arautu nahiz arautu gabeen ("gazte-taldeak", ludotekak, udal euskaltegiak, GEak, etab.) hezkuntza-programak kudeatzen dituzten langile teknikoei eta erakundeei aholkularitza eskaintzea da.
- **Programak diseinatu eta kudeatzen dituzten erakundeekin hezkidetzarako jardueren garapena sustatu.** Diru-laguntzen eta hitzarmenen bidez hezkidetzarako programen garapena sustatzea da helburua, Guraso Eskolekin, GEekin, aisialdiko taldeekin, ludotekekin, euskaltegiekin eta abarrekin batera. Honekin, araututako hezkuntzaren esparruaz gain jarduera-esparrua zabaltzen da, eta irakasleez gain gurasoek eta hezkuntzako gainerako langileek ere parte hartzen dute hezkidetzaren ikuspuntua barneratzeko prozesuan.
- **Mintzaira eta irudi sexistak ez erabiltzea.** Udaleko Hezkuntza arlo eta sailetatik ekoiztu eta argitaratzen diren material, gida, kartel eta abarretan erabilitako mintzaira eta irudiak sexistak izan ez daitezen oinarritzko irizpideak ezarriko dira.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Hezkidetzaren ikuspuntua urteko programetan barneratu duten haur-eskolen, "gazte taldeen", ludoteken, udal euskaltegien eta abarren kopurua eta bilakaera.
- Hezkidetzaren ikuspuntua barneratu duten heziketarako programa osagarriko zentron kopurua eta bilakaera.

M1.2 XEDEA: BERDINTASUNAREN LEGEAREN 30. ARTIKULUA BETETZEN EZ DUTEN HEZKUNTZA MATERIALEN ERABILERA BERTAN BEHERA UZTEA. Europako Gutuna

Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 13. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 30. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Esku-hartzearen helburua, gaur egun zirkulazioan den ikasmaterialak eta argitaratu berriak direnek Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 30. artikulua urratzen ez uztea da, bereziki mintzaira sexistari dagokionean. Irudi nahiz iruzkinetan emakumeen eta gizonen agerpena orekatua eta estereotiporik gabekoa izatea bermatuko da.

B.

JARDUERAREN ESTRATEGIA

Ikasmaterialen azterketa areagotzean oinarritzen da estrategia. Legeak ezarritakoak betetzen ez dituztenak gaitzetsi behar direla adieraziko zaie langileei, eta Legearen 30. artikulua betetzen ez duten materialak Berdintasunerako Defentsa Erakundeari jakinarazteko aukera dago.

C.

LAN PROZESUA

Informazioa eta Sentsibilizazioa

- **Hezkidetzari buruzko irizpideak betetzen ez dituzten materialak Defentsa Erakundeari jakinarazteko aukera dutela zentroei adierazi.** Hezkidetzaren irizpideak betetzen ez dituzten materialak jakinarazteko zereginean zentroen parte-hartzea bilatuko du Udalak. Bereziki haur-eskolak eta beste hainbat heziketarako espazio ("gazte taldeak", ludotekak, udal euskaltegiak, etab.) izango dira zentrook.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Liburuak, ikasmaterialak, etab. eskuratzerakoan hezkuntza-irizpideak ezarri.** Udaleko haur-eskolen eta udalaren menpekoak diren beste hainbat aisialdiko heziketarako espazioen (gazte-taldeak, ludotekak...) liburuak, ikasmaterialak eta abar eskuratzeko orduan, ezarritako hezkuntza-irizpideei jarraituko zaio.

- **Udaleko haur-eskoletan eta beste hainbat hezkuntzarako espazioetan dauden ikas-materialak (jostailuak, ipuinak, etab.) genero-ikuspegiaren arabera aztertu.** Zentro horietan erabiltzen diren ikasmaterialak hezkidetzaren ikuspuntura egokitzen diren ala ez aztertuko da. Gainera, kultura aniztasunaren ikuspegia ere barneratuta izan behar-ko dute materialok, horrela ikasleen errealitatearen aniztasuna islatuko baitute. Hala, sexuaren arabera pertsonak gutxiesten edo goresten dituztenak, sexu-objektutzat tratatzen dituztenak edota emakumeen aurkako indarkeriaren alde agertzen direnak, hutsaltzen dituztenak edo horretara bultzatzen dutenak baztertuko dira.
- **Hezkidetzako material eta praktikei buruzko gida eta katalogoak diseinatu.** Ekintza hau udalerrien artean garatzeko modukoa da, eta bere helburua udalerrietako ikas-tetxeetan diseinatzeko diren materialen hedapena egitea da. Ekintza hau garatu ahal izateko aurreko helburuan proposatu diren informazioaren eta praktika egokien elkar-trukerako espazio eta dinamiken sorrera erabil daiteke.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Berdintasunerako Defentsa Erakundearen aurrean salatutako materialen kopurua eta bilakaera.
- Udaleko ikastetxe eta heziketarako espazioetan gainbegiraturako eta moldaturako materialen kopurua eta bilakaera.
- Udaleko ikastetxe eta heziketarako espazioetan bazterturako materialen kopurua eta bilakaera.

E1.1 XEDEA: UDAL IKASTETXEETAKO BATZORDEETAN ETA HAURREN, NERABEEN ETA GAZTEEN PARTAIDETZARAKO ETA KONTSULTARAKO ORGANOETAN SEXUEN ARTE-KO DESBERDINTASUN KUANTITATIBOAK MURRIZTU.

Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 3. eta 13. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 23 eta 24. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Esku-hartzearen helburua, udal ikastetxeetako batzordeetan eta haurren, nerabeen eta gazteen partaidetzarako eta kontsultarako organoetan nahiz udalaren esparruan irakas-

kuntza ez-unibertsitarioko programazioak eragiten dituen sektoreetako kontsultarako eta parte hartzeko organoetan sexuen arteko desberdintasun kuantitatiboak murriztea da.

B.

ESTRATEGIA

Udal ikastetxeetako batzordeen eta haurren, nerabeen eta gazteen partaidetzarako eta kontsultarako organoen osaerak aztertzean datza estrategiak, gero osaera hori berdintasun-irizpideen arabera orekatzeko: gutxienez %40 - %60 partaidetza izatera iritsi arte.

C.

LAN PROZESUA

Jakintza

- **Udal ikastetxeetako batzordeen eta haurren, nerabeen eta gazteen partaidetzarako eta kontsultarako organoen osaera aztertu, sexuen araberrako banaketari eta parte-hartzeari erreparatuta.** Ekintza honen helburua, udal ikastetxeetako batzordeen eta haurren, nerabeen eta gazteen partaidetzarako eta kontsultarako organoen osaera (sexuaren araberrakoa) ezagutzea da, euren berdintasunerantzko joerak azken aldian izan duen ibilbidea ezagutzeko asmoz.

Araudia

- **Udal ikastetxeetako batzordeetan eta haurren, nerabeen eta gazteen partaidetzarako eta kontsultarako organoetan sexuaren araberrako ordezkariak parekatua izateko irizpideak ezarri.** %40 - %60 aldea baino handiagoa denean desberdintasun kuantitatiboa dugula esaten da. Ekintza honen helburua desberdintasun kuantitatibo hori gainditzea da, batzordeetako osaeran gutxienez proportzio berdina lortu arte. Udal ikastetxeetako batzordeen osaerarako arauen bitartez irizpideak ezartzea tresna egokia dela uste da.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Emakumeen eta gizonen arteko parte-hartzearen proportzioa %40 - %60 baino baxuagoa duten udal ikastetxeetako batzordeen eta haurren, nerabeen eta gazteen partaidetzarako eta kontsultarako organoen kopurua eta bilakaera.

C1.1 XEDEA: ETXeko LANETAN ETA UMEEN ZAINKETAN ERANTZUKIDETASUNA ARE-AGOTU. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 13. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 29. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Esku-hartzearen helburua, neska-mutilen hezkuntzan gaur egungo beharrei aurre egiteko eta etorkizunean etxean egin beharreko lanak egiteko gaitasunak erakustea izango da, pertsonen zaintza etikoa alde batera utzi gabe.

Hezkidetzaren gaia sartu izanarekin, beraz, etxeko lanetan eta zaintza-lanetan denbora-aren erabilera orekatua egiteari arreta berezia jarri zaio hezkuntzan. Hala, mota guztietako etxeko lanak sustatzea da helburua, hau da, mutilek lan feminizatuak egitea eta neskek lan maskulinizatuak egitea. Zaintzaren sustapena bereziki mendeko pertsonen zaintzan oinarrituko da, eta laguntza behar duen edozein pertsonetara hedatuko da.

B.

ESTRATEGIA

Erantzukidetasuna eta zaintzaren etika sustatzen duten hezkuntza-programak garatzean oinarritzen da estrategia, eta ikasleak sentsibilizatzeari gain gurasoak eta irakasle eta monitoreak ere sentsibilizatu nahi dira, seme-alaben hezkuntzan funtsezko eragileak baitira.

C.

LAN PROZESUA

Informazioa / Sentsibilizazioa

- **Gurasoei, irakasle eta hezitzaileei zuzendutako informazio/sentsibilizazio programak garatu.** Udalerriko ikastetxe eta hezkuntzarako espazioen, Guraso Eskolen, GEn eta abarren bidez burutuko litzatekeen ekintza honen helburua, eginkizunak bateratze kontutan, erantzukidetasunaren eta zaintza-etikaren kontutan balore positiboak transmititzea errazago egitea da. Modu honetan, gurasoen, ikasleen eta abarren artean seme-alabak hezteko lanean ere erantzukidetasuna nabarmentzen da.

- **Udalerrian “erantzukidetasunaren astea” garatu.** Ekintza honen helburua, udalerrri bakoitzean urtean behin “erantzukidetasunaren astea” antolatzea da. Horretarako, Udala izango da ikastetxe eta hezkuntzarako espazioen arteko koordinatzailea. Oso tresna egokitzat jotzen da herritarrak gai honetan sentsibilizatzeko eta gizartean beharrezkoa den aldaketan laguntzeko. Programa honen barruan hainbat jarduera garatu beharko lirateke, hezkuntzaren esparruko eragile-mota guztiak (irakasleak, gurasoak, ikasleak, etab.) kontuan hartuta.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Udalaren eskumeneko haur-eskoletan eta bestelako heziketarako espazioetan, etxeko lanetan eta haurren zainketan erantzukidetasuna areagotuko duten hezkuntza-programak eta hezkuntzarako programa osagarriak garatu.** Ekintzaren helburua, erantzukidetasuna eta zaintzako lanak areagotuko dituzten hezkuntza-programak diseinatzea da. Horrela, hezkuntza-programazioaren egiturako zati bat izango da eta neska-mutilak etxeko eta zaintzako lanetan eta arduetan gaituko dira. Ekintza honekin batera, Udalek aldizka gai hau lantzen duten material didaktikoak eta hedapenak eskaini beharko dizkiete, eguneratuz doazen heinean, Udalen eskumeneko ikastetxe-ei.
- **Haur-eskolei, ludotekei, "gazte taldeei", udal euskaltegiei eta abarrei erantzukidetasuna lantzen duten materiala eskuratzen lagundu.** Ekintza honen helburua, Udalek erantzukidetasuna sustatzen duten materialak eskuratu eta hedatzeko baliabideak eskaintzea da.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Etxeko lanetan eta zaintza-lanetan erantzukidetasuna sustatzeko programak (heziketarako programa osagarriak barne) garatzen dituzten haur-eskolen, “gazte taldeen”, ludoteken, udal euskaltegien eta abarren kopurua eta bilakaera.

C2.1 XEDEA: 0-3 URTE BITARTEKO HAURRENTZAKO TOKIAK AREAGOTU, ETA LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN JANGELA- ETA GARRAIO-ZERBITZUEN ESKAERA BETEKO DELA BERMATU. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonen Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 16. eta 17. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 49. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Esku-hartzearen helburua, 0-3 urte bitarteko haurrentzat dauden plaza-eskaerari erantzuteko zerbitzu nahikoak sortzea da, eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzan jangelarako eta garraiorako eskaeraren estaldura bermatzea, baliabideen arrazoizko banaketaren irizpideak jarraituz. Udalen kasuan haur-eskoletan esku hartuko dute, bai plazen eskaerari dagokionean, baita diru-laguntzei (jangelarako bereziki, eta garraiorako bestela) dagokienean ere.

B.

ESTRATEGIA

0-3 urte bitartekoen plaza kopuruaren eskaria betetze-maila aztertzean oinarritzen da estrategia, baliabideak kopuru horietara egokitu eta eskari osoaren % 100 betetzera iritsi ahal izateko.

C.

LAN PROZESUA

Jakintza/Zerbitzuak eta Baliabideak

- **0-3 urte bitartekoen plazen eskaintza eta eskaria nahiz jangelarako eta garraiorako beka-eskaeraren estaldura-maila aztertu, eta ahal dela, eskaintza eskarira egokitu.** Ekintza honen helburua, udalaren ardurapeko haur-eskoletan dagoen eskaria eta estaldura-maila ezagutzea da, horrekin, eskariaren %100a betetzen ez den kasuetan baliabideak gehitzeko. Ekintza hau garatzeko lanetan Udalen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko koordinazioa beharrezkoa da.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **0-3 urte bitartekoen ikastetxe publikoak HAURRESKOLAK Partzuergoarekin bat egitera sustatu.** Udalerrien artean Udalak HAURRESKOLAK Partzuergoarekin bat egitea sustatuko da.

- **Helburuaren betetze-mailaren jarraipena egin.** Eskariaren %100ari estaldura eman ahal izateko baliabideak egokitzeak estalduraren jarraipena egitea eskatzen du. Gainera, emandako urratsen eta parte hartu duten erakundeen berri ere emango da prentsaren bitartez.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Haur-eskolen eta sortutako plaza kopurua eta bilakaera, Lurralde Historikoko eskariaren arabera.
- Eskatutako eta eskainitako jangelarako diru-laguntzen kopurua eta bilakaera.
- Eskatutako eta eskainitako garraiorako diru-laguntzen kopurua eta bilakaera.

C2.2 XEDEA: IKASTETXE ETA HAUR ESKOLETAN ORDUTEGIEN ETA EGUTEGIEN MALGUTASUNA AREAGOTU, BAKOITZAK DUEN ANTOLAKETARAKO AUTONOMIAREN ARABERA, FAMILIEN BEHARRA ASETZEA BERMATZEKO.

Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 16. eta 17. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 49. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Udalaren eskumenekoak diren haur-eskoletan eta bestelako hezkuntzarako espazioetan ordutegien malgutasuna areagotu, ikastetxeak auzoko bizimoduan barneratuz eta ikastetxeen azpiegiturak eskola-ordutegitik kanpo aprobetxatuz, horrela gurasoentzat errazagoa izan dadin laneko, etxeko eta norberaren eginkizunak onez bateratzeko neurriak hartzea.

Eskola-ordutegien eta egutegien malgutasunak ikasleen sendiak osatzen dituzten pertsona guztien laneko, etxeko eta norberaren eginkizunak onez bateratze-beharrari erantzun beharko die.

Ikastetxeetako ordutegiak eta egutegiak gurasoen laneko, etxeko eta norberaren eginkizunak onez bateratzera egokitzean oinarritzen da estrategia, eta Tokiko Administrazioek horretan duten ardura publikoa bereziki nabarmentzen da.

Jakintza

- **Ordutegiak eta egutegiak malgutzeko garatu diren saiakuntzak ezagutzeko ikerketa egin.** Udalen artean egin beharko litzateke ekintza hau, eta honen helburua, Udaletan garatutako saiakuntzak ezagutaraztea da. Aztertutako saiakuntza guztietako informazioa praktika egokien gida batean bilduko dira, eta Udalen artean banatuko da gida hori. Ikerketa honetan aztertutako espazioak haur-eskolak nahiz bestelako hezkuntzarako espazioak ("gazte taldeak", ludotekak, udal euskaltegiak, etab.) izango dira.
- **Gurasoen beharretara egokitzen diren ordutegi eta egutegiak ezagutzeko ikerketa garatu.** Ekintza honen helburua, gurasoen ordutegien malgutasuna ezagutzea da alde batetik, eta bestetik, ikastetxe eta bestelako hezkuntzarako zentroek behar horiei erantzunak ematen dizkien jakitea da. Horretarako, galdeketetan, parte-hartzaileen taldeetan eta abar oinarritutako ikerketak erabil daitezke.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Udalaren eskumeneko haur-eskoletan eta bestelako hezkuntzarako espazioetan ordutegiak eta egutegiak egokitu eta malguagoak egin, hezkuntzarako irizpideak kontuan hartuta.** Ekintza honen helburua, ordutegiak eta egutegiak familien lan-bateratzearen eta beharren arabera egokitzea da, eta kontuan hartu beharko da emakumezko etorkinen errealitatea: ikastetxeak goizeko lehen orduetarako irekita egotea behar dute eta hala, denbora-tarte horretan zaintzaileak izatea beharrezkoa da.
- **Eskola-orduetatik kanpo jolastokiak erabiltzera bultzatu.** Ekintza honen helburua, udalaren ardurapean dauden ikastetxeetako jolastokiak eskola-orduetatik kanpo ere irekita egotea da. Horrekin, auzoetatik gertu dauden espazioak erabiltzeko prest egongo lirarteke. Ekintza hau garatzearekin bestelako ekipamenduen (parkeak, gunerak, etab.) eskaintza urria duten ikastetxeak lehenesten dira.

- **Oporraldietan haurrentzat hezkuntza eta jolasak uztartzen dituzten programak eta jarduerak garatu, laneko, etxeko eta norberaren eginkizunak onez bateratzea errazteko.** Kasu honetan, ekintza honi esker familien beharrei erantzuten zaie, bereziki haurrak (baina ez gurasoak) oporretan dauden garaietan. Herriko udalekuak eta antzeko jarduerak antolatzeke Administrazioek (eta kasu honetan Udalek) baliabideak eskaini beharrean duten ardura azpimarratzen du ekintza honek.
- **“Familian” egingo diren jarduerak antolatu, jardueraren garapen partekatua sustatu duten udaleko espazio edo programen bidez.** Haurrek eta gurasoek partekatuko dituzten jarduerak antolatuko dira. Ekintza horiek garatzeak laneko, etxeko eta norberaren eginkizunak onez bateratzean zeharka eragiten duela uste da.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Ordutegi malguak eta egutegi zabalagoak dituzten haur-eskolen, "gazte taldeen", ludoteken, udal euskaltegien eta abarren kopurua eta bilakaera.

V1.1 XEDEA: IKASTETXEETAN AZALERATZEN DIREN ETXKO INDARKERIA KASU GUZTIAK ANTZEMAN ETA HITZARTUTAKO PROTOKOLO ERAGINKORREI JARRAIKI KASU GUZTIEI ERANTZUNA EMATEA.

Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduaren izan behar duten Berdintasunerako, 22. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 29. eta 31. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Esku-hartzearen helburua, emakumeen aurkako indarkeria jasaten duten (zuzenean edo lekuko izanik) ikasleen kasuen kopurua ezagutzea da, eta behin antzemandak, kasu guztiei behar bezalako erantzuna ematea. Udalen kasuan, esku-hartzea bereziki haur-eskoletara zuzenduko da baina udalaren eskumenekoak diren bestelako hezkuntzarako espazioetara ere heda daiteke.

B.

ESTRATEGIA

Proposatutako estrategia, ikastetxeetan azaleratzen diren etxeko indarkeria kasu guztiak antzeman eta hitzartutako protokolo eraginkorrei jarraiki kasu guztiei erantzuna ematea

da: jarduera-protokoloak diseinatu eta ezarriko dira, eta irakasleak genero-indarkeria kasuak antzemateko eta erantzun egokia emateko gaituko dira.

C.

LAN PROZESUA

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Emakumeen eta haurren aurkako indarkeria hezkuntza esparruan antzematen direnean erantzun egokia emateko eta bitartekaritza egiteko protokoloa egin eta zabaldu.** Ekintza hau udalen artean garatu beharko litzateke, eta helburua, antzematen diren indarkeria-kasuei erantzun egokia emateko protokoloa sortzea, hedatzea eta ezartzea da. Protokolo horretan haur-eskolen eta udaleko gizarte zerbitzuen arteko koordinazio-mekanismoak aurreikusiko dira, eta baita emakumeen aurkako indarkeria jasaten duten haurrak ikastetxean integratu eta ongi izateko tresnak ere.

Prestakuntza

- **Udaleko haur-eskoletako irakasleak indarkeria-kasuak antzemateko eta horien aurrean erantzun egokia emateko prestatu.** Ekintzaren helburua, irakasleak esparru honetan prestatzea da. Horrela, erantzun egokia emateaz gain esku-hartzearen koordinaziorako ere prestatuko dira, protokoloa ezagututa.

Araudia

- **Indarkeriaren biktimen seme-alabek haur-eskoletan sartzeko lehentasuna izan dezaten irizpideak ezarri.** Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 61. artikuluan zehazten den moduan, emakumeen aurkako indarkeria jasaten duten biktimek haur-eskoletan sartzeko lehentasuna izango dute. Irizpideak ezarritakaudela, emakume hauen seme-alabek ikastetxera sartzeko beharraren estalduramaila aztertu beharko litzateke.

Jarraipena

- **Jarduteko protokoloen ezarpen- eta betetze-maila balioetsi.** Ekintza honen helburua, protokoloaren ezarpen- eta betetze-maila balioestea da. Baina baita protokolo horietengabe hobetzen joateko neurriak ezartzea ere. Ekintza hau Udal bakoitzean egingo da, protokoloen ezarpen- eta betetze-maila balioesteari dagokionez, baina hobetzeko neurriak zehaztea udalen artean egin daiteke.

- Antzemandako eta erantzundako kasuen kopurua eta bilakaera.
- Emakumeen aurkako indarkeria-kasuen aurrean jarduteko protokoloa ezarri duten haur-eskolen kopurua eta bilakaera.

V1.2 XEDEA: IKASTETXEETAN KONFIANTZA-GIROAN ETA BERDINTASUNEKO LANKI-DETZAN OINARRITUTAKO KULTUR ALDAKETAREN BITARTEZ GENERO INDARKERIA-REN PREBENTZIORAKO SAIAKUNTZARAKO PROGRAMA BAT EGIN. Europako Gutuna

Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 13. artikulua.
Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 29. artikulua.

Ikastetxeetako eguneroko harremanetan (ikasgela barruan nahiz kanpoan) generoak nortasun pertsonalaren eraikitzean duen eraginari buruzko hausnarketa egitea funtsezkotzat jotzen duen eta eguneroko bizimoduan agertzen diren arazoei indarkeria erabili gabe aurre egitea ikasteko programak garatu. Ondorengo elementuak kontuan hartu beharko lituzke garatutako programak:

- Indarkeria erabili gabe arazoei aurre egiten ikasi eta emakumeen eta gizonen eskubide- eta aukera-berdintasuna eta pertsonen aniztasuna errespetatzen duten bizikidetzareduak ikasi.
- Gizonei eta emakumei portaera zehatzak ezartzen dizkien eredu soziokulturaletako sexuaren araberako aurreiritziak, estereotipoak eta rolak ezeztatu.
- Pertsonen arteko harremanetan genero-hierarkizazioaren eragina ezeztatu.
- Nortasun pertsonalaren eraikuntzan generoak duen eragina aztertu eta eztabaidatu.
- Maskulinoaren eta femeninoaren eredu tradizionalak eta indarkeriarekin duten lotura aztertu eta eztabaidatu, eta eredu berriak sortu.
- Femeninotasunari lotutako baloreak ikastetxeetan barneratu.
- Emakumeen aurkako indarkeria sustatzen duen kultura eta beste kulturetan duen eragina aztertu.

B.

ESTRATEGIA

Haur-eskoletan eta udalaren ardurapeko bestelako hezkuntzarako espazioetan aipatutako parametroetan oinarritutako programak garatzean oinarritzen da estrategia. Lan honen planteamenduan irakasleen eta gurasoen parte-hartzea funtsezkoa da.

C.

LAN PROZESUA

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako programa diseinatu eta ezarri, helburuan zehaztutako jarraibideen arabera.** Udaleko haur-eskoletan aplikatuko litzateke programa hau, baina udalerrien artean zehaztu ahal izango da, gero udalerri bakoitzean aplikatzeko.
- **Indarkeriaren prebentziorako hezkuntza-programa osagarriak garatu eta ikasleei zuzendu.** Ekintza honen helburua eskolaz kanpoko jardueren bidez indarkeriaren prebentziorako hezkuntza-programa osagarriak garatzea da, adinaren tarte zabalduz: haur-hezkuntzako bigarren ziklotik hasi eta batxilergorainoko ikasleak sartuko lirateke. Programa hauek goiko helburuetan adierazitakoak kontuan hartuta garatu behar ko lirateke.
- **Gurasoei zuzendutako indarkeriaren prebentziorako prestakuntza-programak garatu.** Gurasoeekin landuko dira indarkeriaren prebentziorako programa horiek, Guraso Eskolen eta GEen bitartez, eta helburuetan zehaztutako oinarritzko gaiak kontuan hartuta.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Indarkeriaren prebentziorako programak ezarri dituzten haur-eskola kopurua.
- Indarkeriaren prebentziorako hezkuntza-programa osagarriak garatu dituzten ikasle-teen kopurua.
- Indarkeriaren prebentziorako hezkuntza-programak garatu dituzten Guraso Eskolen eta GEen kopurua.

2.4

LANA

Lana funtsezko elementua da pertsonen gizarteratzeko, baina baita euren autonomia ekonomikoa bermatzeko ere. Ikuspuntu zabal batetik, ekoizpen-lana nahiz biziaren mantentzeko ugalketa-lana hartzen ditu barruan. Baina bien arteko aldea handia da: ekoizpen-lanak merkatuan aldaketa-balioa du eta tradizionalki gizonen zeregina izan da; ugalketa-lanari, berriz, ez zaio balio hori aplikatzen, eta emakumeen doako lanaren bidez bete izan da eta betetzen da.

Genero-berdintasuna lortzeko, emakumeen doako lanari gizartean duen garrantzia onartzea eta termino ekonomikoetara moldatzea ezinbestekoa da. Gainera, bi jarduera-mota horietan emakumeen eta gizonen artean banaketa orekatua bilatu beharko da.

Horregatik, Lanaren arloko jarduera gizonak etxeko eta zaintzako lanetan ardura hartzea sustatzea izango da, eta emakumeen kasuan, Berdintasunaren Legearen 36. artikulua dioenez: *“... emakumeen eta gizonen aukera- eta tratu-berdintasuna erreal eta benetako izateko behar diren baldintzak sustatu behar dituzte, hala norbere konturako zein inoren konturako lana lortzean, nola lan-, prestakuntza-, sustapen-, ordainketa- eta kontratuen amaiera-baldintzetan”*.

Hala, zentzu honetan, Udalen zeregina ere ezinbestekoa da, herritarrengandik hurbilen dagoen administrazioa izanik, herritarren portaeretan, balioetan, jarreretan eta gaitasunetan eragin handiagoa duelako, eta erantzukidetasuna sustatzeko aukera gehiago dituelako. Modu berean, lanbide-prestakuntzan eta lan-munduratzean neurriak hartzeko eragile izanik, esparru ekonomikoan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak abian jar ditzakete.

MAINSTREAMINGA

Berdintasunaren Legearen 3. artikuluan modu honetan definitzen da genero-ikuspegiaren integrazioa: *“emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdina modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta balioespen-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketazehatzak txertatzea”*.

Zentzu honetan, enpleguaren inguruko politika eta gizarte zerbitzuekin lotutako lan-prozesuak aztertzea beharrezkoa da, sektorean emakumeek duten egoera eta eskakizunak ezagutaraziko dizkiguten tresnak sartuz, zerbitzu eta baliabideak egokituz, euren egoera eta eurentzat burutzen diren ekintzak bistaratuz eta urteko programa bat ezarriz.

Gainera, dokumentu honetako 27 or. Zeharkakotasuna eta berdintasun-politikak izeneko atala EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planean xedatutakoetan oinarritzen da (Ardatz estrategikoak. Mainstreaminga): oro har, eta zeharkako moduan, Plan honetan aurreikusitako helburu eta jardun guztiak garatu, gauzatu eta ebaluatzeko garaian, kontuan izan beharko dira emakumezko eta gizonezko taldeen espezifikotasunak, eta batik bat, askotariko diskriminazioa pairatzen duten emakumeenak, emakume minusbaliatuen taldea esaterako.

AHALADUNTZEA

Ahalduntzearen ardatzari dagokionez, Udaleko enpleguaren zerbitzu eta arloetako berdintasun-politikak emakumeen egoera hobetzean oinarrituko dira eta bi alderdi hauek landuko dituzte: enplegu egonkorra eta kalitatezkoa (norberaren konturakoa nahiz besteren konturakoa) eskuratzea, eta laneko baldintzak eta erlazioak hobetzea.

Norberaren konturako nahiz besteren konturako enplegua eskuratzeko enplegu egonkorra eta kalitatezkoa izatea planteatzen da, murgildutako ekonomiatik kanpokoak, etorkizun handieneko sektoreetako lanpostuak izango dira, eta hala, udalerriko enplegu-nitxoak zeintzuk diren aztertuta, ondoen ordaindutako lanpostuetan edota merkatuan kokapen argia dutenetan emakumeen kontratazioa sustatzeko politikak garatuko dira.

Gaur egun egoera hori punta-puntako sektoreetako edo teknologia-maila altua dutenetako enpresetan gertatzen da, eta baita tradizionalki maskulinoztat jo diren enpresa industrialetan ere. Zenbait ekimen ekintzailetan edo autoenpleguetakoetan ere ageri da.

Bestalde, baldintzak hobetzearekin emakumeen eta gizonen lan-baldintzak eta erlazioak berdintzea ulertzen dugu, izan ere, gaur egun aldeak handiak dira eta estalita daude (segregazio horizontala, soldaten arteko aldeak, kontratuen ezegonkortasuna, etab.). Udalean bertan eta udalerriko enpresetan ardurako postuetan emakumeen kopurua handitzea ere ulertzen da.

Erantzukidetasunaren esparruan, hasieran aipatu den moduan herritarren kontzientziaziorako lanetan Udalek egindako lana funtsezkoa da.

Gizartean jarrera eta baloreen aldaketa beharrezkoa da, eta herritarrengana heltzeko ezin hobea da udala, herritarren artean erantzukidetasuna oinarri duen kontzientziazioa sustatzeko. Ugalketa-lana (etxeko lanak eta haurren eta menpeko pertsonen zainketa) banatzeak duen garrantzia kalean erakusteko aukera dago udalerrietan.

Bateragarritasunari dagokionez, lan-bizimodua garatzeko orduan norberaren eta familieren bizimodua oztopo izango ez deneko gizarte ordena sustatzea da erronka nagusia. Udalek eurek ere jarrera eredugarriak erakuts ditzakete, lan-bateratzeko neurri berritzaileak sortuz eta sentibilizaziorako funtzioak gauzatuz: bateragarritasun-planak egiteak ematen dituzten aukerak eta abantailak enpresei jakinaraziz. Bi kasuetan, lan-bateratzea erantzukidetasunerako oztopo izan ez dadin, gizon nahiz emakumeek neurri horiek maila berean hartzea sustatu beharko da.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Lanaren esparruan indarkeriari aurre egiteko politika lan-esparruko jazarpen sexista eta sexu-jazarpena tratatzean eta prebentzioan oinarritzen da. Udalek auzi horretan legeak ezarritakoak hartuko dituzten protokoloak egin beharko dituzte, eta Udalhitz-ek emandako gomendioak kontuan hartu beharko dituzte. Gainera, udal-enpresetan horrelako protokoloak egitea sustatu beharko da.

Beheko laburpen-taulan (2.4.2) biltzen dira xede eta ardatz bakoitzerako proposatu diren jarduerak, geroago azalduko direnak (2.4.3. atalean).

MAINSTREAMINGA

XEDEAK	TRESN.	EGINTZAK
M1.1 XEDEA: PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGURAKO ZERBITZUETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATU. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 27 eta 29. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 36, 37, 39, 40 eta 41. artikulua.	Jakin. Datuak sexuaren arabera banatuta jaso eta hedatu. Existitzen diren definizio estatistikoak berraztertu eta egokitu, emakumeek egindako ugalketa-lana aintzatesten eta balioesten laguntzeko. Udalean genero-ikuspegia oinarritzat hartuta garatu diren prestakuntzarako eta enplegurako politiken urteko azterketa. Genero-inpaktuaren alde aurretiko balioespena.	
	Prestak. Langileak berdintasun-politiketan gaitu.	
	Zerb/Bali Mintzaira sexista erabiltzea ekidin.	
	Jarraip. Enpleguaren arloan berdintasunaren aldeko neurriek duten emaitza eta inpaktuaren balioespena.	

AHALDUNTZEA

XEDEAK	TRESN.	EGINTZAK
E1.1 XEDEA: EDUKI TEKNOLOGIKO ETA JAKINTZA MAILA ALTUKO PUNTA PUNTA SEKTOREETAKO ENPLEGU TEKNIKOETAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEAN DAUDEN ALDEAK MURRIZTU, EMAKUMEEN PARTE HARTZEA AREAGOTUZ. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 11. eta 27. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 38. artikulua.		
		Emakumeei zuzendutako lan-prozesua
	Inf/Sen	Eduki teknologiko altuko punta-puntako sektoreetarako enplegu teknikoak sortzera begira zeintzuk diren jarraitu beharreko prestakuntza-ibilbideak eta lan-esparruak jakinarazi ikastetxeetan.
	Prestak.	Lanbide-prestakuntzako eta enplegu-prestakuntzako programak garatu, emakumeei zuzendutakoak, sektorean kontratatutak izan daitezten.
		Enpresei zuzendutako lan-prozesua
	Jakin.	Sektoreen, mailaren eta prestakuntzaren arabera udaleko langabezia- eta okupazio-tasak ezagutu, adinaren eta sexuaren arabera banatuta.
	Info/Sent	Eduki teknologiko altuko sektorean enpresa-buruen artean emakumeen kontratazioarako praktika egokiei buruzko sentsibilizazio-jarduerak egin.
	Zerb/Bali	Eduki teknologiko altuko sektoreetan emakumeen kontratazioa sustatzeko diru-laguntzen ildoak garatu.
	Jarraip.	Enpresei bideratutako neurrien baliagarritasuna zehazteko jarraipena egin.

XEDEAK	TRESN.	EGINTZAK
E1.2 XEDEA: SEKTORE INDUSTRIAL TRADIZIONALETAN OSAGAI TEKNIKOKO ENPLEGUETAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO DESBERDINTASUN KUANTITATIBOA MURRITZTU, EMAKUMEEN PARTE HARTZEA AREAGOTUZ. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 11. eta 27. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 38. artikulua.		Emakumeei zuzendutako lan-prozesua
	Prestak.	Lanbide-prestakuntzako eta enplegu-prestakuntzako programak garatu, emakumeei zuzendutakoak, sektore industrialean kontratatutak izan daitezten.
		Enpresei zuzendutako lan-prozesua
	Jakin.	Sektore industrialean mailaren eta prestakuntzaren arabera udaleko langabezia- eta okupazio-tasak ezagutu, adinaren eta sexuaren arabera banatuta.
E1.3 XEDEA: ENPRESA EKIMENEN ERAKETAN ETA FINKAPENEAN AGERI DEN DESBERDINTASUN KUANTITATIBOA MURRITZTU, EMAKUMEK AGERPEN GUTXIEN DUTEN SEKTORE ETA POSTUETAN BEREZIKI SUSTATZAILEEN PARTE HARTZEA AREAGOTUZ. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 11. eta 27. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 38. artikulua.	Info/Sent	Sektore industrial tradizionalen enpresa-buruen artean emakumeen kontratazioarako praktika egokiei buruzko sentsibilizazio-jarduerak egin.
	Zerb/Bali	Sektore industrialetan emakumeen kontratazioa sustatzeko diru-laguntzen ildoak garatu.
	Jarraip.	Enpresei bideratutako neurrien baliagarritasuna zehazteko jarraipena egin.
	Info/Sent	Enpresa-ekimenak gauzatzeko dauden laguntzak eta baliabideak jakinarazi emakumeei.
	Prestak.	Emakume ekintzaileentzat prestakuntza-ikastaroak antolatu.
	Zerb/Bali	Emakumeek agerpen gutxiak duten sektore eta lanbideetan emakumeek ETEak aurrera ateratzeko sustatzeko pizgarriak ezarri.

XEDEAK	TRESN.	EGINTZAK
E2.1 XEDEA: HERRI ADMINIS-TRAZIOETAN ETA SEKTORE PRIBATUKO ENPRESETAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN LAN BALDINTZAK OREKATU, BIZTANLE PROPORTZIO HANDIENAKO JARDUERA ADARREI LEHENTASUNA EMANEZ. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 11. eta 27. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 38. eta 42. artikulua.	Lan-prozesua Udalekin	
	Jakin.	Udaleko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko diagnostikoa egin.
	Zerb/Bali	Udaleko edo diru publikoan parte-hartze handia duten enpresetako enplegu publikoan berdintasun-planak sortu eta ezarri.
	Araudia	Administrazio publikoek eta mendeko enpresek euren negozioaz kolektiboetan berdintasuna bermatzeko neurriak, lan-bateratzea bermatzeko neurriak, etab. txertatzen dituztela ziurtatu.
E2.2 XEDEA: SEKTORE PUBLIKOKO NAHIZ PRIBATUKO ERANTZUKIZUNEN POSTUETAN EMAKUMEEN AGERPENAREN ARAUTZAK. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 11. eta 27. artikulua.	Lan-prozesua enpresa pribatuekin	
	Info/Sent	Enpresei 5/2005 Legeak eta 3/2007 Lege Organikoak ezarritako arauak jakinarazi eta existitzen diren deribazio-kanalak ezagutarazi.
	Zerb/Bali	Berdintasun-politikak txertatzearen inguruan garatutako esperientziekin lotutako materialak bildu eta enpresen edo bestelako eragilean (sindikatuak, etab.) artean banatu edo eskaini.
	Lan-prozesua Udalekin	
	Prestak.	Barne-prestakuntza lan-ordutegiaren barruan eman edota lan-bateratzea erraztuko duten zerbitzu edo neurriak ezarri.
	Zerb/Bali	Erantzukizuneko postuetako lanordua lan-jardunaldikoetara egokitu edota lan-bateratzea erraztuko duten zerbitzu edo neurriak eskaini.
	Araudia	Udaleko, epaimahaietako eta abarrek lehiaketa edota oposaketetako aukeraketa-epaimahaietan gizonen eta emakumeen parte-hartzea orekatu edo orekatzea sustatu. Etengabeko prestakuntza zuzendaritzako eta buruzagitzako postuei buruzko alderdietan emakumeentzako erreserba-kuota bat ezarri.
	Lan-prozesua enpresa pribatuekin	
	Jakin.	Udalerriko enplegu-sektore ezberdinetako erantzukizuneko postuetan gizonen eta emakumeen parte-hartzearen aldeak aztertu.
	Info/Sent	Enpresa eta sindikatuak erantzukizuneko postuetan emakumeen parte-hartzeak duen aldearen inguruan sentsibilizatu.

BATERAGARRITASUNA

XEDEAK	TRESN.	EGINTZAK
C1.1 XEDEA: ETXEKO ETA ZAINZA LANEI GIZONEK ETA EMAKUMEEK ESKAINITAKO DENBORAN DAGOEN DESBERDINTASUN Kuantitatiboa murriztu. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 11. eta 27. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 35. artikulua.	Info/Sent	Erantzukidetasun-lehiaketa bat sortu udalerrien artean. Erantzukidetasunean urratsak ematea beharrezkoa dela publikoki eztabaidatzea sustatuko duten sentsibilizazio-kanpainak abian jarri.
	Zerb/Bali	Denbora-bankuak sortu.
C1.2 XEDEA: LANEKO, ETXEKO ETA NORBERAREN EGINKIZUNAK ONEZ BATERATZE POSIBLE EGINGO DUTEN BALDINTZAK SORTU. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 11. eta 27. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 35. artikulua.	Araudia	Amatasunarengatik/aitatasunarengatik edo mendeko pertsona zaintzeagatik baimenak eskuratzen dituzten pertsonak berriz euren lanetara itzultzea bermatu.
	Lan-prozesua Udalekin	
	Jakin.	Zerbitzu publiko nahiz pribatuak lan-bateratzearen beharretara egokitzen diren mailaren azterketa egin.
	Info/Sent	Udaleko langileei zuzendutako lan-bateratzeko neurriei eta lan-bateratzeko eskubideei buruzko sentsibilizazio-ekintzak eta kanpainak burutu.
	Zerb/Bali	Laneko, etxeiko eta norberaren eginkizunak onez bateratzeko neurri edota zerbitzu malguak (eskolatze-aldiaren iraupenari lotu gabe) garatu.
	Araudia	Laneko batzarrak edo pertsona askoren parte-hartzea eskatzen duten bestelako jarduerak garatzeko ordutegia zehaztu.
	Lan-prozesua enpresa pribatuekin	
	Info/Sent	Lan-bateratzeko neurriak edota zerbitzuak abian jartzeko asmoa duten enpresa pribatuei informaziorako eta aholkularitzarako zerbitzua sortu.
	Zerb/Bali	Laneko zentro pribatuetan lan-bateratzea eta erantzukidetasunaren alde egiteko baliabideak eman. Eskaintza, lehiaketa eta kontzesioen esleipen-irizpideetan enpresa eskaintzaileko lan-bateratzeko neurriak txertatu.

INDARKERIA

XEDEAK	TRESN.	EGINTZAK
V1.1 XEDEA: ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN ETA SEKTORE PRIBATUKO ENPRESETAN SEXU JAZARPENEN AURREAN ERANTZUN EGOKIA EMATEKO ETA PREBENTZIORAKO PROTO-KOLOAK EZARRI. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 11. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 43. artikulua.	Lan-prozesua Udalekin	
	Info/Sent	Udalhitz-en Laneko Jazarpena eta Genero Indarkeria atalean bildutako edukiak eta indarrean dagoen legerian bildutako neurriak hedatu. Udalean gertatzen diren laneko sexu-jazarpenari buruzko informaziorako eta sentsibilizaziorako kanpainak egin.
	Zerb/Bali	Sexu-jazarpenaren prebentziorako eta jazarpenaren aurrean ekiteko protokoloak sortu.
	Lan-prozesua enpresa pribatuekin	
	Info/sent	Enpresa pribatuetan gertatzen diren laneko sexu-jazarpenari buruzko informaziorako eta sentsibilizaziorako kanpainak egin.
	Zerb/Bali	Sektore pribatuko enpresetan sexu jazarpenen aurrean erantzun egokia emateko eta prebentziorako protokoloak sustatu.

M1.1 XEDEA: PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGURAKO ZERBITZUETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATU.

Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 27 eta 29. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 36, 37, 39, 40 eta 41. artikulua.

A.**ESKU HARTZEAREN HELBURUA**

Esku-hartzearen helburua udaleko lan-arloetan lan egiten duten pertsonen euren politiken diseinuan, ezarpenean eta balioespenetan esku-hartzearen ildoak kontuan hartzea da: eguneroko lanean gizonen eta emakumeen egoera ezberdinak zehazten baitira, eta herri-tarrei behar bezalako zerbitzua eskaini ahal izango zaie emakumeen berariazko beharrak asetzea bermatuz.

B.**ESTRATEGIA**

Jarduteko estrategiarik egokiena emakumeen egoera, baldintza eta kokapen desberdinak kontuan hartzen dituzten tresnak eta lan-prozesuak erabiltzea da, Udaleko politiken eta prestakuntzarako eta enplegurako neurrien diagnostikoan, diseinuan, esku-hartzean eta balioespenean.

C.**LAN PROZESUA****Jakintza**

- **Datuak sexuaren arabera banatuta jaso eta hedatu.** Enpleguaren arloan Udalean egiten diren ikerketa eta estatistika guztietan datu orokorrak maneiatzeko tresna elektronikoetan sexuaren aldagaia txertatzeko eskatzen da. Neurria eraginkorra izan dadin, garrantzitsua da laginak behar bezain handiak eta adierazgarriak direla bermatzea, emakumeen eta gizonen arteko aldeak ongi bereizteko eta hedapeneko fasean datu bereiziaz ongi aditzera emateko. Bestalde, beharrezkoa izango da, esparru ekonomikoaren egoerari eta bilakaerari buruzko azterketa egin nahi badugu, sexua-

ren aldagaia beste aldagai garrantzizko batzuekin lotzea: adina, jatorria, ikasketen hautaketa, lan-esparrua, etab. Beraz, horrekin, sexuaren aldagaiak duen eragina ezagutu eta diskriminazio-egoerak adierazten dizkiguten bestelako egoerak islatuko dira.

- **Existitzen diren definizio estatistikoak berraztertu eta egokitu, emakumeek egindako ugalketa-lana aintzatesten eta balioesten laguntzeko.** Beharrezkoa deneko kasuetan, existitzen diren definizio estatistikoak berraztertu eta egokitu egingo dira, emakumeen ugalketa-lanaren aintzatespena eta balioespena bilatzeko eta zenbait kolektiboren estereotipazio negatiboa ekiditeko.
- **Udalean genero-ikuspegia oinarritzat hartuta garatu diren prestakuntzarako eta enplegurako politiken urteko azterketa.** Udaleko enplegu-politiketan adituak diren pertsonak eta esparru honetan emakumeen beharrak zeintzuk diren ezagutzen dituzten berdintasunerako eragileez edota herritarrez eta erakundeez osatutako lan-taldea osatzetik abiatuta, enplegua sustatzeko jardunerako ildoak aztertuko dira. Saileko ekintzetan emakumeen eta gizonen berariazko beharrei erantzun egokia emateko lan-ildoak sartzea da helburua, udalen artean ezarritako helburuak eta neurriak betetzeko jarraibideak erreferentziatzat hartuta. Ekintza honetan garatu beharreko beste oinarrizko edukietako bat aldizka lan-merkatuaren azterketa egitea da, emakumeentzat aukera ona izan daitezkeen merkatuko abaguneak antzemateko.
- **Genero-inpaktuaren alde aurretiko balioespena.** Arau edo egintza administratibo bat aplikatzea gizonentzat nahiz emakumeentzat modu berean eragiten duen jakiteko tresna egokia da, eta ezkutuko diskriminazioak ekiditeko balio du. Ekintzaren helburua, administrazioko arau edo egintza guztietan tresna hori aplikatzea da, eta Udalaren lan osorako zehaztuko da.

Prestakuntza

- **Langileak berdintasun-politiketan gaitu.** Langileak gaitzeko beharrezkoa den informazioa eskainiko da, aurrez adierazitako egintza guztiak errazteko: politikak aztertu, datuak sexuaren arabera banatu, mintzairaren erabilera sexista ekidin, betetze eta emaitzen balioespenak egin. Gainera, ekintza hau garatzeko, lehenik udaleko enplegu-zerbitzuetako langileek berdintasunaren gaietan duten prestakuntza eta gaitasunei buruzko diagnostikoa egin beharko da, eta gero, prestakuntza-plana diseinatu eta ezarriko da. Modu horretan, dokumentu honetan zehaztutako ekintzak garatzeko oinarrizkoak izango diren betebeharrak bermatzeaz gain behar berriak identifikatzera ere irits gaitzke. Kasu horietan Udal bakoitzean ad-hoc prestatutako prestakuntza-planak diseinatu eta ezarriko lirateke behar horiek asetzeko.

- **Mintzaira sexista erabiltzea ekidin.** Ekintza honen helburua, dokumentu eta komunikazio guztietan emakumeen agerpena eta parte-hartzea bermatzea da, baina estereotiporik gabe. Helburu hori gauzatzeko, Udaleko enplegu-arloan mintzaira sexistaren erabilera ekiditeko gida bat banatu beharko litzateke, dokumentu ofizial guztietan kontuan hartzeko. Gainera, komenigarria litzateke ohiko aplikazioa duten dokumentu estandarrek (gutunak, formularioak, aplikazio informatikoak, komunikaziorako eta hedapenerako tresnak, etab.) gainbegiratzea, eta hala beharko balitz, egokitzea.

Jarraipena

- **Enpleguaren arloan berdintasunaren aldeko neurriek duten betetze eta emaitzen balioespena.** Urtearen amaieran genero-ikuspegiaren arabera politiken azterketak egin dituzten lan-taldeek aurrez planteatutako jarduerak bete dituzten ala ez aztertu beharko dute (ekintzen betetze balioespena), baita euren udalerriko emakumeen errealitatea aldatu den ala ez (emaitzen balioespena). Emaitza horiek gaiarekin lotuta dauden agente guztien artean hedatu beharko dituzte.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Berdintasunaren aldeko ekintzak sartzeko berrikusi eta moldatu behar izan diren saileko jarduera-ildoen %.
- Sexuaren aldagaia kontuan hartuta egin eta hedatu diren ikerketa eta estatistiken %ren bilakaera.
- Mintzaira sexista erabiltzen ez duten saileko dokumentuen %ren bilakaera.
- Berdintasunerako diseinatu diren ekintzen emaitzaren bilakaera (ezarritako ekintzen %ren bilakaera eta onuradunen kopurua).
- Saileko prestakuntzaren bilakaera: prestatutako pertsonen % eta pertsona bakoitzaren prestakuntza-ordu kopurua.

E1.1 XEDEA: EDUKI TEKNOLOGIKO ETA JAKINTZA MAILA ALTUKO PUNTA PUNTA KO SEKTOREETAKO ENPLEGU TEKNIKOETAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEAN DAUDEN ALDEAK MURRIZTU, EMAKUMEEN PARTE HARTZEA AREAGOTUZ.

Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 11. eta 27. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 38. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Helburua, teknologikoki punta-puntako enpresak dituzten udalerrietan enplegatutako emakumeen kopurua handitzea da, bereziki eduki teknikoenak dituzten lanpostuetan edo erabakiak hartzeko gaitasun handiagoko lanpostuetan. Horrekin, gaur egun dagoen genero-aldea murriztu nahi da.

B.

JARDUERA ESTRATEGIAK

Bi estrategia gomendatzen dira: alde batetik euren prestakuntza-ibilbidean lanpostu hauetara heltzea ahalbidetuko dieten ikasketak aukeratzen sustatu emakumei, eta lanbide-prestakuntza nahiz enplegu-prestakuntzarako programak garatuz; eta beste alde batetik, enpresetan genero-estereotipoak ekidin eta lanpostu teknikoetan edo ardurakoetan emakumeak kontratatzea sustatu.

C.

LAN PROZESUAK

1.

EMAKUMEEI ZUZENDUTAKO LAN PROZESUA

Informazioa / Sentsibilizazioa

- **Eduki teknologiko altuko punta-puntako sektoreetarako enplegu teknikoak sortzera begira zeintzuk diren jarraitu beharreko prestakuntza-ibilbideak eta lan-esparruak jakinarazi ikastetxeetan.** Udalerrian gehien eskatzen diren jakintza-maila altuko enplegu teknikoak zeintzuk diren jakinarazteko txostenak edota hitzaldiak egin eta antolatu. Lanpostu horietara iristeko enpresek eskatzen dituzten curriculumak ezagutaraziko dira, bereziki emakumeei zuzenduta.

Prestakuntza

- **Lanbide-prestakuntzako eta enplegu-prestakuntzako programak garatu, emakumei zuzendutakoak, sektorean kontratatutak izan daitezzen.** Ekintza honen helburua lanbide-prestakuntzako eta enplegu-prestakuntzako programak garatzea da, emakumei zuzendutakoak, punta-puntako sektoreetan enpleguak eskura ditzaten.

2.

ENPRESEI ZUZENDUTAKO LAN PROZESUA

Jakintza

- **Sektoreen, mailaren eta prestakuntzaren arabera udaleko langabezia- eta okupazio-tasak ezagutu, adinaren eta sexuaren arabera banatuta.** Ekintza honen helburua, abiapuntuko egoerari buruzko informazioa eskuratzea da, landu behar diren sektoreak ezagutu (udalerrian bertan edo inguruetan) eta diskriminazioa jasaten duten lanpostuak zeintzuk diren jakiteko. Horrela, emakumeen enplegua sustatzeko ekintzak eta informaziorako edo sentsibilizaziorako ekintzak bereziki sektore eta lanpostu horietara begira garatzeko.

Informazioa / Sentsibilizazioa

- **Eduki teknologiko altuko sektorean enpresa-buruen artean emakumeen kontrataziorako praktika egokiei buruzko sentsibilizazio-jarduerak egin.** Erreferentziazko sektorean emakumeen kontratazioa oztopatzen duten estereotipoak ezabatzea da ekintza honen helburua. Horretarako, emakumeak kontratatzeak enpresarentzat dituen interesak ezagutaraziko dira, curriculumaren aldetik eta emakumeen produktibitatearen aldetik. Emakumeak kontratatzeko pizgarriak zeintzuk diren ere jakinaraziko zaie. Bete beharreko lan-profiletara egokitzen diren emakumeak non topatu edo udalerriko zein enpresetan eskatua ahal izango dituzten ere jakinaraziko zaie. Zehazki, giza baliabideen sailetan zabalduko diren txostenak diseinatuko dira.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Eduki teknologiko altuko sektoreetan emakumeen kontratazioa sustatzeko diru-laguntzen ildoa garatu.** Ekintza honen helburua, emakumeek agerpen gutxien duten sektore eta postuetan (lanpostu teknikoak eta ardurakoak, adibidez) enpresak emakumeak kontratatzeagatik diru-laguntzak jasotzeko programa bat gauzatzea da.

- **Enpresei bideratutako neurrien baliagarritasuna zehazteko jarraipena egin.** Enpresei zuzendutako ekintzen jarraipena egingo da, eraginkortasunik eza edo okerreko erabilerak ekiditeko. Horretarako, sektoreko emakumeen bilakaera aztertu daiteke, adierazle moduan datu kuantitatiboak nahiz kualitatiboak hartuta. Modu horretan, zein datu aldatu diren eta aldaketen arrazoiak ezagutuko ditugu.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Sektore teknologikoetako gizonen okupazio-tasaren eta emakumeen okupazio-tasaren bilakaera, sektoreka eta maila profesionalaren arabera banatuta.
- Okupazio-tasetako desberdintasun kuantitatiboaren bilakaera, sektorearen eta mailaren arabera.

E1.2 XEDEA: SEKTORE INDUSTRIAL TRADIZIONALETAN OSAGAI TEKNIKOKO ENPLEGUETAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO DESBERDINTASUN Kuantitatiboa MURRIZTU, EMAKUMEEN PARTE HARTZEA AREAGOTUZ.

Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonen Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 11. eta 27. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 38. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Esku-hartzea generoaren aldetik gaur egun existitzen den aldea murriztean oinarritzen da, sektore industrial tradizionalako lanpostu teknikoei dagokienean, eta ongi ordaindutako lanpostu horietan lan egiten duten emakumeen kopurua areagotu nahi da.

B.

ESTRATEGIA

Bi estrategia gomendatzen dira: alde batetik euren prestakuntza-ibilbidean lanpostu hauek hartzeko ahalbidetuko dieten ikasketak aukeratzen sustatu emakumeei, eta lanbide-prestakuntza nahiz enplegu-prestakuntzarako programak garatuz; eta beste alde batetik, enpresetan genero-estereotipoak ekidin eta ongi ordaindutako lanpostuetan emakumeak kontratatzea sustatu.

1.

EMAKUMEEI ZUENDUTAKO LAN PROZEDURA

Prestakuntza

- **Lanbide-prestakuntzako eta enplegu-prestakuntzako programak garatu, emakumeei zuzendutakoak, sektore industrialean kontratatutak izan daitezzen.** Ekintza honen helburua lanbide-prestakuntzako eta enplegu-prestakuntzako programak garatzea da, emakumeei zuzendutakoak, sektore industrial tradizionaletan enpleguak eskura ditzaten.

2.

ENPRESEI ZUENDUTAKO LAN PROZEDURA

Jakintza

- **Sektore industrialean mailaren eta prestakuntzaren arabera udaleko langabezia-eta okupazio-tasak ezagutu, adinaren eta sexuaren arabera banatuta.** Ekintza honen helburua, abiapuntuko egoerari buruzko informazioa eskuratzea da, landu behar diren sektoreak ezagutu (enplegu-eskaintza handiagoa eta okerrago ordainduta dauden horiek) eta diskriminazioa jasaten duten ongi ordaindutako lanpostuak zeintzuk diren jakiteko. Horrela, emakumeen enplegua sustatzeko ekintzak eta informaziorako edo sentsibilizaziorako ekintzak bereziki sektore eta lanpostu horietara begira garatzeko.

Informazioa / Sentsibilizazioa

- **Sektore industrial tradizionalen enpresa-buruen artean emakumeen kontratazioarako praktika egokiei buruzko sentsibilizazio-jarduerak egin.** Erreferentziazko sektorean emakumeen kontratazioa oztopatzen duten estereotipoak ezabatzea da ekintza honen helburua. Horretarako, emakumeak kontratatzeak enpresarentzat dituen interesak ezagutaraziko dira, curriculumaren aldetik eta emakumeen produktibitatearen aldetik. Emakumeak kontratatzeako eta azpiegiturak egokitzeko pizgarriak zeintzuk diren ere jakinaraziko zaie. Bete beharreko lan-profiletara egokitzen diren emakumeak non topatu edo udalerriko zein enpresetan eskatua ahal izango dituzten ere jakinaraziko zaie. Zehazki, giza baliabideen sailetan zabalduko diren txostenak diseinatu dira.

- **Sektore industrialetan emakumeen kontratazioa sustatzeko diru-laguntzen ildoa garatu.** Ekintza honen helburua, emakumeek agerpen gutxien duten sektore eta postuetan enpresak emakumeak kontratatzeagatik diru-laguntzak jasotzeko programa bat gauzatzea da, enpresako azpiegiturak emakumeen agerpenera egokitzea erraztuz (adibidez, duxak eta aldagelak instalatuz).

Jarraipena

- **Enpresei bideratutako neurrien baliagarritasuna zehazteko jarraipena egin.** Enpresei zuzendutako ekintzen jarraipena egingo da, eraginkortasunik eza edo okerreko erabilerak ekiditeko. Horretarako, sektoreko emakumeen bilakaera aztertu daiteke, adierazle moduan datu kuantitatiboak nahiz kualitatiboak hartuta. Modu horretan, zein datu aldatu diren ala ez, eta prozesuaren arrakastaren edo porrotaren arrazoiak zeintzuk diren ezagutuko ditugu.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Sektore industrialetako gizonen okupazio-tasaren eta emakumeen okupazio-tasaren bilakaera, sektoreka eta maila profesionalaren arabera banatuta.
- Okupazio-tasetako desberdintasun kuantitatiboaren bilakaera, sektorearen eta mailaren arabera.

E1.3 XEDEA: ENPRESA EKIMENEN ERAKETAN ETA FINKAPENEAN AGERI DEN DESBERDINTASUN KUANTITATIBOA MURRIZTU, EMAKUMEEK AGERPEN GUTXIEN DUTEN SEKTORE ETA POSTUETAN BEREZIKI SUSTATZAILEEN PARTE HARTZEA AREAGOTUZ

Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 11. eta 27. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 38. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Esku-hartzearen helburua, emakumeen enpresa-ekimenak eta autoenplegu-ekimenak areagotzea da, bereziki emakumeek agerpen gutxien duten sektore eta postuetan, horien finkapena gerta dadin lagunduz eta desagertzea ekidinez.

Emakumeen enpresa-ekimenak zuzenean laguntzean oinarritzen da estrategia, Udalak eskaini ahal dituen edo eskaintzeko gai den informazio, prestakuntza eta baliabideak eskainiz, udalerrri bakoitzaren ezaugarriak eta beharrak kontuan hartuta.

Informazioa / Sentsibilizazioa

- **Enpresa-ekimenak gauzatzeko dauden laguntzak eta baliabideak jakinarazi emakumeei.** Udalek euren eskura jartzen dituzten baliabideak zeintzuk diren jakinaraziko zaie emakumeei. Horretarako, enplegu-arloan bertan, enplegu-zerbitzuetan edota Udaleko informazio orokorrerako bulegoetan informaziorako eta laguntzarako zerbitzu bat abian jarri daiteke, edota egin beharreko bideratzeen eta eskura dauden baliabideen informazioa jasotzen duten txostenak argitara daitezke.

Prestakuntza

- **Emakume ekintzaileentzat prestakuntza-ikastaroak antolatu.** Emakumeen enpresa-sustapenak erraztu eta bultzatuko dituzten prestakuntza-programak gauzatuko dira, udalerrriko ezaugarrietara egokituko diren prestakuntza-moduluen bidez. Hiri-esparruetan negozioa eratzeke eman behar diren urratsak, zeharkako gaitasunak eta berrikuntzakoak nola eskuratu, eta lankidetzat sustatzeko edo enpresa-sareen lana sustatzeko jarraibideak zeintzuk diren jakinaraziko dira. Landa-esparruko emakumeentzat, berriz, goian aipatutakoez gain kooperatibismoak hartzen dituen enpresa-teknikak eta teknika komertzialak zeintzuk diren, ekoizpen-teknika berriak edota ingurune honi lotutako bestelako jarduera ekonomikoak zeintzuk diren: turismoa, ekoizpen ekologikoa, eskulangintza, etab. Programa horietan guztietan jarduera ekintzaileak dituen faktore psikosozialen eraginari buruzko hausnarketa egiteko moduluak txertatuko dira, bereziki generoaren gaia lantzeko.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Emakumeek agerpen gutxien duten sektore eta lanbideetan emakumeek ETEak aurrea ateratu dituzten sustatzeko pizgarriak ezarri.** Ekintza honen helburua, autoenplegurako jarduerak abian jartzen dituzten emakumeei baliabideak sortzeko (eta sortuta

daudenean: eguneratzeko eta mantentzeko) ekintzak garatzea da. Horretarako, negozio berrien bideragarritasun-plana garatzeko aholkularitza teknikoak eskainiko da, eraturako negozioetarako legeak edo administrazioak sortutako zalantzak argitzeko. Emakumeek garatuta enpresa-sustapen berrientzat baliabide ekonomikoak eskainiko dira eratze-gastuetarako, funtzionamenduaren ohiko gastuetarako, etab., emakumeek agerpen gutxien duten sektoreetan.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Autonomoen taldean emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun kuantitatiboa, jardueraren arabera.
- Enpresa-sustapen berrietan emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun kuantitatiboa, jardueraren arabera.
- Gizarte Ekonomiako enpresen sorreran emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun kuantitatiboa.
- Enpresa-sustapenen eta Gizarte Ekonomiako enpresen porrotaren tasa, sustatzailearen sexuaren eta jardueraren arabera.
- Laneko sozietate anonimoetan bazkide diren emakumeen kopurua.
- Laneko sozietate anonimoetan langile diren emakumeen kopurua.
- Laneko sozietate anonimoetan kapitalista diren emakumeen kopurua.

E2.1 XEDEA: HERRI ADMINISTRAZIOETAN ETA SEKTORE PRIBATUKO ENPRESETAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN LAN BALDINTZAK PAREKATU, BIZTANLE PROPORTZIO HANDIENKO JARDUERA ADARREI LEHENTASUNA EMANEZ.

Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 11. eta 27. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 38. eta 42. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Esku-hartzearen helburua, udalerriko enpresetan nahiz Udaleko langileen artean (eta Udalarentzat lan egiten duten enpresetan) emakumeen lan-baldintzak gizonezkoek duten berbera izatea da, soldataren edota ordutegien diskriminazioak (zuzenekoak) nahiz zeharkako diskriminazioak (lan-baldintzei dagozkienak) murriztuz.

Esku-hartzeko bi esparrutan banatzen da estrategia. Lehenengoa esparru publikora zuzendutakoa da, eta Udaletan lan-bateratzearen arloan eta berdintasunean planak gauzatuko dira. Berauetan, emakumeen eta gizonen lan-baldintzak parekatzeko neurriak bilduko dira, baita laneko, etxeko eta norberaren eginkizunak onez bateratzera neurriak ere. Esparru pribatuan, informaziorako eta sentsibilizaziorako jardueren bidez enpresetan berdintasunerako planak egin eta ezartzea sustatuko da. Sektore pribatuko enpresei zuzenduta badoa ere, bestelako eragileei ere zuzenduko zaie: sindikatuak, etab.

Jakintza

- **Udaleko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko diagnostikoa egin.** Udalean dauden desberdintasunak zeintzuk diren ezagutzea da helburua. Horretarako, barne-hautaketarako eta promoziorako prozesuak, Udaleko LPZetako izendapenak, funtzioak eta balioespenak, Zerbitzuen Batzordean lanpostuak esleitzeko balioesten diren meritua edota irizpideak, maila profesionalak, emakumeek eta gizonen sailetan duten banaketa, eskalako banaketa, etab. genero-ikuspegian oinarrituta aztertuko dira, horietan guztietan gizonen alde egiten den ala ez zehazteko. Neurri hauek garatzeko, administrazioan gertatzen diren ohiko diskriminazio motak eta esparruak zeintzuk diren zehaztu daitezke udalen artean. Honekin, diagnostikoak egin nahi dituzten Udalentzat gida bat osatuko da.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Udaleko edo diru publikoan parte-hartze handia duten enpresetako enplegu publikoan berdintasun-planak sortu eta ezarri.** Diagnostikoen emaitzen arabera, Udalerako eta enpresa parte-hartzaileetarako plana egin. Berdintasun-planen jardueraren esparruan hauek hartzea komenigarria litzateke: sailkapen profesionalaren berrikuspenera, lanpostuen eta horiei dagokien soldataren balioespena (emakumeek hartu ohi dituzten lanpostuen debaluazioa ekiditeko eta balio bereko lanaren ordainsarrietan desberdintasunak ezeztatzeko) eta funtzioengatikoa plus osagarrietan oinarritutako zeharkako diskriminazioa murriztea.

- **Administrazio publikoek eta mendeko enpresek euren negozioazio kolektiboetan berdintasuna bermatzeko neurriak, lan-bateratzea bermatzeko neurriak, etab. txertatzen dituztela ziurtatu.** Baldintzak parekatzeko neurriak nahitaezko dokumentu batean (lan-hitzarmenean, adibidez) jasotzea da helburua. Horretarako, plan bat egin denean negozioazio kolektiboan txertatu beharreko neurriak zeintzuk diren zehaztea proposatzen da. Edo, plana egitea ezinezkoa izan denean edo komenigarritzat jo ez denean, antzemandako desberdintasun nagusiei aurre egiteko gaitasun handien duten neurriak txertatuko dira.

2.

LAN PROZESUA ENPRESA PRIBATUEKIN

Informazioa / Sentsibilizazioa

- **Enpresei 4/2005 Legeak eta 3/2007 Lege Organikoak ezarritako arauak jakinarazi eta existitzen diren deribazio-kanalak ezagutarazi.** Ekintzaren helburua, sektore pribatuko enpresei aukera-berdintasunerako prozesuak garatu behar izateari buruz legeek diotena jakinaraztea da. Modu berean, legeetatik ondorioztatzen den moduan, prozesu horiek garatzeko finantziazioa eta aholkularitza jasotzeko aukera dutela ere jakinaraziko zaie.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Berdintasun-politikak txertatzearen inguruan garatutako esperientziekin lotutako materialak bildu eta enpresen edo bestelako eragileen (sindikatuak, etab.) artean banatu edo eskaini.** Ekintza honen helburua, negozioazio kolektiboan eta bestelako alderdietan berdintasun-politikak txertatzearen alorrean garatutako esperientziei eta praktika egokiei buruzko materialak enpresei eta bestelako eragileei helaraztea da.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Sektore pribatuan nahiz publikoan emakumeen eta gizonen kontratazio mugagabeen dagoen desberdintasun kuantitatiboa, jarduera-sektorearen arabera.
- Sektore pribatuan nahiz publikoan lanean dauden emakumeen eta gizonen txandatzetasan dagoen desberdintasun kuantitatiboa.

- Soldaten artean dauden desberdintasunak jarduera-sektoreen eta maila profesionalen arabera (sektore pribatua nahiz publikoa).
- Enplegatutako pertsona-kopurua lan-jardunaldi motaren eta sexuaren arabera (sektore pribatua).

E2.2 XEDEA: SEKTORE PUBLIKOKO NAHIZ PRIBATUKO ERANTZUKIZUNEKO POSTUETAN EMAKUMEEN AGERPENA AREAGOTU.

Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 11. eta 27. artikulua.

A. _____ ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Esku-hartzearen helburua, oztopoak ezabatu eta sektore publiko nahiz pribatuko erakundeetan emakumeen barne-promozioa sustatuko duten prozesuak sortzea da.

B. _____ ESTRATEGIA

Esparru publikoan erantzukizuneko postuetako lan-baldintzak lan-bateratzearen beharretara egokitzean datza estrategiak. Modu horretan, erantzukizuneko postua eskuratzek ez du bizimodu familiarrari uko egin beharra ekartzen berarekin. Esparru pribatuan, udalerriko lan-sektore nagusietan erantzukizuneko postuetan dauden emakumeen agerpena aztertzean oinarritzen da estrategia, horrela, sentsibilizazioan eta informazioan egin beharreko lanak oinarri bat izango baitu.

C. _____ LAN PROZESUAK

1. _____ LAN PROZESUA UDALEKIN

Prestakuntza

- **Barne-prestakuntza lan-ordutegiaren barruan eman edota lan-bateratzea erraztuko duten zerbitzu edo neurriak ezarri.** Honekin pertsona guztiak parte hartu ahal izango dute barne-prestakuntzan, bereziki lan-jardunaldia murriztu dutenak. Hala, eskain-

tza osoaren artean aukeratu ahal izango dute, bereziki euren promozioa edota lan-baldintzak hobetzera bideratutakoak.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Erantzukizuneko postuetako lanorduek lan-jardunaldikoetara egokitu edota lan-bateratzea erraztuko duten zerbitzu edo neurriak eskaini.** Erantzukizuneko postuek lan-bateratzea zailduko duten ordutegiak ezartzea ekidin nahi da. Antolaketa-kulturan aldaketak sartzeko tresnen bitartez egin daiteke hori, adibidez, lan-ordutegitik kanpo lan egin behar duten pertsonen mendekoen zaintza-zerbitzua sortu, eta zerbitzu horri buruzko informazioa ematen duen eta lan-orduetatik kanpo ahal dela lanik ez egitea eskatzen duen alkateak sinatutako zirkularra bidali.

Araudia

- **Udaleko, epaimahaietako eta abarreko lehiaketa edota oposaketetako aukeraketa-epaimahaian gizonen eta emakumeen parte-hartzea orekatu edo orekatzea sustatu.** Horretarako, barne-komisioetan edo langile-batzordeetan bezalako barne-erakundeetan ordezkaritza-kuotak ezarri daitezke, %40 - %60 berdintasun-irizpidea betetzeko.
- **Etengabeko prestakuntzan zuzendaritzako eta buruzagitzako postuei buruzko alderdietan emakumeentzako erreserba-kuota bat ezarri.** Ekintza honen helburua, zuzendaritza eta buruzagitza-postuetarako gaitzearekin lotuta doazen prestakuntzetan emakumeen etengabeko prestakuntza bermatu eta sustatzea da (erreserba-kuotaren bidez).

2.

LAN PROZESUA ENPRESA PRIBATUEKIN

Jakintza

- **Udalerriko enplegu-sektore ezberdinetako erantzukizuneko postuetan gizonetzkoen eta emakumezkoen parte-hartzean dauden aldeak aztertu.** Emakumeen agerpena zenbatekoa den aztertuko da, eta horretan eragiten duten faktoreak aztertuko dira, hala nola, etengabeko prestakuntza-programak, lan-ordutegiak eta baldintzak, horiek esparruotan duten eragina, eta desberdintasunen zergatiak. Azterketaren helburua, beraz, abiapuntuko egoera aldatuko duten jarduerak proposatzea da.

- **Enpresa eta sindikatuei erantzukizuneko postuetan emakumeen parte-hartzeak duen aldearen inguruan sentsibilizatu.** Udalerriko emakumeen egoera ezagutaraziko da, ikerketaren emaitzak plazaratuta. Horretarako, adibidez, emaitza horiei buruzko eztabaidak antolatuko dira, egoera adieraziko duten txostenak argitaratuko dira, eta zenbait enpresa-esparrutan egoera hori aldatzeak ekarriko lituzkeen onurak jakinaraziko dira.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Tokiko administrazioan erantzukizuneko postuetan gizonezkoen okupazioa.
- Tokiko administrazioan erantzukizuneko postuetan emakumezkoen okupazioa.
- Tokiko administrazioan erantzukizuneko postuetako tasen desberdintasun kuantitatiboa.
- Udalaren menpeko enpresa eta erakunde autonomo publikoetako zuzendaritzak.
- Sektore pribatuko erantzukizuneko postuetan gizonen eta emakumeen okupazio-tasak, tokiko esparruko jarduera-adarren arabera.
- Sektore pribatuko erantzukizuneko postuetan gizonen eta emakumeen okupazio-tasen desberdintasun kuantitatiboa, tokiko esparruko jarduera-adarren arabera.

C1.1 XEDEA: ETXKO ETA ZAINZA LANEI GIZONEK ETA EMAKUMEEK ESKAINITAKO DENBORAN DAGOEN DESBERDINTASUN Kuantitatiboa MURRIZTU. Europako Gutuna

Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 11. eta 27. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 35. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Etxeko esparruan erantzukidetasun handiagoa lortu nahi da, emakumeek nahiz gizonek esparru horretako lanei eskainitako denbora parekatua izan dadin. Horrela, etxeko eta zaintza-lanak egiteari denbora gehiago eskainiz bizimodu familiarrari denbora gehiago eskainiko baitiote gizonek, emakumeek euren bizimoduari edota lanbideari denbora gehiago eskaini diezaioten.

Erantzukidetasunak duen garrantzia azaleratzeko udalen arteko mugimendua sortuko da, komunikabideetan oihartzuna izango duena, udalerri bakoitzean denboren erabilera banatu beharraren inguruan sentsibilizazio-politikak garatzea sustatzeko.

Informazioa / Sentsibilizazioa

- **Erantzukidetasun-lehiaketa bat sortu udalerrien artean.** EAE mailan burutu beharko litzateke ekintza hau, eta Udalen esparruan erantzukidetasuna sustatzeko neurriak ezartzea sustatzeko helburua izango luke. Horretarako, urteroko lehiaketa bat antolatu beharko litzateke, komunikabideetan oihartzuna izateko. Lehiaketa horren bidez emakumeen eta gizonen arteko erabilera-denboraren arteko aldea txikiena duen edo gehien murriztu den euskal udalerria sarituko litzateke.
- **Erantzukidetasunean urratsak ematea beharrezkoa dela publikoki eztabaidatzea sustatuko duten sentsibilizazio-kanpainak abian jarri.** Udalean emakumeen eta gizonen arteko erantzukidetasunaren alde egingo duen kanpaina sortuko da: kaleko jarduerak, txostenak, hitzaldiak, eztabaida-taldeak edota ikastaroak. Aukeretako bat, adibidez, "erantzukidetasunaren astea" sortzea da. Bertan, gorago aipatu ditugun neurriez gain erantzukidetasunaren esparruan eragitera bideratutako ideia edo kanpaina berritzaileak saritzeko lehiaketak antola daitezke.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Denbora-bankuak sortu.** Pertsona bakoitzak egiten dakien jarduerari eskainitako denbora egiten ez dakien eta ikasi behar duen jarduerari eskainitakoagatik aldatzeko zerbitzua litzateke. Horrekin, behar bat asetzeaz gain lehendik ez zuen gaitasun bat eskuratu du.

Araudia

- **Amatasunarengatik/aitatasunarengatik edo mendeko pertsona zaintzeagatik baimenak eskuratzen dituzten pertsonak berriz euren lanetara itzultzea bermatu,** euren bilakaera profesionalean kaltetuak izan ez daitezen.

- Etxeko lanei eskainitako denbora sexuaren arabera, burututako ekintzaren arabera eta jarduerarekin duen loturaren arabera.
- Etxeko lanei gizonak eta emakumeek eskainitako denboran dagoen desberdintasun kuantitatiboa, jarduerarekin duen loturaren arabera.
- Mendeko pertsonak zaintzeari eskainitako denbora sexuaren arabera, burututako ekintzaren arabera eta jarduerarekin duen loturaren arabera.
- Mendeko pertsonen zaintzari gizonak eta emakumeek eskainitako denboran dagoen desberdintasun kuantitatiboa, jarduerarekin duen loturaren arabera.

C1.2 XEDEA: LANEKO, ETXKO ETA NORBERAREN EGINKIZUNAK ONEZ BATERATZE POSIBLE EGINGO DUTEN BALDINTZAK SORTU.

Ezropako Gutuna Emakumeek eta Gizonen Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 11. eta 27. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 35. artikulua.

Esku-hartzearen bitartez udalerriko biztanleen laneiko, etxeko eta norberaren eginkizunak onez bateratzea ahalbidetuko duten baliabideak eta tresnak garatuko dira. Helburu nagusia erantzukidetasuna sustatzea bada ere, koherentziaren aldetik berdintasun-politiken bitartez lan-bateratzea gizonak eta emakumeek modu parekatuan erabiltzea bilatu behar da.

Bi estrategia osagarri proposatzen dira helburuak lantzeko. Lehenengoa administrazioari zuzendutakoa da, eta beharren diagnostikoan oinarrituta lan-bateratzeko zerbitzuak areagotuko dira; bigarrena enpresei zuzendutakoa da, eta enpresetako lan-bateratze planak sortzeko (aholkularitza-zerbitzuak eta baliabide ekonomikoak sortuz) sustapenean oinarrituta dago.

1.

LAN PROZESUA UDALEKIN

Jakintza

- **Zerbitzu publiko nahiz pribatuak lan-bateratzearen beharretara egokitzen diren mailaren azterketa egin.** Helburua, lan-bateratzeko zerbitzuak udalerriko herritarren beharretara egokitzen diren ala ez jakitea da. Horretarako, eskainitako zerbitzuen kopurua eta tipologia, zerbitzuon eskarrietara behar bezala egokিতa dauden aztertu beharko da, eta eskaintzen diren denborak eta ordutegiak kontuan hartu beharko dira, zerbitzuen eskaintzen (publiko nahiz pribatuak) artean desorekak dauden antzemateko eta herritarren beharrak eta errealitateak zeintzuk diren jakiteko.

Informazioa / Sentsibilizazioa

- **Udaleko langileei zuzendutako lan-bateratzeko neurriei eta lan-bateratzeko eskubi-deei buruzko sentsibilizazio-ekintzak eta kanpainak burutu.** Lan-bateratzeko neurrien onurak eta garrantzia ezagutarazi nahi da, eta ez soilik laneko, etxeko eta norberaren eginkizunak onez bateratzeko, baita erantzukidetasuna areagotzeko ere. Modu berean, kanpainen helburua amatasunagatik/aitatasunagatik baimenak eskuratu dituzten pertsonak ordezkatzeta bermatzeta da, lan-bateratzeko baliabideak eskuratzekoan agertzen diren oztopoak antzematea, etab.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Laneko, etxeko eta norberaren eginkizunak onez bateratzeko neurri edota zerbitzu malguak (eskolatze-aldiaren iraupenari lotu gabe) garatu.** Neurri hauei esker, adibidez pertsonen zainketa puntualak ahalbidetuko dira (adib.: zerbitzu-txekeak, bonoak, zaintza-zerbitzuak...), emakumeek enplegurako prestakuntza-ekintzetan eta zerbitzuetan parte har dezaten. Zentzu honetako beste neurri bat arrazoi familiarrengatik eskainitako baimenak dira, amatasuna/aitatasunagatikoak esaterako, eta indarrean dagoen legeriak biltzen ez dituen bestelako aukerarako (adopzioa bideratzeta, senitartekoan iraupen luzeko eritasunak...) ordaindu gabeko baimenak eskatu ahal izango dira. Edozein kasutan ere, ordutegien malgutasuna eta lan-orduen nahiz postuaren berrordenatzeko aukerak aztertzea komeni da, lan-bateratzeta erraztuko duten joerak txertatuz (urrutiko lana, lanak helburuen arabera ordenatzeta...) eta horiek gauzatze-

ko eta informazioa hedatzeko orduan kontuan hartu beharko da gizonek nahiz emakumeek neurri berean erabiltzera bideratu behar dela.

Araudia

- **Laneko batzarrak edo pertsona askoren parte-hartzea eskatzen duten bestelako jarduerak garatzeko ordutegia zehaztu.** Horrelako jarduerak ordutegi edo egun zehatz batzutan ez egitea finkatu nahi da, Laneko, etxeko eta norberaren eginkizunak onez bateratzea ez oztopatzeko.

2.

LAN PROZESUA ENPRESA PRIBATUEKIN

Informazioa / Sentsibilizazioa

- **Lan-bateratzeko neurriak edota zerbitzuak abian jartzeko asmoa duten enpresa pribatuei informaziorako eta aholkularitzarako zerbitzua sortu.** Eskura dituzten laguntzak, eman beharreko urratsak, gutxi gorabeherako kostua eta lan-bateratzeko planak egiten laguntza eskainiko dieten enpresa eta erakundeak zeintzuk diren jakinaraziko zaie, edo, lana hau euren kontura egin nahi izatekotan, kontuan hartu beharreko puntu garrantzizkoenak eta oinarritzko material bibliografikoa. Berariazko zerbitzu bat sortu daiteke, edo enpresei zuzendutako bestelako informazio-zerbitzuetan neurri hau txertatu daiteke.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Laneko zentro pribatuetan lan-bateratzea eta erantzukidetasunaren alde egiteko baliabideak eman.** Ordutegien malgutasuna eta lanorduen berrantolaketakarako neurriak abian jartzea sustatu, lan-bateratzeko neurri edo planak lagunduz edo Erantzukizun Sozial Korporatiborako programak garatzeko laguntza emanek, horietan guztietan enpresako lan-bateratze politikak txertatzen badira.
- **Eskaintza, lehiaketa eta kontzesioen esleipen-irizpideetan enpresa eskaintzaileko lan-bateratzeko neurriak txertatu.** Eskaintzetako, lehiaketetako eta kontzesioetako baldintza-pleguetan lan-bateratzeko printzipioak eskatzeko klausulak txertatuko dira.

- Administrazio publikoan ezarritako malgutasun-neurrien eta zerbitzuen tipologia.
- Laneko, etxeko eta norberaren eginkizunak onez bateratzea laguntzeko zerbitzuak ezarri dituzten enpresa pribatuen kopurua, enpresaren neurriaren, jarduera-sektorearen eta zerbitzu-motaren arabera.
- Laneko denborak eta espazioak lan-bateratzera egokitzeko neurriak hartu dituzten enpresa pribatuen kopurua, enpresaren neurriaren, jarduera-sektorearen eta zerbitzu-motaren arabera.
- Laneko denborak eta espazioak lan-bateratzera egokitzeko neurriak hartu dituzten enpresen ehunekoa, enpresaren neurriaren, jarduera-sektorearen eta zerbitzu-motaren arabera.

VI.1 XEDEA: ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN ETA SEKTORE PRIBATUKO ENPRESETAN SEXU JAZARPENEN AURREAN ERANTZUN EGOKIA EMATEKO ETA PREBENTZIORAKO PROTOKOLOAK EZARRI.

Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 11. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 43. artikulua.

Esku-hartzearen helburua, administrazio publikoan nahiz enpresa pribatuan sexu-jazarpenak ekiditeko prebentzioa da, eta jazarpena gertatuz gero, biktimei behar bezalako arreta eskaintzea lortzea.

Bi estrategia ditugu. Udalei zuzendutakoa Udalhitz-eko Laneko Jazarpena eta Genero Indarkeria atalean zehaztutako jarraibideen arabera jarduteko protokoloak egitean oinarritzen da. Protokolo hori Udalen artean hedatuko da. Enpresei zuzendutakoa, berriz, udalerriko enpresen artean informazioa zabaltzeko lanetan oinarritzen da.

1.

LAN PROZESUA UDALEKIN

Informazioa / Sentsibilizazioa

- **Udalhitz-en (Euskadiko tokiko erakundeetarako lan-harremanen esparru-protokoloa) Laneko Jazarpena eta Genero Indarkeria atalean bildutako edukiak eta indarrean dagoen legerian bildutako neurriak hedatu.** Udalerrien arteko esparruan Udalhitz-ek ezarritako jarraibideak ezagutarazteko jarduera antolatu daiteke, bertan sexu-jazarpenari buruzko praktika egokiak eta esku-hartzeko protokoloak ezartzeko proposamen berriak, eraginkorrak eta eragileak aurkeztu daitezke. Adituen eta lantaldeen arteko jardunaldiak antolatu daitezke horretarako.
- **Udalan gertatzen diren laneko sexu-jazarpenari buruzko informaziorako eta sentsibilizaziorako kanpainak egin.** Ekintza honen helburua, prebentzioaren aldeko lana egitea da: komeri da sexu-jazarpena gertatu dela onartzea sustatzea eta egoera horiek salatzeak aukerak eta komenigarritasuna agerian uztea. Zentzu honetan, Udalan bertan derrigorrezko jardunaldiak garatu daitezke, Udalak egin dituen protokolo eta neurriak jakinarazteko, eta txostenak ere argitaratu daitezke edota edukiok banatzeko posta elektronikoa erabili.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Sexu-jazarpenaren prebentziorako eta jazarpenaren aurrean ekiteko protokoloak sortu.** Ekintza honen helburua, Udaleko sexu-jazarpenaren prebentziorako eta tratamenduan parte hartzen duten eragileei laguntza emateko prozesuak ezartzea da. Udalhitz-ek eskainitako jarraibideetan oinarritutakoak izango dira, eta sexu-jazarpeneko egoerak aztertu, salatu eta ebazteko koordinazio-mekanismoak eta tresnak garatuko dira. Mekanismo horiek aplikatzean kontuan hartu beharko da sexu-jazarpenaren egoerari aurre egiteko neurriek biktimen lan-egoeraren baldintzak ez okerragotzeko egokitu behar dutela.

Informazioa / Sentsibilizazioa

- **Enpresa pribatuetan gertatzen diren laneko sexu-jazarpenari buruzko informazio-rako eta sentsibilizaziorako kanpainak egin.** Enpresen, sindikatuen eta langileen artean sexu-jazarpenaren arloan indarrean dagoen legeria (nazioartekoa, Europakoa, Estatukoa eta EAEkoa) ezagutaraztea da helburua, sexu-jazarpena gertatu deneko egoerak aintzatesteko, egoera horiek salatzeko aukerak eta komenigarritasuna, eta sexu-jazarpenen prebentziorako eta jazarpenaren aurrean jarduteko protokoloak garatzeak duen garrantzia nabarmentzea.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Sektore pribatuko enpresetan sexu jazarpenen aurrean erantzun egokia emateko eta prebentziorako protokoloak sustatu.** Esku-hartzeko protokoloak sortzen dituzten enpresen kopurua handitzea da helburua, eta horretarako sariak, aintzatespenak edo diru-laguntzak eskainiko dira. Diru-laguntzak emateko aukerari jarraituz gero, enpresa hauetan sexu-jazarpenaren prebentziorako eta erantzun egokia emateko protokoloak egiteko laguntza ekonomikoak eta aholkularitza eskaintzeko jarduerak gauzatu daitezke.

D.**HELBURUARI LOTUTAKO
EMAITZA-ADIERAZLEAK**

- Sektore publikoan gauzatutako esku-hartzeen kopurua eta aplikatutako zigorraren proportzioa.
- Sexu-jazarpenen salaketen hazkundera aurreko urtearekin alderatuta.
- Sektore pribatuan sexu-jazarpenaren prebentziorako eta aurre egiteko protokoloak ezarri dituzten enpresen kopurua.
- Sexu-jazarpena falta oso larritzat tipifikatzen dituzten lan-hitzarmenen ehunekoa.

2.5

GIZARTERATZEA

2.5.1

GIZARTERATZEAREN ARLOKO PLANTEAMENDUARI BURUZKO SARRERA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak hauxe dio 45. artikuluan, gizarteratzeari dagokionez: *“Euskal herri-administrazioek beharrezko neurriak hartuko dituzte pobrezia eta gizarte-bazterkeriak emakumeengan eragin handiagoa izatearen ondorioei aurre egiteko. Horretarako, alde batetik, genero-ikuspegia txertatuko da pertsona guztiek oinarritzko giza eskubideak erabili ahal izango dituztela bermatzea helburu duten sektore-programetan, eta bestetik, bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeen kolektiboari zuzendutako programa zehatzak diseinatuko dituzte”.*

Udalek herritar guztien gizarteratzearen aldeko lana (oinarritzko eskubideak eskuratzea bermatuta) egin izan dute eta egiten jarraitzen dute, oinarritzko gizarte zerbitzuak garatuz eta kudeatuz. Horregatik, genero-ikuspegia txertatzeko lanetan ere Udalak parte hartzea funtsezkotzat jotzen da, emakumeen eta gizonezkoen arteko egiturazko desberdintasunak tokian bertan duen eraginak murrizteko funtsezkoa da, bereziki emakumeen bazterketa gertatzeko arriskua dagoenean. Gainera, legeak aditzera ematen duen moduan, gizarte ongizatearen aldeko berdintasun-politikak garatzean kontuan hartu behar da bazterketa, babesik eza eta mendekotasunerako arriskuak areagotzen direla emakumea izateaz gain diskriminazioa jasateko faktoreak ere gehitzen direnean.

MAINSTREAMINGA

Goiko paragrafoan bildu den moduan, herritarren oinarritzko eskubideak bermatu behar dituzte Udaletako sektore-politikek eta gizon eta emakumeen arteko desberdintasunen ondorioz emakumeek bazterketa jasateko arrisku handiagoa dutela kontuan hartu behar da. Arrisku horri aurre egin beharko zaio eta Udalak diseinatu eta ezartzen dituen politiken bitartez berariazko behar horiek kontuan hartu beharko dira.

Zentzu honetan, gizarteratzeko politikekin lotutako lanen prozesuak gainbegiratu beharko dira, eta sektoreko emakumeek dituzten beharrak eta eskaerak ezagutzeko tresnak txertatu beharko dira. Gainera, dokumentu honetako 27 or. Zeharkakotasuna eta berdintasun-politikak izeneko atala EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planen xedatutakoetan oinarritzen da (Ardatz estrategikoak. Mainstreaminga): oro har, eta zeharkako moduan, Plan honetan aurreikusitako helburu eta jardun guztiak garatu, gauzatu eta ebaluatzeke garaian, kontuan izan beharko dira emakumezko eta gizonezko taldeen

espezifikotasunak, eta batik bat, askotariko diskriminazioa pairatzen duten emakumeenak, emakume minusbaliatuen taldea esaterako.

AHALDUNTZEA

Ahalduntzearen oinarrian *diskriminazio anitzak jasaten dituzten emakumeen taldeentzat berariazko programak garatu behar direla* dio Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak. Sei helburutan zehazten da eta gainera, gizarte-bazterketa jasateko arriskuan diren emakume-taldeen baldintzak eta kokapena hobetzeko ekintzak sustatuko dira: pobrezia-egoeran daudenean; drogamenpekotasunarekin arazoak dituztenean; prostituzioan ari direnean; etorkinak direnean; funtzionalitate dibertsoren bat dutenean edo hirugarren adinekoak direnean.

Diskriminazio anitzak jasaten dituzten emakumeen egoera eta kokapena hobetzeko, euren egoerak kapitalizatu beharko dira baliabide orokorrak erabilita, arreta eskainiko dieten pertsonak gaitu beharko dira eta eskainitako zerbitzuak aldizka egoera aldakorretara egokitu beharko dira. Hau da, beraz, ardatz honetako ikuspuntu orokorra: gizarte ekintzaren bitartez eta erkidegoko sustapenen bitartez gizarte zerbitzuetako lan-ildoak abian jarri, arrisku gehien duten emakume-taldee behar bezalako jarraipena egiteko.

Euren egoera eta kokapena hobetzeko, ahalduntzea sustatzeko lan egin beharko da behar praktikoena asetzeko (baliabide ekonomikoak eskuratzea, enplegua, prestakuntza, kultura, etxebizitza) eta generoaren araberako interes estrategikoak asetzeko: informazioa eskuratzea, baliabide soziopolitikoak, emakumeek orokorrean jasaten dituzten diskriminazio-egoerak aintzat hartzea eta euren egoera ikusaraztea.

Azpimarratu behar da honekin ez dela esan nahi emakume etorkinek, adinekoek, funtzionalitate dibertsoa dutenek eta abar soilik gizarteratzearen arloan egon behar dutela edo horiek guztiak babesgabetasun-egoeran edo gizartetik baztertzeko egoeran egoteko arriskuan daudenik. Talde hauetako emakumeen berariazko beharrak gainerako arloetan landuko dira, hala behar bada. Baina babesgabetasun-, mendekotasun-egoeran edo gizarte-bazterketarako egoeran dauden taldeak behar bezala antzematearekin ezin da ahaztu horietako gehienak pobrezia handiko eta urritasun-egoerako poltsetan daudela. Gizarte Ekintzaren eta Gizarte Zerbitzu publikoen arloei dagokie pertsona horien autonomia, arrisken aurrean babestea eta gizarteratzearen alde lan egitea. Beraz, talde horietako emakumeak arlo honetan sartzeak zentzu estrategikoa du, euren egoera-urritasunaren aintzatespena baita. Hala, zaurkortasun-egoeran dauden emakumeen arreta Gizarte Zerbitzuetan egin ahal izango da, eta egoera hori, gainera, larritasunaren adierazle diren

hainbat eragileren ondorio izan daiteke: emakume etorkinak izatea, funtzionalitate dibertsoa dutenak, adinekoak, etab.

BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUKIDETASUNA

Gizarteratzearen arloak lan-bateratzea eta erantzukidetasuna sustatzeko egindako lanak autonomoak ez diren pertsonen zaintzan diharduten pertsonen karga ekonomikoak, sozialak eta psikologikoak arintzean oinarritzen dira. izan ere, gauzatzen dituzten jarduera horiekin euren bizimodu pertsonala nahiz lanekoa murrizten baita.

Udalek, herritarrengandik hurbil dagoen administrazioa izanik, emakume hauei euren egoerari aurre egiteko laguntza eskaintzeko aukera dute eta karga horiek emakumeen eta gizonen artean partekatzeak duen garrantziaren inguruan herritarrak kontzientzia hartzeko jarduerak garatu ditzakete.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Prebentzioaren eta arretaren esparruan garatzen ditu gizarteratzeko arloak emakumeen aurkako indarkeriari buruzko auziak.

Prebentzioa garatzeko, indarkeriaren zikloa hasieratik antzematea estrategikotzat jotzen da, bereziki ahozko indarkeria eta indarkeria psikologikoa agertzen denetik antzematea. Horretarako, lehenengo sintomak zeintzuk diren ezagutzeko sentsibilizazioa eta prestakuntza sustatu beharko dira.

Arretaren esparruan, indarkeriaren biktima diren emakumeei eskainitako arreta hobetu behar da:

- Udaletan jarduera-protokoloak egin eta ezarriz. Protokoloak etxeko tratu txar eta sexu-erasoen biktima diren emakumeen arretarako erakundeen arteko Akordiotik eratorritakoak izango dira (gaur egungo egoerara egokituta), tratu txarrak edo sexu-jazarpenak jasan dituzten emakumeen arretarako, laguntzarako eta babeserako jardueretan kalitatea eta eraginkortasunerako irizpideak beteko baitira horrela.
- “Etxeko tratu txarren biktimei harrera eta etxebizitza emateko baliabideak hobetzeko program” bildutako neurriak ezarri eta etengabe hobetu behar dira. Zentzu honetan, eta otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 57.2. artikulua dioenez: “20.000 biztanletik

gorako udalerri guztiek eta kopuru hori gainditzen duten mankomunitateek (eratuta daudenek edo sortuko direnek) harrera-pisuak izan behar dituzte, etxeko tratu txarren biktimek dituzten aldi baterako babes- eta bizileku-premia larriei erantzuteko”.

Beheko laburpen-taulan (2.5.2) biltzen dira xede eta ardatz bakoitzerako proposatu diren jarduerak, geroago azalduko direnak (2.5.3. atalean).

2.5.2

EDUKIEN ZERRENDA

MAINSTREAMINGA

XEDEAK	TRESN.	EGINTZAK
M1.1 XEDEA: UDALEKO GIZARTE EKINTZAKO ARLOETAKO DIAGNOSTIKOETAN, PLANGINTZAETAN ESKU HARTZEETAN ETA BALIOESPENETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATU. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten berdintasunerako, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 12, 15, 18 eta 29. artikulak. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, eta 45. artikulak.	Jakin.	Gizarte-ekintzaren arloak kudeatzen duen informazioaren bilketa, tratamendu eta hedapen sistematikoa. Gizarte-ekintzako politiken aldizkako analisia, genero-ikuspegian oinarrituta. Egokitzat jotzen diren Gizarte Ekintzaren alorrarekin lotutako arau edo egintza administrazioek eragindako genero-inpaktuaren balioespena.
	Zerb/Bali	Gizarte Ekintzaren arloko kudeaketan sistematikoki mintzaira sexista ez erabiltzea.
	Jarraip.	Gizarte Ekintzaren arloan berdintasunaren aldeko neurriek duten betetze eta emaitzen balioespena.
	Prestak.	Gizarte Ekintzako politiketan genero-ikuspegia txertatuko duten langile teknikoak eta politikariak gaitu.

AHALDUNTZEA

XEDEAK	TRESN.	EGINTZAK
E1.1 XEDEA: POBREZIA EGOERAN EGONIK BAZTERKETA ARRISKUAN DAUDENEI ZUZENDUTAKO BALIABIDEAK EGOKITZEA, EGOERA HORRETAN DAUDEN EMAKUMEEN BALDINTZAK HOBETZEARREN. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 10., 15. eta 18. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 45. artikulua.	Jakin. Gizarteko baliabideek gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden emakumeen beharrak asetzen dituzten ala ez aztertu. Info/Sent Pobrezian edo bazterketa-arriskuan dauden emakumeen egoerari aurre egiteko udalak eskainitako zerbitzuak arduradun politikoei ezagutarazi. Pobrezian dauden emakumeek eta gizonek eskatutako laguntza ekonomikoak eskuratzeko bide azkarrak sortu. Gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden emakumeen enplegua sustatzeko neurriak eta kontratazioan laguntzeko programak diseinatu eta ezarri. Etxebizitza eskuratu nahi duten eta gizarte-bazterketa jasateko arriskuan diren emakumeen kopurua handitzeko neurriak diseinatu eta ezarri.	
E1.2 XEDEA: PROSTITUZIOAN ARITZEN DIREN ETA GIZARTE-BAZTERKETA JASATEKO ARRISKUAN DAUDEN EMAKUMEEI ZUZENDUTAKO BALIABIDEAK EGOKITU, EUREN BALDINTZAK ETA EGOERA HOBETZEARREN. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 10., 15., 18. eta 23. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 45. artikulua.	Prostituzioa uzteko asmorik ez duten emakumeentzako lan-prozesua Info/Sent Prostituzioan ari diren emakumei osasun-baliabideak eskuratzeko aukerari buruzko informazioa eman. Prestak. Prostituzioan ari diren emakumeen prestakuntza, parekoentzat osasun-eragile moduan joka dezaten. Zerb/Bali Prostituzioan ari diren emakumei zuzendutako osasuneko eta eritasunen prebentziorako programak garatu. Araudia Prostituzioa garatzen deneko klub eta lokaletako baldintzak arautzeko ordenantza sortu.	
E1.3 XEDEA: DROGAMENDETASUN ARAZOAK IZANIK GIZARTE-BAZTERKETA JASATEKO ARRISKUAN DAUDENEI ZUZENDUTAKO BALIABIDEAK EGOKITU, TALDE HORIETAKO EMAKUMEEN EGOERA ETA BALDINTZAK HOBETZEARREN. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 10., 15. eta 18. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 45. artikulua.	Prostituzioa uzteko asmoa duten emakumeentzako lan-prozesua Zerb/Bali Prestakuntzarako eta lan-orientaziorako programak antolatu. Lan-bateratzeko udaleko baliabideak eta programak prostituzioan ari diren emakumeen beharretara egokitu. Tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzat larrialdietarako pisuetan plazak eskarira egokitzea (pisuak sortuz, plaza-kopurua handituz, etab.), eta bertan onartzeko irizpideen artean gogoz kontra prostituzioan ari diren emakumeak txertatu. Jakin. Gizarteko baliabideek droga-mendetasunak izanagatik gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden emakumeen beharrak asetzen dituzten ala ez aztertu. Info/Sent Drogen-mendetasunei buruzko programetan, topaketetan, jardunaldietan eta mintegietan generoan eta droga-mendetasunetan adituak diren pertsonen parte-hartzea. Prestak. Administrazioi teknikiari droga-mendetasunak dituzten emakumeen egoeran eta genero-ikuspegia oinarritzat hartuta droga-mendetasunen prebentzioan prestatu. Zerb/Bali Arreta eta prebentziorako programa orokorrak droga-mendetasunak dituzten emakumeentzat egokitu.	

XEDEAK	TRESN.	EGINTZAK
E1.4 XEDEA: GIZARTE-BAZTERKETA JASATEKO ARRISKUAN DAUDENE ETORKINEI ZUZENDUTAKO BALIABIDEAK EGOKITU, TALDE HORIETAKO EMAKUMEEN EGOERA ETA BALDINTZAK HOBETZEARREN. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 10., 15. eta 18. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 45. artikulua.	Jakin. Gizarteko baliabideek gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden emakume etorkinen beharrak asetzen dituzten ala ez eta errealitatea aztertu. Prestak. Tokiko Administrazioa eta gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden emakume etorkinekin diharduten hirugarren sektoreko erakundeetako langile teknikoak gaitu. Zerb/Bali Gizarteko baliabideak gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden emakume etorkinen behar espezifikoetara egokitu.	
E1.5 XEDEA: MINUSBALIOTASUNAK IZANIK GIZARTE-BAZTERKETA JASATEKO ARRISKUAN DAUDENEI ZUZENDUTAKO BALIABIDEAK EGOKITU, TALDE HORIETAKO EMAKUMEEN EGOERA ETA BALDINTZAK HOBETZEARREN. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 10., 15. eta 18. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 45. artikulua.	Tokiko administrazioari eta hirugarren sektoreko erakundeei zuzendutako lan-prozesua Jakin. Gizarte-bazterketa jasateko arriskuan diren eta funtzionalitate dibertsoak dituzten emakumeen edota euren autonomia sustatzeko beharra duten emakumeen beharren estaldura maila eta errealitatea aztertu. Zerb/Bali Existitzen diren baliabideak egokitu, gizarte-bazterketa jasateko arriskuan diren eta funtzionalitate dibertsoak dituzten emakumeen autonomiaren sustapenekoak, lanbide-orientazioak eta orientazio soziokomunitariokoak bereziki. Etxebizitzak talde honen beharretara egokitzeko baliabide ekonomikoak aktibatu. Etxez etxeko laguntza zerbitzuak eta zerbitzu telematikoak sustatu.	Gizarteari oro har eta gizarte bazterketa jasateko arriskuan diren eta funtzionalitate dibertsoak dituzten emakumei zuzendutako lan-prozesua Info/Sent Herriarrei zuzendutako funtzionalitate dibertsoa duten emakumeen taldeari buruzko informazio-kanpainak egin. Prestak. Gizarte-bazterketa jasateko arriskuan diren eta funtzionalitate dibertsoak dituzten emakumei gaitasun soziopolitikoak eskuratzeko espazioak eta baliabideak eskaini.
E1.6 XEDEA: GIZARTE-BAZTERKETA JASATEKO ARRISKUAN DAUDEN HIRUGARREN ADINEKOEI ZUZENDUTAKO BALIABIDEAK EGOKITU, TALDE HORIETAKO EMAKUMEEN EGOERA ETA BALDINTZAK HOBETZEARREN. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 10., 15. eta 18. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 45. artikulua.	Tokiko administrazioari eta hirugarren sektoreko erakundeei zuzendutako lan-prozesua Jakin. Gizarteko baliabideek gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden adineko emakumeen beharrak asetzen dituzten ala ez eta errealitatea aztertu. Info/Sent Informazio-kanpainen bidez hirugarren adinekoegi begirako borondatezko lana sustatu. Adineko pertsonen, auzokoen eta inguruko zuzendutako informazio-kanpainak garatu. Prestak. Udaleko zerbitzu sozialetako eta hirugarren sektoreko erakundeetako langile teknikoak gaitu hirugarren eta laugarren adinekoen arazoei aurre egiteko. Zerb/Bali Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuen, laguntza-zerbitzuen, Gaueko Arreta Zerbitzuen eta hirugarren adinekoen zaintzarako bestelako zerbitzu orokorren eskaintza eta estaldura zabaldu (eguneko ordu gehiago, asteburuak, etab.). Hirugarren adineko zuzendutako laguntzarako zerbitzuen (doako arreta-telefonoak, telealarmak, etab.) eskaintza eskariaren arabera egokitu.	

AHALDUNTZEA

jarraipena

XEDEAK	TRESN.	EGINTZAK
		Gizarte bazterketa jasateko arriskuan dauden adineko emakumeei zuzendutako lan-prozesua
	Info/Sent	Adineko emakumeek aisiarako programa eta jardueretan parte hartzea sustatu, baita elkarreetako zuzendaritza-batzordeetan parte hartzea ere. Gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden hirugarren adineko emakumeei existitzen diren baliabide soziosantiarriok eta psikosozialak jakinarazi.
	Prestak.	Gizarte-bazterketa jasateko arriskuan diren adineko emakumeei gaitasun soziopolitikoak eskuratzeko espazioak eta baliabideak eskaini.

BATERAGARRITASUNA

XEDEAK	TRESN.	EGINTZAK
C1.1 XEDEA: ZAINZAKO LANAK EGITEN DITUZTEN PERTSONEI KARGA SOZIALAK ETA PSIKOLOGIKOAK MURRIZTEKO BALIABIDEAK GEHITU. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 16. eta 17. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 44. artikulua.		Info/Sent Zaintzaileei zuzendutako hedapen-programak eta programa dokumentalak sortu, zaintzak dituen zeharkako kostuei buruzkoak. Zerb/Bali Gizarte-ekintzako arlotik autonomiarik gabeko pertsonen zaintzan diharduten emakumeen/pertsonen arretarako eta orientaziorako berariazko zerbitzua sortu.

INDARKERIA

XEDEAK	TRESN.	EGINTZAK
V1.1 XEDEA: INDARKERIA ZIKLOA GARAIZ ANTZEMATEN DIREN KASUAK AREAGOTU. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 22. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 50. eta 51. artikulua.		Jakin. Emakumeen aurkako indarkeriaren eraginak, arrazoiak eta prebentziorako neurriak buruzko ikerketa egin. Info/Sent Indarkeria-zikloari buruzko informaziorako eta sentibilizaziorako kanpainak egin. Prestak. Indarkeriaren prebentziorako prestakuntza-ekintzak egin.

XEDEAK	TRESN.	EGINTZAK
V1.2 XEDEA: TRATU TXARREN ETA SEXU ERASOEN BIKTIMEI ARRETA, LAGUNTZA ETA BABESA EMATEKO ESKAEREI KOORDINAZIOAREN, KALITATEAREN ETA ERAGIN-KORTASUNAREN IRIZPIDEEN ARABERA ERANTZUN, EAEKO UDALERRIETAN ETXEO TRATU TXARREN ETA SEXU ERASOEN AURREAN JARDUTEKO TOKIKO PROTOKOLOAK EZARRIZ. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 15, 18 eta 22. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 50, 54, 55, 56 eta 58. artikulua.	Info/Sent	Interesa duten Udalen artean eta horrelakoak ezarrita dituzten Udalen artean topaketak antolatu, tokiko protokoloak abian jar daitezzen. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuak hedatu.
	Prestak.	Udaleko langile teknikoak eta berdintasun-eragileak prestatu, tokiko jarduera-protokoloak garatu eta bultzatu ditzaten. Indarkeriaren biktima diren emakumei lege-aholkularitza eta aholkularitza psikologikoa eskaintzen dieten udaleko edota kudeaketa-erakundeetako langileei berdintasunean eta kultura-aniztasunaren ikuspegian prestatu.
	Zerb/Bali	Etxeo tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko tokiko protokoloak egin. Tratu txarrak eta sexu-erasoak jasan dituzten emakumeentzat udalean dauden laguntza juridikorako eta psikologikorako baliabideak indartu.
	Araudia	Udaleko enplegu publikorako gaietan indarkeria jasan duten emakumeen arretarako eta esku hartzeko gaiak txertatu.
V1.3 XEDEA: TRATU TXARREN ETA SEXU ERASOEN BIKTIMEI HARRERA EMATEKO ESKAEREI KOORDINAZIOAREN, KALITATEAREN ETA ERAGINKORTASUNAREN IRIZPIDEEN ARABERA ERANTZUN, "ETXEO TRATU TXARREN BIKTIMEI HARRERA ETA ETXEBIZITZA EMATEKO BALIABIDEAK HOBETZEKO PROGRAMAN" JASOTAKO NEURRIAK EZARRI ETA ETENGABE HOBETZEN DIRELA BERMATUZ. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 15, 18 eta 22. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 50 eta 57. artikulua.	Jakin.	Indarkeria jasan duten emakumeek harrerarako eta etxebizitzarako baliabideen eskaerari buruzko azterketa eta balioespena.
	Prestak.	Tratu txarren biktimekin lan egingo duten profesionalak espezializatzeko prestakuntza-programak garatu.
	Zerb/Bali	Babeserako eta urruntzeko premiazko eskaerei erantzuteko harrera-etxebizitzak bermatu, baliabide horiek ez dituzten espazioetan. Existitzen diren harrerarako eta etxebizitzarako zerbitzuak egokitu, oztopo arkitektonikoak eta komunikaziokoak murriztu, eta segurtasun-sistemak hobetu. Indarkeria jasan duten emakumeen harrerarako baliabideetan laguntza-zerbitzuak sortu eta garatu.

M1.1 XEDEA: UDALEKO GIZARTE EKINTZAKO ARLOETAKO DIAGNOSTIKOETAN, PLANGINTZAETAN ESKU HARTZEETAN ETA BALIOESPENETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATU. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 12, 15, 18 eta 29. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, eta 45. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Esku-hartzearen helburua udaleko gizarte-ekintzaren arloetan lan egiten duten pertsonek euren politiken diseinuan, ezarpenean eta balioespenetan esku-hartzearen ildoak kontuan hartzea da: eguneroko lanean gizonen eta emakumeen egoera ezberdinak zehazten baitira, eta herritarrei behar bezalako zerbitzua eskaini ahal izango zaie emakumeen eta gizonen berariazko beharrak asetzea bermatuz eta berdintasunaren alde eginez.

B.

ESTRATEGIA

Jarduteko estrategiarik egokiena emakumeen egoera, baldintza eta kokapen desberdinak kontuan hartzen dituzten tresnak eta lan-prozesuak erabiltzea da, Udaleko gizarte-ekintzako politiken eta prestakuntzarako eta enplegurako neurrien diagnostikoan, diseinuan, esku-hartzean eta balioespenean, existitzen den genero-desberdintasuna zuzentzeko. Gainera, zeharka bada ere, kultura-aniztasunaren ikuspegia ere barneratu beharko litza-teke.

C.

LAN PROZESUA

Jakintza

- **Gizarte-ekintzaren arloak kudeatzen duen informazioaren bilketa, tratamendu eta hedapen sistematikoa.** Gizarte-ekintzaren arloan Udalean egiten diren ikerketa eta estatistika guztietan datu orokorrak maneiatzeko tresna elektronikoetan sexuaren aldagia txertatzeko eskatzen da. Neurria eraginkorra izan dadin, garrantzitsua da lagi-

nak behar bezain handiak eta adierazgarriak direla bermatzea, emakumeen eta gizonen arteko aldeak ongi bereizteko eta hedapeneko fasean datu bereziak ongi aditzera emateko. Gizarte-ekintzaren arloan emakumeen egoerari eta beharrei buruzko informazioa jasotzea da ekintza honen helburua. Sexuaren aldagaiak gain, bestelako aldagaiak txertatzea ere komenigarritzat jotzen da: jatorria, adina, funtzionalitate dibertsoa, etab., errealitatetik ahalik eta hurbilena den analisia egin ahal izateko.

- **Gizarte-ekintzako politiken aldizkako analisia, genero-ikuspegian oinarrituta.** Udalen arteko lan-taldeak osatuko dira, Udaleko bertako gizarte-ekintzen politiketan adituak diren pertsonekin (langile teknikoak, zuzendaritzetakoak, etab.) eta berdintasun-eragileekin, esparruko emakumeek dituzten beharrak ongi ezagutzen dituzten herritarrekin edo emakumeen elkarteekin, eta gizarteratzeko jarduera-ildoak eta ekintzak aztertuko dituzte. Gizarteratzeko ekintzetan emakumeen egoera eta kokapena hobetzeko lan-ildoak sartzeara da helburua, udalen artean ezarritako helburuak eta neurriak betetzeko jarraibideak erreferentziazat hartuta.
- **Egokitzat jotzen diren Gizarte Ekintzaren alorrarekin lotutako arau edo egintza administratiboek eragindako genero-inpaktuaren balioespena.** Arau edo egintza administratiboek aplikazioa gizonen eta emakumeen artean modu berean egiten den ala ez zehazteko balio duen tresna da, eta beraz, ezkutuko diskriminazioak ekiditen laguntzen du. Ekintzaren helburua, administrazioko arau edo egintza guztietan tresna hori aplikatzea da, eta Udalaren lan osorako zehaztuko da.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Gizarte Ekintzaren arloko kudeaketan sistematikoki mintzaira sexista ez erabiltzea.** Dokumentu eta komunikazio guztietan emakumeen agerpena eta parte-hartzea zehaztea da ekintzaren helburua, horrela, gizonezkoen errealitatea beti baliagarria dela automatikoki onartzea ekiditeko. Helburu hori gauzatzeko, Udaleko gizarte-ekintzaren arloan mintzaira sexistaren erabilera ekiditeko gida bat banatu beharko litzateke, dokumentu ofizial guztietan kontuan hartzeko. Gainera, komeni da ohiko dokumentu estandar (gutunak, formularioak, etab.) guztiak berrikusi eta moldatzea.

Jarraipena

- **Gizarte Ekintzaren arloan berdintasunaren aldeko neurriek duten betetze eta emaitzaren balioespena.** Urtero genero-ikuspegiaren arabera politiken azterketak egin dituzten lan-taldeen aurrez planteatutako jarduerak bete dituzten ala ez aztertu beharko dute (betetze balioespena), baita euren udalerriko emakumeen errealitatea aldatu den ala ez (emaitzen balioespena).

- **Gizarte Ekintzako politiketan genero-ikuspegia txertatuko duten langile teknikoak eta politikariak gaitu.** Langileak gaitzeko beharrezkoa den informazioa eskainiko da, aurrez adierazitako egintza guztiak errazteko: politikak aztertu, datuak sexuaren arabera banatu, mintzairaren erabilera sexista ekidin, betetze eta emaitzen balioespenak egin.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Berdintasunaren aldeko ekintzak sartzeko berrikusi eta moldatu behar izan diren saileko jarduera-ildoen %.
- Sexuaren aldagaia kontuan hartuta egin eta hedatu diren ikerketa eta estatistiken %ren bilakaera.
- Mintzaira sexista erabiltzen ez duten saileko dokumentuen %ren bilakaera.
- Berdintasunerako diseinatu diren ekintzen emaitzaren bilakaera (ezarritako ekintzen %ren bilakaera eta onuradunen kopurua).
- Saileko prestakuntzaren bilakaera: prestatutako pertsonen % eta pertsona bakoitzaren prestakuntza-ordu kopurua.

E1.1 XEDEA: POBREZIA EGOERAN EGONIK BAZTERKETA ARRISKUAN DAUDENEI ZUZENDUTAKO BALIABIDEAK EGOKITZEA, EGOERA HORRETAN DAUDEN EMAKUMEEN BALDINTZAK HOBETZEARREN.

Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 10., 15. eta 18. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 45. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Esku-hartzearen helburua, pobrezia aurre egiteko borrokaren baliabideak gizarte-bazterketa edo urritasun ekonomikoa jasateko arriskuan dauden emakumeen beharretara egokitzea da. Talde horretan sartuko lirateke ekoizpen-lana lortzeko arazoak izanagatik diru-sarrera nahikoak ez dituzten emakumeak, edo ekoizpen-lana izanik ere lortutako

diru-sarrerak nahikoak ez dituztenak. Talde honetan gehien parte hartzen duten emakumeak banandutakoak, alargundutakoak (laneko adinean daudenak), ama izandako nerabeak, bikotekideak karga ekonomikoak partekatzen ez dizkienak, eta abar dira.

Baldintzetaz ari garenean, emakumeen uneko beharrei buruz ari gara: baliabide ekonomikoak eskuratu beharra, enplegua, prestakuntza edo etxebizitza. Kokapenaz ari garenean, berriz, informazioa eskuratu eta kontrolatzeari buruz ar gara, baliabide soziopolitikoak eta jasaten duten diskriminazioa onartzeari buruz.

B.

ESTRATEGIA

Jarduteko estrategia: existitzen diren baliabide orokorrak egokitu, emakumeek eskura ditzaten, eta pobrezia-egoeran edo egoera hori jasateko arriskuan dauden emakumeengana iritsi eta kontrolatzea erraztu eta sustatzea.

C.

LAN PROZESUA

Jakintza

- **Gizarteko baliabideek gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden emakumeen beharrak asetzen dituzten ala ez aztertu.** Ekintzaren helburua, gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden emakumeen behar espezifikoak zeintzuk diren ezagutzea eta udalek orokorrean ematen dituzten baliabideen bitartez zenbateraino asetzen diren jakitea da. Horretarako, zerbitzu horiek eskatzen dituzten eta gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden emakumeen ehunekoa zein den eta harrera jaso duten emakume horien ehunekoa zein den jakin behar da. Azterketa horrekin batera, eskainitako zerbitzuekin emakume horiek duten asebetetze-maila zein den jakitea ere komeni da, hau da, eskariaren arrazoi izan den egoera zenbatetan konpondu den jakitea. Horretarako, harreraren amaieran emakume horiei galdeketa bat egiteko aukera dago, eta urtean behin telefono bidezko (edo bestelako tresnak erabilita) galdeketa ere egin daiteke, zerbitzuon erabiltzaile izan direnen artean, epe ertain/luzean euren bizian izan duten inpaktua ezagutzeko. Ikerketan oinarrituz, zerbitzua hobetzeko proposamenak garatuko dira.

Informazioa eta Sentsibilizazioa

- **Pobrezian edo bazterketa-arriskuan dauden emakumeen egoerari aurre egiteko udalak eskainitako zerbitzuak arduradun politikoei ezagutarazi.** Ekintza honen hel-

burua, zinegotzigo arduradunak eta ahal dela alkatetzak zerbitzuaren jarraipena egitea da, gizarteko errealitate nabarmenenak eta proposatutako neurriak bilduko dituen urteroko dokumentu laburtuaren aurkezpenaren bidez.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Pobrezian dauden emakumeek eta gizonek eskatutako laguntza ekonomikoak eskuratzeko bide azkarrak sortu.** Ekintza honen helburua, laguntzak jasotzeko izapideak arintzea da, udalaren eskumenekoak direnean. Izapidetzerakoan beharrezkoak ez diren prozesuak murriztuko dira, baina ezin denean, udalak berak konponduko du egoera bestelako erakundeek konpontzen duten bitartean.
- **Gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden emakumeen enplegua sustatzeko neurriak eta kontratazioan laguntzeko programak diseinatu eta ezarri.** Ekintza honen helburua, gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden emakumeen enplegua sustatzeko eta sortzeko programetan parte hartzea da, baita lan-merkaturatzea eta ahalduntzea erraztuko dien ikastaro eta programetara iristea ere (adibidez, lan-presakuntzarako ikastaroak, enplegua bilatzeko ikastaroak, ahalduntzeari buruzkoak, etab.). Programak gizarte-bazterketarako arriskuan dauden emakumeen beharretara egokituko dira.
- **Etxebizitza eskuratu nahi duten eta gizarte-bazterketa jasateko arriskuan diren emakumeen kopurua handitzeko neurriak diseinatu eta ezarri.** Horretarako, jabetzako edo udalak ustiatutako etxebizitza sozialen kopurua handitu daiteke, baliabide ekonomikorik ez duten pertsonen laguntzeko, eta emakume gurasobakarrak lehenetsiko dira (etxebizitza-kupo bat horretarako zehaztuz).

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Gizarte-bazterketa jasateko arriskuan diren emakumeen beharrak asetzearen mailaren bilakaera:
 - Gizarte-bazterketarako arriskuan egonik zerbitzuak eskatu dituzten emakumeen %ren bilakaera.
 - Zerbitzuotako baliabideen bidez hartu diren eta gizarte-bazterketako arriskuan dauden emakumeen %ren bilakaera.
 - Arreta/esku-hartzearen prozesua amaitzean euren beharrak aseta dituzten alaez, pertzepzioaren indizea.

— Epe ertainean edo luzean beharrak aseta dituzten ala ez, pertzepzioaren indizea.

- Moldatu diren programen eta baliabideen kopuruaren bilakaera.

E1.2 XEDEA: PROSTITUZIOAN ARITZEN DIREN ETA GIZARTE-BAZTERKETA JASATEKO ARRISKUAN DAUDEN EMAKUMEEI ZUZENDUTAKO BALIABIDEAK EGOKITU, EUREN BALDINTZAK ETA EGOERA HOBETZEARREN.

Europako Gutuna Emakumeei eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 10., 15., 18. eta 23. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 45. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Esku-hartzearen helburua, gizarte-bazterketari aurre egiteko baliabideak prostituzioan ari diren emakumeen beharretara egokitzea da, euren egoera espezifikoan aniztasunari eta etorkizunean duten borondateari so eginez. Baldintzetaz ari garenean, emakumeen uneko beharrei buruz ari gara: baliabide ekonomikoak eskuratu beharra, enplegua, prestakuntza edo etxebizitza. Kokapenaz ari garenean, berriz, informazioa eskuratu eta kontrolatzeari buruz ar gara, baliabide soziopolitikoak eta jasaten duten diskriminazioa onartze-ari buruz.

B.

ESTRATEGIAK

Kasu hauetan gizarte-bazterketa ez da urritasun ekonomikoaren ondorio izaten (talde honetako emakume batzuen artean bai, baina ez denen artean), euren jardueraren estigmatizazioaren ondorio baizik, baina baita jarduteko baldintzengatik –ordutegiak eta bizi-moduak zerbitzuak eta baliabide orokorrak eskuratzeko oztopo dira– eta etorkizunerako perspektiba gutxi izanagatik. Testuinguru honetan bi azpitalde bereizi daitezke, euren egoeraren aurrean duten jarreraren arabera. Alde batetik, prostituzioa uzteko asmorik ez duten emakumeei zuzendutako jarduera-estrategia bat zehaztuko da, euren baldintzak (osasuna, lana, etab.) hobetzeko asmoa agertzen badute. Beste aldetik, prostituzioa uzteko asmoa duten emakumeei zuzendutako jarduera-estrategia zehaztuko da, gizarte-bazterketari aurre egiteko baliabide orokorrak eskuratzeko aukera emanez.

1.

PROSTITUZIOA UZTEKO ASMORIK EZ DUTEN EMAKUMEENTZAKO LAN PROZESUA

Informazioa / Sentsibilizazioa

- **Prostituzioan ari diren emakumeei osasun-baliabideak eskuratzeko aukerari buruzko informazioa eman.** Osasun-sareko baliabideak eta eurentzat berariaz sortutako baliabideak zeintzuk diren jakinaraztea da helburua. Prostituzioan ari diren emakumeekin lan egiten duten elkarteekin akordioak iritsi, edo informazio pertsonalizatuak ematen dituzten enpresak kontratatuko dira.

Prestakuntza

- **Prostituzioan ari diren emakumeen prestakuntza, parekoentzat osasun-eragile moduan joka dezaten.** Helburua, prostituzioan ari diren emakumeen prestakuntza, parekoentzat osasun-eragile moduan joka dezaten. Informazio-maila areagotzeko eta sentsibilizazioan eragiteko tresna egokitzat jotzen da ekintza hau. Osasuneko arazo ez gain, arazo psikosozialak ere landuko dira prestakuntzan.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Prostituzioan ari diren emakumeei zuzendutako osasuneko eta eritasunen prebentziorako programak garatu.** Helburua, prebentziorako programak garatzea da: pre-serbatiboen erabilera (bezeroekin negoziatzeko ahalmena, etab.), IHESA eta bestelako STGak. Horretarako, esparru horretan lanean diharduten elkarteekin hitzarmenak sinatu daitezke.

Araudia

- **Prostituzioa garatzen deneko klub eta lokaletako baldintzak arautzeko ordenantza sortu.** Prostituzioa garatzen deneko klub eta lokaletan gutxieneko osasun-baldintzak eta baldintza higienikoak bermatu nahi dira, baita ordutegiak arautzea ere. Horretarako, udal-ordenantza bat sortu eta ordenantza hori betetzea bermatzeko jarraipen polizialeko sistema antolatuko da.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Prestakuntzarako eta lan-orientaziorako programak antolatu**, prostituzioa uzteko asmoa duten emakumeei begira. Emakume hauentzat bestelako lan-alternatibak bilatuko dira. Existitzen diren programak berrikusi beharko dira, edo berriak sortu, ordu-tegiagatik eta edukiengatik prostituzioan aritzen diren emakumeentzat egokiak izan daitezten. Jasotako prestakuntzan euren ahalduntze-prozesua sustatuko duten alderdiak ere zeharka barneratuko dira.
- **Lan-bateratzeko udaleko baliabideak eta programak prostituzioan ari diren emakumeen beharretara egokitu**. Helburua, lan-bateratzeko zerbitzuak prostituzioan ari diren emakumeen beharrak asetzea da: euren lana, pertsonen zaintza (bereziki euren menpean dauden haurrak) eta lan-prestakuntza uztartzeko.
- **Tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzat larrialdietarako pisuetan plazak eskarira egokitzea (pisuak sortuz, plaza-kopurua handituz, etab.), eta bertan onartzeko irizpideen artean gogoz kontra prostituzioan ari diren emakumeak txertatu**. Lan egi-ten duten klubetan edo pisuetan bizi ohi direnez, prostituzioan ari diren emakumeei behin-behineko etxebizitza eskainiko zaie euren etxebizitza eskuratzeko bidean, eta existitzen diren harrera-baliabideak eskuratu ahal izango dituzte.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Prostituzioan ari diren emakumeen beharrak asetzearen mailaren bilakaera:
 - Zerbitzuak eskatu dituzten prostituzioko emakumeen %ren bilakaera.
 - Zerbitzuotako baliabideen bidez hartu diren eta prostituzioan ari diren emakumeen %ren bilakaera.
 - Arreta/esku-hartzearen prozesua amaitzean euren beharrak aseta dituzten ala ez, pertzepzioaren indizea.
 - Epe ertainean edo luzean beharrak aseta dituzten ala ez, pertzepzioaren indizea.
- Moldatu edo sortu diren programen eta baliabideen kopuruaren bilakaera.

E1.3 XEDEA: DROGA MENDE TASUN ARAZOAK IZANIK GIZARTE-BAZTERKETA JASATEKO ARRISKUAN DAUDENEI ZUZENDUTAKO BALIABIDEAK EGOKITU, TALDE HORIE-TAKO EMAKUMEEN EGOERA ETA BALDINTZAK HOBETZEARREN. Europako Gutuna

Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 10., 15. eta 18. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 45. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Droga-mendetasun arazoak izanik gizarte-bazterketari aurre egiteko baliabideak egokitzean oinarritzen da helburua. Baldintzetaz ari garenean, emakumeen uneko beharrei buruz ari gara: baliabide ekonomikoak eskuratu beharra, enplegua, prestakuntza edo etxebizitza. Kokapenaz ari garenean, berriz, informazioa eskuratu eta kontrolatzeari buruz ar gara, baliabide soziopolitikoak eta jasaten duten diskriminazioa onartzeari edota bertatik irtetea errazteari buruz.

B.

JARDUERAREN ESTRATEGIA

Baliabide orokorrak egokituko dira, droga-mendetasunak dituzten emakumeen beharretara egokitzeko eta eraginkorrak izan daitezen. Droga-mendetasunei nahiz pobrezia-ri aurre egiteko baliabide orokorrak moldatzearekin droga-mendetasunak dituzten emakumeentzat berariazko baliabideak sortzeko estrategia egokia dela uste da.

C.

LAN PROZESUA

Jakintza

- **Gizarteko baliabideek droga-mendetasunak izanagatik gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden emakumeen beharrak asetzen dituzten ala ez aztertu.** Ekintzaren helburua, droga-mendetasunak izanagatik gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden emakumeen behar espezifikoak zeintzuk diren ezagutzea eta udalek orokorrean ematen dituzten baliabideen bitartez zenbateraino asetzen diren jakitea da. Horretarako, zerbitzu horiek eskatzen dituzten eta droga-mendetasunak dituzten emakumeen ehunekoa zein den eta harrera jaso duten emakume horien ehunekoa zein den jakin behar da. Azterketa horrekin batera, eskainitako zerbitzuekin emakume horiek duten asebetetze-maila zein den jakitea ere komeni da, hau da, eskariaren arrazoi izan den egoera zenbatetan konpondu den jakitea. Horretarako, harreraren amaieran

emakume horiei galdeketa bat egiteko aukera dago, eta urtean behin telefono bidezko (edo bestelako tresnak erabilita) galdeketa ere egin daiteke, zerbitzuon erabiltzaile izan direnen artean, epe ertain/luzean euren bizian izan duten inpaktua ezagutzeko. Ikerketan oinarrituz, zerbitzua hobetzeko proposamenak garatuko dira.

Informazioa / Sentsibilizazioa

- **Droga-mendetasunei buruzko programetan, topaketetan, jardunaldietan eta mintegi-etan generoan eta droga-mendetasunetan adituak diren pertsonen parte-hartzea.** Gai horiek genero-ikuspegia (edo emakume hauek jasaten dituzten desberdintasunak eta behar espezifikoak) kontuan hartuta lantzea da helburua.

Prestakuntza

- **Administrazioko teknikariak droga-mendetasunak dituzten emakumeen egoeran eta genero-ikuspegia oinarritzat hartuta droga-mendetasunen prebentzioan prestatu.** Emakumeok jasotzen duten lan-prestakuntza eta prestakuntza soziokomunitarioa egokiagoa izatea da helburua. Horretarako, arretan diharduten udaleko langileak (edo droga-mendetasunak lantzen dituzten hirugarren sektoreko erakundeetakoak) prestatuko dira emakume hauen berariazko behar eta arazoei aurre egiteko, eta emakumeoi egokitutako soluzioak bilatzeko. Beharren estaldurarako azterketak eginez gero, emaitzak prestakuntza-ikastaro hauetan lantzeko aukera izango da.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Arreta eta prebentziorako programa orokorrak droga-mendetasunak dituzten emakumeentzat egokitu.** Droga-mendetasunak dituzten pertsonen arretarako proiektu eta programak kontsumoaren ezaugarrietara moldatuko dira, kontsumoak emakumeengan duen eragina azpimarratuz. Horretarako, talde hauen harreraren lanean diharduten artean hobekuntza-proposamenak bilduko dira, eta egingarrienak ezarriko dira.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO
EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Droga-mendetasunak jasaten dituzten emakumeen beharrak asetzearen mailaren bilakaera:

- Zerbitzuak eskatu dituzten eta droga-mendetasunak jasaten dituzten emakumeen %ren bilakaera.
 - Zerbitzuotako baliabideen bidez hartu diren eta droga-mendetasunak jasaten dituzten emakumeen %ren bilakaera.
 - Arreta/esku-hartzearen prozesua amaitzean euren beharrak aseta dituzten ala ez, pertzepzioaren indizea.
 - Epe ertainean edo luzean beharrak aseta dituzten ala ez, pertzepzioaren indizea.
- Moldatu edo sortu diren programen eta baliabideen kopuruaren bilakaera.

E1.4 XEDEA: GIZARTE-BAZTERKETA JASATEKO ARRISKUAN DAUDEN ETORKINEI ZUZENDUTAKO BALIABIDEAK EGOKITU, TALDE HORIETAKO EMAKUMEEN EGOERA ETA BALDINTZAK HOBETZEAREN.

Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonen Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten berdintasunerako, 10., 15. eta 18. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 45. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Udalaren esparruan gizarte-bazterketari aurre egiteko dauden baliabide orokorrak etorkin izanagatik gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden emakumeen beharretara egokituko dira. Hala, behar zehatzei berariazko erantzunak emango zaizkie baliabide te programa orokorrak egokituta. Udalerrian etorkin izanagatik gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden emakumeak ezagutzea da helburua.

Gizarte-bazterketa gertatzeko arriskua pobrezia-egoeraren ondorio izateaz gain, administrazioaren irregulartasunen ondorio ere bada: existitzen diren baliabideak eskuratzeko zailtasunak, baliabide horiei buruzko informaziorik eza, migrazio-prozesuekin lotutako arazo psikologikoak, gizarteko estereotipo eta aurreiritziak, etab. Hala, arazo konplexuak eta dimentsio askokoak jasaten dituen taldea da. Baldintzetaz ari garenean, emakumeen uneko beharrei buruz ari gara: baliabide ekonomikoak eskuratu beharra, enplegua, prestakuntza, kultura edo etxebizitza. Kokapenaz ari garenean, berriz, informazioa eskuratzeari buruz ari gara, baliabide soziopolitikoak eta jasaten duten diskriminazioa onartze-ari buruz.

Oro har, gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden emakume etorkinen beharrei erantzuteko baliabideak egokitzea da estrategiaren muina.

Tokiko Administrazioarekin eta gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden emakume etorkinekin diharduten hirugarren sektoreko erakundeekin lan egin beharko da horretarako. Bi kasuetan udalerria da jarduera-esparru nagusia, baina zenbait ekintza udalerrien artean edota udalerriez gaineko erakundeen bitartez ere egin beharko dela jakinik.

Jakintza

- **Gizarteko baliabideek gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden emakume etorkinen beharrak asetzen dituzten ala ez eta errealitatea aztertu.** Ekintzaren helburua, gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden emakume etorkinen behar espezifikoak zeintzuk diren ezagutzea eta udalek orokorrean ematen dituzten baliabideen bitartez zenbateraino asetzen diren jakitea da. Horretarako, baliabide horiek eskatzen dituzten eta gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden emakume etorkinen ehunekoa zein den eta harrera jaso duten emakume horien ehunekoa zein den jakin behar da. Azterketa horrekin batera, eskainitako zerbitzuekin emakume horiek duten asebetetze-maila zein den jakitea ere komeni da, hau da, eskariaren arrazoi izan den egoera zenbatetan konpondu den jakitea. Horretarako, harreraren amaieran emakume horiei galdeketa bat egiteko aukera dago, eta urtean behin telefono bidezko (edo bestelako tresnak erabilia) galdeketa ere egin daiteke, zerbitzuon erabiltzaile izan direnen artean, epe ertain/luzean euren bizian izan duten inpaktua ezagutzeko. Azkenik, eta taldea eta bere arazoak bistaratzeko, errealitatearen azterketa horien emaitzak udaleko gizarte-ekintzaren arloko politikari eta langileen artean, erakundeen eta hirugarren sektoreko elkarteen artean banatuko dira.

Prestakuntza

- **Tokiko Administrazioako eta gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden emakume etorkinekin diharduten hirugarren sektoreko erakundeetako langile teknikoak gaitu.** Ekintzaren helburua, udaleko gizarte-ekintzaren arloko langile teknikoak (esku-hartzearen plangintza egiten dutenak nahiz zuzeneko arretan lan egiten dutenak) prestatzea

da, talde honen arreta eta esku-hartzea hobetzeko. Zentzu praktikoa izango du prestakuntzak, genero-ikuspegia oinarri dutelarik lanbide-orientaziorako eta orientazio soziokomunitariorako eta kulturen arteko bitartekaritzarako tresnak eskuratzeko.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Gizarteko baliabideak gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden emakume etorkinen behar espezifikoetara egokitu.** Lanbide-prestakuntza eta prestakuntza psikosozialak dira egokitu nahi diren baliabideak, gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden emakume etorkinen behar espezifikoak asetzeko oinarritzkoak direlakoan. Azpimarratu behar da egokitzapen hori errealitatearen azterketen eta ikerketen emaitzetatik ateratako ondorioen arabera egin daitekeela. Lanbide-prestakuntzako baliabideak diogunean, pertsonak lan-jarduera batean jardutera gaitzeko baliabideez ari gara. Bestalde, baliabide psikosozialez ari garenean, gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dagoen pertsonaren gizarteratze-prozesua errazteko baliabideez ari gara (oinarrizko gizarte zerbitzuak, baliabide psikologikoak, gizarteratzeko urratsak, beste zerbitzuetara bideratzea, etab.). Etorkinentzat berariazko baliabideak daudenean, berriz, baliabideok gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden emakume etorkinen beharretara egokitu daitezke.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Gizarte-bazterketa jasateko arriskuan diren emakume etorkinen beharrak asetzearen mailaren bilakaera:
 - Zerbitzuak eskatu dituzten eta gizarte-bazterketa jasateko arriskuan diren emakume etorkinen %ren bilakaera.
 - Zerbitzuotako baliabideen bidez hartu diren eta gizarte-bazterketa jasateko arriskuan diren emakume etorkinen %ren bilakaera.
 - Arreta/esku-hartzearen prozesua amaitzean euren beharrak aseta dituzten ala ez, pertzepzioaren indizea.
 - Epe ertainean edo luzean beharrak aseta dituzten ala ez, pertzepzioaren indizea.
- Moldatu edo sortu diren programen eta baliabideen kopuruaren bilakaera.

E1.5 XEDEA: MINUSBALIOTASUNAK IZANIK GIZARTE-BAZTERKETA JASATEKO ARRISKUAN DAUDENEI ZUZENDUTAKO BALIABIDEAK EGOKITU, TALDE HORIETAKO EMAKUMEEN EGOERA ETA BALDINTZAK HOBETZEARREN.

Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 10., 15. eta 18. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 45. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Existitzen diren baliabideak egokitzea da helburua, bereziki lanbide-orientaziokoak eta orientazio soziokomunitariokoak, gizarte-bazterketa jasateko arriskuan diren eta funtzionalitate dibertsoak dituzten emakumeen beharrak asetzeko. Emakume horiek euren autonomia garatzeko zailtasun handiagoak dituztenez, pobreziaren, isolamenduaren, informaziozko baliabide-gabeziaren eta abarren aurrean zaurkorragoak dira, eta gizarte-bazterketa jasateko arrisku handiagoa dute.

Baldintzetaz ari garenean, emakumeen uneko beharrei buruz ari gara: baliabide ekonomikoak eskuratu beharra, enplegua, prestakuntza, kultura edo etxebizitza, eta euren autonomia garatzeko berariazko laguntzak. Kokapenaz ari garenean, berriz, informazioa eskuratzeari buruz ari gara, baliabide soziopolitikoak eta jasaten duten diskriminazioa onartzeari buruz.

B.

ESTRATEGIAK

Lehenengo estrategia Tokiko Administrazioari eta talde honekin lan egiten duen hirugarren sektoreko erakundeei zuzendutakoa da, eta bigarrena oro har gizarteari zuzendutakoa eta zuzenean gizarte-bazterketa jasateko arriskuan diren eta funtzionalitate dibertsoak dituzten emakumei zuzendutakoa. Lehenengo estrategiaren helburu nagusia baliabideak egokitzea bada, bigarrenarena emakume horien ahalduntzeko tresnak erraztea eta gizar-tea emakume horien egoeran sentibilizatzea da.

1.

**TOKIKO ADMINISTRAZIOARI
ETA HIRUGARREN SEKTOREKO
ERAKUNDEEI ZUZENDUTAKO
LAN PROZESUA**

Jakintza

- **Gizarte-bazterketa jasateko arriskuan diren eta funtzionalitate dibertsoak dituzten emakumeen edota euren autonomia sustatzeko beharra duten emakumeen beharren estaldura maila eta errealitatea aztertu.** Ekintzaren helburua, gizarte-bazterketa jasateko arriskuan diren eta funtzionalitate dibertsoak dituzten emakumeen behar espezifikoak zeintzuk diren ezagutzea eta udalek orokorrean ematen dituzten baliabideen bitartez zenbateraino asetzen diren jakitea da. Horretarako, baliabide horiek (eta euren autonomia lantzekoak) eskatzen dituzten eta profil honetakoak diren emakumeen ehunekoa zein den eta harrera jaso duten emakume horien ehunekoa zein den jakin behar da. Azterketa horrekin batera, eskaintako zerbitzuekin emakume horiek duten asebetetze-maila zein den jakitea ere komeni da, hau da, eskariaren arrazoi izan den egoera zenbatetan konpondu den jakitea. Horretarako, harreraren amaieran emakume horiei galdeketa bat egiteko aukera dago, eta urtean behin telefono bidezko (edo bestelako tresnak erabilia) galdeketa ere egin daiteke, zerbitzuon erabiltzaile izan direnen artean, epe ertain/luzean euren bizian izan duten inpaktua ezagutzeko. Azkenik, eta taldea eta bere arazoak bistaratzeko, errealitatearen azterketa horien emaitzak udaleko gizarte-ekintzaren arloko politikari eta langileen artean, erakundeen eta hirugarren sektoreko elkarleen artean banatuko dira.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Existitzen diren baliabideak egokitu, gizarte-bazterketa jasateko arriskuan diren eta funtzionalitate dibertsoak dituzten emakumeen autonomiaren sustapenekoak, lanbide-orientazioak eta orientazio soziokomunitariokoak bereziki.** Ekintza honen bitartez autonomiaren sustapenari, lanbide-orientazioari eta orientazio soziokomunitarioari erantzun egokia eman nahi da esparruotan dauden baliabide orokorrak moldatuz. Ikerketetatik lortutako emaitzetan oinarrituta egin daiteke baliabideen egokitzapena.

- **Etxebizitzak talde honen beharretara egokitzeko baliabide ekonomikoak aktibatu.** Talde honen beharretara etxebizitzak egokitzeko behar adinako baliabide ekonomikoak eskaini beharko dira, eta talde osoan eragina duen ekintza positibotzat jotzen bada ere, gizarte-bazterketa jasateko arriskuan diren eta funtzionalitate dibertsoak dituzten emakumeen autonomia-maila hobetzeko eragin positiboa ere izango du.
- **Etxez etxeko laguntza zerbitzuak eta zerbitzu telematikoak sustatu.** Funtzio-autonomiaren gabezia izateagatik etxetik irteteko zailtasun gehien dituzten pertsonen etxez etxeko arreta eskaini nahi da. Aurreko kasuan bezala, talde osoan eragina duen ekintza positibotzat jotzen bada ere, talde honetako emakumeen artean eragin positiboa ere izango du.

2.

GIZARTEARI ORO HAR ETA GIZARTE BAZTERKETA JASATEKO ARRISKUAN DIREN ETA FUNTZIO ANIZTASUNAK DITUZTEN EMAKUMEEI ZUZENDUTAKO LAN PROZESUA

Informazioa / Sentsibilizazioa

- **Herritarrei zuzendutako funtzionalitate dibertsoa duten emakumeen taldeari buruzko informazio-kanpainak egin.** Ekintza honen lehen helburua taldea ezagutaraztea da, eta bigarrena, emakume hauei buruzko irudi errealak eta estereotiporik gabea sortzea, talde honen errealitatearen eta jasaten dituen arazoaren inguruan dagoen ezjakintasuna murrizteko. Ekintza hau udalerrien artean garatu daiteke, eta gero udalerrri bakoitzean abian jarriko den kanpaina garatuko litzateke.

Prestakuntza

- **Gizarte-bazterketa jasateko arriskuan diren eta funtzionalitate dibertsoak dituzten emakumeei gaitasun soziopolitikoak eskuratzeko espazioak eta baliabideak eskaini.** Emakume hauen ahalduzkoa gauzatea da helburua, elkarte-sareen eta autoantolakuntzaren bitartez. Hala, ekintza hau bi modutara gara daiteke. Lehenengo moduan gizarte-bazterketa jasateko arriskuan diren eta funtzionalitate dibertsoak dituzten emakumeek gaitasun soziopolitikoak eskuratzeko berariazko prestakuntza egin beharko litzateke; bigarrenean, berriz, emakume-talde honi zuzendutako esku-hartze programa orokorrean barruan gaitasun soziopolitikoak eskuratzeko prestakuntza-ekintzak garatuta.

- Gizarte-bazterketa jasateko arriskuan diren eta funtzionalitate dibertsoak dituzten emakumeen beharrak asetzearen mailaren bilakaera:
 - Baliabideak eskatu dituzten gizarte-bazterketa jasateko arriskuan diren eta funtzionalitate dibertsoak dituzten emakumeen %ren bilakaera.
 - Baliabideak hartu dituzten funtzionalitate dibertsoak dituzten emakumeen %ren bilakaera.
 - Arreta/esku-hartzearen prozesua amaitzean euren beharrak aseta dituzten ala ez, pertzepzioaren indizea.
 - Epe ertainean edo luzean beharrak aseta dituzten ala ez, pertzepzioaren indizea.
 - Egokitu diren programen eta baliabideen kopuruaren bilakaera.
- Gizarte-bazterketa jasateko arriskuan diren eta funtzionalitate dibertsoak dituzten emakumeek osatutako ekimenen (autolaguntzarako taldeak, elkarteak, etab.) kopurua eta bilakaera.

E1.6 XEDEA: GIZARTE-BAZTERKETA JASATEKO ARRISKUAN DAUDEN HIRUGARREN ADINEKOEI ZUZENDUTAKO BALIABIDEAK EGOKITU, TALDE HORRETAKO EMAKUMEEN EGOERA ETA BALDINTZAK HOBETZEARREN.

Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 10., 15. eta 18. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 45. artikulua.

Esku-hartzearen helburua, hirugarren adinekoei zuzendutako baliabideak egokitzea da, hobetuz eta zabalduz, mendekotasuna, isolamendua edo gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden hirugarren adineko emakumeen beharrei erantzuteko. Adin-tarte horretako emakumeek diskriminazio bikoitza jasaten dute: pertsonak adineko egiten direnean gizartean geroz eta oztopo gehiago jasaten dute alde batetik, eta bestetik, emakume iza-nagatik desberdintasun-egoeran daude.

Lehenengo estrategia Tokiko Administrazioari eta talde honekin lan egiten duen hirugarren sektoreko erakundeei zuzendutakoa da, eta adinekoei zuzendutako baliabideak egokitzea du helburu, gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden emakumeen baldintzak hobetzeko. Bigarren estrategia, berriz, emakumeen ahalduntzea sustatzean oinarritzen da, zenbait tresna aktibatuz.

1.

TOKIKO ADMINISTRATIOARI ETA HIRUGARREN SEKTOREKO ERAKUNDEEI ZUZENDUTAKO LAN PROZESUA

Jakintza

- **Gizarteko baliabideek gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden adineko emakumeen beharrak asetzen dituzten ala ez eta errealitatea aztertu.** Ekintzaren helburua, emakume hauen behar espezifikoak zeintzuk diren ezagutzeko eta udalek orokorrean ematen dituzten baliabideen bitartez zenbateraino asetzen diren jakitea da. Horretarako, baliabide horiek eskatzen dituzten eta profil honetakoak diren emakumeen ehunekoa zein den eta harrera jaso duten emakume horien ehunekoa zein den jakin behar da. Azterketa horrekin batera, eskaintako zerbitzuekin emakume horiek duten asebetetze-maila zein den jakitea ere komeni da, hau da, eskariaren arrazoi izan den egoera zenbatetan konpondu den jakitea. Horretarako, harreraren amaieran emakume horiei galdeketa bat egiteko aukera dago, eta urtean behin telefono bidezko (edo bestelako tresnak erabilita) galdeketa ere egin daiteke, zerbitzuon erabiltzaile izan direnen artean, epe ertain/luzean euren bizian izan duten inpaktua ezagutzeko. Azkenik, eta taldea eta bere arazoak bistaratzeko, errealitatearen azterketa horien emaitzak udaleko gizarte-ekintzaren arloko politikari eta langileen artean, erakundeen eta hirugarren sektoreko elkartearen artean banatuko dira.

Informazioa / Sentsibilizazioa

- **Informazio-kanpainen bidez hirugarren adinekoei begirako borondatezko lana sustatu.** Ekintza honen bitartez hirugarren adinekoei begirako borondatezko lana sustatu nahi da, talde hori eta gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden adineko emaku-

meen beharrak eta arazoak bistaratzu eta ezagutaraziz. Kanpaina horiek udalerrien artean diseinatu daitezke, gero udalerri bakoitzean garatzeko.

- **Adineko pertsonen, auzokoen eta ingurukoen zuzendutako informazio-kanpainak garatu.** Adinekoen bizi-kalitatea hobetuko duten kanpainak garatu nahi dira, aisialdiko eta gizarte-harremanetarako jardueren buruz jakinaraziz, bakarrik bizi diren emakumeak baitira gehienak.

Prestakuntza

- **Udaleko zerbitzu sozialetako eta hirugarren sektoreko erakundeetako langile teknikoa gaitu hirugarren eta laugarren adinekoen arazoen aurre egiteko.** Udalerrien artean garatu daitezkeen ekintza honen helburua gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden hirugarren adineko emakumeen errealitatea eta arazoak genero-ikuspegia oinarritzat hartuta hobeto ezagutzeko prestakuntza-tresnak eskaintzea da. Helburu nagusia, talde honen arreta eta esku-hartzea hobetzea litzateke.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuen, laguntza-zerbitzuen, Gaueko Arreta Zerbitzuen eta hirugarren adinekoen zaintzarako bestelako zerbitzu orokorren eskaintza eta estaldura zabaltzea (egunean ordu gehiago, asteburuak, etab.).** Ekintza hau hirugarren adineko pertsonen zuzendutakoa bada ere, mota honetako zerbitzuak areagotzearekin gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden hirugarren adineko emakumeen egoera hobetzen eragin positiboa egingo da.
- **Hirugarren adinekoren zuzendutako laguntzarako zerbitzuen (doako arreta-telefonoak, telealarmak, etab.) eskaintza eskariaren arabera egokitu.** Aurreko ekintzan bezala, mota honetako zerbitzuak areagotzearekin gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden hirugarren adineko emakumeen egoera hobetzen eragin positiboa egingo da.

GIZARTE BAZTERKETA JASATEKO ARRISKUAN DAUDEN ADINEKO EMAKUMEEI ZUZENDUTAKO LAN PROZESUA

Informazioa / Sentsibilizazioa

- **Adineko emakumeek aisiarako programa eta jardueretan parte hartzea sustatu, baita elkarteetako zuzendaritza-batzordeetan parte hartzera ere.** Ekintza honen helburua, alde batetik, taldearen egoera bistartzea da, eta bestetik, emakume hauen gizarte parte-hartzea sustatuz ahalduntzea areagotzea. Aisiarako programa espezifikoak sortu beharko dira, eta berarekin, emakume hauen parte-hartzea sustatzearen beharra kontuan hartuko da.
- **Gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden hirugarren adineko emakumeei existitzen diren baliabide soziosantarioak eta psikosozialak jakinarazi.** Existitzen diren balioen berri emakume hauei eman nahi da, baliabide horiei buruz duten informazioa urria dela uste baita (ikerketak eta errealitatearen azterketa egin beharko da hori horrela den egiaztatzeko).

Prestakuntza

- Gizarte-bazterketa jasateko arriskuan diren adineko emakumeei gaitasun soziopolitikoak eskuratzeko espazioak eta baliabideak eskaini. Emakume hauen ahalduntzea gauzatzea da helburua, elkarte-sareen eta autoantolakuntzaren bitartez. Prestakuntzarako berariazko programak sortuz edo hirugarren adinekoei zuzendutako esku-hartze programa orokorretan gaitasun soziopolitikoak eskuratzeko prestakuntza-ekintzak sartuz jorratu daiteke helburu hau, beti ere emakume horien beharrak berariazkoak direla azpimarratuz.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Gizarte-bazterketa jasateko arriskuan diren hirugarren adineko emakumeen beharrak asetzaren mailaren bilakaera:
 - Baliabideak eskatu dituzten gizarte-bazterketa jasateko arriskuan diren hirugarren adineko emakumeen %ren bilakaera.
 - Baliabideak eskuratu dituzten gizarte-bazterketa jasateko arriskuan diren hirugarren adineko emakumeen %ren bilakaera.

- Arreta/esku-hartzearen prozesua amaitzean euren beharrak aseta dituzten ala ez, pertzepzioaren indizea.
- Epe ertainean edo luzean beharrak aseta dituzten ala ez, pertzepzioaren indizea.
- Egokitu/hobetu/zabaldutuz diren baliabide kopuruaren bilakaera.

C1.1 XEDEA: ZAINZAKO LANAK EGITEN DITUZTEN PERTSONEI KARGA SOZIALAK ETA PSIKOLOGIKOAK MURRIZTEKO BALIABIDEAK GEHITU.

Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten berdintasunerako, 16. eta 17. artikulua. Emakumeen eta Gizoneen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 44. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Autonomiarik ez duten pertsonen zaintza emakumeek egin ohi dute etxean bertan. Modu horretan, egindako lana ez da gizartean aintzatesten, eta beraz, gizarteak ez ditu pertsona hauek jasandako karga ekonomikoak, sozialak eta psikologikoak ezagutzen. Karga horien artean sartzen da garapen profesionalerako aukeren, aisialdirako aukeren eta gizarte-harremanetarako aukeren murrizketa, eta horri guztiari uko egin beharraren ondoriozko karga psikologikoa.

B.

ESTRATEGIA

Udaleko gizarte-ekintzarako arloetan zaintza-lanak egiten dituzten pertsonei zuzendutako programa edo lan-ildoak txertatuko da, udalerraren ezaugarri demografikoaren arabera ko neurrian (tamaina, batez besteko profil sozioekonomikoa, etab.) eta zaintza-lanak egiten dituzten pertsonen berariazko beharrak kontuan hartuta.

C.

LAN PROZESUA

Informazioa / Sentsibilizazioa

- **Zaintzaileei zuzendutako hedapen-programak eta programa dokumentalak sortu, zaintzak dituen zeharkako kostuei buruzkoak.** Zaintza-lanak egiten dituzten pertsonei jakinaraziko zaie euren egoerarekin lotuta dauden arazoak zeintzuk diren eta

arazo horiei aurre egiteko administrazioak euren esku jartzen dituen baliabideak eza-gutarazteko. Horretarako, postaz bidalitako txostenak edota kultur etxeetan hitzaldiak antolatu daitezke.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Gizarte-ekintzako arlotik autonomiarik gabeko pertsonen zaintzan diharduten emakumeen/pertsonen arretarako eta orientaziorako berariazko zerbitzua sortu.** Talde honen behar osoak asetzea da ekintza honen helburua. Horretarako, beheko zerbitzuak abian jar daitezke:
 - Zaintza-lanak berarekin dakartzan kostuei eta “emakume zaintzaileen rolak” generoko gizarte-antolamenduarekin duen lotura zuzenari buruzko hausnarketa.
 - Zaintzaileen autolaguntzarako eta emakume zaintzaileen parte-hartze soziopolitikoak sustatzeko prestakuntza-ekintzak, talde honen eskaerak giltzatu eta kanalizatu daitezen.
 - Zaintza-lanen ondoriozko arrisku fisiko eta psikologikoen prebentziorako laguntza psikologikoa.
 - Baliabide sozioekonomikoei buruzko orientazioa.

Udaleko zerbitzu honetan, zaintzaileak euren lanetan ordezkatzeko zerbitzua txertatu beharko da, ikastaroetan, kontsuletan edo taldeetan daudenean zaintza-lan horiek egingo dituzten profesionalak hartuta.

D. ---

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Emakume zaintzaileen beharren estaldura-mailaren bilakaera:
 - Udaleko gizarte zerbitzuak eskatzen dituzten emakume zaintzaileen %ren bilakaera.
 - Udaleko gizarte zerbitzuak hartu dituzten emakume zaintzaileen %ren bilakaera.
 - Arreta/esku-hartzearen prozesua amaitzean euren beharrak aseta dituzten ala ez, pertzepzioaren indizea.
 - Epe ertainean edo luzean beharrak aseta dituzten ala ez, pertzepzioaren indizea.
- Moldatu edo sortu diren programen eta baliabideen kopuruaren bilakaera.

V1.1 XEDEA: INDARKERIA ZIKLOA GARAIZ ANTZEMATEN DIREN KASUAK AREAGOTU. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 22. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 50. eta 51. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Esku-hartzearen helburua, etxeko indarkeria-kasuak hastapeneko fasean (ahozko indarkeria, eta psikologikoa) antzematea eta horietan esku-hartzea da, indarkeria fisikoaren amaierako faseetaraino heltzen utzi gabe.

B.

ESTRATEGIA

Indarkeriaren prebentziorako Udalean lan-ildoa sortu nahi da, indarkeria-kasuak garaiz antzemateko eta esku-hartzeko, eta, alde batetik euren egoera onartzeko gaitasuna areagotu nahi da emakumeen artean, eskura dituzten baliabideak ere ezagutaraziz, eta bestetik, gizonek indarkeriaren lehenengo faseak ezagutu eta arbuiaitu ditzaten ekintzak garatu, indarkeria erabiltzen dutenak euren kabuz kontura daitezen.

C.

LAN PROZESUA

Jakintza

- **Emakumeen aurkako indarkeriaren eraginak, arrazoiak eta prebentziorako neurriak buruzko ikerketa egin.** Udalen artean jorratuko da ikerketa hori, emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan gizartean dauden eta indarkeria jasaten duten emakumeei laguntzeko eragileen sarea areagotzea oztopatzen duten aurreiritziak, sinismenak, estereotipoak edo oztopoak aztertuko dira. Gizarte-langileek, familia-hezitzaileek eta adin gutxikoen hezitzaileek, irakasleek, etab. laguntzarako sarea osatzeko neurriak hartu nahi dira, eta indarkeria-kasuak garaiz antzematen lagunduko duten bestelako taldeak bilatu nahi dira, talde guztiak indarkeria antzematen parte hartu eta antzemandakoetan esku hartu dezaten jarduerak diseinatuz.

Informazioa / Sentsibilizazioa

- **Indarkeria-zikloari buruzko informaziorako eta sentsibilizaziorako kanpainak egin.** Bi helburu ditu ekintza honek: emakumeen kasuan, existitzen diren baliabideak eza-

gutzea eta erabiltzea sustatu nahi da; gizonen kasuan, berriz, indarkeria-zikloa ezagutarazi nahi da, indarkeriaren lehen etapan dauden gizonak euren kabuz kontura daitezten, eta indarkeriarik aplikatu ez dutenek indarkeria-egoerak ezagutu eta arbuia-tu ditzaten. Ekintza hau udalerrien artean garatu daiteke, edota Udalak esparru hone-tan egiten duen lana hedatzeko txosten eta hitzaldien bidez.

Prestakuntza

- **Indarkeriaren prebentziorako prestakuntza-ekintzak egin.** Kasu honetan ere helbu-rua bikoitza da: emakumeei zuzendutako prestakuntza-ekintzetan indarkeria-zikloa ezagutu eta biktima diren kasuetan, euren burua ziklo horretan dagoela euren kabuz konturatu daitezela. Gizonei zuzendutakoetan, berriz, indarkeriaren eta maskulino-tasunaren arteko lotura landuko da, indarkeriazko jarrerak ekidin eta harreman-eredu berriak sustatzeko. Horretarako, bikote-arazoak dituzten pertsonekin lan-taldeak sortu daitezke, arazo horiek indarkeria goiztiarra sortzera eramateko gai diren antzemate-ko, eta antzemandako kasuetan, lanerako berariazko azpitaldeak sortuko lirateke.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Garaiz antzemateko prebentzio-jardueren bidez antzemandako indarkeria-kasuen kopurua.
- Zerbitzu orokorrekin nahiz berariazkoekin landutako kasuen kopurua.

V1.2 XEDEA: TRATU TXARREN ETA SEXU ERASOEN BIKTIMEI ARRETA, LAGUNTZA ETA BABESA EMATEKO ESKAEREI KOORDINAZIOAREN, KALITATEAREN ETA ERAGINKORTASUNAREN IRIZPIDEEN ARABERA ERANTZUN, EAEKO UDALERRIETAN ETXEKO TRATU TXARREN ETA SEXU ERASOEN AURREAN JARDUTEKO TOKIKO PROTOKOLOAK EZARRIZ. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 15., 18. eta 22. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 50, 54, 55, 56 eta 58. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Lan hauetan ardurak dituzten eragileek koordinaziotik abiatuta, tratu txarren eta sexu eraso-en biktimei arreta, laguntza eta babesa emateko eskaerei koordinazioaren, kalitatearen eta eraginkortasunaren irizpideen arabera erantzutea da helburua.

Baliabideen sorrerari dagokionez, etxeko tratu txarren eta sexu erasoen aurrean jarduteko tokiko protokoloak ezartzen dituzten udalerrien kopurua areagotu behar da, eta tratu txarren eta sexu erasoen biktimei arreta emateko udaleko baliabideak hobetu behar dira.

Informazioa / Sentsibilizazioa

- **Interesa duten Udalen artean eta horrelakoak ezarrita dituzten Udalen artean topaketak antolatu, tokiko protokoloak abian jar daitezten.** Udalerrien artean garatuko den ekintza hau informazioa eta praktika egokiak elkar trukatzeko egiten da, udalerrien jakintza-maila handitzeko asmoz. Izan ere, horrekin, tokiko jarduera-protokoloak ezartzen dituzten tokiko erakundeek kopurua handitzen baita.
- **Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuak hedatu.** Udalerriko herritarrak sentsibilizatu nahi dira, datuok tokiko komunikabideetan edo hedapen publikoko beseleko baliabideetan aldizka argitaratuta.

Prestakuntza

- **Udaleko langile teknikoak eta berdintasun-eragileak prestatu, tokiko jarduera-protokoloak garatu eta bultzatu ditzaten.** Ekintza honen bidez, tokiko protokoloen diseinuan eta ezarpenean langile teknikoak gaituko dira. Udalerrien artean garatu daiteke, Udalen arteko topaketen laguntzarekin.
- **Indarkeriaren biktimei diren emakumeei lege-aholkularitza eta aholkularitza psikologikoa eskaintzen dieten udaleko edota kudeaketa-erakundeetako langileei berdintasunean eta kultura-aniztasunaren ikuspegian prestatu.**

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko tokiko protokoloak egin.** Ekintza honen helburua, mota honetako protokoloak ahalik eta udal gehienetan diseinatu eta ezartzea da, indarkeria jasaten duten emakumeen arreta eta esku-hartzea egokia izan dadin (udaleko, udalen arteko eta udalez gaindiko koordinazio-mekanismoak zehaztu, jarduera-ildoak definitu, etab.).

- **Tratu txarrak eta sexu-erasoak jasan dituzten emakumeentzat udalean dauden laguntza juridikorako eta psikologikorako baliabideak indartu.** Baliabide horien estaldura eta kalitatea hobetuko da.

Araudia

- **Udaleko enplegu publikorako gaitan indarkeria jasan duten emakumeen arretarako eta esku hartzeko gaiak txertatu.** Indarkeria jasan duten emakumeen arreta eta esku-hartzearekin lotuta dauden lanpostuetan (udaltzaingoa, gizarte-zerbitzuak, etab.) txertatuko dira gai horiek. Politikoki hausnarketa bat egin beharko litzateke udalean, gai-multzoetan horrelakoak txertatzea berresteko.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Etxeko tratu txar eta sexu-erasoei aurre egiteko tokiko protokoloak ezarri dituzten udalerrien kopuruaren bilakaera.
- Udalerrian sortu diren laguntza juridikorako eta psikologikorako baliabideen kopuruaren bilakaera.

V1.3 XEDEA: TRATU TXARREN ETA SEXU ERASOEN BIKTIMEI HARRERA EMATEKO ESKAEREI KOORDINAZIOAREN, KALITATEAREN ETA ERAGINKORTASUNAREN IRIZPI-DEEN ARABERA ERANTZUN, "ETXEKO TRATU TXARREN BIKTIMEI HARRERA ETA ETXEBIZITZA EMATEKO BALIABIDEAK HOBETZEKO PROGRAMAN" JASOTAKO NEURRIAK EZARRI ETA ETENGABE HOBETZEN DIRELA BERMATUZ. Europako Gutuna Emakumeek eta

Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 15., 18. eta 22. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 50 eta 57. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

"Etxeko tratu txarren biktimei harrera eta etxebizitza emateko baliabideak hobetzeko programan" eta geroago onartutako arau eta programetan biltzen diren neurriak garatzea bermatuko da.

Etzeko tratu txarren biktimei harrera eta etxebizitza emateko baliabideak hobetzean oinarritzen da estrategia, eta baliabide horiek eskuragarri eta seguruak egiteko beharrezkoak diren baldintzak sortuko dira. Bestalde, emakume horiei laguntzea ere erraztuko da, indarkeria-egoerari aurre egin diezaioten (salaketak, baliabideak eskuratzea, laguntza psikologikoa, etab.).

Jakintza

- **Indarkeria jasan duten emakumeek harrerarako eta etxebizitzarako baliabideen eskaerari buruzko azterketa eta balioespena.** Harrerarako eta etxebizitzarako baliabideen eskaintza zein den ezagutu nahi da, eta indarkeria jasan duten emakumeen eskaera. Horrela, horiek ezagututa, baliabideotan kalitate-parametroak txertatzeko prozesuak garatuko dira, emakumeen beharrak asetzerara begira behar bezala egokitzeko. Datuen azterketa etengabe eguneratuko litzateke, existitzen den eskariaren estaldura-maila zehatz-mehatz jakiteko.

Prestakuntza

- **Tratu txarren biktimekin lan egingo duten profesionalak espezializatzeko prestakuntza-programak garatu.** Indarkeria jasan duten emakumeen arretan lan egiten duten profesionalen zuzendutako programak dira, eta emakumeek jasan ditzaketen egoera eta arazo ezberdinak landuko dira: immigrazioa, patologia mentalak, funtzionalitate dibertsoa, etab.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Babeserako eta urruntzeko premiazko eskaerei erantzuteko harrera-etxebizitzak bermatu, baliabide horiek ez dituzten espazioetan.** Mota honetako baliabiderik ez duten 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerri edo mankomunitateetan harrera-etxebizitzak sortzea da helburua, eta baita duten gaitasunagatik edo izan duten ibilbideagatik harrera-etxebizitzak eskaintzeko gaitasuna duten udalerrietan ere.
- **Existitzen diren harrerarako eta etxebizitzarako zerbitzuak egokitu, oztopo arkitektonikoak eta komunikaziokoak murriztuz, eta segurtasun-sistemak hobetuz.**

- **Indarkeria jasan duten emakumeen harrerarako baliabideetan laguntza-zerbitzuak sortu eta garatu.** Indarkeria jasan duten emakumeen arretan espezializatutako pertsonen etengabeko laguntza eskaintzeko aukera izan dezaten baliabideak sortuko dira, eurekin zerbitzuak eskuratzera lagunduz, bideratzeak eta bestelako zerbitzuak eskuratzera eta abar erraztuz.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Sortutako harrera-etxebizitzaren kopuruaren bilakaera.
- Egokituz, oztopo arkitektonikoak eta komunikaziokoak murriztuz, eta segurtasun-sistemak hobetuz moldatu diren harrerarako eta etxebizitzarako zerbitzuen kopuruaren bilakaera.
- Sortu diren laguntzarako zerbitzuen kopuruaren bilakaera.

2.6

**OSASUNA ETA
DROGAZALETASUNAK**

2.6.1

OSASUNAREN ETA DROGAZALETASUNAREN ARLOKO PLANTEAMENDUARI BURUZKO SARRERA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen V. kapituluaren ("Beste gizarte eskubide oinarritzko batzuk") 28. artikuluan, osasun arloaren erreferentziazkoan, lau atal bereizten dira.

Lehenengoa honela dio: *"Euskal herri-administrazioek emakumeei osasuna hobetzen lagundu behar diete beren bizitza osoan; arreta berezia eskainiko diete, orobat, emakumeengan eragin handiena duten osasun-arazoei". Bigarrenean, berriz: "Autonomia Erkidegoko Administrazioak emakumeen eta gizonen tratu- eta aukera-berdintasuna behartu behar du osasunarekin zerikusia duen ikerkuntzan eta arretan. Horretarako, aintzat hartuko du gizonen eta emakumeen dituzten egoerak, baldintzak eta beharrezkoak desberdinak direla, eta, ondorioz, politika espezifikoak garatuko ditu beharrezkoa denean".*

Hirugarrenean haxe aipatzen du: *"Asistentzia-prozesuen diseinua egiterakoan, Osasun Administrazioak neurriak hartu behar ditu osasun-arazoak dituzten pertsonak zaindu beharrak -ordaindu gabe eta gehienbat emakumeek zaindu ere- etxeetan eragiten duen karga arintzeko". Amaitzeko, laugarrenean: "Euskal herri-administrazioek bete egin behar dituzte sexu- eta ugalketa-eskubideak baliatzeak dakartzan beharrezkoak. Horretarako, prebentzio- eta asistentzia-programak prestatuko dituzte; horien artean egongo dira plangintza sexuala erraztera eta nahigabeko haurduntzeak eta sexu bidez transmititutako gaixotasunak saihestera bideratutakoak".*

Arlo honetan Udalek egindako lanak eta eskumenak prebentzioarekin lotzen dira, eta zenbait esparrutan bereziki lan egiten da laguntzarako baliabideak artikulatzeko, eskumenak erabilita edo aipatutako arlo horretan udalak duen lan-ibilbidean oinarrituta.

Udalak dira herritarrek informazioa eta baliabideak eskuratzeko hurbilen duten espazioa, eta gizarteak dituen beharrak antzemateko gune dira. Beraz, udalerrian egindako esku-hartze eta plangintza guztietan genero-ikuspegia txertatu beharko da.

Mainstreamingaren helburua, Udaleko osasuna eta droga-mendekotasunaren arloetako diagnostikoetan, plangintzetan, esku-hartzeetan eta balioespenetan genero ikuspegia txertatzea da. Lana genero-ikuspegian oinarrituta garatzeko tresnak eta prozesuak estandarizatuko dira, emakumeek arlo honetan dituzten baldintzak, kokapenak, beharrak, etab. ezagutzeko eta erantzun egokia emateko.

Gainera, dokumentu honetako 27 or. Zeharkakotasuna eta berdintasun-politikak izeneko atala EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planean xedatutakoetan oinarritzen da (Ardatz estrategikoak. Mainstreaminga): oro har, eta zeharkako moduan, Plan honetan aurreikusitako helburu eta jardun guztiak garatu, gauzatu eta ebaluatzeko garaian, kontuan izan beharko dira emakumezko eta gizonezko taldeen espezifikotasunak, eta batik bat, askotariko diskriminazioa pairatzen duten emakumeenak, emakume minusbaliatuen taldea esaterako.

AHALDUNTZEA

Ardatz honi lotutako helburuak hiru dira. Lehenengo, euren osasunaren eta horren kudeaketaren inguruan emakumeei eskainitako informazioa areagotu erabakiak euren kabuz hartzen sustatzeko; bigarren, euren osasun afektibo-sexualaren eta horren kudeaketaren inguruan emakumeei eskainitako informazioa areagotu erabakiak euren kabuz hartzen sustatzeko; eta azkenik, substantzien kontsumoak eragiten duen genero-inpaktuaren inguruko informazioa areagotu.

Lanerako prozedura ezberdina beharko du helburu bakoitzak. Lehenengoaren kasuan, proposamenek bi esparrutan eragiten dute: emakumeen osasuna (onura fisiko eta mentala), oro har, eta elikadura-jokabideko asaldurak. Bi kasuetan, ekintzak herritar ezberdinei zuzenduta badoaz ere, informazioan eta sentsibilizazioan oinarritzen dira: prestakuntzako eta hezkuntzarako programak, adibidez.

Bigarren helburuan estrategia bakarra erabiliko da, osasun afektibo-sexuala eta ugalketa-koaren esparruak osoki kontuan hartuta. Informaziorako, orientaziorako eta arretarako udal-baliabideak artikulatuko dira, eta hala, informazio-kanpainak eta prestakuntza-baliabideak garatuko dira.

Ardatz honetako helburua, osasun zerbitzuak eskuratu dituzten indarkeria jasandako emakume drogazaleen asetasun-maila eta kopurua areagotzea eta indarkeria jasandako emakumeen arretarako tokiko protokoloen arreta areagotzea da. Helburua gauzatzeko planteatu den estrategiaren arabera, indarkeria jasan duten emakumeen arretarako tokiko protokoloen egokitze-maila aztertuko da, baita Udalen eta emakumeekin lanean diharduten gizarte-erakundeen artean koordinaziorako baliabideak sortu ere, indarkeria jasatekotan baliabideok eskuratzea errazagoa izan dadin.

Beheko laburpen-taulan (2.6.2) biltzen dira xede eta ardatz bakoitzerako proposatu diren jarduerak, geroago azalduko direnak (2.6.3. atalean).

2.6.2

EDUKIEN ZERREDA

MAINSTREAMINGA

XEDEAK	TRESN.	EGINTZAK
M1.1 XEDEA: UDALEKO OSASUNA ETA DROGAZALETASUNAREN ARLOETAKO DIAGNOSTIKOETAN, PLANGINTZAETAN ESKU HARTZEETAN ETA BALIOESPENETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATU. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 12, 14 eta 29. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, eta 44. artikulua.	Jakin.	Datuak sexuaren arabera banatuta jaso eta hedatu. Osasunaren eta drogazaleatasunaren arloetako politikak urtero genero-ikuspegian oinarrituta aztertu. Genero-inpaktuaren alde aurretiko balioespena.
	Prestak.	Langileak berdintasun-politikan gaitu.
	Zerb/Bali	Mintzaira sexista erabiltzea ekidin.
	Jarraip.	Osasunaren eta drogazaleatasunaren arloetan berdintasunaren aldeko neurriek duten betetze eta emaitza balioespena.

AHALDUNTZEA

XEDEAK	TRESN.	EGINTZAK
E1.1 XEDEA: EUREN OSASU-NARI BURUZ EMAKUMEEK HARTUTAKO ERABAKIAK ETA INFORMAZIOA AREAGOTU ETA KUDEATU. Europako Gutuna Emakumeei eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten berdintasunerako, 14. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 44. artikulua.		Gazte eta haurren artean bereziki elikadura jokabidearen ondoriozko asalduren eragina murrizteko lan-prozesua
	Info/Sent	Elikadura-portaeren ondoriozko asaldurak eta arriskuak genero-ikuspegia oinarritzat hartuta ezagutarazteko kanpainak garatu. Elikadura-portaera osasungarriak hartzearen garrantziari buruzko informazioa eta sentsibilizazio kanpainak garatu.
	Prestak.	Haurrei eta nerabeei zuzendutako osasun-hezkuntzarako programetan elikadura-portaeren ondoriozko asalduren eragina murrizteko edukiak txertatu.
		Emakumeei euren ongizate fisiko eta mentalaren inguruan informazioa jaso eta erabakiak hartzeko gaitasuna areagotzeko zuzendutako lan-prozesua
	Info/Sent	Ongizate fisiko eta mentalari buruzko informazioa eta sentsibilizatorako kanpainak garatu, genero-ikuspegian oinarrituta.
E1.2 XEDEA: EUREN OSASUN AFETIBO SEXUALARI ETA UGALKETA OSASUNARI BURUZ EMAKUMEEK HARTUTAKO ERABAKIAK ETA INFORMAZIOA AREAGOTU ETA KUDEATU. Europako Gutuna Emakumeei eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten berdintasunerako, 14. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 44. artikulua.	Prestak.	Sektore-batzordeetan / osasun-aholkulariekin osasuna eta generoarekin lotutako gaiak landu.
	Zerb/Bali	Ongizate fisiko eta mentalaren esparrua landuko duten emakumeei zuzendutako tailerrak antolatu. Elkarteei osasun-programen garapena diruz lagundu.
	Info/Sent	Sexualitatearen bizipen positiboa sustatzeko kanpainak garatu.
	Prestak.	Osasun afektibo-sexualaren eta ugalketa-osasunaren kudeaketa autonomia eta arduratsua lortzeko prestakuntza-programak garatu. Udaren eskumeneko ikastetxe eta hezkuntzarako espazioetako ikasleen artean hezkuntza afektibo-sexualerako programak garatu. Haurdunaldiaren, erditzearen eta puerperioaren une eta etapa bakoitzarekin lotutako programak eta ikastaroak garatu. Ugalketa-ziklo biologikoarekin lotutako une eta etapa ezberdinekin lotutako programak eta ikastaroak garatu.
	Zerb/Bali	Osasun afektibo-sexualaren eta ugalketa-osasunaren esparruetan informazioarako, orientazioarako/aholkularitzarako eta arretarako zerbitzuak garatu. Osasun afektibo-sexualaren eta ugalketa-osasunaren arloko hezkuntza-programak garatu zaurkotasun-egoeran dauden emakumeentzat.
E1.3 XEDEA: ADIKZIOA ERAGITEN DUTEN SUBSTANTZIEN KONTSUMOAN GENERO INPAKTUARI BURUZKO INFORMAZIOA AREAGOTU. Europako Gutuna Emakumeei eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten berdintasunerako, 14. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 44. artikulua.	Jakin.	Esparruari buruzko jakintzak areagotzeko ikerketak egin.
	Info/Sent	Substantzien kontsumoan eragiten duten genero-faktoreak eta kontsumoari lotutako arriskuak ezagutarazteko kanpainak garatu. Mendekotasuna sortzen duten substantzien kontsumoaren inguruan genero-ikuspegian oinarritutako prebentzio-kanpainak garatu.
	Zerb/Bali	Genero-ikuspegian oinarrituta, emakume helduei zuzendutako mendekotasun-sortzaile diren ohituren prebentzioarako programak garatu. Genero-ikuspegian oinarrituta, ikasleei zuzendutako mendekotasun-sortzaile diren ohituren prebentzioarako programak garatu.

INDARKERIA

XEDEAK	TRESN.	EGINTZAK
V1.1 XEDEA: INDARKERIA JASANDAKO EMAKUMEEN ARRETARAKO TOKIKO PROTOKOLOEN BITARTEZ OSASUN ZERBITZUAK ESKURATU DITUZTEN INDARKERIA JASANDAKO EMAKUME DROGAZALEEN ASETASUN-MAILA ETA KOPURUA AREAGOTU. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 14., 15., 18. eta 22. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 44, 50, 54, 55, 56, 57 eta 58. artikulua.	Jakin.	Genero-indarkeria jasan duten emakume drogazaleen arretarako tokiko protokoloak egokitzeko gaitasuna aztertu.
	Info/Sent	Indarkeria jasan duten emakume drogazaleek baliabide orokorrak eskuratzea areagotzeko ad hoc informazio-estrategia garatu.
	Zerb/Bali	Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen arretan diharduten udaleko arloen eta emakume drogazaleekin lanean diharduten gizarte-erakundeen artean koordinaziorako egiturak garatu.

2.6.3

EDUKIEN GARAPENA XEDEEN ARABERA

M1.1 XEDEA: UDALEKO OSASUNA ETA DROGAZALETASUNAREN ARLOETAKO DIAGNOSTIKOETAN, PLANGINTZAETAN ESKU HARTZEETAN ETA BALIOESPENETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATU.

Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 12, 14 eta 29. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, eta 44. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Esku-hartzearen helburua, osasunaren eta drogazaleatasunaren arloetan lan egiten duten langile, politikari eta teknikariek arlo horietako diagnostikoak, plangintzak, esku-hartzeak eta balioespenak egitea da, emakume eta gizonen egoera, kokapen eta behar ezberdinak kontuan hartuta.

Osasunaren eta drogazaletasunaren arloko udal politikak prebentzioan eta orokortasunean oinarrituta garatzen dira, eta euren osasunaren kudeaketan ahalduztzeko tresnak eskainiko zaizkie emakumeei, baita osasunaren eta drogazaletasunaren esparruko politikan parte har dezaten ere, genero-inpaktua kontuan hartuta.

B.

ESTRATEGIA

Osasunaren eta drogazaletasunaren arloan udaleko politiken diagnostikoan, diseinuan, esku-hartzean eta balioespenean emakumeen egoera, baldintza eta kokapen ezberdinak uztartuko dituzten tresnak eta lan-prozesuen erabilera estandarizatuko da.

C.

LAN PROZESUA

Jakintza

- **Datuak sexuaren arabera banatuta jaso eta hedatu.** Osasunaren eta drogazaletasunaren arloetan sexuaren arabera banatuta egoerei eta beharrei buruzko informazioa lortu nahi da. Osasunaren eta drogazaletasunaren arloetan Udalean egiten diren ikerketa eta estatistika guztietan datu orokorrak maneiatzeko tresna elektronikoetan sexuaren aldagaia txertatzeko eskatzen da. Neurria eraginkorra izan dadin, garrantzitsua da laginak behar bezain handiak eta adierazgarriak direla bermatzea, emakumeen eta gizonen arteko aldeak ongi bereizteko eta hedapeneko fasean datu bereziak ongi aditzera emateko. Modu berean, Bestalde, sexuaren aldagaia sartzeaz gain bestelako aldagaiak sartzea ere adostu beharko da: adina, jatorria, minusbaliotasunak, etab., errealitatearen jakintza sakonagoa izan dadin, eta plangintzetan, esku-hartzeetan eta balioespenetan kulturaren aniztasuna moduko ikuspegiak txertatu ahal izateko.
- **Osasunaren eta drogazaletasunaren arloetako politikak urtero genero-ikuspegian oinarrituta aztertu.** Ekintza honen helburua, udaleko jardueretan genero-ikuspegian oinarritutako herritarren beharrak asetzeko beharrezkoak diren lan-ildoak txertatzea da, udalerrri eta udalerriez gaindiko jarraibideak kontuan hartuta (helburuei eta ezarritako neurriei dagokienez). Lehenengo eta behin, Udaleko osasunean eta drogazaletasunetan adituak diren langileez (politikari eta teknikariak), berdintasunerako eragileez, politika horietan murgilduta dauden Udaleko beste arloez (hezkuntza, kirolak, etab.) eta emakume-elkarteez edo udaleko Osasunaren edota Berdintasunaren Batzordeez

eraturako lan-taldeak osatu beharko lirateke Talde hauen helburu nagusia, goian deskribatutako jardueren, programen, planen eta ekintzen ildoak aztertzea da.

- **Genero-inpaktuaren alde aurretiko balioespena.** Arau edo egintza administratiboen aplikazioa gizonen eta emakumeen artean modu berean egiten den ala ez zehazteko balio duen tresna da, eta beraz, ezkutuko diskriminazioak ekiditen laguntzen du. Ekintzaren helburua, administrazioko arau edo egintza guztietan tresna hori aplikatzea da, eta Udalaren lan osorako zehaztuko da.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Mintzaira eta irudi sexistak ez erabiltzea.** Dokumentu eta komunikazio guztietan emakumeen agerpena eta parte-hartzea zehaztea da ekintzaren helburua, horrela, gizonezkoen errealitatea beti baliagarria dela automatikoki onartzea ekiditeko. Udaleko osasunaren eta drogazaletasunaren arloetan mintzaira sexista ez erabiltzeko gida banatu beharko da, eta edozein motako dokumentua (formularioak, txostenak, balioespenak, prozedurak, etab.) sortzeko erabili behar dela gogoraraziko da.

Jarraipena

- **Osasunaren eta drogazaletasunaren arloetan berdintasunaren aldeko neurriak duten betetze eta emaitza balioespena.** Balioespena eta inpaktua urtean behin egiteko aukera legoke, arloetako politiken azterketan eta plangintzan parte hartzen duten guztiekin batera. Planteatutako jardueren maila balioestearekin emaitzen bilakaera aditzera emango litzateke, baina inpaktuaren balioespenak aldatu nahi zen errealitatea nola aldatu den islatuko luke.

Prestakuntza

- **Langileak berdintasun-politiketan gaitu.** Langile politikariak nahiz teknikariak goian aipatutako ekintza guztietarako gaitu behar dira. Dena den, azpimarratu behar da politikariei zuzendutako prestakuntza ez dela teknikariei zuzendutakoaren berdina izango. Izan ere, lehenengoen kasuan berdintasun-politikak, politiken eta aurrekontuen azterketa, etab. aztertuko dira, eta bigarrenen kasuan lehenago adierazitako ekintzen garapenari (datuen desagregazioa, mintzaira sexista ez erabiltzea, emaitzen azterketa eta inpaktua, etab.).

- Osasunaren eta drogazaletasunaren arloetako udal-jardueren artean berdintasun-jarduerak garatzera bidean egokitutako jarduera-ildoen %.
- Sexuaren aldagaia kontuan hartuta egin eta hedatu diren ikerketa eta estatistiken %ren bilakaera.
- Mintzaira sexista erabili gabe arloetan egin diren dokumentuen %ren bilakaera.
- Berdintasunerako diseinatu diren ekintzen emaitzaren bilakaera (ezarritako ekintzen %ren bilakaera eta hartzaileen/onuradunen kopurua).
- Saileko prestakuntzaren bilakaera: prestatutako pertsonen % eta pertsona bakoitzaren prestakuntza-ordu kopurua.

E1.1 XEDEA: EUREN OSASUNARI BURUZ EMAKUMEEK HARTUTAKO ERABAKIAK ETA INFORMAZIOA AREAGOTU ETA KUDEATU.

Europako Gutuna Emakumek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 14. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 44. artikulua.

Esku-hartzearen helburua, osasunaren inguruan euren kabuz erabakiak hartzeko eta kudeatzeko emakumek duten gaitasuna areagotzea da. Udaleko ikuspegitik prebentzioa bereziki lantzen da, informaziorako/sentsibilizaziorako tresnak artikulatuz, eta prestakuntza eta baliabideak ere lantzen dira, tailerrak eta prestakuntza-programak abian jarriz.

Esku-hartzeko lehen esparruaren helburua elikadura-jokabidearen ondoriozko asalduren eragina murriztea da, gazte eta haurren artean bereziki. Asaldurarik ohikoenak obesitatea, anorexia eta bulimia dira, eta gazteenen artean eragiten dute gehien, bereziki neska gazteen artean. Azpimarratzekoa da, halaber, asaldura horiek geroz eta lehenago agertzeko joera dutela.

Esku-hartzeko bigarren esparruaren helburua emakumeak osasunaren gaitan euren kabuz erabakiak hartzeko eta kudeaketarako gaitasunak areagotzea da, prebentzioaren, informazioaren eta prestakuntzaren ikuspegitik, oro har, bizimodu osasungarria sustatzeko. Esparru honetan ere osasunean generoak duen eragina agerian gelditzen da.

B.

ESTRATEGIAK

Helburuari ekiteko bi estrategia planteatu dira.

Lehenengoan, elikadura-portaerengatiko asalduren eragina murriztea da helburua, neska gazte eta haurren artean bereziki, informazioaren eta sentsibilizazioaren ikuspuntutik garatzen da, eta arazo hauek genero-ikuspegian oinarrituta lantzeko prestakuntza-baliabideak aktibatuko dira.

Bigarrenean, emakumeak osasunaren gaitan euren kabuz erabakiak hartzeko eta kudeaketarako gaitasunak areagotzea da helburua, eta oraingoan ere informazioaren eta baliabideen ikuspuntutik garatzen da. Udalerriko erreferentziazko espazioetan garatuko dira: kultur etxeetan, kultur aretoetan, etab.

C.

LAN PROZESUAK

1.

GAZTE ETA HAURREN ARTEAN BEREZIKI ELIKADURA JOKABIDEAREN ONDORIOZKO ASALDUREN ERAGINA MURRIZTEKO LAN PROZESUA

Informazioa / Sentsibilizazioa

- **Elikadura-portaeren ondoriozko asaldurak eta arriskuak genero-ikuspegia oinarritzat hartuta ezagutarazteko kanpainak garatu.** Irakasleak, monitorea, gurasoak eta haur eta gazteen hezkuntzan parte hartzen duten bestelako eragileen artean elikadura-portaeren ondoriozko asalduretan generoaren aldagaiak duen eraginari buruz informatzea eta sentsibilizatzea, garaiz antzematearen garrantzia eta garaiz antzemateko jarraibideei buruz informatzea da helburua. Kanpainen diseinua udalerrien artean egin daiteke, eta gero kanpaina bakoitza udalerri bakoitzean garatuko litzateke.

- **Elikadura-portaera osasungarriak hartzearen garrantziari buruzko informazio eta sentsibilizazio kanpainak garatu.** Kasu honetan, kanpaina hauek hartuko litzuketen familiak izango lirateke onuradunak, eta, aurre kasuan bezala, diseinua udalerrien artean egin daiteke, eta gero kanpaina bakoitza udalerri bakoitzean garatuko litzateke. Ekintzaren helburua, familia-nukleotan elikadura-portaera osasungarriak hartzea da elikadura-portaerengatik asalduren agerpenaren prebentziorako.

Prestakuntza

- **Haurrei eta nerabeei zuzendutako osasun-hezkuntzarako programetan elikadura-portaeren ondoriozko asalduren eragina murrizteko edukiak txertatu.** Udalak kudeatutako osasunerako hezkuntza-programetan honelako edukiak sartuko dira: elikadura-tailerrak, genero-ikuspegian oinarrituta mutil eta nesken elikadura-portaerak aztertuko dituztenak, eta gorputzaren kultura eta irudiari buruzko azterketa, gizartean ezarrita dauden edertasun-idealen inguruan jarrera kritikoa areagotzeko, emakumeen artean bereziki.

2.

EMAKUMEEI EUREN ONGIZATE FISIKO ETA MENTALAREN INGURUAN INFORMAZIOA JASO ETA ERABAKIAK HARTZEKO GAITASUNA AREAGOTZEKO ZUZENDUTAKO LAN PROZESUA

Informazioa / Sentsibilizazioa

- **Ongizate fisiko eta mentalari buruzko informazio eta sentsibilizaziorako kanpainak garatu, genero-ikuspegian oinarrituta.** Emakumeei euren ongizate fisiko eta mentalaren inguruan informazioa jaso eta erabakiak hartzeko gaitasuna areagotzeko zuzendutako lan prozesuak garatuko dira. Hasiera batean kanpainak emakumeei zuzendutakoak badira ere, helburu berean eragin baino gizonezkoei zuzendutakoak diren kanpainak garatzea ere proposa daiteke. Beraz, osasunean ere generoa aldagaiak eragiten duela agerian uzten da. Kanpainetan erabili ahal izango diren zenbait eduki:
 - Emakumeen eritasunik ohikoenak.
 - Etxeko lanekin edo mendeko pertsonen zaintzarekin lotutako osasun-arriskuak bistaratu.
 - Autozainketaren garrantzia.
 - Ongizate fisiko eta mentalaren funtsezko etapak.

- Jarduera fisikoa eta kirola sustatzea.
- Beste hainbat.

Amaitzeko, azpimarratu behar da kanpaina hauek bestelako aldagaiak ere barne hartu beharko lituzketela (adina edo jatorria, esaterako), kultura-aniztasunaren ikuspuntua txertatzeko.

Prestakuntza

- **Sektore-batzordeetan / osasun-aholkulariekin osasuna eta generoarekin lotutako gaiak landu.** Generoak osasunaren esparruan duen eragina azpimarratu nahi da eragile-mota askoren parte-hartzea eskatzen duten batzordeetan (udaleko politikari eta teknikariak, elkarteak, etab.). Batzorde horietako lan-agendetan genero-ikuspegian oinarritutako osasun-aholkuak txertatu beharko lirateke, eta komenigarria litzateke arazoak lantzeko saioak garatzea edo eragile ezberdinek zehazki eskatutako gaiak lantzea.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Ongizate fisiko eta mentalaren esparrua landuko duten emakumeei zuzendutako tailerrak antolatu.** Ekintzaren helburua emakumeen ongizate fisiko eta mentala hobetzeko tailerrak sortzea da (kultur etxeetan, kultur aretoetan, etab.), eta osasunaren autokudeaketa lantzea. Tailer hauek oinarrituko liratekeen esparruak:
 - Generoaren eragina depresioetan, estresean, etab. (depresioaren eta estresaren kudeaketa).
 - Emakumeen autoestimua hobetzea.
 - Osasun-arazoei aurre egiteko estrategiak (jakintzak eta gaitasunak).
 - Beste hainbat.

Amaitzeko, azpimarratu behar da kanpaina hauek bestelako aldagaiak ere barne hartu beharko lituzketela (adina edo jatorria, esaterako), kultura-aniztasunaren ikuspuntua txertatzeko.

- **Elkarteei osasun-programen garapena diruz lagundu.** Bereziki emakumeen elkarrekin osasunerako programak eta jarduerak garatzea da helburua, Udalak emandako baliabide ekonomikoen laguntzarekin.

- Anorexia, bulimia eta obesitate-kasuen kopurua eta bilakaera, sexuaren arabera banatuta.
- Emakumeek euren osasunari buruz duten informazioa eta erabakiak hartzeko gaitasunaren mailaren bilakaera, honela neurtuta:
 - Genero-ikuspegian oinarrituta ongizate fisiko eta mentalari buruzko informazio eta sentsibilizaziorako garatu diren kanpaina kopurua eta bilakaera.
 - Sektore-batzordeetan / osasun-aholkulariekin osasuna eta generoarekin lotutako gaiak lantzeko garatu diren saioen kopurua eta bilakaera.
 - Ongizate fisiko eta mentalaren esparrua landuko duten emakumeei zuzendutako tailerren kopurua eta bilakaera.
 - Osasun-programak garatzeko emandako diru-laguntzen kopurua eta bilakaera.

E1.2 XEDEA: EUREN OSASUN AFEKTIBO SEXUALARI ETA UGALKETA OSASUNARI BURUZ EMAKUMEEK HARTUTAKO ERABAKIAK ETA INFORMAZIOA AREAGOTU ETA KUDEATU.

Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 14. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 44. artikulua.

Esku-hartzearen helburua, osasuna afektibo-sexualaren eta ugalketa-osasunaren inguruan euren kabuz erabakiak hartzeko eta kudeatzeko emakumeek duten gaitasuna areagotzea da. Zentzu honetan, emakumeen ahalduntzea nahi da, helburuan eragingo duten informazio/prestakuntza-tresnak eskura ditzaten. Prebentzioaz gain herritarrentzat hurbilak diren baliabideak ere sortu beharko ditu udalak, euren osasunaren inguruan erabakiak hartu eta kudeatzeko gaitasunak hobetzeko.

Herritarrei oro har zuzendutako esku-hartzea da, eta genero-ikuspegia txertatzea funtsez-kotzat jotzen da, existitzen diren beharrei behar bezalako erantzuna ematea errazteko. Gainera, ekintzen garapenean zeharka bestelako aldagaiak kontuan hartzeko aukera dago: adina, jatorria,... Kultura-aniztasunaren ikuspuntua txertatzeaz gain minusbaliotasunarena ere txertatuko da horrela.

Bi dira esku-hartzearen esparru nagusiak: osasun afektibo-soziala eta ugalketa-osasuna. Osasun afektibo-sexualaren esparruan sexualitatearekiko jarrera positiboa, arduratsua eta autonomia sustatu nahi da, gizakion oinarrizko beharretako bat baita, gozamenerako, komunikaziorako eta gizartearen eta pertsonen arteko elkarrekintzarako iturri. Ugalketa-osasunaren esparruan, OMEren definizioari so eginez, ongizate fisiko, mental eta soziale-rako baldintza da biziaren etapa guztietan ugalketa-sistemaren alderdietan.

B.

ESTRATEGIAK

Estrategia bakarra erabiliko da, osasun afektibo-sexuala eta ugalketakoaren esparruak osoki kontuan hartuta. Informaziorako, orientaziorako eta arretarako udal-baliabideak artikulatuko dira, eta hala, informazio-kanpainak eta prestakuntza-baliabideak garatuko dira. Informazio-kopurua handitzea eta erabakiak hartzeko gaitasunak areagotzea da helburua, emakumeen artean nahiz gizartean oro har.

C.

LAN PROZESUA

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Osasun afektibo-sexualaren eta ugalketa-osasunaren esparruetan informaziorako, orientaziorako/aholkularitzarako eta arretarako zerbitzuak garatu.** Herritarrentzat eskuragarri eta hurbilak diren osasun afektibo-sexualaren eta ugalketa-osasunaren esparruetan informaziorako, orientaziorako/aholkularitzarako eta arretarako zerbitzuak garatzea da helburua, beste hainbat esparru kontuan hartuta: antisorgailuak, gogoz kontrako haurdunaldien kasuan arreta eta bideratzeak, koitoaren ondorengo ekintza, sexu-orientazioa, etab. Hainbat erakunderen arteko koordinazioa behar da ekintza hauetarako. Modu berean, zeharka bestelako aldagaiak ere kontuan hartu beharko lirateke (adina, jatorria, minusbaliotasunak...), guztion eskura jarritako zerbitzu orokor hauek ager daitezkeen behar espezifiko guztiei erantzuteko adinako malgutasuna izan dezaten (adineko pertsonen sexualitatea, antisorgailuak eta gazteak, ugalketa-osasuna eta emakume etorkinak, etab.).
- **Osasun afektibo-sexualaren eta ugalketa-osasunaren arloko hezkuntza-programak garatu zaurkortasun-egoeran dauden emakumeentzat.** Lanaren filosofia osoak baliabide orokorrak eta denon eskurakoak sortzera bideratzen badu ere, berariazko beharrrak asetzeko bestelako estrategiak garatu beharra ikusten da. Horrelakoetan, zaurkortasun-egoeran edo gizarte-bazterketa egoeran dauden emakumeentzat osasun

afektibo-sexualaren eta ugalketa osasunaren arloko hezkuntza-programak garatzea da helburua, emakume horiek informazio eta baliabide orokorra eskuratzeko maila baxuagoa dutela onartzen baita. Elkarleen lana sustatu daiteke diru-laguntzen edo hitzarmenen bitartez, eta elkarte horien eskutik zaurkortasun-egoeran dauden emakumei informazio eta baliabide orokorrak hurbiltzeko estrategiak garatuko dira.

Informazioa / Sentsibilizazioa

- **Sexualitatearen bizipen positiboa sustatzeko kanpainak garatu.** Ekintza hau herritar guztiei zuzendutakoa izango da, eta sexualitatea elementu positibotzat eta pertsonen garapenean funtsezkotzat jotzea du helburu. Genero-ikuspegian oinarritutako ekintzak izan beharko dute, eta adinaren, bizi-etapen eta abarren arabera banatutako azpikanpainak sortuko dira. Kanpainen diseinua udalerrien artean egin daiteke, eta gero kanpaina bakoitza udalerri bakoitzean garatuko litzateke.

Prestakuntza

- **Osasun afektibo-sexualaren eta ugalketa-osasunaren kudeaketa autonomia eta arduratsua lortzeko prestakuntza-programak garatu.** Ekintzaren helburua, emakume nahiz gizonen artean osasun afektibo-sexualaren eta ugalketa-osasunaren kudeaketa autonomia eta arduratsua lortzeko prestakuntza-programak garatzea da. Lehenengo, programa horiek genero-ikuspegia barneratuta izan beharko dutela azpimarratu nahi da, emakumeek nahiz gizonek adierazitako behar ezberdinei erantzuteko gaitasuna izan dezaten. Zenbait espaziotan garatzeko aukera dago: kultur etxeak, kultur aretoak, etab. Oinarritzko programen diseinua udalerrien artean egin daiteke, eta gero kanpaina bakoitza udalerri bakoitzean garatuko litzateke.
- **Udalaren eskumeneko ikastetxe eta hezkuntzarako espazioetako ikasleen artean hezkuntza afektibo-sexualerako programak garatu.** Ekintza honen helburua haur eta gazteei zuzendutakoa izango da, eta osasun afektibo-sexuala modu autonomo eta arduratsuan garatzea landuko da. Aurreko ekintzan bezala, programa hauetan genero-ikuspegia barneratu beharko da. Ikastetxeetan garatuko dira bereziki programa hauek, baina udalaren eskumeneko hezkuntza-espazioetan (ludotekak, "gazte taldeak", gazteen hornidurak, etab.) ere garatu ahal izango dira. Programa hauen diseinua ere udalerrien artean egin daiteke, eta gero kanpaina bakoitza udalerri bakoitzean garatuko litzateke.
- **Haurdunaldiaren, erditzearen eta puerperioaren une eta etapa bakoitzarekin lotutako programak eta ikastaroak garatu.** Kasu honetan, ekintzaren helburua ugalketa-

osasunean erabakiak hartzeko gaitasuna areagotzea da, haurdunaldiaren, erditzea-
ren eta puerperioaren etapa bakoitzarekin lotuta. Programa/tailer hauetan landu dai-
tezkeen zenbait eduki: edoskitzaroko tekniken berariazko entrenamendua, edoskitza-
roari ekin eta mantentzea laguntzeko, haurdunaldia patologizatzeak eta medikatzek
dituen ondorioak, etab. Programak udalerrian bertan edo kanpoan garatzeko aukera
badago ere, udala da garatzeko espazio lehenetsia, eta beraz, erakundeen arteko
koordinazioa ezarri beharko da ekintza horiek diseinatu eta abian jartzeko.

- **Ugalketa-ziklo biologikoarekin lotutako une eta etapa ezberdinekin lotutako pro-
gramak eta ikastaroak garatu.** Ekintzaren helburua ugalketa-osasunean erabakiak
hartzeko gaitasuna areagotzea da, hilerokoari eta menopausiari dagokionean.
Hilerokoa iristeak edo desagertzeak berarekin dakartzan asaldurei buruzko informa-
zioa areagotu, patologizazioaren eta medikalizazioaren ondorioak, kudeaketarako
alternatibei buruzko informazioa, etab. landuko dira programa/tailerretan. Aurreko
kasuan bezala, programak udalerrian bertan edo kanpoan garatzeko aukera badago
ere, udala da garatzeko espazio lehenetsia, eta beraz, erakundeen arteko koordina-
zioa ezarri beharko da ekintza horiek diseinatu eta abian jartzeko.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Emakumeek euren osasun afektibo-sexualari eta ugalketa-osasunari buruz duten infor-
mazioa eta erabakiak hartzeko gaitasunaren mailaren bilakaera, honela neurtuta:
- Osasun afektibo-sexualaren eta ugalketa-osasunaren esparruetan informaziorako,
orientaziorako/aholkularitzarako eta arretarako garatutako zerbitzuen kopurua eta
bilakaera.
- Sexualitatearen bizipen positiboa sustatzeko garatutako kanpainen kopurua eta bila-
kaera.
- Ondorengo esparruetan garatutako prestakuntza-programen kopurua eta bilakaera:
 - Osasun afektibo-sexualaren eta ugalketa osasunaren arlokoak zaurkortasun-egoeran
dauden emakumeentzat.
 - Osasun afektibo-sexualaren kudeaketa.
 - Udalaren eskumeneko ikastetxe eta hezkuntzarako espazioetako ikasleen artean
hezkuntza afektibo-sexualerako programak.
 - Haurdunaldia, erditzea eta puerperioa.
 - Ugalketa-ziklo biologikoa (hilerokoa, menopausia, etab.).

E1.3 XEDEA: MENDEKOTASUNA ERAGITEN DUTEN SUBSTANTZIEN KONTSUMOAN GENERO INPAKTUARI BURUZKO INFORMAZIOA AREAGOTU.

Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 14. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 44. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Udalek drogazaletasunen esparruan garatzen dituzten lanak (udal-planen bitartez) eta bestelako ekintzak dira helburu hori lortzera eramango gaituztenak. Hala, mendekotasuna eragiten duten substantzien kontsumoan genero inpaktuari buruzko informazioa eza-gutzea eta hedatzea funtsezkotzat jotzen da, baita genero-ikuspegian oinarritutako prebentzio-programak gauzatzea ere. Planteatutako esku-hartzea bereziki emakume helduei eta ikasleei zuzendutakoa da, eta herritar guztiei zuzendutako informazioaren eta sentsibilizazioari ere eragiten dio.

B.

ESTRATEGIAK

Mendekotasuna eragiten duten substantzien kontsumoan genero inpaktuari buruzko informazioa areagotzeko proposatutako estrategiak prozedura hau planteatzen du: jakintzak sortu, horiek hedatu, eta, esku-hartzearen nukleo nagusia, emakume helduei eta ikastetxe-etako ikasleei zuzendutako prebentzio-programak garatzea.

C.

LAN PROZESUA

Jakintza

- **Esparruari buruzko jakintzak areagotzeko ikerketak egin.** Droga kontsumoan generoak duen eragina eta osasun-jokabideak eta substantzien kontsumoa genero-ikuspegian oinarrituta aztertuko dira. Ekintza hau udalerrian bertan edo esparru zabalagotan garatuko da, eta drogazaletasunen esparruan generoak duen eraginari buruzko jakintzak areagotzea da helburua.

Informazioa / Sentsibilizazioa

- **Substantzien kontsumoan eragiten duten genero-faktoreak eta kontsumoari lotutako arriskuak ezagutarazteko kanpainak garatu.** Ekintzaren helburua, substantzien kon-

tsumoan generoak duen eragina eta kontsumo horri lotutako arriskuen gaian herritarrok oro har sentsibilizatzea da. Kanpainen diseinua udalerrien artean egin daiteke, eta gero kanpaina bakoitza udalerri bakoitzean garatuko litzateke. Gainera, azpimarratu behar da zuzendu zaien publikoaren arabera kanpainak egokitzeko aukera dagoela, egindako ikerketetan antzemandako arazo eta behar espezifikoak kontuan hartuta.

- **Mendekotasuna sortzen duten substantzien kontsumoaren inguruan genero-ikuspegian oinarritutako prebentzio-kanpainak garatu.** Ekintzaren helburua genero-ikuspegian oinarritutako prebentzio-kanpainak garatzea da, tabakoak, alkoholak eta bestelako drogek eta jokoak nahiz medikalizazioak eragiten dituzten mendekotasunen arriskuak ezagutarazteko. Generoaz gain, adina ere funtsezko aldagaia da kanpaina hauen garapenean.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Genero-ikuspegian oinarrituta, emakume helduei zuzendutako mendekotasun-sortzaile diren ohituren prebentziorako programak garatu.** Kasu honetan, emakume helduei zuzendutako ekintzak dira, eta mendekotasun-sortzaile diren ohituren prebentziorako programak hautatuko dira garatzeko. Aurreko kasuetan bezala, eta baliabideak optimizatzeko, programen diseinua udalerrien artean egin daiteke, eta gero kanpaina bakoitza udalerri bakoitzean garatuko litzateke.
- **Genero-ikuspegian oinarrituta, ikasleei zuzendutako mendekotasun-sortzaile diren ohituren prebentziorako programak garatu.** Ikastetxeetan garatzen diren tabakoaren, alkoholaren eta bestelako drogen kontsumoarekin lotutako arriskuen prebentziorako programetan mutilen eta nesken jokabidearen arteko aldeak txertatuko dira eta bizi-aztura osasungarriak sustatuko dira.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO
EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Mendetasun-sortzaile diren substantzien kontsumoan genero-inpaktuari buruzko informazio-mailaren bilakaera, honela neurtuta:
 - Garatutako ikerketen kopurua eta bilakaera.
 - Garatutako informazio- eta sentsibilizazio-kanpainen kopurua eta bilakaera.
 - Mendetasun-sortzaile diren azturen prebentziorako garatutako programen kopurua eta bilakaera.

VI.1 XEDEA: INDARKERIA JASANDAKO EMAKUMEEN ARRETARAKO TOKIKO PROTOKOLOEN BITARTEZ OSASUN ZERBITZUAK ESKURATU DITUZTEN INDARKERIA JASANDAKO EMAKUME DROGAZALEEN ASETASUN-MAILA ETA KOPURUA AREAGOTU. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 14., 15., 18. eta 22. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 44, 50, 54, 55, 56, 57 eta 58. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Helburuaren planteamendu orokorra egiterakoan genero-indarkeria jasaten duten emakume drogazaleek indarkeriari aurre egiteko existitzen diren baliabideak eskuratzeko zailtasun handiagoak dituztela kontuan hartzen da. Hala, emakume drogazaleei baliabide orokorrak eskuratzeko erraztea ezinbestekotzat jotzen da, baita baliabide horien bitartezko arreta eskaintzea ere.

B.

ESTRATEGIAK

Lehenengo eta behin, indarkeria jasaten duten emakumeen arretarako tokiko protokoloak zenbateraino egokitzen diren aztertu behar da, indarkeria jasaten duten emakume drogazaleek indarkeriari aurre egiteko existitzen diren baliabideak eskuratzeko zailtasun handiagoak dituztela kontuan hartuta. Gero, Udalen eta emakume hauekin lanean diharduten gizarte-erakundeen arteko koordinaziorako baliabideak areagotu behar dira, indarkeriaren biktimek baliabide horiek eskuratzeko errazteko.

C.

LAN PROZESUA

Jakintza

- **Indarkeria jasan duten emakume drogazaleen arretarako tokiko protokoloak egokitzeko gaitasuna aztertu.** Ekintza honen helburua, indarkeria jasan duten emakume drogazaleen arretarako tokiko protokoloak egokitzeko gaitasuna aztertzea da. Hausnarketa orokorrerako materiala izanik, ekintza hau udalerrien artean garatu daiteke eta azterketaren emaitzen arabera protokoloen egokitze-maila areagotzeko neurriak zehaztuko dira.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen arretan diharduten udaleko arloen eta emakume drogazaleekin lanean diharduten gizarte-erakundeen artean koordinazioarako egiturak garatu.** Ekintza honen helburua, emakume drogazaleek emakumeen aurkako indarkeria-kasuetarako existitzen diren arretarako baliabide orokorrak eskuratzea erraztu eta areagotzea da. Emakume hauekin lanean diharduten erakundeek euren egoeraren jakintza-maila altuagoa dute, eta beraz, informazioarako eta baliabide orokorretara bideratzeko gaitasun handiagoa dute. Koordinazioarako egitura eta dinamika hauen sorrera etengabeko alerta-sistema moduan ulertuko da, emakume hauen arreta denbora-tarte laburragoan eta modu eraginkorragoan kudeatu ahal izango da.

Informazioa / Sentsibilizazioa

- **Indarkeria jasan duten emakume drogazaleek baliabide orokorrak eskuratzea areagotzeko ad hoc informazio-estrategia garatu.** Helburua, indarkeria jasan duten emakume drogazaleek baliabide orokorrak eskuratzea areagotzeko ad hoc informazio-estrategia espezifikoa garatzea da. Ekintzaren garapenerako ezinbestekotzat jotzen da emakume hauekin lanean diharduten erakundeekin lankidetzan aritzea, eta berauekin hitzarmenak sinatzeko aukera dago estrategia garatzeko.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO
EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Osasun-zerbitzuak eta indarkeria jasan duten emakumeen arretarako tokiko protokoloak eskuratu dituzten indarkeriaren biktima izan diren emakume drogazaleen kopurua eta bilakaera.

2.7

**HIRIGINTZA, GARRAIO
PUBLIKOA ETA
INGURUMENA**

2.7.1

HIRIGINTZAREN, GARRAIO PUBLIKOAREN ETA INGURUMENAREN ARLOKO PLANTEAMENDUARI BURUZKO SARRERA

Arlo honetan proposatzen diren esku-hartzeak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 46. artikuluko 1. zatian zehaztutakoan oinarritzen dira: *“Euskal herri-aginteek beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte beren ingurumen, etxebizitza, hiri-gintza eta garraioko politiketan zein programetan genero-ikuspegia txertatuta dagoela bermatzeko, eta, besteak beste, ondokoak hartuko dituzte kontuan: pertsonen segurtasuna; etxeko lanak egitea eta pertsonak zaintzea erraztea; bizitza pertsonala familia eta lanarekin uztartu ahal izatea erraztea; bai eta politika eta programa horiek diseinatu eta betetzerakoan emakumeek partaidetza handiagoa izan dezatela bultzatzea ere”*.

Bestalde, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren, gizonen eta emakumeen arteko egiazko berdintasunerako legearen, 22. artikuluan adierazitakoak aditze3ra eman nahi dira. Hala, artikuluko horretan zehazten denez, *“Tokiko udalbatzetako emakume eta gizonen denboraren banaketa parekatua izan dadin hiriko denborak antolatzeako Udal Planak eza-rra ahal izango dira. Autonomia Erkidegoen eskumenetan eragin gabe, Estatuak laguntza teknikoa eskaini ahalko du plan horiek garatzeko”*.

Hirigintzaren, garraio publikoaren eta ingurumenaren arloetarako proposamenak biltzen dira, eta Gizarteratzearen arloko etxebizitzaren gaia ere barne hartzen da (V1.3. xedea), modu zehatzagoan, izan ere, arlo horretan garatutako planteamenduak hasiera batean arlo honetarako planteatutakoak hartzen baititu oro har.

Esparru horietan eskumenak (aldakorrak, neurriaren arabera) dituzte Tokiko Administra-zioek, hiri eta herrien lurralde-antolamenduari eta hirigintzari buruzkoak, garraiorako elkarteak kudeaketari buruzkoak eta Tokiko Agenda 21 garatzeari buruzkoak. Herritarrak bizi diren espazioak dira udalerrriak, eta Udalak dira herritarrendandik hurbilen dauden erakundeak. Beraz, plangintzak egiterakoan emakume eta gizonen parte-hartzea susta-tzeko erreferentzia dira, emakumeen aintzatespenean, emakumeen ongizatea areagotze-an eta hiriko egiturak lan-bateratzearen gaian egokitzean.

Zehazki esateko, hauek dira hirigintzako, ingurumeneko eta garraio publikoetako plan-gintzetan emakumeek eta gizonen dituzten beharrak, ekarpenak eta interesak barneratze-ko ekintza nagusiak:

- Hirigintzako, ingurumeneko eta garraio publikoetako arloen plangintzetan, esku-har-tzeetan eta balioespenetan genero-ikuspegia txertatu.

- Hirigintzako, ingurumeneko eta garraio publikoetako esparruetan artikulatzen diren prozesuetan emakumeek parte hartzea.
- Emakumeek gizarteari egindako ekarpenen aintzatespena, hirigintza-elementuen bitartez: kaleak, monumentuak, eraikinen izenak, etab.
- Ekipamenduak, azpiegiturak eta denbora-erabileraren artikulazioa sortu edota lane-ko, etxeko eta norberaren eginkizunak onez bateratzeko egokitu.
- Espazio publikoetan emakumeen segurtasuna eta segurtasun-sentsazioa.

MAINSTREAMINGA

Mainstreamingaren ardatzerako proposatu diren esku-hartzeak hirigintzako, ingurumene-ko eta garraio publikoetako esparruak dira. Hiruotan, helburua plangintzetan, esku-har-tzeetan eta balioespenetan genero-ikuspegia txertatzea da. Emakumeen eta gizonen beha-rrak, itxaropenak, interesak, eta abar oro har eta espezifikoki kontuan hartuko dira, eta horretarako, gizarte-behar horiekin lotutako alderdi guztiak ezagutu, aztertu, egokitu, kudeatu eta balioesteko tresnen erabilera estandarizatzea izan daiteke estrategia egokie-na.

Estrategia komun horretaz gain, arlo bakoitzean ekintza zehatzagoak eta espezifikoago-ak planteatzen dira, lantzen den arloaren arabera, eta jakintzak eskuratzeaz gain arauak, zerbitzuak eta baliabideak ere lantzen dira, Oro har, zehaztutako arloetan gene-ro-ikuspegia barneratzeko ekintza estandarretan oinarritutako estrategia bakarraren alde-ko apustua egiten da.

Gainera, dokumentu honetako 27 or. Zeharkakotasuna eta berdintasun-politikak izeneko atala EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planean xedatutakoetan oina-rritzen da (Ardatz estrategikoak. Mainstreaminga): oro har, eta zeharkako moduan, Plan honetan aurreikusitako helburu eta jardun guztiak garatu, gauzatu eta ebaluatzeko garaian, kontuan izan beharko dira emakumezko eta gizonezko taldeen espezifikotasu-nak, eta batik bat, askotariko diskriminazioa pairatzen duten emakumeenak, emakume minusbaliatuen taldea esaterako.

Hirigintzako, ingurumeneko eta garraio publikoetako esparruetan artikulatzen diren prozesuetan emakumeek parte-hartzea da ardatzaren lehen nukleo kontzeptuala. Arlo horietan emakumeek dituzten beharrak zuzenean ezagutarazteko baliagarria da, baina baita modu zuzenagoan edo zeharka plangintzan, lurralde-antolamenduan eta herri eta hirien garapenean eragiten duten prozesuetako gizarte-eragile moduan ahalduntzea errazteko ere. Emakumeen ahalduntzea sustatzearekin, beraz, parte-hartzeko prozesuen garapenean gaitzeko sustatzea ere beharrezkotzat jotzen da.

Bigarren nukleo kontzeptualean herri eta hiriei emakumeek egindako ekarpena eta agerpen sinbolikoa areagotu nahi da, kale eta plazei nahiz monumentu eta eraikinei emakume horien izenak jarrita.

BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUKIDETASUNA

Laneko, etxeko eta norberaren eginkizunak onez bateratzean hirigintzak eta garraio publikoaren plangintzak duen garrantzia aztertzen da. Zerbitzuen kokapenak, hurbileko ekipamenduek, merkataritza-guneek, horietarako irismenak eta abar lan-bateratzea erraztu, oztopatu edota ezinezko egitean eragiten dute. Zentzu honetan, laneko, etxeko eta norberaren eginkizunak onez bateratzea erraztuko duten hirigintzako plangintzak eta diseinu nahiz erabilerak (denboraren artikulazioa eta erabilera barne) identifikatzeko eta aplikatzeko irizpideak zehaztu beharko dira lehenengo ardatzean. Bigarrenengan, erronka bera aplikatuko zaio garraio publikoari.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Herri eta hirietan hirigintza eta garraio publikoak antolatzeko, garatzeko eta kudeatzeko moduak eragin handia du pertsonen segurtasunean eta segurtasun-sentsazioan, prebentzioari nahiz zentzu positiboari dagokionean. Izan ere, indarkeria-ekintzak garatzeko espazioak edo emakumeak seguru sentituko ez diren espazioak ekidin daitezke, elementuok arrisku objektibo nahiz subjektiboak agertzea erraztu baitezakete. Oro har, espazioen mantentze-lanak erabilerak eta okupazioak ere landuko dira.

Segurtasun eza sortu dezaketen toki eta espazioak nahiz garraio publikoaren antolamendu-moduak ezagutu beharko dira, neutralizaziorako neurriak planteatu nahi badira eta mota honetako espazio berriak sortzea ekidin nahi bada. Azken batean, genero-ikuspegia kontuan hartzen duten osoko segurtasun-politikak zehaztu beharko dira.

Espazio horiek identifikatu eta ezagutzeko prozesuan emakumeen parte-hartzea funtsezkoa da, eta bestelako aldagaiak (adina, eguneroko higikortasun-praktikak, etab.) ere kontuan hartu beharko dira, segurtasun ezaren sententzia ematen duten espazioak antzematerakoan eragin baitezakete. Hala, ardatz honetan ere emakumeen parte-hartzeak indar handia hartzen du, eta honek herri eta hirien garapenean eragiteko ahalduntzea sustatzen da.

Beheko laburpen-taulan (2.7.2) biltzen dira xede eta ardatz bakoitzerako proposatu diren jarduerak, geroago azalduko direnak (2.7.3. atalean).

MAINSTREAMINGA

XEDEAK	TRESN.	EGINTZAK
M1.1 XEDEA: UDALETAKO HIRIGINTZAKO, INGURUMENEO ETA GARRAIO PUBLIKOETAKO ARLOEN PLANGINTZETAN, ESKU-HARTZEETAN ETA BALIOESPENETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATU. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 12, 19, 21, 24, 25, 26, 28 eta 29. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 15, 16, 17, 18, 19, 29, 21, 22, eta 46. artikulua.		Hirigintzaren, garraio publikoaren eta ingurumenaren arloetako lan-prozesu komunak
	Jakin.	Datuak sexuaren arabera banatuta jaso eta hedatu. Hirigintzaren, garraio publikoaren eta ingurumenaren arloetan gizonek eta emakumeek dituzten beharrak zehazteko ikerketak egin. Udaleko hirigintzaren, garraio publikoaren eta ingurumenaren arloetako politiken urteroko analisia, genero-ikuspegian oinarrituta. Hirigintzako planteamenduetan, talde-erabilerarako espazio publiko nahiz pribatuen eta garraio publikoen diseinu eta erabileran aukera-berdintasunaren printzipioekin bat datozen kalitate-irizpideak zehaztu. Genero-inpaktuaren alde zaurerikiko balioespena.
	Prestak.	Langileak berdintasun-politiketan gaitu.
	Zerb/Bali	Mintzaira eta irudi sexistak ez erabiltzea. Funtz dokumentalak sortu.
	Jarraip.	Hirigintzaren arloan berdintasunaren aldeko neurriak duten betetze eta emaitzen balioespena.
		Hirigintzaren arloko berariazko ekintzak
	Araudia	Hirigintzako planteamendu eta esku-hartzeetan generoan espezialistak direnen parte-hartzea derrigorrezko irizpidetzat ezarri.
	Jarraip.	Araudiaren aplikazioari jarraipena egin.
		Garraio publikoaren arloko berariazko ekintzak
	Jakin.	Hobetzeko eta praktika egokiak aplikatzeko alderdiak identifikatu eta hobetzeko proposamenak egitera bideratutako diagnostikoak egin.
		Ingurumenaren arloko berariazko ekintzak
	Zerb/Bali	Tokiko Agenda 21 prozesuetan/forotan emakumeen parte-hartzea sustatu.
	Araudia	Tokiko Agenda 21 ezartzeko esleipen-deialdiak balioesteko oinarrietan genero-ikuspegia txertatzearekin lotutako iritziak barne hartu.

AHALDUNTZEA

XEDEAK	TRESN.	EGINTZAK
E1.1 XEDEA: HIRIGINTZAREN, GARRAIO PUBLIKOAREN ETA INGURUMENAREN ARLOETAN GAUZATZEN DIREN PARTE HARTZE PROZESUETAN EMAKUMEEEN ETA EMAKUME ELKARTEEN PARTE HARTZEA BERMATUKO DUTEN PARTE HARTZE PROZESUAK ETA HERRITARREN GALDEKETARA-KO PROZESUAK ABIAN JARRI. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten berdintasunerako, 3., 19., 24., 25., 26. eta 28. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 46. artikulua.	Jakin.	Hirigintzaren, garraio publikoaren eta ingurumenaren arloetako parte-hartze eta kontsultarako prozesuetan emakumeen eta emakume-elkarteen egiazko parte-hartzea aztertu.
	Info/Sent	Hirigintzaren, garraio publikoaren eta ingurumenaren arloetako plangintzen eta hobekuntzen arduradunei garatzen dituzten prozesuetan emakumeen eta emakume-elkarteen parte-hartzeak duen garrantzia sentibilizatu. Hirigintzako prozesuek pertsonen bizimoduan duten eraginari buruzko informazio-txostenak (edo komunikaziorako bestelako estrategia edo tresnak) egin.
	Prestak.	Emakumeak eta emakumeen elkarreak hirigintzan eta ingurumenean prestatu. Hirigintzaren, garraio publikoaren eta ingurumenaren arloetako teknikariak prestatu, parte-hartze prozesuak garatzean genero-ikuspegia barne har dezaten.
	Zerb/Bali	Hirigintzaren eta ingurumenaren plangintzarako, diseinurako eta hobekuntzarako prozesuetan parte-hartze eta kontsultarako prozesuak erraztu eta bermatzeko beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak eskaini. Emakumeen eta emakume-elkarteen parte-hartzea sustatu.
E1.2 XEDEA: KALEKO ELEMENTUEN BITARTEZ (KALEEN, PLAZEN ETA ABARREN IZENAK) EGITEN DEN GIZONEN ETA EMAKUMEEEN EKARPENAK AINTZATESTEA OREKATU. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten berdintasunerako, 25. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 46. artikulua.	Jakin.	Kale, plaza, monumentu eta elementu sinbolikoen izenak aztertu.
	Info/Sent	Emakumeek egindako ekarpenak nabarmentzeari begira ibilbide historiko eta kulturalak diseinatu eta abian jarri.
	Zerb/Bali	Esparru honetan herritarren eskaerak eta iradokizunak kudeatzeko bideak sortu.
	Araud.	Izenak hautatzeko prozedura arautuko duen legeria sortu.
	Jarraip.	Kale, plaza, monumentu eta abarretan emakumeen izenen ezarpena balioetsi.

BATERAGARRITASUNA

XEDEAK	TRESN.	EGINTZAK
C1.1 XEDEA: LANEKO, ETXEKO ETA NORBERAREN EGINKIZU- NAK ONEZ BATERATZEKO NEURRIAK HARTZEA ERRAZTERA BIDERATUTAKO HIRIEN PLANGINTZA ETA DISEINURAKO IRIZPIDEAK IDENTIFIKATU ETA APLIKATU. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 25. artiku- lua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 46. artikulua.	Jakin.	Udalerrietako plangintzarekin eta diseinuarekin lotutako laneko, etxeko eta norberaren eginkizunak onez bateratzeko neurriak hartzea errazteko praktika egokiak eta oztopoak aztertu.
	Prestak.	Hiriaren plangintzan eta diseinuan ardura duten pertsonak prestatu.
C1.2 XEDEA: GARRAIO PUBLI- KOAN LANEKO, ETXEKO ETA NORBERAREN EGINKIZUNAK ONEZ BATERATZEKO NEU- RRIAK HARTZEA ERRAZTEKO NEURRIAK APLIKATU. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 26. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 46. artikulua.	Zerb/Bali	Existitzen diren arkitektura-oztopoak ezabatu. Erabilera publiko nahiz pribatua duten espazioak zaintza-lanetan diharduten pertsonentzat egokitu. Udalerrietan aisialdirako espazioak, gune berdeak, korridore berdeak, sare berdea eta abar sortzea sustatu.
	Araud.	Hiriaren plangintzan eta diseinuan eta espazioen erabileran eta kudeaketan laneko, etxeko eta norberaren eginkizunak onez bateratzea errazteko irizpideak betetzen dituen araudia sortu.
	Jarraip.	Diagnostikoan identifikatutako lehentasunezko hobekuntzen ezarpen-maila balioetsi.
	Jakin.	Herritarrek parte hartu duten diagnostiko eta prozeduretan identifikatu diren hobekuntzak bideragarriak diren ala ez aztertu.
	Zerb/Bali	Mendeko pertsonen eta horien zaintzaileen higikortasuna errazteko eta gizon eta emakumeen beharrak asetzeko garraio publiko kolektiboko (minibusak, taxi-busak, taxi kolektiboak, etab.) zerbitzuak sortu/egokitu. Garraio publikoan segurtasuna eta erosotasuna areagotzeko neurriak ezarri. Udalerrietan “eskola-bideak” moduko ekimenak garatu.
	Jarraip.	Egindako hobekuntzek izan duten inpaktuaren jarraipena gauzatu.

INDARKERIA

XEDEAK	TRESN.	EGINTZAK
V1.1 XEDEA: EMAKUMEEK SEGURTASUN EZA SENTITZEN DUTEN UDALERRIKO GUNEAK IDENTIFIKATU, NEUTRALIZAZIORAKO NEURRIAK APLIKATZEKO. EMAKUMEEK SEGURTASUN EZA SENTITZEN DUTEN GUNE BERRIAK SORTZEA EKIDITEKO IRIZPIDEAK EZARRI. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 21., 25. eta 26. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 50 eta 51. artikulua.	Jakin.	Udalerrian pertsonen segurtasun eza sentitzen duten lekuei buruzko diagnostikoa egin, segurtasun pertsonala, bide-segurtasuna eta abar moduko faktoreak kontuan hartuta.
	Zerb/Bali	Kexak eta iradokizunak jasotzeko zerbitzua sortu. Antzemandako hutsak poliki-poliki egokitzen joan, besteak beste udaleko argiztapena eta garbiketa egokiak bermatuz.
	Araud.	Genero-ikuspegian oinarritutako segurtasun-irizpideak ezarriko dituen udal-ordenantza sortu.
	Jarraip.	Araudiaren betetze-mailaren jarraipena egin.

M1.1 XEDEA: UDALETAKO HIRIGINTZAKO, INGURUMENEO ETA GARRAIO PUBLIKOETAKO ARLOEN PLANGINTZETAN, ESKU-HARTZEETAN ETA BALIOESPENETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATU.

Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 12, 19, 21, 24, 25, 26, 28 eta 29. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, eta 46. artikulua.

A.**ESKU HARTZEAREN HELBURUA**

Hirigintzaren, ingurumenaren eta garraio publikoaren arloetan esku-hartzeak sustatuko dira. Arlo horietan genero-ikuspegia txertatzearekin jarraitzean oinarrituko da esku-hartzea. Modu berean, politika publikoek esparru horietan duten inpaktua ezagutu nahi da, bereziki arlo horietan emakumeen parte-hartzea sustatzeko.

B.**ESTRATEGIA**

Lau lan-prozedura zehaztu dira helburuok lortzeko. Lehenengoan, esku hartzeko hiru arlo-etarako (hirigintza, garraio publikoa eta ingurumena) komuna, udaleko politiken diagnostikoan, diseinuan, esku-hartzean eta balioespenean emakume eta gizonen egoera, baldintza eta kokapen ezberdinak uztartuko dituzten tresnak eta lan-prozesuen erabilera estandarizatuko da.

Bigarrenean, hirigintzaren esparruari lotutakoan, hiriaren planteamenduan eta diseinuan generoan espezializatutako pertsonen parte-hartzea bermatu nahi da. Hirugarrenean, garraio publikoari dagokionean, herritarren beharrak (higikortasuna, ordutegiak, etab.) oro har asetzerak bidean garraio publikoa aztertuko da. Laugarrenean, ingurumenarekin lotutakoan, Tokiko Agenda 21 ezartzerakoan emakumeen eta emakume-elkarteen parte-hartzea sustatuko da, eta agenda horiek ezartzen dituzten erakunde eta aholkulariei genero-ikuspegia txertatu dezaten sustatuko zaie.

Jakintza

- **Datuak sexuaren arabera banatuta jaso eta hedatu.** Hirigintzaren, garraio publikoaren eta ingurumenaren arloetan sexuaren arabera banatuta egoerei eta beharrei buruzko informazioa lortu nahi da. Hirigintzaren arloetan Udalean egiten diren ikerketa eta estatistika guztietan datu orokorrak maneiatzeko tresna elektronikoetan sexuaren aldagaia txertatzeko eskatzen da. Neurria eraginkorra izan dadin, garrantzitsua da laginak behar bezain handiak eta adierazgarriak direla bermatzea, emakumeen eta gizonen arteko aldeak ongi bereizteko eta hedapeneko fasean datu bereziak ongi aditzera emateko.
- **Hirigintzaren, garraio publikoaren eta ingurumenaren arloetan gizonen eta emakumeek dituzten beharrak zehazteko ikerketak egin.** Hirigintzaren arloan gizonen eta emakumeen beharrei (espazio eta azpiegitura publikoak sortu eta birmoldatu, etab.) buruzko jakintzak areagotu eta egituratzea da helburua, eta gauzatzen diren diagnostikoetan bestelako udalerri eta espazioetan garatutako praktika egokien esperientziak txertatuko dira.
- **Udaleko hirigintzaren, garraio publikoaren eta ingurumenaren arloetako politiken urteroko analisia, genero-ikuspegian oinarrituta.** Hirigintzaren, ingurumenaren eta higikortasunaren eta garraio publikoen alorretan politiketan adituak diren Udaleko pertsonen (politikariak eta teknikariak), berdintasunerako eragileez eta hirigintzaren arloan emakumeek dituzten beharrak ezagutzen dituzten eragileez osatutako lan-taldeak sortu daitezke. Talde hauen helburu nagusia, goian deskribatutako jardueren, programen, planen eta ekintzen ildoak aztertzea da. Ekintza honen helburua, udaleko jardueretan genero-ikuspegian oinarritutako herritarren beharrak asetzeko beharrezkoak diren lan-ildoak txertatzea da, udalerri eta udalerriez gaindiko jarraibideak kon-tuan hartuta (helburuei eta ezarritako neurriei dagokienez).
- **Hirigintzako planteamenduetan, talde-erabilerarako espazio publiko nahiz pribatu-
tuen eta garraio publikoen diseinu eta erabileran aukera-berdintasunaren printzi-
pioekin bat datozen kalitate-irizpideak zehaztu.** Esku-hartzea genero-ikuspegian oinarrituta gauzatzeko beharrezkoak diren oinarrizko elementuen plangintza egingo da. Ekintza garatzeko, eta abiapuntuko egoera dela-eta, esparru honetan gaur egun

ez da adierazlerik. Horregatik, beste arlo batzuetan (ingurumenarenean, esaterako) zehaztu diren adierazleak kontuan hartzea egokitzen da, hortik abiatuta hirigintzarako adierazleak zehazten joateko. Ekintza hau udalerrien artean garatzeko aukera dago, Udal ezberdinen artean lan-taldea sortu eta adierazleak definitu eta zehazteko.

- **Genero-inpaktuaren alde aurretiko balioespena.** Arau edo egintza administratiboan aplikazioa gizonen eta emakumeen artean modu berean egiten den ala ez zehazteko balio duen tresna da, eta beraz, ezkutuko diskriminazioak ekiditen laguntzen du. Ekintzaren helburua, administrazioko arau edo egintza guztietan tresna hori aplikatzea da, eta Udalaren lan osorako zehaztuko da.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Mintzaira eta irudi sexistak ez erabiltzea.** Dokumentu guztietan, komunikazioetan, formularioetan, dokumentazio grafiko eta ikusizko dokumentuetan etab. emakumeen agerpena eta parte-hartzea zehatzagoa izatea da helburua, estereotipoak baztertuta. Udaleko erreferentziazko arloetan mintzaira sexista ez erabiltzeko gida banatu behar da, eta edozein motako dokumentua (formularioak, txostenak, balioespenak, prozedurak, etab.) sortzeko erabili behar dela gogoraraziko da.
- **Funts dokumentalak sortu.** Generoarekin erlazioa duten eta hirigintzaren, garraio publikoen, ingurumenaren eta etxebizitzaren arloekin lotutako gai ezberdinetako dokumentazio-materiala udaleko langileen eskura izatea da helburua. Baliabide gehien dituzten Udal ertain eta handiek euren kabuz garatu ditzakete ekintza horiek, eta udal txikiek edo baliabide gutxiago dituztenek euren artean garatu ahal izango dituzte.

Prestakuntza

- **Langileak berdintasun-politiketan gaitu.** Langile politikariak nahiz teknikariak goian aipatutako ekintza guztietarako gaitu behar dira. Dena den, politikariei zuzendutako prestakuntza ez dela teknikariei zuzendutakoaren berdina izango. Izan ere, lehenengo kasuan berdintasun-politikak, politiken eta aurrekontuen azterketa, etab. aztertuko dira, eta bigarren kasuan lehenago adierazitako ekintzen garapenari (datuen desagregazioa, mintzaira sexista ez erabiltzea, emaitzen azterketa eta inpaktua, etab.). Gainera, hirigintzaren arloko prestakuntzak, genero-ikuspegian oinarritutakoak, erabat praktikoa izan behar du: kaleko praktika eta esperientziak hartu behar dira osoko ikuspegian, ez bakarrik emakumeak eta hirigintza planteamendu dualera mugatuta.

Jarraipena

- **Hirigintzaren arloan berdintasunaren aldeko neurriek duten betetze eta emaitza balioespena.** Balioespena urtean behin egiteko aukera legoke, eta inpaktuaren azterketa planaren amaieran egitekoa, arloetako politiken azterketan eta plangintzan parte hartzen duten guztiekin batera. Planteatutako jardueren maila balioestearekin ekintzen bilakaera aditzera emango litzateke, baina emaitzen balioespenak aldatu nahi zen errealitatea (emakumeen eta gizonen kokapenak, etab.) nola aldatu den islatuko luke.

HIRIGINTZAREN ARLOKO BERARIAZKO EKINTZAK

Araudia

- **Derrigorrezko irizpidetzat ezarri.** Ekintza honen helburua udaleko hirigintzako planteamendu eta esku-hartzeetan generoan espezialistak direnen parte-hartzea sustatzea da, irizpide hori derrigorrezkotzat jotzen duen berariazko araudia aplikatuta.

Jarraipena

- **Araudiaren aplikazioari jarraipena egin.** Hirigintzako planteamenduetan generoan espezialistak direnen parte-hartzearen irizpidea derrigorrezkotzat jotzen duen berariazko araudiaren aplikazio-maila ezagutu nahi da.

GARRAIO PUBLIKOAREN ARLOKO BERARIAZKO EKINTZAK

Jakintza

- **Hobetzeko eta praktika egokiak aplikatzeko alderdiak identifikatu eta hobetzeko proposamenak egitera bideratutako diagnostikoak egin.** Udalean (eta baliabiderik ez dutenen kasuan udalerriaz gaindiko esparruan) garraiorako sozietate publikoekin diagnostikoak egingo dira, garraio publikoaren plangintzan dauden beharrak identifikatu eta hobekuntzak eta praktika egokiak proposatzeko, beti ere genero-ikuspegian oinarrituta. Diagnostiko horien helburua, gainera, hobekuntza-proposamenak garatzea da, eta beste udalerrietan garatu diren praktika egokien esperientziak kontuan hartuko dira.

INGURUMENAREN ARLOKO BERARIAZKO EKINTZAK

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Tokiko Agenda 21 prozesuetan/foroetan emakumeen parte-hartzea sustatu.** Ekintzaren helburua, Tokiko Agenda 21 diseinatu eta ezartzeko antolatzen diren prozesu eta foroetan emakumeen eta emakume-elkarteen parte-hartzea sustatzea da. Modu honetan, generoa eta ingurumena lotzen dituzten eztabaidak bideratuko dira, duten garrantzia eta txertatu beharra kontuan hartzeko.

Araudia

- **Tokiko Agenda 21 ezartzeko esleipen-deialdiak balioesteko oinarrietan genero-ikusegia txertatzearekin lotutako iritziak barne hartu.** Erakundeek Tokiko Agenda 21 (Eskola Agenda 21 barne) ezartzean genero-ikusegiaren proiektuak eta esku-hartzeak txertatzea nahi da.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Hirigintzaren, garraio publikoaren eta ingurumenaren arloetarako udal-jardueren artean berdintasun-jarduerak garatzera bidean egokitutako jarduera-ildoen %.
- Sexuaren aldagaia kontuan hartuta egin eta hedatu diren ikerketa eta estatistiken %ren bilakaera.
- Mintzaira sexista erabili gabe arloetan egin diren dokumentuen %ren bilakaera.
- Hirigintzaren, garraio publikoaren eta ingurumenaren arloetarako zehaztutako kalitate-irizpideen kopurua eta bilakaera.
- Diseinatutako berdintasun-ekintzen emaitzen bilakaera.
- Saileko prestakuntzaren bilakaera: prestatutako pertsonen % eta pertsona bakoitzaren prestakuntza-ordu kopurua.

E1.1 XEDEA: HIRIGINTZAREN, GARRAIO PUBLIKOAREN ETA INGURUMENAREN ARLOETAN GAUZATZEN DIREN PARTE HARTZE PROZESUETAN EMAKUMEEN ETA EMAKUME ELKARTEEN PARTE HARTZEA BERMATUKO DUTEN PARTE HARTZE PROZESUAK ETA HERRITARREN GALDEKETARAKO PROZESUAK ABIAN JARRI.

Europako Gutuna
Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 3., 19., 24., 25., 26. eta 28. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 46. artikulua.

A. _____ ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Hirigintzaren, garraio publikoaren eta ingurumenaren arloetan garatzen diren parte-hartze prozesuetan emakumeen agerpena eta parte-hartzea sustatu nahi dira. Tokiko Agenda 21 moduko elementuen ezarpenari esker ingurumenaren arloan eta beste hainbatetan gaur egun sistematikoki garatzen ari dira parte-hartze prozesuen txertaketak. Esku-hartzeko esparruak hedatu nahi dira, eurretan emakumeen parte-hartzea eta agerpen aktiboa sustatuz.

B. _____ ESTRATEGIA

Hirigintzaren, garraio publikoaren eta ingurumenaren arloetan garatzen diren parte-hartze prozesuetan emakumeen agerpena eta parte-hartzea bermatu nahi da, baliabideak eta prestakuntzak emakumeei nahiz teknikariei eskainiz (prozesuen garapenean parte har dezaten).

C. _____ LAN PROZESUA

Jakintza

- **Hirigintzaren, garraio publikoaren eta ingurumenaren arloetako parte-hartze eta kontsultarako prozesuetan emakumeen eta emakume-elkarteen egiazko parte-hartzea aztertu.** Lehenik esparru horietan garatzen ari diren parte-hartze prozesuak zein motakoak diren jakin nahi da, eta gero, emakumeek eta emakume-elkarreek beraue-tan duten parte-hartzea zenbaterainokoa den ezagutu nahi da. Ekintza hau udalerrian bertan garatu ahal izango da, eta udaleko esku-hartzeen esparruak izango dira azter-tuko direnak.

- **Hirigintzaren, garraio publikoaren eta ingurumenaren arloetako plangintzen eta hobekuntzen arduradunei garatzen dituzten prozesuetan emakumeen eta emakume-elkarteen parte-hartzeak duen garrantzia sentsibilizatu.** Lehenengo, garatzen diren parte-hartze prozesuetan emakumeen eta emakume-elkarteen parte-hartze murriztua nabarmendu nahi da, eta prozesu horiek egokitzearen beharra (ordutegiak, denborak, etab.), parte-hartzea sustatzeko. Bestalde, udaleko hirigintzako eta ingurumeneko langile teknikoen parte-hartzea sustatzea ere ezinbestekotzat jotzen da.
- **Hirigintzako prozesuek pertsonen bizimoduan duten eraginari buruzko informazio-txostenak (edo komunikaziorako bestelako estrategia edo tresnak) egin.** Hirigintzaren, garraio publikoaren eta ingurumenaren arloetan antolatzen diren parte-hartze prozesuetan emakumeen eta gizonen parte-hartzea sustatu nahi da, proiektuetan parte hartzeak duen garrantzia herritarrei jakinaraziz.

Prestakuntza

- **Emakumeak eta emakumeen elkartek hirigintzan eta ingurumenean prestatu.** Garatzen diren parte-hartze prozesuetan lan egin ahal izateko tresnak eskainiko zaizkie emakumeei eta emakume-elkarteei. Prestakuntza praktikoa izango da eta edukiak, mintzaira, etab. moduko alderdiak landuko dira. Etengabeko ikasketa-prozesutzat jotzen da parte-hartzea, aukera-berdintasunean parte hartzeko oinarritzko tresnak eskuratzeari beharrezko egiten baita. Ekintza udalerrri mailan gauzatzeko, berariazko jardunaldiak antolatu beharko dira. Horretarako, aldez aurretik prestakuntzarako erakunde eta elkarrekin harremanetan jartzea komeni da, dimentsio praktikoari indarra eman eta prozesuari jarraipena emateko.
- **Hirigintzaren, garraio publikoaren eta ingurumenaren arloetako teknikariak prestatu, parte-hartze prozesuak garatzean genero-ikuspegia barne har dezaten.** Zehazten diren helburuekiko koherenteak eta eraginkorrak diren parte-hartze prozesuak garatzeko tresnak eskuratu beharko dituzte aipatutako arloetako teknikariek. Ekintza abian jartzeko estrategia egokienetako bat arlo hauetako teknikariei eta berdintasunaren eta parte-hartzearen arloko teknikariei zuzendutako prestakuntza-jardunaldiak antolatzea da. Beraz, parte-hartze prozesuak garatzeko udalaren baliabideak koordinatu beharko dira.

- **Hirigintzaren eta ingurumenaren plangintzarako, diseinurako eta hobekuntzarako prozesuetan parte-hartze eta kontsultarako prozesuak erraztu eta bermatzeko beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak eskaini.** Ekintzaren helburua, parte-hartze prozesuen garapenerako oinarritzko baliabideak (baliabide ekonomikoak, materialak nahiz giza baliabideak) eskaintzea da ekintzaren helburua.
- **Emakumeen eta emakume-elkarteen parte-hartzea sustatu.** Estrategia/tresna ezberdinak erabiltzean oinarritu daiteke ekintzaren garapena. Oro har, parte-hartze eredu klasikoaren krisiak aditzera eman du batzuk besteak baino eraginkorragoak direla. Behean ageri da horien katalogo bat:
 - Hirigintzako, ingurumeneko, eta abarreko Sektore Batzordeetan emakumeen eta emakume-elkarteen parte-hartzea (une jakin batekoa nahiz egonkorra) aurreikusiko duten lan-agendak zehaztu.
 - Hiri Antolamendurako Plan Orokorrek berraztertzeo artikulatzen diren prozesuetan emakume-elkartei informazioa hurbiltzeko berariazko estrategiak garatu.
 - Tresnak artikulatu. Adibidez: udaleko arreta publikoaren puntuetan iradokizunetarako postontziak ezarri, etab.
 - Emakumeek aditzera emandako beharrak bildu eta aztertzeo foroak (distrutuko udal-batzordeak, etab.) antolatu.
 - Emakume-elkarteen eta ekologismoa, iraunkortasuna... lantzen dituzten erakundeen arteko komunikazioa sustatu, topaketak eta abar antolatuz.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Hirigintzaren eta ingurumenaren arloetan plangintzarako, diseinurako eta hobekuntzarako egin diren herritarrek parte hartzeko deialdien kopurua eta bilakaera.
- Emakumeek eta emakume-elkaratek parte hartu duten parte-hartze prozesuen kopurua eta bilakaera.
- Hirigintzaren eta ingurumenaren arloetan plangintzan, diseinuran eta hobekuntzan hizketakide moduan jarduteko tresnak eskuratu ahal izateko prestakuntzetan parte hartu duten emakumeen kopurua eta bilakaera.

E1.2 XEDEA: KALEKO ELEMENTUEN BITARTEZ (KALEEN, PLAZEN ETA ABARREN IZENAK) EGITEN DEN GIZONEN ETA EMAKUMEEN EKARPENAK AINTZATESTEA OREKA-

TU. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 25. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 46. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Kale eta plazetan edo monumentu eta eraikinetan euren izenak jarrita emakumeen ekarpenak aintzatestea sustatu. Horrela, hirigintzako elementuetako izenen artean sexuen oreka-proportzioa lortzean emakume eta gizonek gizartean duten aintzatespena orekatu dela ulertuko da.

B.

ESTRATEGIA

Udalerrian gaur egun existitzen den errealitatea aztertuko da lehenik, kaleei, plazei, eta abarrei izenak jartzean emakumeen eta gizonen aintzatespenean oreka lortzeko ekintzak garatu aurretik.

C.

LAN PROZESUA

Jakintza

- **Kale, plaza, monumentu eta elementu sinbolikoen izenak aztertu.** Kale, plaza, monumentu eta elementu sinbolikoei emakumeen izenak ezarrita emakumeen ekarpena gizarteari begira aintzatesten da, lortu diren emaitzen berri udaleko langileen artean eta herritarren artean zabalduz jakintza-ekintza hau informaziorako eta sentsibilizaziorako tresnan bilakatzen da. Udalaren historia orokorra errepasatu egin behar da, ez bakarrik espazio fisikoekin lotutakoa, berdintasun-ikuspuntua aplikatuta, hau da, emakumeek izan duten garrantzia aztertuta.

Informazioa eta Sentsibilizazioa

- **Emakumeek egindako ekarpenak nabarmentzeari begira ibilbide historiko eta kulturalak diseinatu eta abian jarri.** Emakumeek politikan, kulturean, gizartean, zientzietan eta abar egindako ekarpenak nabarmenduko dituen ibilbideak abian jarriko dira.

Mota honetako ibilbideak garatzen dituzten Udalen kasuan, emakumeen ekarpenak txertatuko dira.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Esparru honetan herritarren eskaerak eta iradokizunak kudeatzeko bideak sortu.** Emakumeen izenak kaleei, plazei eta abarrei jartzeko proposamenetan herritarren parte-hartzea sustatu nahi da. Iradokizunen postontzia eta antzeko ekimenak abian jartzeaz gain, aldizka helburu hori duten jarduerak ere antolatuko dira kultur etxeetan, kultur aretoetan...

Araudia

- **Izenak hautatzeko prozedura arautuko duen legeria sortu.** Ekintza honen helburua, kaleen izenak eta monumentuak hautatzeko prozesua arautuko duen legeria sortzea da, emakumeen izenak kaleetan, plazetan, monumentuetan eta abar agertu daitezen, eta emakumeen aintzatespen sinbolikoa areagotu dadin.

Jarraipena

- **Kale, plaza, monumentu eta abarretan emakumeen izenen ezarpena balioetsi.** Ale, plaza, monumentu eta abarretan emakumeen izenen ezarpena aldizka balioetsi nahi da, eta herri eta hirietan horrelako aintzatespen sinbolikoak hobetzeko etengabeko prozedurari ekin beharko zaio.

D. _____

HELBURUARI LOTUTAKO
EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Behekoen kopuruak eta bilakaera:
 - Emakumeen omenezko monumentuak eta eraikinen izenak.
 - Kale-izendegian sartu diren emakume-izenak.
 - Eraikitzeaz dauden espazioetako kaleetan, monumentuetan eta abar ezartzekoak diren emakume-izenak.
 - Proposatutako emakume-izenak.

C1.1 XEDEA: LANEKO, ETXeko ETA NORBERAREN EGINKIZUNAK ONEZ BATERATZEKO NEURRIAK HARTZEA ERRAZTERA BIDERATUTAKO HIRIEN PLANGINTZA ETA DISEINURAKO IRIZPIDEAK IDENTIFIKATU ETA APLIKATU.

Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 25. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 46. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Esku-hartzearen helburua pertsonen bizi-kalitatea hobetzea da, hirigintzako plangintzan eta diseinuan laneko, etxeko eta norberaren eginkizunak onez bateratzeko oztopoak ezabatuta (aurrez oztopoak identifikatu behar dira). Hauek dira hiriaren plangintzan eta diseinuan kontuan hartu beharko diren alderdiak:

- Ekipamendu eta zerbitzuen kokapena eta eskuratzeko erraztasuna. Norberaren eta familiaren zaintzarako (osasun-zerbitzuak, gizarte-zerbitzuak, zerbitzu kulturalak, kiroltakoak, merkataritzakoak, etab.) beharrak ase beharko dira, eta horien kokapenak egokia izan beharko du desplazamenduetan denbora gehiegi ez xahutzeko.
- Zonakatzea. Gehiegi espezializatutako zonakatzeak ekidin nahi dira, lan-bateratzea oztopatzen baitute: biziaren alderdi guztietarako beharrak asetzeko desplazamendu asko egin beharko baitira.
- Arkitektura-oztopoak. Minusbaliotasunen bat duten pertsonen autonomiarako oztopo arkitektonikoak ezabatzea ezinbestekoa da.
- Denboraren artikulazioa eta erabilera. Ekipamendu eta zerbitzuetarako existitzen diren ordutegien azterketa egitea funtsezkoa da, emakume eta gizonen beharretara (higikortasuna, eskuragarritasuna, eguneroko denbora osoaren erabilera, beharrak, etab.) egokitu nahi baditugu.

B.

ESTRATEGIA

Hiri eta herrietan hirien plangintzarekin eta diseinuarekin lotutako laneko, etxeko eta norberaren eginkizunak onez bateratzeko neurriak hartzeko oztopoak identifikatu, balioetsi eta soluzioak proposatuko dira, gai horietan arduraren udaleko langileak prestatu eta espazioak egokitzeko, oztopoak ezabatzeko eta abarrerako araudia egin edota egokituko da.

Jakintza

- **Udalerrietako plangintzarekin eta diseinuarekin lotutako laneko, etxeko eta norberaren eginkizunak onez bateratzeko neurriak hartzea errazteko praktika egokiak eta oztopoak aztertu.** Existitzen diren oztopoak identifikatu, diagnostikoa egin eta balioetsi egingo dira lehenik, hobetzeko esparruak eta garatu beharreko lehentasuneko neurriak zeintzuk diren zehazteko. Modu berean, udaleko langileen artean diagnostikoaren emaitzak zabalduko dira.

Prestakuntza

- **Hiriaren plangintzan eta diseinuan ardura duten pertsonak prestatu.** Pertsona horiei zehaztutako hobekuntzak ezartzeko gaituko da, laneko, etxeko eta norberaren eginkizunak onez bateratzea erraztuko duten hirigintzako plangintzak eta diseinuak oinarrizko irizpide estandarretara egokitzeko.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Existitzen diren arkitektura-oztopoak ezabatu.** Udalak ekiteko ardura duen espazioetan (kaleak, eraikin eta lokal pribatu nahiz publikoetako barruko aldeak) existitzen diren arkitektura-oztopoak ezabatuko dira, higikortasuna murriztua duten pertsonen eta zaintza-lanetan diharduten pertsonen helgarritasuna bermatzeko.
- **Erabilera publiko nahiz pribatua duten espazioak zaintza-lanetan diharduten pertsonentzat egokitu.** Ekintza honen helburua, erabilera publiko nahiz pribatua duten espazioak zaintza-lanetan diharduten pertsonentzat egokitzea da. Udalaren eskumeneko espazio publikoetan ekintza hau zuzenean garatu daiteke, baina espazio pribatuetan espazioak egokitzeko araudia sortu behar izateaz gain Udalek egokitzapenak egiteagatiko diru-laguntzak eman ditzakete.
- **Udalerrietan aisialdirako espazioak, gune berdeak, korridore berdeak, sare berdea eta abar sortzea sustatu.** Horien guztien bizigarritasuna hobetzea da helburua, eta pertsonen beharretara egokitzen diren gunekako ekipamendu txikiak (lorategiak, aisialdiko guneak, baliabide komunitarioak, etab.) sortzeko ahalegina ere egin daiteke.

- **Hiriaren plangintzan eta diseinuan eta espazioen erabileran eta kudeaketan laneko, etxeko eta norberaren eginkizunak onez bateratzea errazteko irizpideak betetzen dituen araudia sortu.** Laneko, etxeko eta norberaren eginkizunak onez bateratzea erraztuko duten oinarrizko irizpideak abian jartzea arautuko duen udal-arautegia sortu: familiaren edota mendeko pertsonen zaintzan dihardutenentzat, pertsonen autonomia areagotzea sustatzeko, espazioen erabilerari dagokionez, etab.

Jarraipena

- **Diagnostikoan identifikatutako lehentasunezko hobekuntzen ezarpen-maila balioetsi.** Identifikatutako eta ezarritako lehentasunezko hobekuntzen kopurua kontuan hartuta garatuko da, aldizka, balioespena.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO
EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Hirigintza-diseinuan identifikatu eta neutralizatu diren lan-bateratzerako oztopoen kopurua (zerbitzuen kokapena, zonakatzea, arkitektura-oztopoak, denboraren erabilerak, etab.).

C1.2 XEDEA: GARRAIO PUBLIKOAN LANEKO, ETXEKO ETA NORBERAREN EGINKIZUNAK ONEZ BATERATZEKO NEURRIAK HARTZEA ERRAZTEKO NEURRIAK APLIKATU.

Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten berdintasunerako, 26. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 46. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA/
KONTZEPTUAK MUGATZEA

Garraio publikoa laneko, etxeko eta norberaren eginkizunak onez bateratzearen beharretara (etxeko lanak, pertsonen zaintza-lanak, horien autonomia) egokitu behar da. Garraio publikoa lan-bateratzearen beharretara egokitzeke neurriek beheko alderdiak kontuan hartu beharko dituzte:

- Ibilbideetan hobekuntzak. Bereziki zerbitzu-sareekiko (osasunekoak, hezkuntzakoak, kulturalak, sozialak, kiroltakoak, merkataritzakoak, etab.) komunikazioa eta lanpostuekiko komunikazioan aplikatu behar da.
- Ordutegiak hobetu. Enpleguarekin lotutako desplazamendu-beharrei erantzun behar-ko zaie.
- Geralekuen hobekuntzak. Erosoak, eskuragarriak eta eguraldiaren babesa izateaz gain, segurtasunari dagokionez gune aproposetan kokatuta behar dute egon.
- Ibilgailuen egokitzapenean hobekuntzak. Higikortasun murriztua duten pertsonen beharretara, familiako zaintza-lanak egiten dituztenen beharretara eta euren mende dauden pertsonen beharretara egokitu beharko dira.

B.

ESTRATEGIA

Hobekuntzarako proposamenak aztertu ondoren, hautatutako proposamenak ezarri beharko dira.

C.

LAN PROZESUA

Jakintza

- **Herritarrek parte hartu duten diagnostiko eta prozeduretan identifikatu diren hobekuntzak bideragarriak diren ala ez aztertu.** Ekintza honen helburua diagnostiko eta prozeduretan identifikatu diren hobekuntzak bideragarriak diren ala ez aztertzea da, hobekuntzak ezagutarazi eta praktika egokiak moduan zabaltzeko.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Mendeko pertsonen eta horien zaintzaileen higikortasuna errazteko eta gizon eta emakumeen beharrak asetzeko garraio publiko kolektiboko (minibusak, taxi-busak, taxi kolektiboak, etab.) zerbitzuak sortu/egokitu.** Egin diren diagnostikoetan antzemandako beharretara garraio publikoa egokitu behar da. Aurreko kasuan bezala, ekintza udalerrian bertan garatuko da Udalak garraio publikoko elkarte propioak

dituenean, baina horrelako baliabideak ez dituztenetan udalerrien artean garatuko da. Oinarritzko hobekuntza-esparruak hauek izan daitezke:

- Ibilbideak, ordutegiak, maiztasunak, etab. moldatu.
 - Zaintzaileentzako tarifak moldatu.
 - Higikortasun murriztua dutenentzat, mendeko pertsonak zaintzen dituztenentzat edota orgak, aulkia, etab. eramaten dituztenentzat garraiora heltzeko zailtasunak (sarbide altuak, etab.) ezabatu ibilgailuetatik.
- **Garraio publikoan segurtasuna areagotzeko neurriak ezarri.** “Eskatutako” geldialdiak eta antzeko neurriak artikulatuko dira, gaueko zerbitzuetan bereziki.
 - **Udalerrietan “eskola-bideak” moduko ekimenak garatu.** Haurren autonomian urratsak emateaz gain zaintzen dituzten pertsonen laneko, etxeko eta norberaren eginkizunak onez bateratzean lagunduko duten neurriak dira. Ibilbide soileko bideak dira, haurrek oinez egin ditzaketenak, eta ikasleek egin ohi dituzten bideen artean hautatzen dira. Haurrek, ikastetxeek, irakasleek, famileek, udal-administrazioak, auzoetako establezimenduek eta elkarteek parte hartu beharko dute programa honen garapenean.

Jarraipena

- **Egindako hobekuntzek izan duten inpaktuaren jarraipena gauzatu.** Ezarri diren neurrien inpaktua aldizka balioetsiko da, etengabeko hobekuntzarako sistema ezarriz, pertsonen laneko, etxeko eta norberaren eginkizunak onez bateratzeko beharrak asetzeko.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Herritarren parte-hartze prozeduretan proposatutako hobekuntzen kopurua eta gauzatutako hobekuntzen kopurua.
- Garraio publikoetako konpainietan egindako diagnostikoen bitartez antzemandako arazoen kopurua eta gauzatutako hobekuntzen kopurua.
- Lan-bateratzea hobetzearen inpaktua: desplazamendu-kopurua, desplazamenduak egiteko behar den denbora.

V1.1 XEDEA: EMAKUMEEK SEGURTASUN EZA SENTITZEN DUTEN UDALERRIKO GUNEA IDENTIFIKATU, NEUTRALIZAZIORAKO NEURRIAK APLIKATZEKO. EMAKUMEEK SEGURTASUN EZA SENTITZEN DUTEN GUNE BERRIAK SORTZEA EKIDITEKO IRIZPIDEAK EZARRI. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 21., 25. eta 26. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 50 eta 51. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Esku-hartzearen helburua emakumeak seguru sentiaraztea da, eta horretarako, funtsezkoa da emakumeen parte-hartzea, segurtasun eza eragiten duten espazioak identifikatzeko eta eraldatzeko, eta eraikita dauden espazioetarako irizpideak edo moldatzeak eragiteko.

Emakumeen segurtasuna eta segurtasun-sentsazioa areagotzeko, beldurra eragiten duten tokiak eta egoerak eraldatu beharko dira: arrisku objektiboa dutenak nahiz segurtasun ezaren sentsazioa eragiten dutenak.

B.

ESTRATEGIA

Udalerriko emakumeekin batera segurtasun eza eragiten duten tokiak identifikatuko dira eta moldatzea egokia izateko moduak zehaztuko dira. Gainera, hirigintzako jarduera guztietan eta garraio publikoarekin lotutakoetan derrigorrez bete beharreko segurtasun-irizpideak biltzen dituen araudia egokitu beharko da.

C.

LAN PROZESUA

Jakintza

- **Udalerrian pertsonen segurtasun eza sentitzen duten lekuei buruzko diagnostikoa egin, segurtasun pertsonala, bide-segurtasuna eta abar moduko faktoreak kontuan hartuta.** Emakumeek segurtasun eza sentitzen duten udalerriko espazioak (garraio publikokoak barne) antzematea da helburua, eta horiek neutralizatzeko irizpideak ere identifikatu beharko dira. Emakumeek eta emakume-elkarteek derrigor parte hartu beharko dute diagnostikoa egiterakoan. Modu berean, eta errealitatea sakonean eza-gutzeko, profil ezberdinetako emakumeen parte-hartzea beharrezkotzat jotzen da,

adinari, bizi-azturei eta espazioen erabilerari, minusbaliotasunei, jatorriari eta abarrei dagokienez. Udaleko langileen artean nahiz parte hartu duten pertsonen artean eta herritarren artean diagnostikoaren emaitzak zabaltzea gomendagarria da.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Kexak eta iradokizunak jasotzeko zerbitzua sortu.** Segurtasun ezaren sentsazioa eragiten duten edota segurtasunik ez duten udaleko espazioei buruz herritarrek dituzten iritziak, kexak eta iradokizunak jasoko dira.
- **Antzemandako hutsak poliki-poliki egokitzen joan, besteak beste udaleko argiztapena eta garbiketa egokiak bermatuz.** Aurrez egindako ikerketaren emaitzak kontuan hartuta udalerriko argiztapen egokia bermatuko da hiriguneetan nahiz kanpoko aldean edota mugimendu gutxien duten guneetan, bereziki biztanle gutxien dutenetan.

Araudia

- **Genero-ikuspegian oinarritutako segurtasun-irizpideak ezarriko dituen udal-ordenantza sortu.** Ekintza honen helburua, existitzen diren espazioetan nahiz sortuko diren espazio berrietan hobekuntzak sartzeko irizpideak definitu eta arautzea da.

Jarraipena

- **Araudiaren betetze-mailaren jarraipena egin.** Aldizka egingo den jarraipen estandarra izango da, eta gai honetan eskumena duten udaleko arlo guztietako lanaren egituraren barneratuko da.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Identifikatu diren puntu nabarmenen kopurua eta horiek neutralizatzeko garatu diren esku-hartzeen kopurua.
- Emakumeen segurtasuna bermatzeko diseinu-irizpideari buruzko araudia onartzen duten Udalen kopurua.
- Araudiari jarraiki egiten diren esku-hartzeen kopurua.

2.8

**LANKIDETZA ETA
GIZA ESKUBIDEAK**

2.8.1

LANKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEEN ARLOKO PLANTEAMENDUARI BURUZKO SARRERA

Arlo honetako esku-hartzearen esparrua Giza Eskubide eta Garapenerako Lankidetza da. Udalaren esparrutik, lehenengo nahiz bigarren esparruan lan egiteko politiken garrantzia handia da.

Garapenerako Lankidetzaren esparruan hirugarren munduko herrialdeei laguntzeko lan egitean oinarritzen da bereziki, GKEen eta bestelako erakundeek laguntzarekin nahiz Udalak berak zuzenean ekinez. Bigarren ardatza udalerrietako herritarrak garapen-bidean dauden herrialdeen errealitatean orientatu eta sensibilizatzean oinarritzen da. Bigarren ardatz honi dagokionean, zenbait alderdi nabarmendu daitezke, besteak beste garapen-bidean dauden herrialdeetako biztanleen errealitatea eta arazoak ezagutzeko lana, Iparra-Hegoa harremana, desberdintasun-egoerak munduan, etab.

Giza Eskubideen esparruan, berriz, giza eskubideak urratzen dizkieten pertsonak jasan-dako arazo anitzen inguruan Udalak garatutako informazioarako eta sensibilizazioarako lana azpimarratu behar da.

Berdintasunaren ikuspuntutik, bi esparru horietan udalaren esku-hartzearen bitartez genero-ikuspegia txertatzea lortu nahi da, emakumeen eta gizonen beharrak, interesak, itxaropenak eta abar modu globalean kontuan hartzea, lantzen diren Hegoaldeko herrialdeetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna areagotuko duten proiektuetan lagunduz.

Mainstreamingaren eta ahalduntzearen ardatzetan adierazita datoz garatu beharreko lanak.

MAINSTREAMINGA

Egiturazko eta oinarritzko izaera duten bi helbururen planteamenduan oinarritzen da ardatz hau. Nukleo kontzeptuala Garapenerako Lankidetzaren udal-arloetan garatutako politiketan eta GKEek eta bestelako erakundeek finantzaturako proiektuetan genero-ikuspegia txertatzera bideratuta dago.

Bilatzen den azken helburua, Tokiko Administrazioan Garapenerako Lankidetzan garatzen dituzten plangintza, esku-hartze eta balioespenetan genero-ikuspegia txertatzeko presta-

keta egitea da, dela hirugarren munduko herrialdeetarako proiektuetan, dela udalerrieta-ko herritarren hezkuntza eta sentsibilizaziorako programetan.

Garapenerako Lankidetzak gaur egun ez luke zentzurik izango GGKEek eta sektore hone-
tan diharduten beste erakundeek garatutako lanagatik izan ez balitz, eta beraz, Udalak
direnez herritarrengandik hurbilen dagoen administrazioa, erakunde horietan genero-
ikuspegia txertatzen lagunduko duten tresnak artikulatu beharko dituzte.

Gainera, dokumentu honetako 27 or. Zeharkakotasuna eta berdintasun-politikak izeneko
atala EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planean xedatutakoetan oina-
rritzen da (Ardatz estrategikoak. Mainstreaminga): oro har, eta zeharkako moduan, Plan
honetan aurreikusitako helburu eta jardun guztiak garatu, gauzatu eta ebaluatze-
garaian, kontuan izan beharko dira emakumezko eta gizonezko taldeen espezifikotasu-
nak, eta batik bat, askotariko diskriminazioa pairatzen duten emakumeenak, emakume
minusbaliatuen taldea esaterako.

AHALDUNTZEA

Ahalduntzearen ardatza definitzen duen lehen nukleo kontzeptuala Hegoaldeko emaku-
meen egoeraren baldintzen bistaratzearekin lotzen da, baldintza horiek hobetzeko helbu-
ruarekin. Orain dela gutxi arte proiektuen definizioan eta garapenean emakume horiek
jasaten dituzten desberdintasunak bistaratzea kontuan hartzen ez bazen ere, gaur egun
jarduera hori oinarritzotzat jotzen da.

Bigarren nukleo kontzeptuala kogarapenaren nozioan oinarrituta dago, eta gure udale-
rrietan bizi diren Hegoaldeko herrialdeetako emakumeak euren jatorrizko herrialdeetan
garatzen diren lankidetzarako jardueren parte-hartzaile egiten ditu.

Azken nukleo kontzeptualak Giza Eskubideak hartzen ditu oro har, eta genero-ikuspegia
txertatzea oinarritzotzat jotzen da, emakumeek esparru honetan duten egoerari errepara-
tuz gero. Dena den, sektore zaurgarri moduan tratatzea ekiditen da.

Deskribatu diren esparruetan, udalaren jarduera-gaitasunen artean lehentasuna dute lan-
kidetza-proiektuekin lotutako informazioaren, sentsibilizazioaren eta lan-ildoaren ikuspe-
giek.

Beheko laburpen-taulan (2.8.2) biltzen dira xede eta ardatz bakoitzerako proposatu diren
jarduerak, geroago azalduko direnak (2.8.3. atalean).

MAINSTREAMINGA

XEDEAK	TRESN.	EGINTZAK
M1.1 XEDEA: GARAPENAREN ALDEKO UDAL LANKIDETZAREN KUDEAKETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATU. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 12, 29 eta 30. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, eta 22. artikulua.	Jakin.	Garapenerako Lankidetzaren arloak kudeatzen duen informazioaren bilketa, tratamendu eta hedapen sistematikoa, sexuaren arabera banatuta. Garapenerako Lankidetzako politiken urteko azterketa, genero-ikuspegian oinarrituta. Garapenerako Lankidetzarekin lotutako arau edo egintza administrazioetan generoak duen inpaktuaren alde aurreko balioespena egin. Garapenerako Lankidetzara bideratutako aurrekontua aldira eta sistematikoki aztertu, genero-ikuspegia kontuan hartuta.
	Zerb/Bali	Garapenerako Lankidetzarekin lotutako dokumentu guztietan, komunikazioetan, formularioetan, dokumentazio grafiko eta ikusizko dokumentuetan etab. mintzaira sexista ez erabiltzea sistematikoki txertatu. Udalen artean praktika egokiak, ikerketak, diagnostikoak eta abar trukatzeko egiturak artikulatu. Udaleko Lankidetzaren Batzordeetako lan-agendako gaien tratamenduan genero-ikuspegia barneratu, baita generoarekin eta garapenarekin lotutako berariazko gaietan ere.
	Prestak.	Garapenean generoak duen garrantziaren inguruan politikariak gaitu. Teknikariak genero-ikuspegian oinarritutako lankidetzaren kudeaketa-tresnetan gaitu.
	Araudia	Garapenerako Lankidetzaren diharduten udaleko arlo guztietako egitasmoetan, programazioetan, aurrekontuetan, etab. aukera-berdintasunaren printzipioa txertatu.
	Jarraip.	Garapenerako Lankidetzaren arloan berdintasunaren aldeko neurriak duen betetze eta emaitzaren balioespena.
M1.2 XEDEA: GGKE ETA GARAPENERAKO LANKIDETZA GARATZEN DUTEN BESTELAKO ERAKUNDEEN BITARTEZ FINANTZATUTAKO UDALAK PROIEKTUETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEN DELA BERMATU. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 30. artikulua.	Araudia	Garapenerako Lankidetzarako proiektuak diruz laguntzeko deialdietako balioespen-oinarrietan genero-ikuspegia txertatzearekin lotutako irizpideak gehitu.
	Jarraip.	Udalak diruz lagundutako eta GGKEen eta beste erakunde batzuen bitartez garatutako proiektuetan genero-inpaktua balioesteko urteko jarraipen-sistemak garatu.

AHALDUNTZEA

XEDEAK	TRESN.	EGINTZAK
E1.1 XEDEA: UDALAK ESKAINITAKO GARAPENERAKO LANKIDETZA JASOTZEN DUTEN HERRIALDEETAKO EMAKUMEEN EGOERA ETA KOKAPENARI BURUZ DUGUN JAKINTZA AREAGOTU. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 30. artikulua.	Jakin/	Udalerrian bizi diren emakumeen eta lankidetz-erlazioak ezartzen diren Hegoaldeko herrialdeetako emakumeen artean jakintzak, aintzatespenak, esperientziak eta lankidetz-erlazioak topaketak garatu.
	Info/Sent	Garapen bidean dauden herrialdeetako emakumeen egoera eta errealitatea udalerriko herritarren artean ezagutarazteko ekintzak eta kanpainak antolatu. Emakumeen ahalgintzaren gaian Garapenerako lankidetzarako programak garatzen diren udalekin sinidetzea sustatu.
	Prestak.	Udalerriko ikastetxeetan jorratzen den garapenerako hezkuntzetan emakumeen egoera bistaratzea bermatu.
	Araud.	Proiektuen diru-laguntzetarako oinarrietan proiektuak gauzatzen diren herrialdean emakumeek duten baldintzak eta kokapenari buruz udalerrian sentsibilizaziorako kanpainak gauzatzea balioespen-irizitu moduan txertatu.
E1.2 XEDEA: GURE UDALERRIETAN BIZI DIREN HEGOALDEKO HERRIALDEETAKO EMAKUMEEI EUREN JATORRIKO HERRIALDEETARA BIDERATUTAKO EDO BERAUEI BEGIRA BERTAN GAUZATZEN DIREN GARAPEN PROIEKTUETAN PARTE HARTZEA SUSTATU. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 30. artikulua.	Zerb/Bali	Udalaren GGKEen eta udalerrian bizi diren emakume etorkinen (elkartuak nahiz elkartu gabeak) arteko jakintzarako eta koordinaziorako dinamikak sortu. Immigrazioaren eta lankidetzaren udal arloetan koordinaziorako egiturak eta dinamikak sortu.
	Jakin/	Praktika egokien gida egin.
E1.3 XEDEA: GIZA ESKUBIDEEN ESPARRUAN UDALAK GAUZATUTAKO EDO DIRUZ LAGUNDUTAKO EKINTZETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATU. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 30. artikulua.	Info/Sent	Abenduaren 10aren inguruan generoarekin eta Giza Eskubideekin lotura duten jarduerak antolatu. Giza Eskubideen eta generoaren inguruko sentsibilizazio-kanpainak garatu.
	Zerb/Bali	Giza Eskubideen eta generoaren gaiak landuko dituzten proiektuak finantzatzeko aukera udaleko diru-laguntzen lehiaketan txertatu.

M1.1 XEDEA: GARAPENAREN ALDEKO UDAL LANKIDETZAREN KUDEAKETAN GENE-RO-IKUSPEGIA TXERTATU.

Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 12, 29 eta 30. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, eta 22. artikulua.

A.**ESKU HARTZEAREN HELBURUA**

Esku-hartzearen helburua, udaleko Garapenerako Lankidetzan lan egiten duten politikari eta teknikariek arloko diagnostikoetan, plangintzetan, esku-hartzeetan eta balioespenetan genero-ikuspegia txertatzea da. Emakumeen eta gizonen baldintza, kokapenak eta egoera ezberdinak modu egituratuan kontuan hartuko dira. Udaleko Garapenerako Lankidetzaren politiken garapena bereziki hirugarren munduko herrialdeetan garatzeko proiektuen finantziazioan eta horien egoerari buruzko informaziorako eta sentsibilizaziorako programen, kanpainen, eta abarren garapenean oinarritzen dira.

B.**ESTRATEGIA**

Garapenerako Lankidetzaren arloan udaleko politiken diagnostikoan, diseinuan, esku-hartzean eta balioespenean emakumeen egoera, baldintza eta kokapen ezberdinak uztartuko dituzten tresnak eta lan-prozesuen erabilera estandarizatuko da.

C.**LAN PROZESUA****Jakintza**

- **Garapenerako Lankidetzaren arloak kudeatzen duen informazioaren bilketa, tratamendu eta hedapen sistematikoa, sexuaren arabera banatuta.** Udaletatik kudeatu edo diruz laguntzen diren lankidetzaproiektuei buruzko informazioa kudeatzea da ekintza honen helburua. Garapenerako Lankidetzaren arloan Udalean egiten diren ikerketa eta estatistika guztietan datu orokorrak maneiatzeko tresna elektronikoetan sexuaren aldagaia txertatzeko eskatzen da. Sexuaren arabera ustiaketa berezituak

egin behar badira, laginak behar bezain handiak eta adierazgarriak izatea komeni da.

- **Garapenerako Lankidetzako politiken urteko azterketa, genero-ikuspegian oinarrituta.** Garapenerako Lankidetzaren arloko politiketan adituak diren Udaleko pertsonak (politikariak eta teknikariak), berdintasunerako eragileak eta arlo honetan emakumeak dituzten beharrak ezagutzen dituzten eragileak osatutako lan-taldeak sortu daitezke. Jarduera-ildoak eta programak, egitasmoak eta ekintzak genero-ikuspegian oinarrituta aztertuko dira, eta jarduerarako ildo nagusiak ezarriko dira.
- **Garapenerako Lankidetzarekin lotutako arau edo egintza administratiboetan generoak duen inpaktuaren alde aurreko balioespena egin.** Arau edo egintza administratiboak aplikazioa eta inpaktua gizonen eta emakumeen artean modu berean egiten den ala ez zehazteko balio duen tresna da, eta beraz, ezkutuko diskriminazioak ekiditen laguntzen du. Ekintzaren helburua, administratiboetako arau edo egintza guztietan tresna hori aplikatzea da, eta Udalaren lan osorako zehaztuko da. Arlo honetan berebiziko garrantzia dute Garapenerako Lankidetzarako, sentsibilizaziorako, garapen-hezkuntzarako eta abarretarako proiektuak garatzeko diru-laguntzen deialdiek.
- **Garapenerako Lankidetzara bideratutako aurrekontua aldizka eta sistematikoki aztertu, genero-ikuspegia kontuan hartuta.** Ekintza honen helburua Udalek urtean Garapenerako Lankidetzara bideratutako aurrekontuen inpaktu diferentziala ezagutzeko da.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Garapenerako Lankidetzarekin lotutako dokumentu guztietan, komunikazioetan, formularioetan, dokumentazio grafiko eta ikusizko dokumentuetan etab. mintzaira sexista ez erabiltzea sistematikoki txertatu.** Udaleko Garapenerako Lankidetzaren arloan mintzaira sexista ez erabiltzeko gida banatu behar da, eta edozein motako dokumentua (formularioak, txostenak, balioespenak, prozedurak, etab.) sortzeko erabili behar dela gogoraraziko da.
- **Udalen artean praktika egokiak, ikerketak, diagnostikoak eta abar trukatzeko egiturak artikulatu.** Ekintza honen helburua, Udalei Garapenerako Lankidetzaren esparruan esperientziak eta praktika egokiak elkar trukatzeko ahalbidetzea da. Udalen artean sustatu behar diren litzateke ekimen hau, Udalen parte-hartze plurala sustatuz: txikiak, ertainak eta handiak.

- **Udaleko Lankidetza Batzordeetako lan-agendako gaien tratamenduan genero-ikusegia barneratu, baita generoarekin eta garapenarekin lotutako berriarazko gaietan ere.** Garapenerako Lankidetza eta generoarekin lotutako berriarazko gaiak berriaraz lantzen dituzten mota honetako espazioak sustatuko dira. Intereseak izan daitezkeen gaien definizioa hiltzartuta jorra daiteke espazio hauetan, lanak gauzatzeko egutegia zehaztuz eta gaian adituak diren pertsonen parte-hartzea lor daiteke.

Prestakuntza

- **Garapenean generoak duen garrantziaren inguruan politikariak gaitu.** Garapenean generoak duen garrantziaren inguruan politikariak gaitzea da ekintza honen helburua. Oinarritzeko prestakuntza izango litzateke, teknikarien artean Garapenerako Lankidetzaren udal-politikaetako plangintzan genero-ikusegia txertatzeak duen garrantzia eta txertatzeko moduak ezagutarazteko. Hala, politikariek Garapenerako Lankidetzari buruz genero-ikusegian oinarrituta egindako azterketan eragingo luke, ikusegi honetan oinarritutako aurrekontuen azterketan, etab.
- **Teknikariak genero-ikusegian oinarritutako lankidetzaren kudeaketa-tresnetan gaitu.** Aurretik zehaztutako ekintzak garatzeko teknikariak prestatzea da helburua: sexuen arabera datuen desagregaziorako tresnak erraztu, mintzaira eta irudi sexistak erabiltzea ekidin, betetze eta emaitzen balioespina, etab.

Araudia

- **Garapenerako Lankidetzan diharduten udaleko arlo guztietako egitasmoetan, programazioetan, aurrekontuetan, etab. aukera-berdintasunaren printzipioa txertatu.** Garapenerako Lankidetzan diharduten udaleko arlo guztietako egitasmoetan, programazioetan, aurrekontuetan, etab. aukera-berdintasunaren printzipioa txertatuko da. Ekintza honek udaleko plangintzetan aukera-berdintasuna txertatzeak duen garrantzia azpimarratzen du.

Jarraipena

- **Garapenerako Lankidetzaren arloan berdintasunaren aldeko neurriak duten betetze eta emaitzaren balioespina.** Balioespina eta inpaktua urtean behin egiteko aukera legoke, arloetako politiken azterketan eta plangintzan parte hartzen duten guztiekin batera. Planteatutako jardueren betetze-maila balioestarekin ekintzen bilakaera aditzera emango litzateke, baina emaitzen balioespenak aldatu nahi zen errealitatea nola aldatu den islatuko luke.

- Garapenerako Lankidetzaren arloan udal-jardueren artean berdintasun-jarduerak garatzera bidean egokitutako jarduera-ildoen %.
- Sexuaren aldagaia kontuan hartuta egin eta hedatu diren ikerketa eta estatistiken %ren bilakaera.
- Mintzaira sexista erabili gabe garatu diren dokumentuen %ren bilakaera.
- Diseinatutako berdintasun-ekintzen emaitzen bilakaera.
- Garapenerako Lankidetzan diharduten udaleko arlo guztietan aukera-berdintasunaren printzipioa txertatu diren egitasmo, programazio, aurrekontu eta abarren %ren bilakaera.
- Genero-ikuspegian oinarrituta aztertu diren Garapenerako Lankidetzarako aurrekontuen %ren bilakaera.
- Generoaren eta Garapenerako Lankidetzaren gaiak landu dituzten lankidetzarako sektore-batzordeen kopurua eta bilakaera.
- Saileko prestakuntzaren (teknikariei nahiz politikariei zuzendutakoa) bilakaera: presatutako pertsonen % eta pertsona bakoitzaren prestakuntza-ordu kopurua.
- Lankidetzaproiektuen onuradunen kopurua eta %, sexuaren arabera banatuta.

M1.2 XEDEA: GGKE ETA GARAPENERAKO LANKIDETZA GARATZEN DUTEN BESTELAKO ERAKUNDEEN BITARTEZ FINANTZATUTAKO UDALAK PROIEKTUETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEN DELA BERMATU. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko

Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 30. artikulua.

GGKEak eta beste erakunde batzuk Garapenerako Lankidetzaren garapenean eta kudeaketan esku hartzen duten funtsezko eragileak dira, dela hirugarren munduko herrialdeetan, dela udalerriko biztanleen artean hezkuntzarako, informaziorako eta sentsibilizaziorako programak garatzeko. Testuinguru honetan oinarritzotzat jotzen da erakundeek Udalak finantzatutako diagnostikoetan, plangintzetan eta esku-hartzeetan genero-ikuspegia txertatzea.

B. _____

ESTRATEGIA

Udalek, finantzatzen dituzten Garapenerako Lankidetzarako proiektuetan genero-ikuspegia txertatzea bermatu behar dute, diru-laguntzen deialdietan horretarako bideratutako irizpideak ezarriz. Jarraipena egingo duen sistema ere aurreikusiko dute.

C. _____

LAN PROZESUA

Araudia

- **Garapenerako Lankidetzarako proiektuak diruz laguntzeko deialdietako balioespen-oinarrietan genero-ikuspegia txertatzearekin lotutako irizpideak gehitu.** Udalak diruz lagundutako proiektuetan genero-ikuspegia txertatzea bermatzea da helburua.

Jarraipena

- **Udalak diruz lagundutako eta GGKEen eta beste erakunde batzuen bitartez garatutako proiektuetan genero-inpaktua balioesteko urteko jarraipen-sistemak garatu.** Proiektuetako genero-inpaktua ezagutu eta balioestea da helburua.

D. _____

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Genero-ikuspegia txertatuta duten Udalak finantzatutako proiektuen kopurua eta %ren bilakaera.

E1.1 XEDEA: UDALAK ESKAINITAKO GARAPENERAKO LANKIDETZA JASOTZEN DUTEN HERRIALDEETAKO EMAKUMEEN EGOERA ETA KOKAPENARI BURUZ DUGUN JAKINTZA AREAGOTU. Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 30. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Esku-hartzearen helburua, garapen bidean dauden herrialdeetako emakumeen baldintzak eta kokapenak bistaratzeko da, udalerrietako biztanleek errealitate hori ezagutu dezaten.

B.

ESTRATEGIA

Garapen bidean dauden herrialde horietako emakumeak bizi diren udalerrietan herritarrentzat informaziorako, sentsibilizaziorako eta prestakuntzarako ekintzak antolatuko dira, egoera horren berri zehatzagoa izan dezaten.

C.

LAN PROZESUA

Jakintza

- **Udalerrian bizi diren emakumeen eta lankidetzak-erlazioak ezartzen diren Hegoaldeko herrialdeetako emakumeen artean jakintzak, aintzatespenak, esperientziak eta lankidetzak partekatzeko topaketak garatu.** Garapenerako lankidetzarako proiektuak garatzen ari diren Hegoaldeko herrialdeetako emakumeen eta emakume-elkarleen egoerari buruzko zuzeneko jakintzak areagotzeko ekintzak garatuko dira. Udalerrian bertan garatzen diren ekintzak dira, eta urtero aurrekontu-partida bat topaketa horiek antolatuzera bidera daiteke. Topaketa horietan parte hartuko duten herrialdeak, proiektuak eta emakume-elkarreak lankidetzarako Sektore Batzordeak aukeratutakoak izan daitezke.

Informazioa / Sentsibilizazioa

- **Garapen bidean dauden herrialdeetako emakumeen egoera eta errealitatea udalerriko herritarren artean ezagutarazteko ekintzak eta kanpainak antolatu.** Garapen bidean dauden herrialdeetan bizi diren emakumeen errealitatea (egoerak, kokapenak, bizi-azturak, gizarte-azturak, kulturalak, komunitarioak, etab.) hobeto ezagutzeko eta

sentsibilizaziorako ekintzak antolatzea da helburua. Hauek dira garatu daitezken bi ekintza-motak:

- Udalek diruz lagundutako proiektuei buruzko informazioa eta sentsibilizazioa.
 - Garapen bidean dauden herrialdeetan bizi diren emakumeen errealitateari buruzko sentsibilizazio-jarduera eta jardunaldi orokorragoak.
- **Emakumeen ahalduntzearen gaian Garapenerako Lankidetzarako programak garatzen diren udalekin senidetzea sustatu.** Udalerrian bertan egingo den ekintza honekin berdintasunerako eta Garapenerako Lankidetzako konpromisoaren objektibazioa lortuko da.

Prestakuntza

- **Udalerriko ikastetxeetan jorratzen den garapenerako hezkuntzetan emakumeen egoera bistaratzea bermatu.** Ekintza honen helburua, garapen bidean dauden herrialdeetako emakumeen baldintzak eta kokapena haurrei jakinaraztea eta sentsibilizatzeko da. Lehen eta Bigarren Hezkuntzako prestakuntza osagarrietako programak, gazte-taldeak, ludotekak, aisialdiko taldeak, etab. dira programa horien garapenerako egitura lehenetsiak.

Araudia

- **Proiektuen diru-laguntzetarako oinarrietan proiektuak gauzatzen diren herrialdean emakumeek duten baldintzak eta kokapenari buruz udalerrian sentsibilizaziorako kanpainak gauzatzea balioespen-iritzi moduan txertatu.** Ekintza honen helburua, Udalak finantzatzen dituen proiektuen bitartez herrialde hartzaileetako emakumeen egoera eta kokapena bistaratzean jardutea da.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO
EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Udalak eskainitako garapenerako lankidetzak jasotzen duten herrialdeetako emakumeen egoera eta kokapenari buruz dugun jakintza areagotu, honakoen bitartez:
 - Udalerrian bizi diren emakumeen eta garapen bidean dauden Hegoaldeko herrialdeetako emakumeen artean jakintzak, aintzatespenak, esperientziak eta lankidetzak partekatzeko antolatu diren topaketen kopuruaren bilakaera.

- Garapen bidean dauden herrialdeetako emakumeen egoera eta errealitatea udalerriko herritarren artean ezagutarazteko antolatutako diren ekintza eta kanpainen kopuruaren bilakaera.
- Hegoaldeko herrialdeetako emakumeen baldintzak eta kokapena bistaratu eta landu dituzten hezkuntza-programen kopuruaren bilakaera.
- Herrialde hartzaileetako emakumeen egoera eta kokapenari buruz udalerrian sentsibilizazio-ekintzak egitea planteatzen duten lankidetzako proiektuen kopuruaren bilakaera.

E1.2 XEDEA: GURE UDALERRIETAN BIZI DIREN HEGOALDEKO HERRIALDEETAKO EMAKUMEEI EUREN JATORRIKO HERRIALDEETARA BIDERATUTAKO EDO BERAUEI BEGIRA BERTAN GAUZATZEN DIREN GARAPEN PROIEKTUETAN PARTE HARTZEA SUSTATU.

Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 30. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Esku hartzearen helburuak bi dira. Lehenengo, gure udalerrietan bizi diren emakume etorkinen (elkartuak nahiz elkartu gabeak) parte-hartzea sustatu, lankidetzaren esparruan euren jatorriko herrialdeetan gauzatzen diren jarduerak hobetzeko.

Helburua kogarapenaren nozioan oinarrituta dago, eta gure udalerrietan bizi diren Hegoaldeko herrialdeetako emakumeak euren jatorrizko herrialdeetan garatzen diren lankidetzarako jardueren parte-hartzaile egiten ditu. Euren herrialdeetara bideratutako jardueren proiektuetan emakume etorkinek parte hartzearekin, gizarte horien beharretara hobeto egokituko diren proiektuak lortzeko baliagarria izan daitekeela uste da.

B.

ESTRATEGIA

Gure udalerrietan bizi diren emakume etorkinen (elkartuak nahiz elkartu gabeak) eta Udalen arteko koordinaziorako eta elkarlanerako dinamikak sortu nahi dira, baita udaleko immigrazioaren eta lankidetzaren arloan artekoak ere. Egitura horien definizioa, garapena, mantentzea eta instituzionalizazioak udalaren esku-hartzea hobetzen positiboki lagunduko duela uste da, dela komunitate hartzaileentzako, dela hirugarren munduko herrialdeentzako.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Udalaren GGKEen eta udalerrian bizi diren emakume etorkinen (elkartuak nahiz elkartu gabeak) arteko jakintzarako eta koordinaziorako dinamikak sortu.** Komunitate hartzaileetako arazoei, beharrei, eta abarrei buruz emakume hauek duten jakintza-maila funtsezkotzat jotzen da. Jakintzarako eta koordinaziorako dinamika horien sorrera-prozesuen ondorioz, sortuko diren egiturak geroz eta instituzionalizatuagoak izango dira. Emakume horiek egindako lana aintzatestea ezinbesteko baldintzatzat jotzen da.
- **Immigrazioaren eta lankidetzaren udal arloetan koordinaziorako egiturak eta dinamikak sortu.** Immigrazioaren eta Garapenerako Lankidetzaren arloen arteko koordinazioa (filosofiko/ideologikoa eta praktikoa) areagotzea da helburua, eta arlo bakoitzean garatzen diren politikak oro har hobetzen lagunduko du koordinazio horrek.

Jakintza

- **Praktika egokien gida egin.** Sortu diren tresnak bilduko dituen praktika egokien gida egitea da helburua. Gida hau udalerrri ezberdinen artean garatu daiteke, baina gero Udal bakoitzak aplikatuko du bere eremuan. Sortzen joango den informazio berri guztiarekin eguneratzen joateko mekanismoak sortzea ere aurreikusi da.

- Udalerrietan garatutako koordinaziorako egitura eta dinamika kopurua eta bilakaera:
 - Emakume etorkinen (elkartuak nahiz elkartu gabeak) eta udaleko immigrazioaren eta Garapenerako Lankidetzaren arloen artean.
 - Immigrazioaren eta Garapenerako Lankidetzaren udaleko arloen artean.

E1.3 XEDEA: GIZA ESKUBIDEEN ESPARRUAN UDALAK GAUZATUTAKO EDO DIRUZ LAGUNDUTAKO EKINTZETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATU. Europako Gutuna Emakumeek

eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako, 30. artikulua.

A.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Esku-hartzearen helburua, Giza Eskubideen esparruan garatzen diren ekintzetan generoa txertatzea da, osoko ikuspegi moduan. Esku-hartzearen azken helburua, beraz, osoko ikuspegitik Giza Eskubideak lantzea da, genero-ikuspegia eta mundu osoko emakumeen errealitatea eta arazoak kontuan hartuta. Hala, garatzeko bidean dauden herrialdeetako nahiz EAEko udalerrietako generoaren eta Giza Eskubideen gaiei buruz informatu eta sentsibilizazioan oinarritzen da esku-hartzea.

B.

ESTRATEGIA

Informazio/sentsibilizazio-kanpainak eta ekintzak sortzea izango da estrategia, baina baita Giza Eskubideak lantzen dituzten erakundeek euren lanetan genero-ikuspegia txertatzeko baliabide ekonomikoen aktibazioa ere.

C.

LAN PROZESUA

Informazioa / Sentsibilizazioa

- **Abenduaren 10aren inguruan generoarekin eta Giza Eskubideekin lotura duten jarduerak antolatu.** Ekintza honen helburua generoa GGBBetara hurbiltzea da, eta sentsibilizazio-ekintza horien zati bat Giza Eskubideen Nazioarteko Egunean gara daitezke. Ekintza hau udalerrian bertan burutu daiteke.
- **Giza Eskubideen eta generoaren inguruko sentsibilizazio-kanpainak garatu.** Ekintzaren helburua, udalerriko herritarrei generoaren eta Giza Eskubideen inguruko informazioarako eta sentsibilizazioarako ekintzak hedatzea da, eta honelako gaiak landu daitezke bertan: generoaren eta sexu-orientazioarengatik jazarpena/diskriminazioa jasatea, emakumeen aurkako indarkeria, gerrako gatazkak, ugalketa-osasuna, askatasunik eza, egoera zibila, minusbalotasuna, etab. Kanpainaren oinarritzko edukiak udalerrri askoren artean gara daitezke, eta gero udalerrri bakoitzean abian jarri.

Kanpainen garapenerako hirugarren munduko herrialdeetan proiektuak garatu dituzten pertsona edo erakundeak gonbidatu daitezke, landu nahi diren gaietan jakintzak uztartzeko.

Zerbitzuak eta Baliabideak

- **Giza Eskubideen eta generoaren gaiak landuko dituzten proiektuak finantzatzeko aukera udaleko diru-laguntzen lehiaketan txertatu.** Dagoeneko existitzen diren diru-laguntzen deialdien bitartez Giza Eskubideak eta generoa lantzen dituzten proiektuak finantzatzea da helburua.

D.

HELBURUARI LOTUTAKO EMAITZA-ADIERAZLEAK

- Giza eskubideen esparruan udalak gauzatutako edo diruz lagundutako ekintzetan genero ikuspegiaren txertatze-maila, honela neurtuta:
 - Giza Eskubideen Nazioarteko Egunean gai hauek jorratzen dituzten programen eta jardueren kopurua eta bilakaera.
 - Giza Eskubideen eta generoaren inguruko sentsibilizazio-kanpainak garatzen dituzten kanpainen kopurua.
 - Giza Eskubideen eta generoaren gaiak lantzen dituzten diruz lagundutako proiektuen kopurua eta bilakaera.